

# **EUSKERAZAINZA**

**EUSKERAREN ERRI AKADEMIA**  
**Academia Popular de la Lengua Vasca**  
**L'Academie Populaire de la Langue Basque**

LVI Zenbakia

2005n. urtea-2

**EUSKERAZAINZA.....**

**ERRIZ ERRI.....**

**ERRI-EUSKERA LANTZEN.....**

**EUSKARAZAINZA. Euskeraren Erri Akademia.**

**Z.N.A./C.I.F. G 20/127.759**

**Eusko Jaurlaritza-ren Elkarte Erroldan, 1136 zenbakia.**

**Erri Zuduzkotasunaren Aldarrikapena (BOE 45/1981 eta EE.AA. 96/1984)**

**Zuzenbideak: 1192 Posta Kutxatilla 20080 DONOSTIA**

**Colón de Larreategi, 14-2ª 48001 BILBAO**

## GURE IRAKURKEARI:

Azken zenbakian gure aldizkari au artzen dutenentzat eta adiskideentzat jarritako oar bat agertu zan, arpidedunai diru-laguntza eskatuz.

Batzuk arpidetza zenbat dan jakin nai dute eta gure erantzuna au da: oraingoz ez degu arpide-saria zeaztuteko asmorik, al degun artean naiago degu irakurleen gogo ona kontuan artu eta emaitza ematen digutenak «laguntzalle» taldera sartuko ditugu.

Gure kontuaren zenbakia au da:

KUTXA. Getaria, 9. DONOSTIA. 2101/0200/46/000668/1589.

# Laguntzalleak

**Gipuzkoako Aldundia**



**Eusko Jaurlaritz**



EUSKERAZAINTZA

I.S.B.N.: 1132-1318

Legerako Gordetza: BI-1928-87

Konponketa: Flash Composition, S.L. - Bilbao

# EUSKERAZAINTZA'REN BATZARRA

(Donostia'n 2005-12-26)



*Eskerretik eskumara: Arzelus'tar Amale, Atutxa'tar Paul, Solozabal'dar Paulin, Jose M.<sup>a</sup> San Sebastián (Latxaga), Olazar'tar Martin, Murua'tar Josemaria, Erbiti'tar Xole, Iturbe'tar Milagros*



# EUSKERAZAINZA

EUSKERAREN ERRI AKADEMIA

Academia Popular de la Lengua Vasca

L'Academie Populaire de la Langue Basque

LVI Zenbakia

2005n. urtea-2

EUSKERAZAINZA. . . . .

. . . . .

ERRIZ ERRI. . . . .

. . . . .

ERRI-EUSKERA LANTZEN. . . . .

**EUSKERAZAINZA. Euskeraren Erri Akademia.**

**Z. N. A. /C. I. F. G 20/127. 759**

**Eusko Jaurlaritzaren Elkarte Erroldan, 1136 zenbakia.**

**Erri Zuduzkotasunaren Aldarrikapena (BOE 45/1981 eta EE. AA. 96/1984)**

**Zuzenbideak: 1192 Posta Kutxatilla 20080 DONOSTIA**

**Colón de Larreategi, 14-2ª 48001 BILBAO**

## AURKIBIDEA

	Orr.
Atarikoa (Olazar´tar Martin´ek).....	5
Latiegi ta Eraso´tar Bixente (G.B.) (Olazar´tar Martin´ek) .....	6,7,8
Filosofiaren edestia (Olazar´tar Martin´ek) .....	9-54
Euskera-unitatea Napparroa´n (Xole Erbiti´k) .....	55-74
Euskal izenorde zarrak Lazarraga´n (Iker Joseba Laka Guenaga´k) .....	75-104
Euskera Napparroa´n ( Artzeluz´tar Amale`k) .....	105-114
Bertsolarien astapenak (Josemaria Murua´k) .....	115-127
Euskalerrria ta inguruko erriak (Atutxa´tar Paul´ek) .....	128-156
“Kardaberaz” jakintzaren bidetik (Josemaria Murua´k).....	156-171
Euskal lurra (Olazar´tar Martin´ek) .....	172-178
Euskal Elertia (Olazar´tar Martin´en) .....	179-204.

## Laguntzalleak

Gipuzkoako Aldundia

Eusko Jaurlaritza



EUSKERAZAINTZA

I. S. B. N. : 1132-1318

Legerako Gordetza: BI-1928-87

Konponketa: Flash Composition, S. L. - Bilbao

# ATARIKOA

Irakurle eta adiskideok, agur.

Ona emen zuen eskuetan artengo bigarrena dan gure aldizkaria. Orain artean izan diranetatik luzeena dala uste det. Orrela bear ere, aurrekoa, artengo lenengoa, naikoa laburra izan zalako.

Zuen eroapenari asti apur bat kentzen diodala, izan bekit laket idaz-lan bakoitzaren aurkezpena egitea, labor-labor ba´da ere.

Lenengo idazlanean gure lankide izan genduan Latiegi ta Eraso´tar Bixente´ren barriak emoten dizkizuegu. Utsune aundia utzi du Bixente´k gure artean eta bere lanik aundiena, Eleizearen Edestiaren Liburu-Sorta zenbaki baten bearrean utzi digu. Amaitu al izango degulakoan gaude, izan be lana geiena egiña dago eta argitaratzea peitzen zaigu, ez besterik. Zor diogu benetan, Bixente´ri gaurko gomutaki au eta askoz geiago ere bai. Eriotzeak beti uzten duan samintasunean bere senideengandik ur gaude.

Urrengo lana, pizka bat luzea, filosofiaren edestia degu. Oso gutxi idazten da gure liburu eta aldizkarietan gai oneri buruz. Bego emen au lekuko bezela. Filosofia ikasi dutenak oso pozik irakurriko dute eta ikasi ez dutenai ere ondo etorriko zaie, gai sakon oneri buruz zerbait jakiteko. Edesti osoa sartu degu, naizta asiera baten Deskartes´kin astekoko asmoa izan. Grezia´ko filosofia oiñarria da eta eskolastikari buruz esaten dena ez dala egi osoa ikusiko du laster irakurleak.

Naparroa ere ba-dakarkigu gure orrietara, naparra dan Xole Erbiti´k idatzi digun idaz lan onetan.

Naparroa´ren gaiari, baiña, beste ikuspegi batetik begiratuko dio gure Amale´k

Zorionez ezagutu degu Iker Joseba Laka Guenaga. Uste det euskerearen izen-ordeak geien eta sakonen aztertu dituan billatzaillea dala eta ez da gauza erreza izaten beronen billaketeari jarraitzea. Oraingo lan onetan Lazarraga´ren liburuan agertzen diran izen-ordeak aztertzen dauz. Lana bera erderaz idatzia izan arren, azterketa sakona errez agertzen zaigu.

Euskerazalean Alkarteak Bilbao´n urtero egiten du Euskal Astea eta azkenengo aste bietan gure Josemaria Muruak itzaldi bana egin digu eta orreik be agertzen ditugu irakurle guztien gozamenerako. Bataren gaia Bertsolarien arauak dira eta bestearena Kardaberaz Jakintza.Bazkunaren berriak. Biak zeatz eta garbi idatziak.

Atutxa´tar Paul lankideak Euskalerrriaren inguruan bizi izan diran errien goraberak aztertzen dauz, zeaztasun aundiz

Euskal lurra idazpurua ipiñi diodan lantxu bat duzute gero. Lan onetan euskerea noraiño zabaldua egoan Kristo´ren aldi-inguruan aztertzen dau. Lan onek billaketa geiago bear luke, esaterako Merino´ren liburua aurrean dala, Errioxa´ko toki-izenen azterketa edo Burgos´ko iparraldeko toki-izenena. Ba-dakigu gaztelerea lurralde onetan sortu zala, euskeraz berba egiten zan lurraldean ain zuzen, baiña toki-izenak obeto aztertu bear dira.

Eta azkenengo lana gure elertiaren edestia da, edesti laburra lan luze baten. Gure elertiaren edestia nola zatitzen dan agertu nai izan det, batez ere, eta ori argi agertzen da. Baiña idazle asko eta asko, oso onak, ezin sartu izan dira lan onetan.

Izango al da EUSKERAZAINTZA ALDIAZKARI au gure irakurleen pozera-ko eta jakintza ugaritzeko.

**Olazar'tar Martin'ek  
Zuzendariak**

# LATIEGI TA ERASO´TAR BIXENTE (+ 2005-06-27)



## GAISO-ALDIA TA ILLETEA

Lanean baiña gaisorik egoan aspaldion Bixente Latiegi gure lankide aundi ta ugaria.

Ille batzuk dirala egin eutsoen ebaiketa arriskugarri bat Gasteiz´ko Santiago Gaiso-Etxean eta ondo urten eban, baiña bere odol-bideetan, biotzetik ez ain urrin, odol-batu edo tronbo bat geratu jakon, arriskugarria, berak gaiso-etxea bertan adierazo esukun lez., batez be odol-bide orretatik biotzera urreratzen ba´zan. Eta urreratu egin jakon, antza. Aurtengo bagillaren 27n. egunean etorri jakun bere eriotzearen albiste mingarria.

Naizta gorpua aurrean izan ez, Tolosa´ko eleiza nagusian izan zan illetea urrengo egunean. Gasteiz´ko Gotzain dan Migel Asurmendi monseñora buru eta inguruan berrogei-bat abade zirala.

Mingarri izan zan gutzat Gotzain jaunak bere itzaldian aitatu be ez egitea Bixente´k eleizbarrutiaren lanbide-eskolan egin eban lan aundia, Asurmendi gotzaiña bera Salestarra izanik, batez be.

## IKASKETAK ETA GUDARITZA

Bixente´ren bizitza luzea, 86 urte il zanean, eragintsua izan da: Gasteiz´en abade-ikasketak egiten, soldaduskan teniente-maillara elduta, barriro Gasteiz´ko seminario ederrean gure aldietan eta 1949n. urtean abade.

Araba´ko erri txiki baten asi eban abadetza baiña laster deitu eutsan Ballester Gotzaiñak Gasteiz´en bertan bearrezkoa zan lan bat egiteko: Indar aundi barik lanean ziarduan eleizbarrutiaren Lan-Ikastegia suspertzea izango zan zeregin barria.

Eta egin eban Bixente´k gazteen eziketarako lan au: Ainbeste bider urreratu zan Madrid´era diru-laguntzaren billa eta len, teniente zala, ezagutu ebazan gudaiburuak izan ebazan orretan laguntzaille. Millak asko dira Gasteiz´en eta Araba´ko erritxuetan Bixente´ren eziketa-lanaren ikutua daroen gazteak, urteen joanean irakasle be izan zalako.



## **ERRI-MISIOLARI-LANA**

Beti errenka eta minberatuta, irakaskintzagaz batera lan aundia eta zabal-  
a egin eban errietan misio edo gogo-jardunen asteak emoten. Emen Biz-  
kai´ko Mungia´n be ikusi gendun lan ori egiten. Egun guztia irakaskintzan  
bete ondoren, egunero joaten zan misioik emotera errietara berebillean eta  
egun bakoitzean Gasteiz´era barrero. Mungia´tik Gasteiz´era 70km. inguru  
dasgoz

## **EUSKERAZAINTZA**

Beti izan da Bixente euskalzalea eta bizi-bizi sartuta egoan Tolosa´n ain  
lan aundia egin eban Kardaberaz taldean: Eundak idazle, abade ta laiko,  
Barandiaran eta Lekuona´gaz batera alkartzen gintzazan aldi aretan.

Baiña ez etorren Euskaltzaindiaren jokabiudeagaz batera eta Lekuona  
zuzendaritzatik ain gogorkiro kendu ebenean sutu zan bere eta beste asko-  
ren asarre ori

Eta Euskaltzaindiaren aurka agiritegi edo “expediente” bat egiteko asmoa  
artu eban Lekuona´ren bideari jarraituz. Dionisio Oñatibia lagun ebalu liburu  
bi argitaratu ebazan, lenengoa euskeraz eta bigarrena, zabalagoa, erderaz,  
Euskaltzaindiaren jokabide okerra salatzeke. Biak dira irakurri-bearrekoak.

Eta batuaren amargarren urtea zala-ta 1978n. urtean Bergara´ko Semina-  
rioan egin zan azterketa. batzarrean argi agertu eban Kardaberaz´tarren ara-  
zoa. Eta euskaltzaindia bere eritxi eta bideetan itxi egin zalako, Akademi barri  
bat sortzeko erabagia agertu gendun, Euskerazaintza, Erri-Akademia izango  
zana. Gurea barik beste bide batzuk be agertu ziran an iztillua bideratzeko,  
baiña Euskaltzaindian ez egoan iñori jaramonik egiteko gertu.

Berak egin ebazan ori lortzeko lan guztiak Madrid´en: Araudia aurkeztu,  
Ministroak onartzea lortu eta BOE´n agertu eta gizartearentzat onuragarri  
eta irabazi bageko bazkun lez onartu.. España´ko Institutoan Akademi lez  
sartzeko eskaria be egin eban, baiña andik Euskaltzaindiaren eritxia eskatu  
eben eta onek ipiñi euskuzan oztupoak.

## **ELEIZEAREN EDESTI-LIBURU SORTA**

Bein Zunzunegi´tar Jose abade jakitun eta liburu-zaleak, auxe esan  
eutson:

“Bixente! Zuk irakaskintzan asko erabilli eta sakondu dozu Eleizearen  
Edestia. Zergaitik ez dozu idazten euskeraz gai orreri buruz? Bear dozuzan  
liburu guztiak Seminario´ko liburutegiak ekarriko dautzuz!

Esan eta egin! Asi zan Bixente idazten eta benetako altxorra diran 9 libu-  
ru eder idatzi dauz, bakoitza 500 orrialde-ingurukoak eta amargarrena ta  
azkena amaitzen egoala joan jaku. Argitaratuko al da amargarren liburu au,  
lana osotzeko!

Nik birritan irakurri dodaz liburu guzti orreik, eta batzuk irarkolarako gerta-  
tu be bai, eta ez naz iñoiz aspertu irakurten.

Ona emen bederatzi liburuen idazpuruak:

- I.-Apostoluen eta Martirien denporako Eliza.
- II.-Eleizak eta estaduak bat egin zuten denporako Eliza.
- III.-San Ignazio´ren denporako Eliza.
- IV.-Denpora barrietako Eliza.
- V.-Demokraziaren denporako Eliza.
- VI.-Denpora auetako Eliza.
- VII.-Euskal kristautasunaren sorkuntza.
- VIII.-Euskal kristautasunaren sendokuntza.
- IX.-Euskal kristautasunaren zababalkuntza.

## **NARRUKIEN AZTERKETA ETA IDAZKIAK.**

Bixente´k alai eta zeatz egiten izan dauan beste lan bat erdiaroko narrukiak aztertzea izan da eta Euskerazaintza aldizkarian argitaratu doguz lan orreik.

Donemiliane´koak, Balpuesta´koak eta Pina´ko Donibane´koak izan dira eta liburu zar orreitan euskal-izenak batez be agertu dauz.

ZER aldizkarian aspaldion idatz-arlo bi euki dauz artuta: "Euskaleritik mundura begira" eta Erdiaroko ibiltariak Euskalerrian zear"

Lan aundia egin eban Diario de Navarra"ko orri euskaldunean be, baiña azkenean ankaz gora bota ebela diño berak.

Euskalerrriaren lagunzen taldeak eskatuta beste liburu batzuk be argitaratu dauz eta oneik be asko zabaldu dira.

Eskerrak Bixente´ri lan aundi orreikaitik eta betiko atsedena izan dagiala.

**Olazar´tar Martin´ek**

# FILOSOFIA

Iru zatitan eta iru liburutan agertzen dausku “Palabra” argitaletxeak, oso jakingarria dan filosofiaren edestia. Liburu oneik irakurriz, zerbait idatziko dot gure irakurleentzat onuragarri, pozgarri eta argigarri izango dalakoan. Ez naz sakontasun aundietara sartuko, filosofirik ikasi ez dabenak be ulertu dagien, baiña filosofia ikasi dabenentzat oso atsegingarri izango dirala uste dot idazlan oneik.

Lenengo zati edo liburua Goñi eta Zubieta´tar Karlos´ek idatzia da. Jakintun au Bartzelona´ko Ikastetxe Nagusian egin jakun Filosafiaren dotore eta gaur irakasle dogu, baiña ainbat liburu be idatzi dauskuz. Eskuetan dakagun au errez irakurtekoa eta argitsua da.

\*\*\*

Filosofiak edo gizakien pentsakera sakonak edesti luzea dauka, jakituria- ren billa dabiltzanak egin daben edestia.

Asieran mitoak ziran gizakien ago-miñean ebiltzanak eta mitoen bide ori izan da zabalena sortaldean baiña ori lenengo liburu onen azkenean azter- ten dau idazleak.

Sortaldean, ostera, mitoak itzi eta azterketara sartu zan gizakien pentsa- bidea eta ortik sortu da filosofia. Mileto´on asi dala esan geinke, Tales lenen- goa dala.

Filosofiaren gorengo maillan Platon eta Aristoteles aurkitzen doguz, neure ustez Aristoteles egokiagoa, eta pentsalari sakon orrein ondoren datoz filo- sofiaaren aurrerapena eta arlo barriak.

\*\*\*

Lenengo filosofilariai “Sokrates´en aurrekoa” edo pre-sokratikoak deritxe- gu eta onein artean lenengoak Mileto´n aurkitzen doguz: Tales, Anaximandro eta Anaximenes eta irurak billatzen dabe munduaren jatorria eta ortik dato- rrela diñoie izadi osoa.

Mileto´ko Tales K.a.´ko 640n. urtean jaio zan eta Grezia´ko zazpi jakitunen artekoa dogu. Izen aundia artu eban bere sasoiari izan zan eklipse bat aurre- tiaz iragarri ebanean. Beretzat gauza guztien jatorria ura da. Anaximan- dro´rentzat danaren jatorria “apeiron” da, ortik sortu da eta orra biurtuko da dana. Anaximenes´entzat aizea da gauza guztien jatorria.

\*\*\*

Mileto´tarren ostean Pitagoras eta onen eskolakoak etorri ziran K.a. 570n. urtean jaio zan Pitagoras. Bera izan ei zan “filosofo” edo “jakin-zale” izena lenengo artu ebana. Oneik mundo osoari “kosmos” esaten dautsoe eta kos- mos orretan dagon egokitasuna zenbakietatik eta neurrietatik datoz eta ortik sortzen zan izadiaren doiñu ona edo armonia, zeruko musikea.

\*\*\*

Sokrates´en aurreko jakin-zale edo filosofoen artean beste talde bi aiatu bear doguz Elea urian, bata Eraklito´rena eta bestea Parmenides´ena. Biak alkarren aurka dagoz: Eraklito´rentzat ezer ez dago geldi, dana dabil ibillian. Parmenides´entzat, ostera ezer ez da mobitzen, dana dago geldi.

Eraklito´k "logos" berbea asmau eban, gizaldiak geroago be sarritan entzungo dan berbea. Kosmos´en barruan dagon "errazoia" edo buru argia da ori.

Parmenides´en dana geldi egon-bearra baieztatzeko, ospetsuak dira Elea´ko Zenon´en Aporiak eta urten-eziñak: Akiles ibiltari bizkorrak ez dau iñoz atzean itziko aurrean joakon dortokea, lenengo biderik erdia egin bear-ko daualako, gero erdi onen erdia eta orrelan muga barik...

\*\*\*

Urrengo Grezia´ko atomistak datoz, Leuzipo eta Demokrito.

Oneintzat mundua sortzen dabenak kisi txikiak dira, atomoak. Txiki-txikiak eta asko be asko dira, ezin genkez ez ikusi eta ez zomatu, baiña onein bitartean uts-uneak dagoz. Mundua beti izan da atomoen aldakuntzakaz barriztazen da. Barriztatze au ez dau iñok diberatzen, aduak baiño.

Aldi orretakoa da Anaxagoras, K.a. 500n urtean jaioa. Onentzat danaren gaiñetik mundua zaintzen dauan buru argi bat dago eta buru argi ori izakietara sartzen da, toki guztietan dagozan azi buru-argien bidez.

\*\*\*

Jakitun onein bidez jakinzaletasunak edo filosofiak aurrerapen aundia egin eban Grezia´n, baiña illun-une bat dator orain, sofisten aldia. Oneik jakituria saldu egiten dabe eta orretarako izadiaren azterketa itzi eta berba-lapiko biurtu ziran diru-truke, baiña laster agertuko da Grezia´n benetako jakin-zalea eta filosofoen irakasle izango da, Sokrates.

## **GAILLURRA: SOKRATES, PLATON ETA ARISTOTELES**

Filosofia guztiaren gaillura, Grezia´ko iru filosofok osotzen dabe: Sokrates, Platon eta Aristoteles´ek. Arrezkeroko filosofi guztiak orrein irakatsien oiñean ezarten diran oarrak dirala dirudi.

...

Sokrates K.a.´ko V gizaldian jaio zan, Perikles´en aldian., 470n. urte inguruan. Ez eban ezer be idatzi eta sinistebakoa zalakoan, Melitos´en salakuntza kontuan artuta, eriotzarako epaia emon eutsoen. Ber-berak edan eban zikuta edari ilgarria. Eriotzearen ostean betiko zoriona egoala itxaroten eban

Bere irakasbidea galderak egin eta artzen ebazan erantzuna osotzea zan, maieutika edo itaunketa deritxo irakasbide oneri.

Ezer idatzi ez ba´eban, nondik jakin zein zan bere irakatsia?

Platon bere ikaslearen "Alkar-izketak" dira biderik ziurrena, baiña alkarizketarik zarrenak, antza dagoanez, zintzo agertzen dabe irakaslearen pentsaerea, azkenengoak, ostera geiago dira Platon beraren eritxiak.

Sokrates´en lanik biziena bere aurretiko sofisten eritxiak alboratzea da.

Alkar-izketetan lenengo izeka edo ironía agertzen da itaunean bertan, gero eztabaidatzea dator eta irugarren ekiñaldian egia agertzea

Irakatsi guztien oiñarrian arimea dago eta arima orretan dago egi osoa, alkar-izketaz agertzen dan egia. Eta or dagoz, baita, jokabiderako arau zuzenak.

Orretarako Buru argia daukagu, bakoitxarena eta guztiena dana. Ori da zorionsunerako bidea eta ori berori da Jainkoa. Ontasuna ta jakituria bat dira. Jainkoa norkia eta munduaren laguntzaillea da, baiña buru-argitasuna bera.

Sokrates´en eskolakoak dira Zinikuak, tiñakuan bizi zan Diogenes buru dala, baita Zirene´tarrak be, zentzunen lagunak eta atsegin-billatzaileak.

...

Baiña Sokrates aundiaren jarratzaille zintzoa Platon izan zan. Onek Akademia eritxon irakas-lekua aurkitu eban, Akademos eritxon atenastarraren eleizatxua ta baratza.

Bere irakatsiak ez ebazan katalogatu, gero Aristoteles´ek egingo duan lez. Bere irakatsiak alkar-izketetan aurkitu bear dira an-or-emen. Orrelan bere maixuaren maieutika edo itaunketa jarraitu eban irakasbide lez, baiña irakatsi asko ez dira Sokrates´enak, bereak baiño.

Platon´en irakatsirik arrigarriena eta gero Aristoteles´ek alboratuko dauana auxe da: Burubideak edo ideak beste munduan dagozela eta ortik arima bakoitxera sartu dirala. Gero ez da egiten besterik an dagon jakituria agertu baiño, or dago zentzunen bide illuna eta arimearen argitasuna. Gorengo dagon burubidea ontasunarena da, ori da burubide nagusia eta jainkoa dan Demiurgoak ango ideak emen iluntasunean ezarri dauz gero buru argian dagozan ideak azaltzeko, ikastea arimako ideak gogoratzea da, emengo gerizen laguntzaz

Arimea il-eziña da Platon´entzat eta betiko ideen bidez etikarako ta politikarako jokabideak aurkitzen dauz.

Laterriak edo jaurketak iru mailla daukaz Agindu bear daben buru-argiak edo filosofoak, euren ondoan dagozen zaintzailleak eta danari eutsi bear dauksen esku-langilleak eta lurgiñak. Orregaitik agintariak ez dira aukeratu bear demokraziaren bidez, izadiak berak daukaz aukeratuta.

Ertilarien aurka agertzen da Platon eta oneik gizartetik bota egin bear dirala diño, euren lanak egiaren antzekoa diran gauzen antzak baiño ez diralako

...

Baiña goazen Akino´tar Tomas´ek filosofoa esten dautson Aristoteles aztertzeraz.

Platon´en ikaslea da eta bide orretatik Sokrates´en ikaslea be bai.

K.a.´ko 384n. urte inguruan jaio zan Estajira errian. Amazortzi urtekoa zala sartu zan Platon´en Akademira. Geri Alejandro Aundiaren irakasle ta ezitzaile izatera eldu zan.

Atenas´en Lizeon eritxon baso bat erosi eban eta an irakasten eban ibilten ebillala, orregaitik deritxo peripatetiko eta inguru-ibiltaria. Lizeoak Akademiak baiño ospe aundiagoa lortu eban.

Bere irakatsiak ez dagoz an-or-emen, liburu egokietan eta bakoitxa bere

lekuan baiño:Lojika-liburuak edo organo, 14 liburu dira;fisika-liburuak 43 liburu; lenengo filosofia, 14 liburu; etika eta politika, 19 liburu;edertasunari buruzkoak, 5 liburu.

Aristoteles´ek ez dau onartzen gauzak zer diran agertzeko Platon´en bidea, gauzen izatasuna beste mundu baten ez dagoalako, emen geure aurreko munduan baiño.

Lojika edo Organon´ek oiñarri lez kategoriak daukoz, itza lenengo kontuan artuta, gero esaldiak datoz.Esaldiak alkartu egiten dira, aztertuta, eta silogismoa sortzen dabe, baiña beste azterbide bat dago zientzia osotzeko, idea orokorrak edo unibersalak bear dira orretarako eta ori alboratze edo abstrakzioagaz lortzen da.

Aristoteles´en azterbiderik sakonena “ilemorfismo” edo gaia ta betetzea alkartzea da eta orren oiñarria almena edo potentzia eta akto edo betetzea dira. Eta azkenean lenengo betetzaillea edo “motor inmovil” eskatzen dau eta ori Aristoteles´entzat Jainkoa da.

Metafisika´n, Aristoteles ulertzeko ondo bereiztu bear dira gaa eta gaiñeratuak, suztantzia ta akzidentekak.

Aristoteles´ek zeatz aztertu eban Platon´en ideen mundua eta ideen mundu ikusi-ezin ori oso-osoan ukatu eban: Dana dator aurrean daukaguzan gauzetatik eta gure adimen egillea da ideak sorzten dauzana.

Arimea zer dan azaltzeko bere eragiña egiten daben gauzak, biziak, eta ori ez daukenak dakaz gogora.Biziak arimea dauke, eta izakia zelakoa dan, iru mailla euki daukez arima onek:bizia bera, zentzunak, adimena.

Jakitun onen idazkien artean garrantzi aundi bat dauke etikari ta politikari dagokiozanak

Politika-arloan bere bizitza larria agertzen da idazkietan:Gizona politikarako egiña dan aberea da eta polis edo uria da eginbear ori beteko lekua, askatasuna dauken gizakien bizi-lekua.

Zelan jaurri edo gobernatu uria, polis?

Gobernatzailleak jakitunenak izan bear dabe eta erarik onena erregetza da. Urrengo dator aristokrazia edo jakitun taldeen gobernua eta irugarren mailla demokrazia edo askoren gobernua..

Jaurkera guzti orreik onak dira, baiña guztiak usteldu leikez eta erregearen ordeztiranoa agertzen da, aristokraziaren ordezt oligarkia okerra, eta demokraziaren lekuan demagogia gorrotagarria..

Ezelan be ezin leikela onartu, diño, Platon´en komunismoa, sendiak eta banakakoak onartzen ez dauzalako.

...

Zori txarrez Platon´ek eta Aristoteles´ek lortu eben goi.mailla au beingoan jausi zan eta Aristoteles ez zan gizartean agertu Abizena ta Aberroes arabiarrek Europa´ra ekarri arte.Ortik artu eban akinotarrak. Eta Platon´en ideak izan ebazan jarraitzailleak Agustín deunaren aldira arte eta ikasle kaskarrak izan ziran.

...

Filosofo aundi orreik ia aitzuta geratu ziranean, beste eskolabide batzuk agertu ziran.Ona emen labur-labur:

Epikurotarrak, atsegiñaren eta bizitza zoriotsuaren billa ebiltzanak; estoa-tarrak, bizitza baketsuaren billa ebiltzanak, Seneka ta Marko Aurelio enperadorea nagusi dirala; eszeptiko edo zalantzariak, eta azkenean filosofi-batzailleak edo eklektikuak onein artean Erroma´ko Zizeron buru dala.

Platon´ek goraldia izan eban Platon-zale barrien aldiAN ALaxandria´ko Filon eta Plotino nagusi dirala eta ortik artu eben jakituria Eleizearen guraso zar askok, batez be Agustin Deunak

Eta Erroma´ko filosofiaren azken lez, Boezio daukagu:525n. urtean il zan au espetxean eta beronen liburik onena, espetxean idatzia, "Filosofia´ren kontzelua" izan zan.

...

Idatz-zati au amaitzeko, esan dagigun filosofi guzti ori sartaldeko pentsaerak izan dirala, baiña zer? Sortaldeko gizakiak ez eben pentsatzen?

Bai, baiña beste bide bat artu eben sortaldean, mitoen bideak, eta au itzi barik jarraitu eben jakituria ta erlejiñoa bat eginda.

Or daukagu Buda jakituna, ardurak alboratu eta barruko bakea lortzeko bideak irakatsi ebazana, "nirbana" edo zoriontasun osoa eskuratzeko bidea edo bardin dana, arimak munduan batetik bestera ibilli barik, el-mugara eltzeko bidea agertu ebana.

Or daukagu Konfuzio jakituna, eta oro Pertsia´ko erlejiñoa bideratu eban Zoroastro edo Zaratustra, onaren iturria dan Ormuz Jainkoa eta txarraren aturri da Ariman iragarri ebazana eta manikeiskeriaren bidez Agustin Santua-ren bizitzara be eldu zana.

Beste pentsaera eta biziera bat sortaldeko au!

## ESKOLASTIKA GOI-MAILLARA

### 3.– ERDI-AROA: ESKOLASTIKA

Sarritan esan da erdi-aroa milla urteko illunaldia dala, baiña gau luze orretan be izarrak agiri dira.

Erdi-aro osoan filosofia da teolojia alkartuta dabiltz, Abraam´en ondorengo diran iur erlejiñoetan. Grezia eta Erroma ostendu ziranetik aurrera asten da aldi au.

Aldi luze onen asierea illuna da, baiña eskolastika aurrera doan neurrian filosofi-mailla on bat lortzen da.

Eskolastikak lau aldi daukaz: sorkuntza (IV-VI) gizaldietan, azkuntza (XII gizaldian) urre-aldia (XIII´ean) eta beerakuntza (XIV´ean).

### ESKOLASTIKA-AURREA

Aldi onetan ez dago goi-maillako filosoforik, azkenengo erromatarra izan zan Boezio joan zan ezkerero.

Lenengo filosofoak Kasiodoro ta Sebilla´ko Isidoro santua dira eta Bretaña´n Beda santua.

Kasiodoro (481) Boezio bere maixuaren jarraitzaille da eta lekeideen artean ikasle eta idazle sutsua izan zan. Bere libururik ospetsuena "Jainkoa-

ri eta erritarrai buruz jakituri-astarrenak". Or agertzen dau "Trivium" (gramatika, retorika ta diaalektika) eta "cuadrivium" (Aritmetika, geometria, astronomia eta musika) gizaldietan iraungo dauan ikasbidea.

Sebilla'ko Isidoro (560) idazle ugaria da eta teologija, liturjia eta biblia dira bere gai nagusiak, baiña edestia be bere arloa dau. Etomolojiak deritxon bere ogei liburutan jakituri osoa agertzen dau, baiña aztertzen dauzan itzen jatorrietatik geienak oker dagoz.

Bretaña'n dago beste filosofo iturri bat Beda santua (674) buru dala, onek be jakituri osoa agertzen dau bere liburuetan.

Eskolastikaren sortze-aldi onetan ezarri bear da Karlomagno'ren aldia. Onek alegindu aundia egin eban ain urri ebillen jakintza edo kulturea zabalzen eta orretarako jauregian, parroketan, monastegietan katedraletan eta abr. ikastegiak jarri ebazan, guztietan ospetsuena Akisgran'en ikastetxea.

Alkuino (725) eta Rabano Mauro (784) izan ebazan orretan laguntzaille.

IX. gizaldian oso ezaguna eta urrengo filosofo askoren maixua dogu Juan Eskoto Eriujena (810). Onek izadia aztertuz, panteismo edo dana-jainko elburu okerrera joten dau.

Sasoi onetan asten dira burubide orokor edo unibersalen arazoa aztertzen eta azterketa onek gizaldietan iraungo da. Ona emen arazoa: Gauzak bakarririk dira, esaterako aurrean daukagun txakurra, zelan agertzen da txakur guztientzat balio dauan burubidea? Arazoa aurrerago agertu zaqn, gogoratu Porfirio'ren zugatza (232), baiña XII gizaldira arte ez da argitzen.

## ESKOLASTIKAREN SORKUNTZA

Orain-artean fedea ta buru argia batera ibilli dira, baiña emen asten dira bareizten, San Pedro Damiano aurrerengo dala (1007) eta bera da orretan maixu, San Agustin'eri jarraituz.

Aldi aretako filosoforik argiena Anselmo santua izan zan (1033) Kanterburri'ko gogi-gotzaiña, eskolastika'ren aita deritxona.

Jainkoa ba-dagoala agertzeko lau zio dakaz eta bosgarren bat ontolojioa deritxon zioa ezartzen dau onelan: Jainkoa izan leiteken izakirik bikaiñena da, baiña Jainkorik ez ba'lego, izaki bikaiñago bat legoke, ba-dagoan Jainkoa, orduan bikiñena dalako, Jainkoa ba-dago. Eztabaida asko sortu eban bizaldietan zio onek.

## ESKOLASTIKAREN AZKUNTZA

Azkuntza-aldi onen oiñarrian "Zister"tarrak deritxen lekaideak dagoz eta euren artean aurrerengo, ikaslea daben Bernardo deuna (1112).

Bernardo deunak be San Agustin'eri jarraitzen dautso Platon'en bidetik, baiña jaio bako burubideen asmakizuna ez dau onartzen.

Ondoren eskola ospetsu bi dagoz: San Biktor eta Chartres, lekaide-etxe ospetsuak. San Biktor'eko Ugo filosofo, teologo eta mistiku aundia izan zan, au be San Agustin'en jarraitzaillea eta Platon-zale barrien bidekoa. Abstrakziñoa edo kenketa artzen dau burubide orokorren edo unibersalen arazoa argitzeko eta arlo bi agiri dira bere filosofi-liburuetan: burubide utsezko filosofia eta jokabiderakoa.

Ez dau onartzen Anselmo deunaren bide ontolojioa Jainkoagana eltzeko, bai ostera bere lau bideak.



San Biktor'eko Rikardo da eskola onetan teologo ta mistiku ezaguna.

Chartres'eko eskolea 990n. urtean asi zan eta oneik dira berezitasunak: "Quadrivium" artzen dabe geiago "trivium" baiño, geien matematikak eta astronomia edo izar-iztia, giza arazoen bidera be sartzen dira eta filosofiaren bidean platonzaleak dira, burubide jaiogabeak edo "ideas innatas" kenduta. Aristoteles'en lojika be artzen dabe. Burubide orokorrak edo unibertsalak argitzeko, Porfirio'ren zugatza kontuan dabela eta Boezio aitzu barik diardue.

Ainbat filosofo eta argiak dira eskola onetakoak. Ez aitzu Aristoteles'en pentsabide batzuk be eldu jakezala, zelan edo alan.

Pedro Abelardo (XII): Irakasle ospetsua eta Eloisa'gaz maiteminduta ageritzen dana. Bera abat izatera eldu zan eta Eloisa be bai abateme izatera, baiña kontzilioetan kondenatua izan zan eta lekeide-etxetik be bota egin eben. Damututa il zan.

(17n orrialdean jarraitzen dau)

Oso gizon artoa zan eta gauza guztietan "sic" eta "non" begiraten eban. Onegandik artu eban Akino'ko Tomas deunak azterbide ori: "Videtur quod non..." "videtur quod sic..." da gaiak aztertze bidea.

Burubide orokor edo unibersalai be urtenbidea emon eutsen, gauzabide edo "realismo" nasai baten: Ez dira izen utsak, ez dira gauza utsak, berbea ta gauzea bereiztu egin bear dira kenketa edo abstrakziñoaren bidez.

Onen aldian asi ziran irakasleak "summa" k argitaratzen, gero Tomas Deunak be bai bere "Summa Theologica" idatziko dau. 1200 liburu dagoz era orretara osotuak.

Pedro Lombardo: Onek "summa" eritxen liburuen parean "Liber sententiarum" sortu eban eta izen au daroan beronen liburua ikastetxe Nagusi guztietan irabilten zan, beste irakasle askoren artean Akino'ko Tomas Santuak eta Bonabentura Santuak. Eta liburu ori aurrean euki eben Letran'go Kontzilioan eta Trento'koan.

Pedro Lombardo Paris'ko Gotzain izatera eldu zan.

Eta arlo au amaitzeko, eskolastikaren parean Sem'darren filosofiak aitatu bear doguz, arabiarrenak eda judutarrenak.

Arabiarren artean ospetsuenak Abizena eta Aberroes dira. Oneik euki eben eskuetan Aristoteles'ek idatzia dana eta euren bidez eldu ziran liburu orreik Akino'ko Tomas'en eskuetara orrek bideratuta Eskolastika osotasunera eldu arte.

Judatarren artean Abizebron eta Maimonides dira ospetsuenak.

Emen izten dogu eskolastika, goi-maillara eltze egoera egokian.

## ESKOLASTIKA GORENGO MAILLAN

Amairugarren gizaldia izan zan eskolastikoen filosofiaren gorengo maillea ikusi ebana, Averroes'en eskolan asi, Frantziskotarren eskola biakaz jarraitu, Oxford'eko Ikastetxe Nagusia be kontuan dala eta Txomindarren edo dominikuen giroa eldutasunean dagoala.

Gero eskolastikearen bera-aldia asten da nominalismoagaz eta mistikuen bide okerrakaz.

## ISLANDARRAK ETA JUDATARRAK

Eskolastikaren atean, Sem´darrak aurkitzen doguz aurrelari, batez be Abizena, Averroes eta Mamonides.

Musulmanak edo islandarrak, Maoma´ ren itzaldiak entzun ebezanetik jakintza-arlo sendo bat sortu eben, batez Andaluzia-aldean.

Abizena (980) osagille ospetsu bat izan zan eta asko idatzi eban lenengo osagille-arloan eta gero filosofi-arloan eta Platon´en bidea artu arren, alegin osoa egiten dau Aristoteles´en irakatsiak artzen. Burubide orokorren edo unibersalen arazoa aztertzen dau eta metafisika “ente” edo danaren jakituri lez artuta onen izatea zer dan itauntzen dau. Gauzak Jainkoagandik datoz iturritik ura lez (emanaziñoa) eta adimena da azkenengo etorri dan ura. Monismoa da ba Abizena´ren ulerbidea.

Andaluzia´ko arabeen artean Averroes (1126) dogu nagusi, beronek eza-gutu ebalako lenengoz erdi-arloan Aristoteles eta beronen bidez eldu zan Akiño-tarragana.

Averroes´ek asko idatzi eban, filosofi, teoloji, osagilletza, eskubide-arloa eta izar-iztia gai lez artuta, baiña gutzat garrantzizkoenak dira berak Aristoteles´en lanai egindako iru azalpenak. Nai dauana Aristoteles´en lanak garbitzea da barruan daroazan platonkeriak kenduta, baiña ez eban lortu emanatismoa eta Jainkoa bera gauzen iturri artzea, azken baten panteismoarako bidea: Jainkoak betikotasunean egin eban mundua eta orain ezin leike aldatu bere lana. Adimena munduan bakarra da, Jainkoagaz bat da gurea dogun adimena.

Judatarren artean filosofo nagusia gure erdi-ugarte onetan Ben Gabirol edo Abizebron dogu (1020): Platonkeri barriaren barru-barruan dago: Mundua ez da besterik Jainkoagan diran burubideak izadira sartzea baiño.

Urrengoa Judatarren artean Maimonides (1135) dogu: Onek be danaren ostean Jainkoa bera ipinten dau, baiña mundua denporearen barruan egiña dala diño, ez betidanik. Emanatismoa da ba bere filosofia.

\* \* \*

Arabiar eta Judatar dira jakitun aundi orrek oiñarrian dirala eta onein oiñarrian Platon eta Aristoteles dirala sortzen da erdi-aroko filosofi nagusia. Eskolastika eta XIII gizaldian eldu dira irakasbide onen eskolak gorengo maillara.

Goi-mailla ori lortzeko laguntzak bi oneik izan ziran: Ikastetxe Nagusiak, lekaide eskaleak.

Jokera bi agiri dira argi: Bata Platon´egandik dator, bidean Augustin deuna dauala, Bonabentura deunagana eta bestea Aristoteles´gandik Averroes bidean dala, Akiño´ko Tomas deunagana. Ez zan gauza erreza izan Aristoteles Erdi-arloan onartua izatea.

\* \* \*

Asi gaitazan Frantziskotarren edo Buenabentura deunaren eskolea azaltzen

Beste eritxi asko inguruan aurkitu arren frantziskotarrak Augustin deuna artu eben eredu lez eta noizean bein sartzen dabez inguruan bizi-bizi dagozen beste eritxi batzuk.

Buenaventura deuna (1221) Fidantza´ko Juan izenez, irakasle ospetsua izan zan baiña irakaskintza itzi eban ogeita amasei urtekoa zala bere ordenako nagusi izendatu ebelako, eta idazten jarraitu eban 1274n. urtean, Lion´ko Eleiz-Batzar Nagusian il arte, kardinal zala.

Irakasle laikoak fraille eskaleen aurka burruka egiten asi ziran, eta Buena-bentura santua izan eben eskaleak aldeko.

Jainkoa ba-dagoala baieztatzeko zioen artean onartzen dau Antselmo deunaren argudio ospetsua.

Buruan jaiogabeko burubideak dagozala be onartzen dau, platonkeriaren bidean.

Bere metafisikan iru gai dira nagusi: mundugintza, mundua egiteko Jainkoagan dagozan ereduak eta munduaren azken-elburua.

Munduak ez dauka betikotasunik eta onetan gogor jokatzen dau Mundua betikoa dala diñoan Aristoteles´en eritxiaren aurka, Platon´eri jarraituz.

Mundua ezagutzeko bide bi ikusten dauz: zentzunak be-maillan eta adimena goi-maillarako, eta lenengo ezaubidean Aristoteles´egaz dago eta bigarreanean Platon´egaz edo San Augustin´egaz.

Azalpen baragarriak daukaz edestia zatitzean eta Irutasun Santua eredu dala.

\* \* \*

Frantziskotarrak, San Buenabentura´ren ondoren euren eskoleagaz jarraitzen dabe, eskola barri onen buru Juan Duns Eskoto dala.

Onek Oxford´en eta Canbridge´n eta Paris´en ikasi eban eta toki orreitan azaldu eban Pedro Lonbardo´ren Sententzi-liburua eta 1301n. urtean Paris´en daukagu irakasle. Baiña VIII Bonifazio Aita Santuaren alde agertu zalako, erbesterratu egin eben. Etxeratu eta laster 1307n. urtean il zan 43 urtekoa zala.

Irakasle zorrotza (subtilis) esaten jako Eskoto´ri, Andra Mari-zalea be bai Sorkunde garbiaren alde zio au agertu ebalako: "Potuit, decuit ergo fecit", Jainkoak al eban gauza zan sorkunde garbia, egitea ondo egoan gauzea zan, orduan egin eban.

Frantziskotarren bigarren eskola onek onartzen dau Aristoteles, lenengo eskoleak baiño askoz geiago, baiña ez tomastarren erara, naiago dabe Abizena´ren bidea. Edo Augustin deunarena. Orregaitik esaten da Eskoto´k asten dauala Eskolastika´ran beera bidea.

Ezagutzeko bidean, era bi daukaz Eskoto´k, intuiziñoarena ta kenketa edo abstrakziñoarena. Intuiziñoz ez dogu ezagutzen Jainkoa eta ez beste izakiak be, emen bide bakarra kenketa edo abstrakziñoa dogu. Ez dau onartzen Jainkoagana eltzekon Anselmo deunaren bidea.

Mundugintzarako platondarren ereduak onartzen dauz eta Jainkoak askatasunaz dakaz izakiak mundura eredu orreik artuta.

Eskoto´ren jarraitzaileak bide barri bat zabaldu eben, nominalisten edo Ockhan´en bidea.

\* \* \*

Eskola aundi bi onen biartetan, eta Txomindarren eskolea aztertzeraz sartu baiño lenago, zerbait esan dagigun Oxford´eko eskoleari buruz. Anglاندarren eskolea da au.

Ikastetxe Nagusi onen bide bereizi bat eukan asieratik, es Paris´koaren lakoa.

Irakasle oneik ez dabe onartzen Aristoteles´en bidea eta ez Platon´ena be, antxiñatik datorren eskolastika da euren bidea.

Roberto Grosseteste (1175) da irakasle nagusia: Ezagumen ziurrenak matematikarenak dira eta eurak dira izadia ulertzeko bide bakarra. Jainkoa da argi bakarra gauzak ulertzeko eta diran gauzak bere ereduen egiketaz dira.

Roger Bakon (1210) izan zan bere jarraitzailea, frantziskotarra. Paris´en izan zan irakasle baiña gotzaiñak kondenatu egin ebazan bere 219 tesisak eta iges egin bear izan eban. Ordenako nagusiak be kondenatu eta espetxe-ratu egin eban.

Berak bere aldetik bere denporako irakasle guztiak kondekatu ebazan, “txomindarren mutiko biakaz” (Tomas deuna ta Alberto deuna) asita.

Ezagutzea zentzunetatik asten da, baiña gero Jainkoak argitzen dau.

\* \* \*

Baiña goazen Eskolastikaren goi-mailla dan Txomindarren eskolara eta emen aurkituko doguz lenengo ta bein Alberto Magno eta Akino´ko Tomas beronen ikaslea.

Alberto Magno giza-iztian Aristoteles´en jarraitzailea da, arima errazoiduna da gorputzaren forma bakarra. Eta ezagutzeko bidean be osoan onartzen dau Aristoteles´en kenketa edo abstrakziño-bidea. Baiña zalantzak agertzen dauz Anselmo deunaren argumentua onartzeko. Metafisika´n platontasun barriaren bidea jarraitzen dau.

\* \* \*

Baiña Grezia´n Platon eta Aristoteles gallurra ziran lez bigarren gaillurra, Erdi-Aroan, San Buenabentura ta Akino´ko Santo Tomas dira.

Aztertu daigun Santo Tomas.

Akino´n jaio zan (1225): 1247n. urtean joan zan Paris´era Alberto Magno´ren ikasle izatera. Laster egin eben irakasle eta lan asko idatzi ebazan, Pedro Lonbardo´ren Sententzi-liburuen azalpenagaz asita.

Ez eutsen baketan izten irakasle laikoak.

Bere burubideetan Aristoteles da garrantzi aundiko pentsalaria, baiña bera gorago doa, fedea eskatuta. San Augustin eta Platon be ez dauz osoan baztertzen, baiña ezagutzeko asierea zentzunak dira, jarraitzeko kenketa edo abstrakziñoa.

Filosofia zatitzeko bidea, izadiarena, buruarena, jokabideena dira. Ortik lau zati: burubideena, izadiaren, metafisikarena eta jokabideena.

Kenketa edo abstrakziñoa egikeran be iru mailla jarten dau, Beozio´ri jarraituz: Fisika, matematika eta metafisika.

Gure adimena aztertzen dau, baiña ez ezelan be adimendun gutiak dauken bakarra eta Jainkoagaz bat eginda.

Oso-osoan alboratzen dauz Platon´en idea-ereduak.

Jaikoagana eltzeko bost bideak azaltzen dauz eta ez dau onartzen Anselmo deunaren bidea. Iru elbide dira egillea bear izatea, binkaintasunaren maillak eta neurriak kentzea. Jainkoari gauza batzuk analojiz ezartzen jakoz, bizia esaterako, beste batzuk osterira irudi lez baiño ez esatera aitzia izatea.

Txarraren arloak be garrantzia dauko Akino´ko Tomas´en irakatsietan, kataroen aldian bizi zalako: Txarra ez da besterik onaren muga baiño. Au San Augustin´egandik artua dau.

Akiño´ko Tomas´ek arerio asko izan ebazan, baiña bere irakatsiak, gauza barriak izanik, arin zabaldu ziran. XXII Juan Santuak kanonizatu egin eban (1323) eta or alboratu ziran arerio guztiak

\* \* \*

XIV gizaldian asi zan Eskolastikaren beerakadea. Avignon´go Aita Santuakaz eta Sartalde´ko zisma aregaz, eleiz-giroa bera ba galdu zalako.

Or agertu zan Durando txomindarra eta batez be Ockhan nominalistea. Au laster artu eben aurrean bere denporan eta erbestera bialdu, baiña berau da fisofi barriaren asierea.

Filosofoen ostein mistikuak etorri ziran: Eckhart eta Ruysbroeck batez be.

Amaitu da eskolastikea baiña altxor aundi bat geratzen da errian ber-jaiotza sortzeko

## **NIKOLAS MALEBRANTXE (1638-1715)**

Paris´en jaio eta Felipe Neri deunaren Oratoriokoa izan zan, Berulle kardinalagaz batera. Antxe ezagutu ebazan San Augustin´en eta Deskartes´en filosofiak. 1664n. urtean egin zan abade.

Bitartean Paskal itzita, barriro sartzen gara Buru-argiaren bidera, baiña kristautasun zintzoa dauan abade bategaz.

Malebrantxe´k filosofi kristiñaua nai dau ba agertu, fedea eta burubide argiak bide dirala.

Aristoteles´en bidearen aurka dago eta bere ustes Deskartes´ek ogeta amar urtean egi geiago aurkitu eban beste filosofo guztiak edesti osoan baiño. Teolojian antxiñakoa artu bear dogu, filosofian gauza barriak. Dana onartu bear dogu zalantzarako biderik ez dagoanean.

Nondik sortzen dira burubide edo ideak Malebrantxe´rentzat? Emen Deskartes´en bidea bera artzen dau eta burubide argi eta ziurak dira ezagutzeko bide bakarra. Zentzunak onak dira baiña ez ideak sortzeko bide lez.. Somatzen dogun beroa ez dago or kanpoan, geure barruan baiño. Orregaitik kanpoko izakiak ezagutzeko ez dogu joan bear kanpora geure zentzunakaz, irudimena isilduazo egin bear dogu. Bidea ez da Aristoteles´en zentzunbidea, eta ez Platon´en burubide adimenean jaiok be.

Lau era daukaguz gauzak ezagutzeko: gauzak eurak Jainkoa an dagoalako, ideak daukaguz bide lez eta oneik euren zertasuna dauke Jainkoagan, idea orreik geure buruan dagoz eta geure kontzientziagaz ezagutzen doguz, bizi-ikasiaz, eksperimentiaz dira eta ideak alkarregaz konparatzen doguzanean ezagutu eginen dogu ustea eurretan ipinten dogulako.

Jainkoa zuzen eta idea barik ezagutzen dogu. Baiña nondik datoz ideak eta zer dira? Augustin deunak irakatsi eban lez, ideak betikoak dira, bearrezkoak dira eta zertasuna dauke eurengan. Ez dauz sortzen gure gogoak, ez doguz aurkitzen asieratik bertan jaiota, ez doguz lortzen Aristoteles´en kendetaren bidez, guk ideak Jainkoagan ikusten doguz, Jainkoagan ikusten dau gure gogoak Jainkoak egin dauana dana.

Orregaitik ez dauz onartzen ideak ezagutzeko bide lez, gure adimenak artu egiten dauz, ez sortu, arimea ta gorputza gauza bi dira, Jainkoa da gauzak argitzen dauskuzan indar bakarra. Eta jainkoa ba-dago, ez dago ori baieztatu bearrik, orixe da idearik argiena, "pentsatzen dot, orduan ba-naz" dan bestean argia da idea ori. Eta or dago inguruko mundura gu sartzeko bide bakarra.

Baiña Malebrantxe´ren gauzarik bereziena baterako aukera "okasionalismoa" da.

Zelan joaten gara pentsalariagandik zabalak dira gauzetara "res extensa"? Malebrantxe´ren erantzuna korapillotsua da: Jainkoak agertu dauskulako bere mundugintza. Guk zerbait sentitzen dogunean, aukera (ocasión) ori

artuta agertzen dauskuz adimenean kanpoko gauza egiñak. Munduan ez dago egillirik, "causa" dan ezer, benetako egillea beti da Jainkoa eta guk aukera orreik ikusten doguz.

Beste arazo bat kizango da Malebrantxe´rentzat, ori zelan alkartzen dan gure askatasunagaz eta etika edo moralagaz: Guk ariman gauza bi daukaguz, naimena ta askatasuna, esan dogun dana naimenaren bidean dago, baiña gauzak egiteko orduan askatasuna sartzen da. Naimena Jainkoaren eskuan dago, baiña askatasuna geure eskubidea da.

Errez ikusten da Malebrantxe´ek ez dauala nai besterik Deskartes´en filosofia osotzea baiño, filosofi onek dauzan okerrerako bideak zuzendu nai dauz eta orretarako Jainkoaren ekintza sartzen dau mundura eta ideak Jainkoagan ikusten doguz. Eta naimena ta askatasuna bereiztea ez da besterik etika edo moralari bide bat zabaltzea baiño.

Olako korapillorik ez dago Aristoteles´en eta Akinotarraren bidean.

## **BARUCH SPINOZA (1632-1677)**

Malebrantxe kristiñau eta eleiz-gizon zintzoa zan, baiña bere filosofiak dana-jainkotasunaren arrisku bat eukan, berak iñoz onartuko ez eban arriskua.

Baiña beragaz ia batera bizi zan Spinoza´k ausarti emon eban urrats ori, Spinoza dana-jainkotasunaren aldekoa dogu, argi ta garbi.

Amsterdam´en jaio zan, jatorriz judatarra zan famili baten, baiña Burgos´ko Espinosa de los Monteros deritxoan erriagaz be ba-eukan zer-ikusia. Gaztetan ikasi eban ebraiera etsa Biblia aztertzen zalea izan zan, gero matematikak, latin eta greko be ikasi ebazan eta gazte zala ezagutu eban Deskartes´en filosofia

Ogeta bi urtekoa zala eta bere gurariz, itzi eban judatarren erlejiñoa eta urte bi geroago sinagogatik kanpora bialdu eben.

Heidelberg´eko Ikastetxe Nagusian filosofoa-irakastegia eskiñi eutsoen, baiña ez eban onartu. Bera il-ostean argitaratu zan "Etica more geometrico demonstrata" liburua. Ordurako zabal ebillan ateo edo jainkoagabea zala.

Bere filosofia´ren oiñarrian Deskartes dago eta mundua zertasan bakarria izatea da oiñarri. Ortik atera eban bere pentsabidea Giordano Bruno´k. Onek burubide orregaitik galdu eban beronen bizia.

Deskartes eta Malebrantxe´ren bidetik asi arren, laster eldu zan Spinoza dana-jainko zaleen bidera: Munduaren zertasan bakar ori Adimen bakarragaz bat eginda dago. Osotasunik osoena da gutzat, bere ustez, zertasan bakar orren eta adimen bakar orren zati garala jakitea.

Baiña erizpide orrek ez dauka zer-ikusirik fedeagaz, fedeak beste bide batzuk daroaz, ez filosofiarenak.

Dana-jainko erispide orretatik ateraten doguz beste burubide guztiak, Jainkoa eta izadia gauza bat bera dirako.

Ezagutzerako lau urrats emoten doguz, entzudakoa bide lez artu barik: Lenengoa gure irudimena da, ezagutze illuna, or dagoz burubide orokorrak, uribersalak. Bigarren buru-argia dator eta au benetako ezagupena da eta burubide argiak daukaz, pentsaerea bera eta aurrean dagon zabaltasuna. Baiña beste ezagupen bat dago ohea, intuiziñoz Jainkoa ikustea, Jainkoa

bere izaera guztiagaz eta beragan dagozan gauza guztiakaz. Gizonaren burua ez da besterik "danean dana dan adimen neurri bakoa"ren zatia baiño.

Ez gara ba Jainkoagana eltzen gauzen bidez, Jainkoagan ezagutzen doguz gauza guztiak Jainkoa ta gauzak bat diralako, Jainkoa, zertasuna eta izadia gauza bat beraren iru izen dira.

Deskartes´en antzera diño Jainkoa bere buruaren jatorri dala (causa sui), baiña "causa" edo jatorri berba ori, "azalpen" lez artu bear da.

Eta askatasuna zer da orduan? Ez da besterik barruak nai ta nai ez eskatzen dauana betetea baiño.

Ondo ulertu eban Spinoza´gan Berthysek´en, irakatsi ori ez zala besterik Spinoza´gan benetako Jainko-ukatzeta edo ateismoa baiño.

Deskartes´ek ondo bereiztu ebazan Jainkoa ta gizakien arimea, ez oster Spinoza´k, onek bitasun ori alboratu eta gizakien adimena ta Jainkoarena, Jainkoa ta gizakien arimea zertan edo sustantzi bat dirala diño. Deskartes´en mekanikeria bai onartzen dau eta askatasuna ez da aukeratzea, bear-tuta egotea ondo ulertzea baiño.

Eta politika-arlorra sartzeko, Spinoza´rentzat, fedea esanak egitea da eta politikak zuzendu bear dau gauza sagaratu mundua, erri-agintariak esan bear dabe zer dan zuzena eta zer okerra gure jokabidean. Orra or eskubideen iturri bakarra, laterria.

Ikusten da ba, Deskartes´ek, fededuna zalako, emon ez eban urratza Spinoza´k emon dauala. Orrantza jotzen dabe buruargien bideak eta Platon´en ondorenak, baiña idealistena izango dan mundu ori ez da errez alkartzen gure zentzunen ekin eta ekin adimenera dakarrenagaz. Oraindiño buru-min andiak izango dabez urrengo filosofoak gauza bi orreik alkartzeko. Bide orretan aurkituko dogu Leibniz´en "aurretiazko armonia".

## DESKARTES

Sartu gaitez buru-belarri filosofi barri edo modernora.

Bide bi aurkituko doguz filosofi barri onetan, bata buru argiarena edo errazoi-bidea, emen Deskartes, Melebrabche, Spinoza ta Leibniz, eta bestea zentzunen bidea emen Bakon, Hobbes, Locke, Berkeley eta Hume. Ondoren Argituak edo ilustraziñoa dator eta iru jokoabide onek batzen dauz azkenean Kant´ek.

• • •

Deskartes La Haya´n jaiotzen 1596n. urtean, Josulagunetan ikasi eban eta 1616n. urtean eskubide-arloan dotoretza lortu eban Poitiers´en. Gero guda-ketara sartu zan urteetarako. 1619n. urtean azillaren 10n. egunean iru amets egin ebazan eta orreitan ikusi eban zientzi guztiak matematikaren bidez oiñarrituko ebazala.

1628n. urtean, ogeta amabi urtekoa zala, bakartadean bizi izaten asi zan Olanda´n eta orrelan bizi izan zan il baiño urtebete lenagora arte. 1 Kristiño erregeña ospetsuagaz alkar-izketak egiten ebazan gai onei buruz. 650n. urtean il zan 54 urtekoa zala.

Berrogeta bat urtekoa izan zanean liburu bat argitaratu eban, meteoroak, dioptria eta jeometria gai ebazala, eta liburu onen aurrean agertzen dau Ikasbidearen itzaldia edo "Discurso del método" deritxona, filosofian izan dan liburu

urrik iraultzailleena ta ospetsuena,filosofi barri edo modernoaren asiera izan-  
go dana.

• • •

## IKASBIDEKO ZALANTZA

Ezagupenaren oiñarrian Deskartes´ek ikasbideko zalantza edo “duda metódika” ipinten dau.Zer dan ori? Ezer be ez da egitzat artu bear arik eta “argi eta bereiziki” egia dala jakin arte.

Baiña zer ikusten dogu “argi eta bereiziki”? Lenengo,”pentsatzen nagoala eta orregaitik ba-nazela” (Cogito,ergo sum). Ni pensatzen nago eta ezin ori izan, neu izan ez ba´naz. Bardin esan leike nai izateari buruz, “volo ergo sum”, nai dot,orduan ba-naz.

Oiñarri ona benetan! Baiña zelan urten ortik kanpora? Nire ustez emen dago Deskartes´en makaltasuna eta makaltasun onek ondoren txarrak eka-  
rri ebazan urrengo filosofoengan. Argitasun ori ez daukana, ukatu egingo dabelako.

• • •

Berak asmakizun ori lenengo matematikara daroa eta or dago zientzi edo jakingai guztien oiñarria eta orrek argitzen dauz eskolastikak daukazan zalantza guztiak eta orrelan alboratu nai izan eban Montaigne´ren zalantza-  
tegia edo eszeptizismoa. Berarentzat filosofia zugatz baten antzekoa da eta zugatz onen sustraiak metafisika dira, enborra fisika,osagilletza,mekanika eta jokabide-arloa, gero datoz frutuak, praktikarako edo zorientsu izateko bideak.

Ain garrantzitsu dan argitasunaren eta ziurtasunarren bide oneri jarraitze-  
ko

Iru arau damoskuz Deskartes´ek:1)Ez ezer egitzat artu argia eta ziurra ez ba´da.2)Burubide nastatuak zatika artu arik eta zatirik txikiena argia ta ziurra izan arte.3) Idea xumeetatik asita aurrera ziurtasunaz eroan gaiak.4) Ezer ez dala aztertu barik itzi argi ikusteko,zenbatu burubide argi eta ziur orreik.

Deskartes´en filosofi osoa ortxe dago,azken baten norberaren ziurtasu-  
nean,burubide argi eta bereizietan.

Ikasbideko zalantza ori ez da zalantzan jarraitzeko,egia billatzeko oiñarria baiño,”duda metódica” da es “escéptica”, gauza guztietara sartzen da,nai dabelako artzen dau filosofoak. San Agustin´ek be ba´eukan olako edo antzeko azterbide bat.Ona emen bere berbak:”Egirik ez ba-dago, egia da egi-  
rik ez dagoala,orduan egia ba-dago“.Orra or,argitasunaren ziurtasuna.

• • •

Baiña zelan urten orain beste gauza batzuk ezagutzera? Emen dago,nire ustez,makaltasuna.

“Cogito” edo “pentsatzen nago” orrek bigarren burutasun argi batera daroa filosofoa, Jainkoagana. Jainkoa da egi orrek garantia,ziurtasuna, guztiak Jai-  
koa dabe oiñarri.Arnald filosofoa izan zan makaltasun ori agertu ebana eta ziurtasuna Jaikoaren menpean ipinten dauala diñotso.

Zergaitik emon ete eban Deskartes´ek pausu laban au? Bear ba´da fede aundiko gizona zalako,txikitatik bide orretan ezia, eta ez eban or oiñarri txar ipinterik nai.



Ba-dakaz berak Jainkoa ba-dagoala baieztatzen zioak: Bikaintasun osoa berrezkoa da eta Jainkoagan baiño ez dago, guk izate artua daukagu, baten batek izan bear dau emoille, San Anselmo´ren argumentua ondo jatorko Des-kartes´eri ezagupen argiaren bidetik Jainkoa baieztatzen daualako, arlo barri batzutara zabaldua.

Zelakoa da Deskartes´en Jainkoa? Gure buruan bertan jaiotzatik agertzen da idea bat da, Jainkoa bere buruaren egillea da (j) Jatorri egillea edo "causa" izaki guztientzat dalako, baiña konturatu zan egilleak lenagokoa izan bear dauala egiñak baiño eta ori argitzen dau "potencia/acto" burubideakaz

Deskartes´ek onartzen dau burubide batzuk betikoak dirala eta ori San Augustin`en irakatsietan oiñarritzen da, Platon´en "eredu"en antzera. Betiko idea orreik munduari ziurtasuna emoten dautsoe.

Mundugintzak gaur be jarraitu egiten dau, guk zaintzaillea dala Jainkoa esaten dogun antzera.

Ikusten da ba. Deskartes oso Jainko-zalea dala, benetako fededuna, baiña oiñarri batzuk kendu dauz bere filosofiak eta ortik etorriko dira urrengo filosofoetan aurkituko doguzan bide okerrak.

• • •

Deskartes´ek ezarri dauz ziurtasunean norbera eta Jainkoa, baiña zelan igaro azterbide edo metodo ori munduko beste gauza guztietara?

Munduko gauzen burubide argi eta ziurruk ezin dogu euki, baiña bai bat, zabaltasuna (extensión). Gauzen izatea zabaltasuna eukitea da eta au adimenean dagon bertan agertutako burubidea da (idea innata). Ona emen Platon´en bidea. Ortik dator guk zentipenak eukitea, sustantzia edo zertasu-na or dago, Jainkoa da zertasuna daukan bakarra, beste zertasunak Aren menpean dagoz. Jainkoak ezin geinkez iruzurtu, egi-zalea da-ta, orregaitik gure sentipenak egia dira. Makalatasun aundia!

• • •

Goputza ta arimea zer edo zertasun bi dira, zer pentsatzaillea eta zer zabala. Bitasun ori izango da urrengo filosofoen buru-austea eta Spinoza´k zertasun bakarra dirala esango dau, Malebrantxe´k okasiona-lismoa ipiñiko dau bide eta Leibniz´ek "armonia prestablecida". Orra zelako okerrak dakazan bitasun orrek.

Bitasun orrek daroa Deskartes beste eritxi baragarri batera, arimea burua-ren bazter baten dagoala, "glandula pineal" esaten dautson bazter baten. Umekeri bat dirudi.

• • •

Eta nondik datoz fisika´ko legeak? Argiak eta ziurruk dira? Lege orre in oiñarria Jainkoaren mundugintza bera da eta egillea billatu bear da.

Gaia edo materia ez da zabaltasuna baiño eta mundua kiziz edo atomoz osotuta dago eta guztien artean mundua egiten dabe tramankulu edo maki-ña baten antzera, atomoak arin dabiltzanean isurkia, likidoa dira, astiro dabi-zenean gauza sendoak sortzen dabez eta ariñago dabiltzanean lurrin eta gasak. "Mekanizismo" deritxo orreri.

• • •

Eta jokabiderako arauak edo etika, zelan ziurtatzen da?

Aldirako moral bat ezarri eban Deskartes´ek,azterketa sakona egin arte.Erriko oiturak eta legeak, "umetatik artu neban erlejiñoa".Arau orreitan sendo jarraitu bear da,alegiña egin bear dot neure burua ukatzen

Betirako etika edo morala be agertu eban gero,baiña ondo azaldu orduko il egin zan.

## DABID HUME (1711-1776)

Auxe dogu enpiristak edo zentzun-zaleak,geienak angland-errikoak, lortu eben filosofi-maillarik gorengoa lortu ebana, eta,ikusiko dogun lez, ez dago ain goi-maillan.Zentzunen bideak ez dau emon ondoren aundirik filosofiaren bidean.Gero,Kant aztertzen dogunean ikusiko dogu zelako alegiña egin eban filosofo onek olako mailla batera eltzeko, baiña Aristoteles´en antzeko bide batzuk artuta, ez zentzunen bidetik.

Hume filosofoa Edinburgo´n jaio zan eta bertan asi ebazan eskubide-arloko ikasketak, baiña oneik alboratu eta filosofia ta elertia ikastera sartu zan.Gero Frantze´ra ta London´era joan zan eta Europa´rik geiena ikertzeko aukerea be izan eban.

Adimena aztertzea da beronen lenengo elburua eta gero sartzen da oitura-iztia ta politika-arloa aztertzeko bizitzako gauzetara.

Jakiture guztia-aren oiñarri beretzat giza-iztia edo antropolojia da eta ortik jotzen da zentzunen filosofiara, bere aldiko anglandarren antzera, bizi-ikasia eta azterketa egiteko.Baiña danaren elburua ez da besterik praktika baiño, dana da gizakien zoriona lortzeko bidea. Eta zoriona lortzeko gizakiak erra-zoiketa luzeak alboratu eta bizi-ikasi edo eksperientizatik bizi bear dau.

Artzen dauan zentzunen bideak ez dautso Hume´ri argitasun geiegirik emoten eta zalantzan, eszeptizismo osoan geratzen da.

Bere ustez,fisikak daukan besteko ziurtasuna daukan filosofia nai ba´dogu, ori lortzeko ez daukagu beste biderik bizi-ikasi edo eksperientzia-aren esparruan ibiltea baiño, zentzunetan aurkitu geinke olako ziurtasuna eta zentzunak izten daben gomutamen edo memorian, ez adimenean. Biziena zentunak une beratan diñoana da,or sartzen dira irrikak eta biozkadak, baiña geratzen dan idea edo irudia ez da ain bizia eta ziurra.

Sentipenak bakoitxak bere nortasuna dauke, baiña irudimenak emoten dautse alkartasuna eta idea edo irudi biurtzen dauz eta ori egiteko,ideak alkartzeko, irudimenak iru bide artzen dauz:antzekoak izatea, alkarren ondoan egotea eta bata bestearen iturri izatea eta orrelan gure irudimeanak irudi edo idea korapillotsuak sortzen dauz.

Ideak, edo irudiak, berez banakakoak dira,esaterako lerroa, orrek irudi bat dauka.

Eta zer da Hume´rentzat kenketa edo abstrakziñoa? Ez da besterik idea edo irudi bat zentzunetara biurtzea baiño.Unibersalak izen utsak dira.

Filosofiak kontuan artu leiken irudimen utsa eta izatea bera zentzunetara daroana lenengoak dira eta or dagoz jeometria,algebra ta matematikak. Eta orrei esaten jake izatezko arazoak. Eta oneitan baieztapen edo demostrazi-ñoak egin leikez

Egillea-egiña (causa-efecto) zer-ikusia ez daugo lendik buruan, ez da a priori, ori be zentzunetatik datorren gauzea da, gauza bi orreik beti alkarren

ondoan ikusten diralako,denporan bata beste baiño lenagokoa dalako eta beti alkarragaz doazelako sortzen da egille-egiña bikote ori. Gure ustez gauzea ez dau ondo argitzen,zeozer geiago da egille-egiña zer-ikusia.

Eta zelan eltzen da Hume norberaren buruaren ezaugerara?

Gure aurreko mundua zentzunai or agertzen jake eta ortik jatorkuz zentzunen bidez ideak edo irudiak. Baiña zelan alkartzen da aurrean daukagun gauzea gure buruan sortu dan irudi edo ideagaz? Ori bizi-ikasiaz.eksperietziaz ikasi bearko dau Hume´k. Eta ez Jainkoa ekarrita Des-kartes´en antzera,orrelan oker ezagutzen doguzan gauzen errudun be Jainkoa litzakelako.

Kanpoko mundua baieztatzearen arazoak ez daula urtenbideriok diño Hume´k., geure barruko izakereak eskatzen dauala esan bear gauzak or aurrean egotea.

Eta norbera zer da Hume´rentzat? Gure burua ez da besterik artu doguzan idea edo irudi guztien pilloa baiño, norbera izatea gure kontzientziaren asmakizuna da. Eta ideen alkartzetik sortzen da,antzekoak diralako,alkarren ondoan dagozelako eta bata bestearen iturri lez agertzen diralako.

Azkenean, norberaren izatea be zalantzan,eszeptizismoan, geratzen da,“Hume gizona eta Hume filosofoa” ez datoz batera. Gizona bizi da,berba egiten dau,besteen antzera gauzak egiten dauz. Orrelan filosofi au zapuztuta geratzen da gizakien arazorik beiñenak argitzeko gai ez dalako.

Zer diño jokabideai edo moralari buruz Hume´k?

Ezagutzen-bidetik norbera ez da aurkitzen, baiña bai jokobidearen bidetik, gure irrikak eta gurariak aztertzen dogunzanean. Gure jokabide-arauak ez datoz burutik, ez datoz gure izakeratik, gure irrika eta egarrietatik baiño.Moralaren edo etikaren iturria atsegiña ta min eukitea dira. Onoimena atsegin jaku eta okerbidea samin dogu eta pozak edo saminak gidatzen dau gure jokabidea, orixe da morala, buru argiak jokera guztien otsein izan bear dau. Sinpatia edo sentipen bardiñak dauka emen garrantzi aundia:Alkarren antzeko gizonak altruismo edo besteai laguntzera garoaz.

Naimena ez da almen bat, jokabide bat baiño ez da, gure barruan dago sentipen ori eta ez da sortu guk nai izan dogulako. Orduan askatasunik ez daukagu, askatasuna ez da besterik bata naiz bestea egin geinkela uste izatea baiño, baiña beti egiten dogu zerbaitek beartuta. Euki geinken askatasun-antzeko bakarra espontaneo, gura dogula,gauzea egitea da, baiña ez auke-  
ratzeko almena.

Zer diño politikan?

Gizonak besteakaz alkartuta bizi izateko gurari bizia daukala diño eta bakartadea dala zigorrik txarrena gizkiarentzat. Berez berekoa izan arren, ba-dauka gizonak besteai laguntzeko guraria be.Ortik sortzen dira jaurlaritzak ona eta txarra zer diran esateko.

Eta erlejiñoan?

Antropolojia´ren barruan sartzen dau erlejiño-arazoa eta ez dau aztertu bear Jainkoa nor dan, gizakiak zelako erlejiño-jokerak daukazan baiño, eta orretarako bide bakarra bizi-ikasiaz, eksperimentzua da.Orrelan erlejiñoa be filosofiaren barruan dago. Nondik sortu ete da Hume´ren ustez, erlejiño-giroko sentipen ori? Bakar-bakarrik bildurretik,eriotzeari dautzagun bildurretik eta gaiztoak betiko nekeetan izango dirala eta onak betiko zorionsu biziko dirala uste izatetik. Marka ori sartu eban Egilleak berak egindako lanean. Gure Hume sinisteduna da!

Erlejiño asko izan dira eta or nastatu dira sorginkeria, itsukeria ta gogorkeria. Benetako erlajiñoa nagusi adimentsu ta ikusi-eziña dagoala sinistea da, baiña ez dakigu ori nagusiena dan ala menpean dagoan, ez eta bakarra dan ala beste lagun batzuk daukazan,zelakoa dan. Erlejiñoa bear-bearrekoa dau gizakiak baiña ez dauka oiñarri ziurrik.

...

Ikusi dogu noraiñoako makaltasunera jausten da alglandarren enpirismo edo zentzunen bidea,azken baten dana zalantzan geratzeno bidera.

Enpirismu onen Hume dogu punterengoa, baiña norberaren burua badagoala be ziurtatu.eziñera eldu jaku.Azkenean dana zalantzara daroa bide onek. Kant etorriko da bide batzuk zabaltzera.

An jauzi, emen zutundu, filosofiak gizakiari pentsabidea azaldu dautso eta billaketa egiteko askatasuna emon be bai, gauza bi oneik lagun dirala, mundu moderno edo barriari oiñarriak ipinteko ilustratuen aldia dator, jakituen denporea,eta oneik entziklopedia´ren bidez batez be, berba egingo dauskue eta gaur daukagun mundu barriaren sortzailleak eurak dira.Ez guk nai genduken modukoak, baiña sortzailleak.

## ARGITUAK

Argituak edo ilustratuak edo iluminatuak esaten jake Europa´ko laterrietan,XVIII-XIX gizaldietan agertu ziran filosofo edo jakitunai, baiña onein irakatsiak filosofia baiño zabalagoak eta bizitzarako bearragoak dira. Anglenderrian, Frantze´n eta Alemania´n dauke asierea.

Jakitun argi oneik taldea dira, baiña ez dauke euren ordezkari izan leiten jakitun bakar bat.Euren pentsaereak alkartzen dauz guztiak.

Kant´ek labur eta argi agertu nai izan eban jokaera au:”Gizonak ume-arotik urten egiten dau eta bere egiak besteen menpean egon barik agertzen ausartzen da: “Sapere aude” da onein oiua”.

Orrelan ba, buru argia da irakatsi guzti onein oiñarria, baiña ez lengo filosofuen buru argia, geiago da enpiristen bidea zentzunetik asi eta filosofilegeak egiten dauzana., ez dauka buruan jaiotako pentsabiderik,eratzeko almena da.

Danaren oiñarria gizakiak egin daiken aurrerapena da eta orrelan gizakien edestiak, filosofiaren edestiak,buru argi orren aurrerapena dau oiñarri,erdiaroko illunpetik urten eta argien aldira sartzeko.

Jakitun oneik aurretikoak irakatsia alboratu egiten dabe, erlejiñoz iragarria, batez be katolikutasuna, eta deismoa da euren erlejiñoa:misterio bakoa,buru argiaren neurrikoa, jainkoa ba-dagoala sinistea naikoa dauan erlejiñoa.,arima il-eziña eta geroko bizitza sinisten dauzana.

Betiko erlejiñoa alboratzeagaz batera, gizartea aldatzea da euren guraria, gizakien arteko ezbarditasun guztiak kenduta. Orrek Frantze´n iraultzara eroan eban erria, baiña ez da ori bearrezkoa.

Ez dabe onartzen Tronua ta altarea bat eginda egotea. Orrek ulerbide txarra emoten dau Eleizea ulertzeko, orregaitik Eleizearen arerio agertu ziran, batez be anti-katolikuak dira.

Oituren eta legeen arloan, laizistak dira.

Kulturaren eragin au ez da erriarena, jakitun batzuren baiño, burgesiarena, ain zuzen, baiña gero Europa´n eta Ameriketari erriaren barru-barrura sartu ziran pentsabide oneik. Eleizea, ostera, apur bat geroago gogor jarri zan euren aurka eta eleizearen egoera au oso kaltegarria izan da kristiñautentzat, batez Batikano´ko II Eleiz-Batzar Nagusiaren aurretik. Batzar onek, zorionez, ateak idegi ebazan, naizta gaur gauzak atzerantza joan.

#### NEWTON:

Argituen sarreran agertzen da jakitun au, Galileo, Koperniko ta Kepler´eri jarraitzen:

Ez dau onartzen Arosteles´ek irakatsi eban goiko gorpuzkien eta bekoen arteko legeen ezbarditasuna eta zientzien ikasbideak onartuz, mekanikaren legeak agertzen dauz munduko eragiña azaltzeko, ez Galileo´k esan eban lez gauzak matematika bidean dagozela uste izanik, matematika ez da metodo bat baiño, baiña ori baiño lenago dago bizi-ikasia, eksperimentzia, eta mekanikaren legeak egin bear da jazoeretatik gora igota, indukziñoa. Gero etorriko da ondorengo legeak ateratea edo dedukziñoa.

Jazoerak artzen dauz ikasbide eta jazokizuna ez dan ezer ezin artu lei ipotesi lez baiño eta ipotesiak ez dira legeak, indukziño bidez ziurtatu bear dira.. Orrelan baieztatu eban "inpenetrabilidad" edo gauza bi leku baten ezin egon izatea, eragiña, gorpuzkien indarra eta astuntasun edo grabedade-legea.

Ba dagoz, orregaitiño, ipotesi-antzekoak izan arren, ukatu ezin daitekezen oiñarriak, esaterako denporea ta lekua., biak neurri-bakoak eta Jainkoagaz zer-ikusia daukenak.

Gure mundu onetara Jainkoa sartu egiten da, ez mundugintza eta munduari eustean bakarrik, sortu leitekezan okerrak zuzentzeko be bai.

Arrigarria ta onartzekoa Newton´en bidea eta bere fedea!

#### DEISTAK.

Anglanderriko argituen bideetan deismua agertzen da: gizakiak barruan daukazala ideak onartzen dabe eta orreik, Jainkoak egiñak, aurreko gauzak ezagutzeko bide dirala diño. Izadizko erlejiñoa da ori eta bost oiñarri daukaz: 1) Jainkoa ba-dago. 2) Gizakiak Jainkoa gurtu bear dabe. 3) Jainkoa gurtzeko biderik onena oitura onak dira. 4) Pekatuak damutasunagaz garbitu bear dira. 5) Beste bizitza bat dago zigorra naiz saria artzeko.

Deisten aurka Butler gotzain anglikanuak urten eban

#### EGITEETARAKO ARGITUEN JOKABIDEA:

Berez daukaguz moralerako ideak, bakoitzaren ona eta gizartearena billatzeko. Gizakia berez ez da okerrera makurtua, besteai mezede egitea barru-barruan daroagu. Stuard Mill dogu onen artean ospetsua: Egiterik onena norberarentzat eta besteetaz zoriona dakarrena da, zenbat eta geiagori zoriona ekarri, ohea.

## FRANTZETARRAK:

Argituen pentsabidea Anglenderria'n asi zan, baiña indar aundia artu eban Frantze'n eta emen ateismoa, katolikuen aurka jokatzea eta iraultzaren izukeria ekarri ebazan, baiña ez beti.

Bayle da aurrelari. Onentzat katoliku ta protestateen arteko eztabaidak alperrekoak dira, oiñarrian guztiak dagoz batera, batzuk Jainkoa edo arimea il-eziña izatea onartzen dabez, beste batzuk aurka dagoz eta, gaiñera or gera-zen da munduan dagon okerkeria nondik etorri dan aztertzea. Baiña eztabai-den aurka, tolerantzia bear da eta erlejiñoa eta morala bakoitxa bere lekuan ezarri. Ateoen gizarteak sarritan ondo betetzen dau morala. Bayle'ren aurka, batzuk ateismoa indartzea dala diño.

## ENTZIKLOPEDIA

Bayle izan zan argituen jokabideari indarra emon eutsana eta asieran ber-tan emon be, baiña ez da ukatu bear entziklopediak izan eban indar aundia: Idazle asko dira, guztiak Diderot eta D'Alembert'en menpena, bigarren au gero alboratu egin zan, 1758n. urtean Ogeta amabost liburu dira eta 1751-1780n. urteen artean argitaratu ziran. Ez zan gauza erreza izan, Frantzeko jaurlaritza aurka jarri zalako. Onak agitaritzaren eta erlejiñoaren aurka dago-zela esan eban.

Baiña guztien eritxiak ez dira bardiñak. Ezagutzen doguz Monteskieu, Tur-got, Rousseau eta D'Holbach, baiña beste asko ez-ezagunak dira. Billatu dai-guzan oiñarriak: Lengo ta oraingoa irakurleari agertzea da euren elbu-rua, gizarte gizakoiagoa ta argituagoa nai dabe, artutako eritxiak neurritz kriti-katzen dabez eta laterriaren naiz eleizearen indarra epaitzen dabe, neurritz beti.

Ez da ba, Entziklopedia abadeen aurkako jokabidea, lanbideak eta esku-lanak be aztertzen dauz, nekazarien eta esku-langilleen trebe-bideak be bai.

Barru-barruan enpirismoa dau oiñarri buru-argien eritxietatik be gauza asko artu arren.

Egilleen buru ziranen artean Diderot ez da filosofo bide ziur batekoa, D'Alanbert ostera obeto osotua da eta jakitun aundia matematika ta fisika-arloan.. Onen ustez Locke da zientziko filosofiaren sorburu. Eta pozik ikuz-ten dau Argien Gizaldia.

## MATERIALKERIA:

Entziklopedia beti doa gauzen oiñarrira eta gauza bi argitaratu eba-zan: Materialkeria ta gizarte-bizikera barria.

Materialkerian La Mettrie da buru: Sentitzen dana da balioa daukan baka-rra, ez ideak be. Landaren, piztien eta gizakien artean ez dago maillaren aldea baiño, erlejiño-arloan zalantza utsa da eta moralean atsegin-billa beti. Bide beratatik doa D'Holbach, atomismoa onartuta eta ortik dator gauzen eragiña, mobimentua, eta gizakiena maitasunak eta gorrotoak eragiña da. Erlejiñoaren aurka dago eta Jainkoa bildurak eta ezjakintasunak sortu daben gauzea dala diño.

Baiña danetan ospetsuena Condillac dogu: Oso-osoa zentzunen bide-koa, baiña bidea aske izten dau espirituarentzat eta Jainkoarentzat. Gogor

kritikatzen dauz aurreko gizaldiko filosofoak, batez be Deskartes, Malebran-  
txe, Spinoza ta Leibnitz, jeometria bide lez artuta oiñarri bako irakatsiak  
emon ebezalako. Jakituria lortzeko bide bakarra zentzunak dakarrena da. Argi  
baietatzen dau Jainkoa ba-dagoala eta arimea il eziña dala. Materialista da,  
baiña bere erara.

Helbetius da Condeillac baiño itxiagoa: Ez dau onartzen besterik zentzu-  
nak diñoena baiño, gizakia eziteko gizartearen ona billatzen irakatsi bear da.  
Eta orrek laburtzen dau atsegiña billatzea.. Eta ori lortzeko politikako askata-  
suna eta izadizko erlejiñoa bear dira.

## POLITIKARAKO BIDEAK:

Bide onetan iru filosofo aundi agiri dira Monteskieu, Voltaire eta Rousseau.  
Monteskieu'ren irakatsirik ederrena agintaritzan iru almenak banatzea da,  
bere "Persitarren gutunak" liburuan argi agertzen dauan lez. Liburu onetan  
Pertsia'ko ibiltari bat dator Frantze'ra eta izeka-bidez Frantze'ko agintaritzak  
kritikatzen dau. Baiña liburu irakurgarriagoa da bere "Legeen Espiritua" deri-  
txona: (1748): Emen gizarteko agintaritzak aztertzen dauz eta ain ezbaridiñak  
izateko iturria erriaren izaerea, eguratsa, lutelestia, salerosketa eta jaurlaritzak  
eurak dirala diño. Ortik sortzen dira toki bakoitzeko legeak. Iru dira beretzat  
jaurketa-erak: Erkala edo errepublikea, demokrazia naiz aristokrazia, bakale-  
rria edo monarkia eta despota-agintaritzak. Bakoitxak bere oiñarria  
dauka: Erkalak errian, monarkian oorean, despotismuak bildurean.

Baiña bereizitasunik bereiziena almenak banatzea da: Legegintzak, eragi-  
lletzak eta epaiketak ondo banatuta egion bear dabe. Pentsaera onek indar  
aundia dauka gaur arte Europa'n eta Ameriketean batez be.

Voltaire (1694-1778), entzute aundiko argitua da eta asko idatzi eban, fran-  
tzera ondo apaindua artuta eta geienetan izeka bidez. Bere aurrekoak kriti-  
katzen egiten dau lan aundia: XVII gizaldiko irakasbideak ez ziran onak, batez  
de Deskartes eta Spinoza'k irakatsia, Newton da benetako Jainko bidea  
dakarrena.

Ez dau onartzen askatasuna, politikan izan ezik. Berank beti ukatzen eban  
erri zeiaeren balioa, baiña Eleizearen dokma guztien orde argituen filosofia  
ezarri bear da. Eleiza katolikuari "infâme" esaten dautso. Fedea aurrerapi-  
dea galazoten dauala diño. Ez da ba arritzekoa gero Eleizea onein aurka  
agertzea.

Euskadunok geure esker ona zor dautsagu Voltaire'ri: Donostira etorri zan  
lagun bat ikertzen eta bere liburu baten diño Euskalerrria Pirineo mendien  
alde bietan txistua jo eta dantzaren egiten dauan erri bat dala diño.

Eta azkenez, Rousseau (1712-1778). Au izatez ez da argituen artekoa eta  
euren aurka egoan, "ateismoaren misiolari sutsuak eta tirano dogmazaleak"  
dirala diño.

Bere ustez gizakiagan geiago begiratu bear da biotza burua baiño. Erro-  
mantzismo'rantza doa. Baiña gizarte-itunaren bidez jokabide oso barriak  
agertzen dauz eta ortik da argituen antzekoa.

Erlejiñoz asieran Kalbin'en aldekoa zan, gero katolikua eta azkenean iza-  
dizko erlejiñoduna.

Barru-beroa da, euren eritxien aurka agertzen diranetarikoa. Ezkontzatik  
kanpora ainbat seme-alaba izan ebazan eta umeak beti umezurtzen artera  
baltzen ebazan. Zoratuta il zan.

Bere ustez,gizakia, berez ona da, baiña gizarteak eroaten dau txarre-  
ra.Asieran gizakiak onak ziran, guztiak bardiñak eta aske bizi ziranak, baiña  
gero txarrera aldatu dira.Orregaitik gizarte bariro bideratu bear da,oiñarri  
barrietan:Orretarako aldarrikatzen dau “Gizarte ituna” deritxona, bakotxa  
alkartu bear da besteakaz eta gero berak alkarte orretan agintzen dauzanak,  
berak bete.”Geuk egin dogun legearen esanak egin bear doguz.Kant´ek be  
idea au onartu eta bere moralaren oiñarrian ipiñiko dau. Zori txarrez, gero,  
jokanbide oker batzuk onartzen dauz totalitarismora joteko:Alkartzeko esku-  
bidea, irakasteko askatasuna eta erlejiño-askatasuna ukatzen dauz.

Alemania´n be agertu zan argituen jokabidea eta iru pentsalari aundi dau-  
kaz alde:Kant,Goethe eta Hegel.

Chrastian Wolf da emen ezagunena:Sinistedun zintzoa zan,baiña buru  
argia fedearen gaiñetik ipinten dau.Orregaitik gorrotoa artu eutsoen pietistak  
eta erbesteratu.

Prusia´ko errege zan Federiko Nagusia egoan bizitzaren azkenean argi-  
tuen alde. Au aldi aretako filosofo guztiakaz zan lagun eta Voltaire babestu  
eban

Reimarus izan zan argitu bat, ebertarra,izadizko erlejiñoaren aldekoa eta  
Jainkoak egindako iragarketak gizakien asmakizunak dirala diño eta mirariak  
Jainkoa iraintzen dabela

Lessing dogu azkenengo argitu ospetsua:, Leibniz´en ikaslea: Egia Jain-  
koak bakarrik daukala diño eta Jainkoak iragarritako erlejiño guztiak onartu  
bearrekoak dirala, gizarterako onak diralako eta kristautasuna onuratsua goa  
izan dala deismua baiño, baiña ez da bide ziurreko filosofoa:Kristautasuna  
aldi baterakoa dala eta azkenengo ekiñaldia betirako ebanjelioarena izango  
dala.

Zer esan argituai buruz?

Gizakia ipiñi ebela ardatz lez; aurrerapena, artutako irakatsien gaiñetik,  
bide argitsu baterako, baiña or be ba-dagoz illuntasunak, batez be beste  
mundua eta goi-izaerea ukatu ebazalako. Zalantza barik gizarte eratzeko  
irakatsi egokiak eta gaur be balio dabenak emon eta ezarri ebezan.

## **KANT(1724-1804)**

ZER ZER DAN:

- Racionalismo: Buru-argien bidea.
- Empirismo: Zentzunen bidea.
- Crítica de la razón pura:Buru-argi utsaren azterbidea
- Crítica de la razón práctica:Egiteetarako buru-argiaren azterbidea.
- Crítica del juicio: Baiezteko edo ezezteko esaldien azterbidea.
- Metafísica de las costumbres:Oituren metafísica edo atzean dagozan  
burubideak.
- Experiencia: Bizi-ikasía.
- Elementos científicos:Zientzi-bideko gaiak.
- Causalidad:Gauze egiñen sorketa edo iturria.
- Existencia:Izatea.
- Espacio: Zabaltasuna.
- Fenómeno:Agiri diran gauzen bidea.
- Noumeno:Ulerbideko gaiak.



- Objeto: Ezagutua.
- Juicio: Baieztea edo ezeztea.
- Juicio a priori: Adimenetik datorren esaldia.
- Juicio a posteriori: Bizi-ikasitiko datorren esaldia.
- Juicio sintético: Ezagutuak batzen dauzan esaldia.
- Juicio analítico: Adimenaren ezagupenak aztertzen dauzan esaldia.
- Silogismo: Esaldien arteko errazoiketa.
- Sensibilidad: Sentimena.
- Intuición: Adimenak beragan ikusten dauan burubidea.
- Categoría: Ezagupen eta esaldi alkartuak, amabi dira.
- Función: Zeregiña.
- Sujeto transcendental: Kategorien antzean dagoan norbera. (Ich denke/Pensar den dot)
- Imperativo categórico: Norberaren aginte sendoa.
- Imperativo hipotético: Baldintza dauan agintea.
- Postulados: Baieztu barik onartzen diran burubideak.

## KANT BENETAKO GIZAUNDIA.

Aztertu dogu noraiño eldu diran buru-argia eta noraiño zentzun-bideko empiristak eta zelako erakarria izan eben Argituak, baiña orain iru iturri orreik aurrean dauzan gizandi baten bizitzara sartzera goaz, Inmanuel Kant aundian aztertzeko, eta orretara amaitzen dogu filosofi barritu edo modernoak lortu eban dana.

## BIZITZEA

Königsberg´en jaio zan eta beronen amak ondo ezi eban erlejiño eta jokabide arloetan, protestanteen pietismoaren barruan. Eta gero ikasi eban ekas-tetxean be estuegi artu eben erlejiñozko egiteen bidea. Ikastetxe Nagusira sartu zanean erlejiñozko egite orreitatiko urrindu egin zan. Bere uriko ikastetxe orretan ezagutu eban Newton eta fisika, matematika ta filosofia bideak. Orretan aita il jakon eta sendi batzutar joan bear izaten eban irakasle lez ogia irabazteko.

Bere Königsberg aretan lortu eban dotoretza suari buruz egin eban maixulanagaz eta irakastegia be lortu eban, ez bakarrik filosofia irakasteko, biolojia, jeografia eta pedagogia be bai.. Geroago Lojika eta Metafisica irakasten asi zan eta or argitaratu eban Buru-argi utsaren azterbidea edo "Crítica de la razón pura". Bederatzi urte geroago, 1790, Egiteetarako buru argiaren azterbidea edo "Crítica de la razón práctica".

Idazti deunaren aurkako eritxiak agertzen ebazala esanez salatu eben, eta geiago erlejiñorik ez aitatzea erabagi eban.

Azkenengo urteak politikaren eta edestiaren filosofia eta oitura arloarena agertzeko izan ziran. 73 urtekoa zala, 1797, itzi eban irakastea eta bere filosofia bear dan lez salkatzeko bidea asi eban baiña larogei urteak bete ebazanean etorri jakon eriotzea.

...

## ITURRIAK

Kant´en irakatsietan askoren ikutuak agiri dira, naizta bere pentsabidea jatorra izan.

Leibniz eta Wolf´en burubidea sartu ziran bere poentsabidera, naizta gero dogmatikuak zirala esan;or esaterako a priori´ren arauak, bizi-ikasira jo barik.

Berak esan eban Hume´k itxartu ebala dogmatiku orreïn bidetik urteteko. Baiña zentzun-bidera be ez zan oso-osoa sartu Kant, naizta ezagutzeko bide bakarrak zentzunak dirala esan.

Baiña bere bizitzan ikuturik geien daukana Newton dogu:Orregan alkar-tzen dauz bizi-ikasia ta matenatika.

Rousseau´gandik artu eban Kategoridun agintea´ren antzekoa dan auto-nomia. Lutero´tarren erlejiñoak be ikutu eutson bere ezezkortasun aundia ezarteaz.

Lenengo aztertzen dauzan iru arazoak egilleen arazoa (causalidad),iza-tearen eta zabaltasunaren zertasuna izan ziran.

Egilletasuna eta bere buruaren errazoa emotea ez dira gauza bat, iñor ezin leiteke izan bere buruaren egille edo "causa sui".

Izatasuna bizi-ikasiak,eksperientziak, agertzen dau eta burubideko azter-ketak

Zabaltasuna ez dau beti ondo ulertu Kant´ek,Lebniz,Newton nastetan dauz, baiña argi aundi bat artu eban eta zabaltasuna adimenak beragan daukan burubide bat, intuiziño bat, dala esan eban, ez dago zabaltasunik ezagu-learengandik kanpoan.

Kanpoan dagozen gauzak, ezagutuak, objetoak dira eta orretan dago Kant´en Koperniko-Iraultza:Kanpoan dagozan gauza orreik ezagutzen dauzanak sortuak dira, bizi-ikasiz artuak, baiña adimenak be or parte artzen dau, ez dira zentzunen ondoren utsa.Adimenak alkartzen dauz zentzunen ezagutze orreik.

Buru argi utsaren azterbidea deritxon liburuan aztertzen dau sakon arazo ori:Bizi-ikasitik artutako ezagupenakaz adimenak egin lez errazoiketak? Zelako balioa euki daik ee orreik? Ortik aterako dau egiteetarako bidea.. Matematikoa eta fisika´ren dogmatismua dauko aurrean, baiña ez da beti orreïnlakoa zentzunetatik datorren ezagupena

Ezagupen guztiak bizi-ikasi edo eksperientzitik asten dira,lenengo a pos-teriori,zentzunak artuta, eta gero orreïn ondorenak a priori eginda

Esaldiak,orduan,analitikuan edo artertzailleak eta sintetikuak eta gauzak batzekoak izan daitekez. Sintetikuak dira kanpotik gauza barriak dakazenenak, zentzunen bidekoak, analitikuak ez dakarre ezer barririk, betikoa aztertu baiño. Ba´dago esaldi sintetikorik, bizi ikasitik etorri eta a priori danik? Bai, bizi ikasitik etorri eta gero ziurtasun bat barruan daukenak dira,orreik dira matematika eta fisika-arloetan aurrera egiteko bideak. Baiña ez dago olako-rik metafisika´ren arloan.

Kant´ek ezagutzeko bide bi onartzen dauz, bata zentzunena eta beste adi-menarena, azkenengo onetan a priori.Batzutan zentimena da eta beste batzutan sentzun-bidearen barruan ikustea edo intuiziñoa.

Zentzunak artzen dabena fenomeno edo zentzun-bidea da, baiña gauzak dirana bera noumeno da eta ezin daiteke ezagutu. Zentzunen bidean intuizi-ño garbiak zabaltasuna ta denporea baiño ez dira.

Zentzunak emoten dauskuezan barri orreik alkatu egiten doguz adimena-ren bidez eta orretarako kategoriak dagoz, gauza askogaz bat egiteko zeregi-

ñak, eta orretarako adimenak amabi era daukaz, estareko zenbakuntza askorenak ala banakakoak diran agertzeko, zelakotasunarena baietza ala ezetza diran agertzeko, artu-emonak kategorikuak al ipotetikuak diran azaltzeko....

Eta kategori guztien gaiñetik Kant'ek "Ich denke" edo "Nik pentzatzen dot" ipinten dau: Danari batasuna emoten dautson norbera. Ori da eldutasunera eldu dan "Cogito ergo sum" Deskartes'ena.

Baiña zelan alkartzen dira kategori orreik kanpoan dagozen gauzakaz? Ori da kapora bidearen laburpena edo "eskema transcendental", kategori bakoitxak berea dauka, esatera zertasunak denporea, egiña izateak aldien joana...

Zentzunen bidea eta adimenaren bidea, fenomeno ta noumeno, obeto aztertu daiguzan.

Zentzunak artzen dabezan gauzak, bai or daukaguz, baiña zelan eldu noumeno edo adimenaren bidera? Kenketaren edo abstrakziñoaren antzera egiten dau ezagupen ori adimenak.

Eta noumena ezelan be ezagutu ezin ba'dogu, non dago metafisika? Bizi-ikasitik aurrera doana, buru argia da eta onen bidea silojismoak dira, batzutan gogoia, beste batzutan mundua eta beste batzutan Jainkoa billatzen daben errazoiketa-bideak.

Gogoaren edo arimearen bidea ez da bizi-ikasiaren bidekoa, arago dago, adimenaren "a priori" orrein artean.

Munduaren azterbidean itaunak egiten dira: Mugabakoa da? Zati banakorak daukoz?, Egilletzarik ba' dago mundu-barruan? Ba-dauka munduak kanpoan dan egillerik? Or gure buru argiak dana aidean ikusten dau, ori noumenoaren barruan dago.

Adimenak jainkoa billatzearen barruan, Jainkoa ideal bat da, baiña ba-dago? Kant'ek ez dauz onartzen beti emon diran zioak Jainkoa ba-dagoala baieztatzeke: Iru emon dira, izatearena edo ontolojikoak, fisikarena eta elburuarena, eta munduarena. Izaterenak ez dau balio, Jainkoa onena da, baiña ba-dago?. Ens a se eta berez bizi dan bat bear dala? Gauzak egillea eukitea zentzunen munduko gauzea da baiña ez aragokoa. Bardin elburuen proba orretan be.

Metafisika, zientzi lez eziña da. Or iru gauza legokez, zentzunak agertzen ez dabezenak, arimea, mundua eta Jainkoa, eta orreik adimenak ikusiko leukez, baiña adimenak ez dau ezer ikusten, ez dauko intuiziñorik.

Iru gauza orrek (arimea, mundua ta Jainkoa) onak dira, gauzak toki egokietan ezarteko, baiña zientzi-arloan ezin joan geintekoz zentzunak baiño arago .

Goazen orain buru argi utsaren azterbidetik (Crítica de la razón pura)'tik egiteetarakora, praktika'ra. Erantzuna beste iraulketa bat dogu.

Kant'en moral bidea, norberaren agintearena edo inperatibo kategoriko'rena da: Or agertzen da Deskartes'en autonomia. Ez da zentzun-bidekoen egoismua, ez da zentzunak baiño gorago dagon ontasun aundia. Beartuta ez da iñor geratzen atsegiña billatzen dauanean, eginbearra da oiñarria eta ori buru argiaren a priori bat da. Eta "inperatibo kategoriko" lez agertzen da., baldintza barik norberak norberaren buruari ezarten dautson bearbizuna. Iru gauza egin bear dauz: zure eginbidea bati izan daitela baliokoa, inguruko gizakiak eta zeure burua elburu dira ez bide, zure naimena beti izan daitela agintari bakarra.

Ikusi daiguzan oraik baieztu barik onartu bear diran egiak., egiteetarako buru-argiak ezarten dauzanak, eta orrelan onartzen diran moralerako bea-

rezkoak diralako. Iru oneik dira: Arimea il- eziña dala, askatasuna daukagula eta Jainkoa ba-dagoala.

Jainkoa ez da ba, Kant´entzat, besterik ideal bat buru argian eta baieztatu barik onartutako gauza bat egiteetarako bidean.

Erlejiñoa garbia da buru-argiaren bidean dagoanean eta inperatibo kategoriko orren barruan dagoana eskatzen dauanean, baiña edestian erlejiñoagaz beste gauza asko nastau dira, sorginkeriak be bai, eta Jainkoak agertua dala diñoan erlejiñoak bide bat eskintzen dau erlejiño garbitra eltzeko. Jainko bat dago, orduan erlejiño bakar bat, buru argiaren bideko erlejiñoa, eta Kristo egibide argien irakaslea da. Gizonagan txarrerako jokerea dago eta Salbataille baten bear-izana agiri da.

Eskubideen eta edestiaren arloa sarritan aztertzen dau Kant´ek. Ez dira gauza bat eskubideak eta oiturak edo morala, bata gizonaren barruan dago, bestea kanpoan. Eskubideak laterrietan dagoz, erritarrengandik artuta. Emen argi agiri da Rousseau´ren bidea.

Edestiaren barruan Jainkoaren ardurea agertzen dau Kant´ek, beintzat aurrerapena dagoala argi agertzen dau. Eta azken elburua gizakia da, baiña bizidun-mota lez artuta.

...

Amaitzeko, ez da gauza erreza Kant´en sistema guztia aztertzea, berak bere irakatsiak alkartu nai izan ebazan bizitzaren azkenean, "Opus postumum"en agerten dan lez, baiña ez eban amaitu. Or agertzen asi zana ez dago bere irakatsien aurka, baiña ba-dagoz aurkakeri batzuk, esaterako Kant´ek Jainkoa goian jarri arren, batzutan munduaren barruan jarten daua-la dirudi, egiteetarako edo moralerako legeakaz bat eginda.

Arazorik sakonenak aztertu ebazan gizakien bizitzan. Ez eban emon azken.

-erantzunik eta eskubidea daukagu bere gautza batzuk ez onartzeko, baiña bere irakatsiak ez dira aitzu bearko urrengo filosofo guztiak aztertu bear diranean.

Asko aurreratu da zentzun-bidea ta buru argiarena alkartzeko eta elburu batera eltzeko, baiña oraindiño asko falta da Aristoteles oiñarri dala, Akinotarrak lortu eban erakundea lortzeko.

## **ERROMANTASUNA/ROMANTICISMO**

Kant filosofo aundiak batu ebazan bere aurretiko pentsabideak oreka batera bultzatuz: Buru-argi bidekoak esaldi analitikuetan, zentzun-bidekoak sintetiko a posteriori esaldietan eta Aristoteles´en bidekoak sintetiko a posteriori esaldietan. Gaiñera beste zabaltasun aundi bat agertu eban errazoi teoriku eta praktikuagaz.

Baiña Kant il zan 1804n. urtean eta laster barriro banatu ziran pentsabide barriak. Iru gogoratuko doguz onein artean: Erromantasun-bidekoak Europa osoan, burubideko edo idealistak Alemania´n eta zentzun-bidekoak Angland´en.

Erromantikuak biotz-beroak ziran eta Kant´en ideibideari biotza gaiñeratu eutsoen, buru argiarena ez dan mundu ori alboratuta geratu ez daiten.

Baiña erromantikuak ete dauke filosofirik? Bai, eta lengo buru-bidea aberastu egiten dabe eta ametsa gaiñeratu.

Rousseau´k berak be buru argiagaz batera eukan erromantasuna, Goethe idazlea zan filosofoa baiño lenago, baiña ideiak be agertzen dauz. Schiller´ek askatasuna goratzen dau, baiña Frantze´ko iraultzaren ondoren latzak bildurtu egin eben eta “ez gagoz askatasunerako gertatuta” esan bear izan eban, kontzientzia oiñarri lez artuta.

Schiller´en gai bereziak dira oneik: Gizona buru-argia ta sentipena, biak, osotzen dabe, eta neurrigabetasunera garoaz ez mekanikeriak, organikeriak baiño. Orregaitik

erlejiño-arloan panteismorantza doa. Erdi-aroko gaia daben elebarriak maite dauz eta antxiñako jakintzak ez dauz aiztuten, Grezia´koa naiz Ameriketakoak.. Aberri bakoitxaren edestia goratzen dau eta ortik etorri dira azpaldiko abertzaletasunak, iñoz kaltegarriak be izaten diranak. Eder-lanak asko goratzen dauz mundugintzaren antzekoak diralako.

Baiña filosofian zer dakarre erromantikuak?

Schleiermacher (1768-1834) da nagusi eta onek batez be erlejiñoaren filosofia agertzen dau, eta, berak ezetz esan-arren, panteista edo dana-jainko zalea da, dana, sentipen naiz intuiziño, erlejiño-bidera daroalako eta erlejiño guztiak bat egitea da beronen ametsa. Or aztertzen dauz erlejiño guztiak eta onena kristiñauena dala diño. Ez, gero, dogmaz beterik datorren kristiñautasuna, sintesis bat agertu eta Jainkoaren menpean bizi izatea agertzen daualako baiño. Azkenean erlejiñoa baiño arago doa eta berak egindako jainkoa bat dauko.

Bide orrek geroago filosofi-zaleak “nihilismo”ra daroaz. “Nihilismo” edo “ezerezkeria” berba au Jakobi deritxon filosofo erromanzaleak sartu eban jakin-zaleen artera.

Or daukagu ba, erromanzaleen filosofia, sakontasun aundi bakoa, baiña Europa osoan zabaldu zana.

## HEGEL´EN AURKAKOAK

Hegel, esan dogu, idei-bideko edo idealisten artean filosoforik aundiena izan zan, baiña, azkenean, idei-bidekoa. Orregaitik, alde batetik eta bestetik, aurkalarri asko agertu jakozan, begien aurrean daukaguzan gauzak garrantzia eukela eta kontuan artu bear zirala uste eben filosofoak, materialkeria maite ebenak. Batzuk buru argiaren bidea itzi barik eta beste batzuk, Anglanderri´ko sensistak, Augusto Comte aurrerengo dala, zentzunen bidera edo enpirismora makurtuta. Oraintxe berton aitatu daiguzan Feuerbach, Marx, Schopenhauer, Kierkegaard, Nietzsche.

Filosofo oneik, geienak, sendiz eta jaiotzaz beintzat, Jainkozaleak dira eta batzuk protestanteen eleizetan artzainen seme eta eleizkide bizi diranak. Eta Hegel´en Askea edo absolutua ukatu arren, Jainkozaleak dira, gizadia Jainkoaren lekuan ipinten daben, Marx´en antzekoren batzuk izan ezik.

## FEUERBACH (1804-1872)

Teolojia ikasi eban eta Berlin´en Hegel´en ikasle be izan zan. Ez eutsoen irakasle izaten itzi, arimea illezkorra dala ukatu ebalako. Orregaitik idazkiak eta itzaldiak egitea izan zan beronen lana.

Asieran Hegel ́eri jarraitzen eutson eta adimen bakarra ta mugabakoa onartzen eban eta orra sartzen ebazan gizaki guztien adimenak (Ave-roes ́en adimen egille banatua agiri da or).

Baiña laster alden du zan Hegel ́en bidetik eta aurreko gauzak diran lakoak onartu-bearra ikusi eban: Gauzak zentzunakaz artzen doguz, ez ideiakaz. Eta ortik materialkerira jausi zan eta Jainkoaren lekuan gizakia ipiñi eban. Gero Marx ́ek artuko dau erlejiño-orde ori.

Gizonak bere izatea "iñorendu"edo "alienatu" egiten dauala diño (berba au be zabal agertzen da Marx ́en liburuetan) eta Jainkoa izpilluan lez ikusten dauala.Ori dala diño benetako kristiñautzea eta erlejiñorik onena, gizona Jainko burtzen dauana, benetako gizakundea. Baiña banaka ez gara ezer, besteakaz alkatuta gizadia sortzen dogu Kristok aldarrikatu eban maitasunaren bidez. Eta ori dana egiteetara, praktikara, eroango dau Marx ́ek.

### MARX (1818-1883)

Marx ulertzeko zeaztasun edo noziño batzuk lenengo:Sozializatu diño- nean, ulertu jabetasuna ukatzea edo gitxienez lanerako tresnak jabebakoa edo laterriarenak izatea. Plusbalia diñoanean auxe ulertu:Gauza bat lanaren bidez egiten danean,zor dana ordaindu jabeari naiz langilleari eta orren gai- ñera ugazabak ezarten dauna da plusbalia. Plusbalia ugazabarentzat artzen danean dirutza edo kapitala ugaritu egiten da eta langilleak berea galtzen dau, iñorendu, alienatu, egiten da.Langilleak aginpide gogorra lortu bear dabe, kapitalismoa azpiratzeko, ori da "diktadura del proletariado. Eta bear dan beste aldi orretan igaro-ondoren, bakoitxaren jabetasun-bako gizadia, atsegin-baratza edo paraisoa etorriko da.Giza-maillen burrukea(lucha de cal- ses)Langilleak kapitalisten aurka.Fokoa esaten jako dialektika orretan iztillu asko batzen dauzan jazokizunari.

Marx ́en gurasoak judatarrak eta esku-zuriak edo burgesak ziran. Marx bateatu egin eban luterotarren eleizan beste zazpi anai-arrebagaz batera, bateatua izan bear zalako lan liberalak egiteko..

Aitak txikitatik buru-argidunen bideak irakatsi eutsozan, Rousseau eta Vol- taire ́ri jarraituz eta bere kontura irakurri eban Hegel.

Irakasle izan nai eban baiña ez eutsoen itzi eta izparlari edo periodista lez egin eban lan, baiña emen be laster agertu jakozan arerioak.

Ezkondu be egin zan eta sei seme-alaba sortu, baiña iru baiño ez jakozan bizirik geratu. Aita ona ta maitekorra zan.

Paris ́en egin zan Engels ́en lagun aundia eta lankide be bai, sarritan ez da jakiten idazkiak bereak ala Engels ́enak diran.

Proudhon anarkistea be lagun izan eban baiña 1846n. urtean asarretu ziran.

1847n. urtean sartu zan "Liga Komunista"ra eta manifesto edo agiri nagu- sia agertu eban (U.H.P.), batez be Proudhon eta Bakunin ́en aurka. 1845n.urtetik aurrera London ́en bizi jaku, beste leku guztietan aurrean era- bilten ebelako.1873n. urtetik aurrera isiltasunean bizi izan zan.

DIALEKTIKA: Marx ́ek filosofia, politika ta ekonomia bat egiten dauz, materialismuaren bidean eta orretarako Hegel ́ek asmau eban dialektika artzen dau dana aztertzeko:Aurrean dagoana ta tesis,gure buruak artzen dauana antitesis eta gure jakintza sintesis. Gizona materia utsa da eta beronek aldatu bear dau materia ori "lana" bide dala eta orrelan sortzen da "homo

oeconomicus". Or sortzen da iñorentzea edo alienaziñoa, lan-tresnen jabeak oker jokatzen dabelako eta lanaren frutua ondo banandu ez. Gizon barria sortzeko iñorentzea kendu egin bear da,giza-mailla edo gizarte-klaseen burruka bide dala.

Iñorentzea, alienaziñoa kendu bear da erlejiñoen bidean: Bera ez zan jaio jainkobako,baiña ori aukeratu eban gero, erlejiñoak iñorentzea dakarrelako, kristilñauak, esaterako jopuak izatea eta apaltasuna onartzen dabez. Mundugintzarik ez dago, gizonak berak egiten dau bere burua ta mundua(Hegel).

Iñorentzea kendu bear da filosofian, burubidea ta eginbidea banatzen dauzalako eta mundua aldatu egin bear da burubideagaz.

Iñorentzea agertzen da politika-bideetan, orregaitik laterria kendu egin bear da orretarako Langilleen Agintaritzza gogorra edo Diktadura aldi baterako ezarrita

Iñorentzea kendu bear da gizarte-bidetik, giza-maillen arteko burrukea eginda, bakoitxaren jabetasuna kendu eta burgesak alboratu arte.

Iñorentzea kendu bear da ekonomi-bideetatik:Tesis burgesia da, antitesis langilledia eta sintesis billatzen dogun gizarte barria. Plusbalia gizarteratu bear da.

Marx'ek erlejoñotik artu dauz gauza asko:Pekatua,miseria,ber-erostea edo erredentziñoa,paradisua... eta oiñarrarian Israel Ejipto'tik urteten agiri da.

Eun eta ogei urte igaro dira edestian Marx jaio zala eta zeintzuk izan dira bere irakatsien ondorenak?

Asko aurreratu da langilleen egoerea,(Marx barik be egingo zala? ez dakigu), ez da kapitalismua ondatu,laterri batzutan sortu da Komunisten Aginterrri gogorra baiña paraisua etorri bearrean ondamendia ekarri dau aginte orrek:Korea'ko iparraldean,Berliñ'eko sortaldean, Kuba' n,Txina`n (orain asi dira azoka-bidera sartzen eta aurrera egiten) eta batez be Rusia aundian. Eta zenbat milloi gizon, (batez be Rusia'ko baserritarrak) orretarako eraillak! Indar aundia izan eban Marx'en gizartean, baiña ondoren txarrak asko langilledia aurretzea lortu arren. Pantsateko gauzea da!

## **ALEMANIA'KO IDEIA-BIDEKOAK**

Kant'en ondoren Alemania'n ideia-bideko jakinzaleak agertu ziran eta onein artean Hegel da Nagusi.

Ideia-bidekoak ez datoz oso-osoa Kant'egaz batera.

Oneintzat norbera da izaki nagusi eta garbia eta norberagandik kanpora ez dago beste ezer amets utsak baiño.Norberak egiten dau kanpokoia dana, baiña norbera ori goragoko adimenagaz bat eginda dago,mugagabeko adimenagaz bat eginda.

Pentsabide au 1831n. urtean,Hegel il zanean, amaitu zan.

...

FICHTE (1762-1814)Euren artean lenengo jakinzale ospetsua auxe da. Ikastetxe Nagusi askotan izan zan irakasle eta azkenean Berlin'ekoan erre-tore.Kant'egaz lagun izan zan eta Napoleon'ek berak be ba-dauka zer-ikusia bizitza onetan. Azkenean "Barri Onaren azaltzaille eta misiolari" biurtu zan eta tifus gaisoak eroan eban.

Kontuan artu jakitun oneik ez dirala kristautasunetik urrintzen, naizta euren pentsabideak geienetan naiko urrin egon fede onetatik.

Onein oiñarriak: Ezagupena lortzeko bidea berez argiak diran ideiak dira. Gogoratu Deskartes. Ortik datoz ekintzak askatasunaren bidean eta kontzientzia, baiña numenorik ez badago zer da aurreko mundu au? Dana da "norbera" gandik sortua, eta norbera "intuiziñoz" ezagutzen da, ideia argia da. "Norbera"ren aurka norbera-eza dago, baiña au be "norbera" k egiña da.

Morala danaren erdian dago. Norberak egiten dauanak norbera agertzen dau, norberaren barruan eta or dago kontzientziak eskatzen dauana.

Erlejiñoa: Bide onetan Fichte-ren pentsabideak erlejiño-bako izatera daroa, baiña 1804n. urtean asita, argi agertzen dau Jainkoa dala lotura-bako edo "absoluto" bakarra eta jakituri guztien oiñarria, eta ideia-bidean ulertu-eziña, ez da notin edo persona.

Gizona ta Jainkoa maitasunaz alkartzen dira. Nazaret-eko Jesus da gu Jainkoagaz bat egin gaituana, gizakundearen ezkutukiak agertzen dauan lez.

...

SCHELLING (1775-1854): Onen aita Luterotarren artzaiña izan zan. Hegel-en adiskide dogu eta abade izateko ikasi eban baiña gero ikaske-ta oneik itzi eta sendiko ezitzaile-lana artu eban. 22 urte bete ebazenerako filosofo ospetsua zan.

Izadiaren ulerpenean Fichte-ren jarraitzaile da, baiña ez dau argi ikusten "norbera ez dan" ori zer dan eta zelan izan daiteken "norbera" rentzat oztopo. Izaditik doa gogora eta gogotik barriri izadira. Izadia gizonagan bere burua ezagutzera eltzen da.

Jainkoa mugagabeko bizia da, argia da alde batetik eta logos bestetik.. Gauza bi orrean arteko borroka da edestia eta or agertzen da Jainkoa ontasun lez eta gaiztotasun lez. Berak egiña da mundua eta au gizonaren bidez beragana doa. Iliada ta Odisea lez da mundugintza: Jainkoak mundua egin eta mundua Jainkoagana biurtu.

Erlejiño nagusia ta onena kristiñautasuna da eta onek iru ekinaldi daukaz: Kera-rena edo legebidekoa, Paulo-rena edo askatasunarena, au da protestanteen bidea, eta Jon-en bidea, au Espirituarena da eta maitasunaz aurreko biak batzen dauz.

...

HEGEL (1870). Alemania-ko ideibideko filosofoen artean nagusia dogu au.

Lenengo ikasketak klasiku-tankerakoak izan ebazan, protestanteen seminarioan. Antxe esan eutsoen: "Zuk ez dozu balio filosofirako". Baiña berak teolojia oiñarri dauan filosofia sortu eban. Napoleon-egaz artu-emonak be izan ebazan.

Oiñarriko gaia auxe da beretzat: "Gutziz askea (absoluto) eta izaki mugatuak"

Jesus bere gaztaroan Kant-en bidekoa zala diño, moralaren argitzailea, baiña elduaroan maitasunaren azaltzaile biurtu zala. Kristautasunak egiten dauz bat Jainkoa ta gizona, orixe da gizakundearen misterioa. Eta orregaitik ezagutu geinke Jainkoa.

Zertarako da filosofia? Orain arte ez da lortu mugagabea eta mugatua alkartzea, baiña ori lortu bear dau filosofiak.



Dialektika da Hegel'en pentsabidean oiñarri bat: "Berez dana" k bestea izatea lortzen dau eta ortik dator gero "berez izatea" ta "beretzat izatea". Iru orreik dira "tesis, antitesis eta sintesi", orreik dira Hegel'en dialektikan iru une. Eta gero agertuko orren indarra Marx eta komunistengan. Tesisa aundi eginda agertzen da antitesisean eta onena dan sintesi sortzen dau, berrori bide ori asteko.

Jainkoa ez da gorengoa edo "transcendente", bera be beti doa egiten. "dana Jainko" edo panteismora bidea da ori.

Hegel'entzat lojika ta metafisika gauza bat bera da, ideia ta izatea bat diralako. Orreri esaten joko monismo eta ideibideko bakartasuna. Izadia ideia Jainkoagandik urtetea da eta orrek bere kontzientzia sortzen dau gizonagan eta berrori Jainkoagana biurtzen da. Gizonaren bere burua ezagutze orretatik sortzen da jakintza, ortik legeak eta morala. Etika sendian asten da eta gizartera zabaldu eta laterrian lortzen dau jainkoaren naia izatea. Ez aitzu emen asko goratzen dala laterria eta ortik sortuko da alemanen nazikeria.

Beretzat edestia ez da besterik erriaren espiritua baiño eta or dago filosofia, or erlejiñoa eta or zuzenbidea..

Aginterriak sortaldetik sartaldera doazela diño eta Prusia'ko agiterria (Alemania) dala aginterri guztien eldutasuna. Laterria baiño gauza aundiagorik ez dago eta onek nagusi urten dagian, bearrezkoak dira gudak. Napoleon dauko aurrean baiña nagusitasuna Alemania'ra dator.

Berrori emen nazikeriaren oiñarriak.

Erlejiño-arloan, Jainkoa gizonaren gogoaren bidez agertzen dala diño, edertia eta filosofia agertzen diran lez, baiña erlejiñoak garoaz "gutziz askea", absoluto, ezagutzera eta egin dan bidea berezko erlejiñoagaz asi eta Ejipto'ko edertiaren bidez eta Grezia igarota dator. Baiña onena kristiñautasuna da, gizakundearen bidez Kristo'gan agertzen dan kontzientzia. Or be dialektikaren iru uneak dagoz, "norberagan" lenengo (Irtutasuna), besteagan bigarren: mundugintza, pekatua ta salbakuntza eta alkartean, Eleizan, irugarren

Azkenean beretzat teologia ta filosofia bat dira. Itxura baten ondo agertzen da, baiña teolojia utsik itzi dau.

## **KIERKEGAARD (1813-1855)**

Ona emen filosofo arrigarri bat, aingerutxu bat! Besteen antzik ez daukana.

Kopenhage'n jaio zan eta aita eban otoitz-zalea, ona eta zintzoa pietista Lutero'tar protestanteen artean. Aita onek bere semea eleizako artzain izatei nai eban. Bere uriko ikastetxean ikasi ebazan filosofo klasikuak eta luterotarren teoloji edo jainko-iztia., alemanen ideibide edo idealismoagaz batera, Hegel nastean dala.

Itun, goibel, bizi izatera eukan berezko jokerea eta ez eban azpiratu jaietara eta jolasetara joan arren.

Gaztarroan kristiñau zintzo jarraitu eban, baiña gero aitaren bidetik albortu egin zan. Aitak itzi eutson betiko ituntasun ori, bere burua errudun zomatzete ori, ez jakon kendu..

Rejina Olsen neska gazteagaz maitemindu zan, baiña alperrik, itunago biurtu zan berak Jainkoaren bidea ikusten ebalako.

Bere idaz-lanak, esaterako "Aut-aut"(1843) edo Ikarea ta dardarea (1843) Birriñak (1844) Larria (1844)... alkar-izketa didaktikuak dira eta norkien bidez egiten dau berba.Ez da beti jakiten norkietan noraiño dagon bera sartuta.

Barru-larriaren edo angustiaren filosofoa esaten jako eta da..

Izparringiak eta Dinamarca'ko luterotarren eleizea jarri jakozan aurka eta orreik eroan eben eriotzara:Benetako kristiñau izatea nai eban eta orretara-ko bere aldiko kristiñautasuna, laterriagaz lotuta egoana, kritikatzten eban."Cristiandad" edo kristiñau-erria alboratu eta eleiza kristiñaua nai eban.

Berogeta bi urtekoa zala, bere uriko kalean jausi egin zan eta laster gaiso-etxera eroan eben eta an il zan.

Zelan ulertu Kierkegaard'en filosofia?

Filosoforik jainkozaleena dogu, baiña larri eta goibel bizi dana. Bere eguneroko bizitza.idazkian ikusten da ondoen bere filosofia zein dan. Erlejiñobideko idazlea dala diño berak, kristiñau izan nai dauana.

Zelan lortu ori?

Erri-kristiñautasuna eta fede-kristiñautasuna ondo bereiztuta (Cristiandad/cristianismo). Erri.kristiñautza ori salatu egiten dau,eroso biziteko laterriagaz bat egiten dualako.

BAKOTXA (individuo) da garrantzia dauna.Orretan da batez be Hegel'en aurkalari.Jainkoa ta mundua gauza bi ondo banatuak dirala be ba-diño Hegel'en aurka.

Bakoitxa Jainkoaren menpera doa baiña nortasuna galdu barik, gorputza ta arimea espirituan egiten dira bat eta ondoren dator "ni" izatea, ori be Hegel'en aurka "ni eta ez ni" esaten ebalako."Ni " ori Jainkoak egiña da eta Jainkoa alboratzen ba'dau, galduta dago:Bakoitxa bakarra da, ez dago izate abstraktorik.Bere zatiak alkartu bear dauz (dialektika:Tesis da gorputza,antitesis arimea eta sintesis espiritua).Norberaren espiritua ezagutzeko gorputza eta arimea ezagutu bear dira eta olan Jainkoagana urreratu.Espiritu ori (gorputz eta arima)Jainkoaren aurrean dagoan "bakotxa"(individuo) da. Alkartzte ori da itxaropendun izatea.

Bakoitza edo "ni" orrek sei egoera oneik euki leikez:

1) Zentzunezkoa edo estetikua: egoera au oraindiño espiritu bakoa da eta ez da "ni". Ez daki zertarako bizi dan, mozkortia,diruzalea eta arroa da eta beragandik kanpoan egiten dau bizitza,norberekoa da eta nasai bizi da.Ezin dau maitatu iñor, ez ezer,gogaituta bizi da eta jolastu arren be itxaropena galtzera doa.

2) Zuzenbidezko edo etikazko egoerea: Itxaropena galtzen danean asten da bizitza zuzena, Jainkoa aurkitzen da.Norberak aukeratu bear dau itxaropena galtze ori, Jainkoagana joan eta betetasuna lortzeko.Ori benetako bizia da, baiña lenengo damutasuna bear da gero onoinenak lortu (telos) eta Jainkoagana urreratzeko.Ortik dator gero gizarteratu eta zeregin guztiak betetea.

3) Erlejiño-giroko egoerea:Etikazko egoerea,estetikazkoa baiño ohea da, baiña ez da onena. Abraam'ek ba-eukan etikazko bidea baiña ori azpiratuta Semea ilteko gertu egoan, eta Jainkoagaz fedea eukitera salto egin bear izan eban. Bakoitxa be, Jainkoaren aurrean etika ondo beteta gero erlejiñora, federa eldu bear da, fedea irria da, pasiñoa da, eta irria bear da ziur ez daki-gunari baietza emoteko.

Filosofo au ba-dago Hegel aurka, esan doguzan gauzetan, baiña onek bakoitxari emoten dautso balioa eta bakoitxak aurkitzen dau Jainkoa.

Bere aldiaren ez eben filosofo lez aintzat artu, baiña bai XX gizaldia ezkeror, ortik sortu dira izate-zaleak edo eksistentzialistak (Sarte, Heidegger), ortik gure Unamuno, baiña "Iarrian", angustian, geratzen dira, (Gogoratu Unamuno-ren "sentimiento trágico de la vida") Kierkegaard ostera gorago joan zan, askoz gorago.

Luterotarren aurka, egiteai balioa emoten dautse eta gauza askotan katolikulari-antza geiago dauka.

Gaurko gizonai asko diñotse, bideak zabaldu ebazan jainkoagana urrera-tzeko.

## **SCHOPENHAUER 1788-1860)**

Dantzig-en jaio zan. Ama idazlea eban eta aita saleroslea.

Aitak Europa-barrura bialdu eban izkuntzak ikasteko eta orrelan bere antzera salerosle ona izateko. Berak ez eban nai bide ori eta ita il zanean filosofira sartu zan Gotinga-ko ikastetxe nagusian. Gero Berlin-era joan zan eta Fichte-ren jarraitzaile biurtu. Irakasle be izendatu eben, baiña ortik samintasunak baiño ez jakozan etorri. Alboan eta ordu beratan Hegel eban irakasle eta onek beraganatzen ebazan ikasleak.

Irakaskintza itzi eta liburuak idazten eta itzaldiak egiten jarraitu eban.

Idei-bide edo idealismuaren aurka agertu zan eta Hegel barritsu bat baiño ez zala esaten eban eta errazoi utsaren bidetik joiala, aurrean daukaguzan gauzak alde batera itzita.

Kant-en fenomeno ta noumeno, agirikoa ta barrukoa, onartzen dauz oiñarri lez.. Agiri dan mundua guk egiten dogu eta gu kendu ezkeror ez dago olako mundurik. Mundu ori zentzunen bidez eta intuiziño ezagutzen dogu, orretarako oiñarriak lau dirala: Gauzak joan doazela, abstrakziño edo kenketaz ezagutzen doguzela, matematika dala bide aldia eta tokia ezagutzeko eta egitea nai izatearen ondorena dala.

Ori dana fenomeno-ren mundua da, baiña noumeno-n ez dago aldirik ez tokirik, geure naipena baiño ez eta naipen ori bizigurea da, baltza ta itsua, errazoi-bakoa. Mundu okerra agertzen da or. Ezezkorra da.

Gizakiak zelan lortzen dau askatasuna? Estetikaren bidez, edertasunak poztu egiten gaitu eta ortik sortzen dira, Platon-ek esaten eban antzera, arke-tipo diran ideak. Oneik betikoak, aldatu-eziñak eta toki naiz aldi bakoak dira. Eder-lanen artean onena eresa edo musikea dala diño.

Bizigurea kendu egin bear dala diño. Orduan norberaren burua il? Ez bizigureak nekeak kentzen dauz eta naimena osatu. Dana dala, "voluntas" en orde "noluntas" artu bear dala diño, inditarren antzera "nirbana" antzeko batera eltzeko. Orra eltzeko "asketika" da bidea.

Samiña da filosofo onen ezezkortsuna eta ondorenak ekarriko dautsoz filosofiarri.

## **NIETZSCHE (1844-1900)**

Auxe dogu filosoforik negargarri-entzariko bat eta beronen pentsabideak burua galtzera eroan eben

Ona emen bereizitasun batzuk: Jainkoa il da, geuk il dogu; ortik ezerezkerrira goaz (nihilismo); goi-gizona edo "superhombre", aginpidea nai, kristiñautara

suna gorroto ustelkeri guztiak dakazelako; beti bizitza barri batera edo "eterno retorno".

Saxonia´ko Röken´en jaio zan eta aita eleiz-artzaiña zan, baiña gazte zala il jakon. Etxean fedefa bizi eben eta bera be artzain izatekotan egoan. Ikastetxe nagusira sartu zanean kendu jakozan burutasun orreik (Bonn´en):Teologija ikasten asi eta itzi egin eban, gero Leipzig´en Schopenhauer irakurri eban eta pozik artu.Or asi zan kristiñautasuna gorrotatzen. Ikasi ebazan filosofoetan ezezkortasun ikaragarria aurkitu eban.

Wagner musikalariaren lagun be egin zan baiña onen barruan kristiñauen aldeko burutasunak aurkitun ebazalako, asarretu egin zan.

Gaisotu be egin zan baiña batez be jakitun guztiakandik urrindu zan 35 urtekoa zala. Gero idatzi egiten eban. Maitemindu be egin zan, baiña ondamentia etorri jakon eta len baiño txarrago gelditu.

Bere burua jainkotzak agertzen be asi zan eta azkenean burua galduta bizi izai zan urteetan. Klean jausita egola jaso eben eta andik laster il zan.

Filosofia´ren edestian Jainkoa agertzen da, baiña ori guzur aundia da, diño, gu bakarrik gagoz, ez gara ezer, eta beste mundurik ez dago. Gaur dana len izan da eta barriro be izango, "eterno retorno", baiña gizadi barri baten "goi-gizona" agertuko da, balio barriakaz, ez ostera kristiñautasunaren onoiemenakaz, oneik jopuen, esklabuen, onoiemenak dira:apaltasuna, gaisoak eta txiroak goratzea..."Kristiñautasuna salatzen dot, ustelkeri guztien iturria dalako; Jesus aundia izan zan baiña Eleizeak saldu egin dau bere izakerea."

Benetan negargarria!

## COMTE (1798-1857)

Filosofoen burubide utsakaz aspertuta, Comte filosofi postibista batera sartzen da, aurreko gauzak kontuan artuta.

Txikitan katolikua izan zan baiña 14 urtekoa zala itzi eban bide ori, zientzi-zale biurtu zan eta zientzilariak errian agintari izatea eskatzen eban.

Positibismoa, aurrean daukaguzan benetako gauzak aztertzea eta ortik bizitzarako legeak ateratea da. Atzean dagozan gauzak, metafisika, ez dira ziurrak

Aurrerapenak gudan eta edestian iru aldi izan dauz: lenengo teolojioa, bakoitxak ume-aroan eta gizadiak fetitxismoan, politeismoan, monoteismoan eta Jainkoaren ordezkoa dan erregea onartuta, gero dator aldi metafisikoa edo filosofoena, eta orain eldu da positibismoarena, benetako aldia.

Zientziak sei arlotan banatzen dauz: Matematika, Grezian asita; astronomia erdi-aroan batez be; fisika, kimika, biolojia ta soziolojia.

Erlejiñoak santu barriak bear dauz, ez gaur Eleizeak daukazanak zeintzilari izan diranak baiño.

De Lubac´ek diño ateismorako bidea dala ori.

Dana dala, ortik ondorenak artu dabez batzuk, esaterako Renan´ek Biblia aztertzeo, Durkheim´ek gizartea ulertzeo eta Taine´k edestirako.

Emendik aurrera daukaguzan filosofoak aitatu daiguzan eta zerbait esan: Russell atomoak esaten dautsen pentsadi laburrenetatik asten da eta ortik ateraten dau dana. Akino´ko Toma´ek be ba daukaz gure aldi onetan lagun ezagunak, batez be Maritain eta Gilson. Martin Haidegger be or daukagu, baiña ezagunenak izate-zaleak edo eksistentzialistak dira, onein artean Sartre ta Kamus.. Zentzunezko filosofi bat agertu euskun Balmes´ek, batez bere

“Criterio” liburuagaz. Ez dogu aitzu bearko Alemania´ko filosofoak ain maite ebazan gure Unamuno eta bere ustez España´n lenengoa eta Alemania´n bostgarren filosofoa zan Ortega–Gasset.

HEIDEGGER (1899-1976)

Aita sakristau katolikoa izan zan eta semea abade izatea nai eban. Semea josulagunen artera sartu zan, baiña ez luzaroko, gero filosofia ta teolojia ikasi ebazan eta bere naiz gudara joan zan.

Fedea galdu eban baiña katoliku izatea itzi barik. Bultmann teologo ospe-tsuaeren lagun izan zan.

Hitler´ek izendatu eban Ikastetxe Nagusiko erretore, baiña ez luzarorako, urtebete baiño ez, eta orretarako nazien alderdira sartu bear izan eban. Unibersidadean be diktadore antzera agertu zan eta gorrotoa artu eutsoen.

Guda amaitu zanean alboratu egin eben, nazien lagun izan zalako. 1951n. urtean asi zan barriro irakasten eta larogei urtera eldu zanean itzi eban irakastea.

Izate zale edo eksistentzialistean asierea da.

SARTE:(1905-1980)

Sendia protestantea zan baiña bera laster birtu zan jainkobakoen artera. Filosofia ikasi eta irakatsi eban. Bere idaz-lanik onena “Dana ta ez dana” edo “El ser y la nada” da(1943).

Gudan alemandarrak atxilotu eben eta konumisten alde jokatu eban.

Albert Camus´egaz batera, izate.zaleen buru da.

## **GAURKO FILOSOFIA: BESTE MUNDU BAKOAK**

Gaurko filosofia ez dago goi-maillan kokatuta, berengo maillan dagoala dirudi. Ez dago filosofo aundirik, Bergson edo olakoren bat kendu ezkerre, eta dagozenen egazkadak be ez dira arranoaren antzekoak antzekoak, urrago dagoz oilloaren egazkada laburretatiuk.

...

Matematikazko burubide edo lojikaren bidera sartu dira, ez Euklides´enera, ezaugarrien edo sinboloen lojikaren bidetik doaz.

BENTHAM:(1748-1832): Onurearen filosofia (utilitarista).

Au gure aldia baiño apur bat lenagokoa da, baiña gaurkoaren oiñarria dalako dakargu emen.

Iraultzen aldian bizi izan zan. Alde batetik Europa´ko langintza-iraultza eta bestetik Ameriketa eta Frantze´ko politika-iraultza eta or sartzen diran aldakuntza asko bere irakatsiak kontuan artuta egiñak dira.

Onuraren filosofia da berea: Gizonak atsegiña ta zoriona billatzen dauz eta nekea ta samintasuna alboratu, eta ori da beretzat moralaren edo jokabide-iztiaren ardatza, orretarako bideak agertu b ear dira filosofian: “Zorionik aundiena, gizakirik geienentzat”.

JOHN STUART MILL.

Auxe da Bentham´en eta onurakortasunaren jarraitzailea, baiña zerbait aldatuta: Ez da edonista edo etsegin-zalea. Arazoa aztertzen ebillala kirioz gaisotu zan, 21 urtekoa zala.

Asko idatzi eban filosofiari buruz eta 1861n. urtean liburu bat argitaratu eban onurakortasunaren filosofiari dala-ta.

Bizitzaren elburua zoriona dala eta orretara doazen ekintzak dirala onak diño, orretara jo bear dau gizarteak bere legeakaz eta bakoitxari itzi bear dau-tso bide ori billatzen eta orren aurka doana galerazteko legeak egin.

CHARLES S. PEIRCE (1839-1914): AMERIKETAKO PRAGMATISMOA:.

Peirce da pragmatismoaren sortzaile, baiña bere idaz-lanak bera il ondoren argitaratu ziran.

Lojika´n ezaugarriak edo sinboloak artu bear dira kontuan, semiotika da filosofia. Ezaugarria bera norentzat dan eta nok artzen dauan ikusi bear da, dana gizarteko gauzea dala eta ez bakoitxarena. Orrek alkar-maitasunera eroan bear gaitu (agapismora), Joan´ek bere ebanjalioan diñoan lez, Jainkoa maitasuna dalako.

WILLIAM JAMES (1842-1910).

Harbard´eko irakaslea izan zan baiña Britania´tik artu eban enpirismoa ta onurakortasunaren bidea. Ideiak egiak dira, onurakorrak diralako.

JOHN DEWEY (1859-1952).

Mitxigan´en, Chicago´n eta Columbia´n irakaslea izan zan eta asko idatzi eban. Pragmatista da, baiña jokabide orren barruan instrumentalista: Ideiak bizitzarako bear diran lanabesak dira.

...

KANT´EN JARRAITZAILLEAK: Edesti-bidea.

XIX gizaldia edesti arloan arduratua zan, erromankeriari atsegin jakolako gai ori. Orregaitik agertu ziran Aita Santuaren edestia, Alemania´rena, Erroma´rena, Greziarena eta abar. Baita naikoa indar izan eba edesti-elebarria.

Ortik sortu zan filosofian be edesti-bidea edo "historicismo".

DILTEY (1833-1911).

Auxe da edesti-bidearen iraslea, fundadorea. Bide onetako filosofoak Kant´en Kritikak onartzen dabez, burubide utsarena (razón pura) eta egiterako burubidearena, (razón práctica), baiña beste bat bear dala diño, "razón histórica" edo edestiaren burubideko azterketa. Edestia ez da "a priori". Ez beti a posteriori be.

Diltey´ren pentsaerak oneik dira: Edestia egiteetan agertzen da baiña uler-tzen jakin bear da. "ermeneutika" bear dau.

Kant´en jarraitzaile barrien artean ez doaz lengo bidetik bide barrietatik baiño eta positibisten bideak alboratu nai dabez.

Ikastetxe Nagusi bitan agertu zan jokabide ori Alemania´n: Marburgo eta Baden´ekoetan.

MARBURGO´KO ESKOLEA: Cohen (1842-1918): Onek zientzi-jakintza zer dan azaldu nai dau, a priori eta a posteriori´ren bitartean. Eskola orreta-koak dira, baita, Cassirer (1874-1945), eta Natorp (1854-1924).

BADEM´EKO ESKOLEA: Windelband (1848-1915) eta Rikert (1867-1936). Oneik be Kant´en irakatsiak eta edestiko jazokizunak alkartzen dabez.

...

## IZKUNTZAREN FILOSOFIA

Beti izan da izkuntza eta pentsakeren arteko zer-ikusiararen ardurea filosofoen artean, Platon eta Aristoteles´egandik asita.

Baiña gaur ikuspegi barriak agertzen dira:Filosofia argitzeko bide lez artzen dabe izkuntza eta arlo bietan arazo bardiñak aurkitzen dabez

Anglosaxoien artean nagusi da filosofi barri au 1950n. urtetik 2000n.´era.

Talde bi daukaguz izkuntzaren filosofi onetan:1) Filosofiari erantzun lojika ta matematikaren bidez. Orrelan Bertram Russel (1872-1970). Au jainko bakoa da eta Nobel sariduna.Lojika´ko atomo ta molekulen bidea azaltzen dau (esaldi bakarrak= atomo, esaldi osotuak=molekula); eta Wittgensteim(1889-1951. 2)Eguneroko izkuntza azterten dabe: Gerge E.Moore (1873-1958) eta Wittgensteim, bigarren bizitza-aldian.

Guztien buru Gottlob Frege da(1878-1925), Lojika matematikaren sortzaillea

BEINA´KO TALDEA:Oneik neopositibistak ziran baiña naziak sartu ziranean Ameriketara iges egin eben, Juda´tarrak ziralako. Ezin egin izan eben gauza aundirik:Scillik (1882-1936),Carnap(1891-1970), Neurat(1882-1945), (Hahn (1879-1934). Guztiak euken eginbide bat:zientziak bateratu bide lez Lojika matematika artuta eta neopositibismoari jarraituz. A posteriori diran esaldiak ikusi egin bear dira egia diran, ez dago ondo arriak jausten diralako, arri au be jausiko dala esatea.

...

FALSIFIKAZIONISMOA: Kare propper (1902-1994), filosofo aundia. Onen ustez indukziñoaren bidetik ezin leike ezer ziurtatu.-Adorno filosofoa jarri jakon aurka. Zurrak dira baiña esaldi analitikoak tautolojiak dirala-ta sintetikuen aztertzea egiten dabe.Or dagoz Palanyi (1891-1976) eta Kuhn (1922-1996) eta beste antzeko asko, gaur be bizi diranak.

## GAURKO FILOSOFIA:BESTE MUNDURA BEGIRA DAGOZANAK

Gau egun,mundua eta gizabidea zabalik ikusten dabezenak gogoratuko doguz orain eta iru jokabide agiri dira:Frantze´ko gogozaleak,Akino´ko Tomas´en jarraitzaille barriak eta notin-zaleak.

...

### FRANTZE´KO GOGOZALEAK.

Oneik ideizaleen eta positibisten aurka dagoz eta notiña jaungoikoagana eta inguruko mundura zabalik dagoala diño.

BERGSON(1859-1942).

Paris´en jaio zan, Juda´tarren sendian, baiña bere pentsabideak katoliku izatera bultzatzen eban.Ez zan kristiñau egin judatarrak aurrean erabilliak ziralako.Nobel saria literatura saillean lortu eban.

Onen filosofian denporeak dauka garrantzi aundia:”Lenaren erpina geroa zulatzen” baiño besterik ez dala diño. Eta denporearen barruan bakoitxak daukan indarrari (elan vital) emoten dautson garrantzia.

Eragin aundia euki eban Maritain eta Gilson´engan, baiña oneik Akinotarraren bideari jarraitu eutsoen.

...

AKINO´TAR TOMAS´EN JARRAITZAILLE BARRIAK(Neotomistak).

XIII Leon Aitasantuak indarra emon eutson Tomas deunaren bideari, filo-  
sofia egoan illun-une aretan argia zabalatzeko, eta laster agertu ziran filoso-  
foak.

MARITAIN(1882-1973).

Sendi protestantean jaio zan baiña gero katoliku egin eta ospe aundia  
lortu eban katolikuen artean, Batikano´ko II Batzar Nagusira deitua izan  
arte.Bergson´en bultzadeak asko lagundu eutson..

Maritain beti agertu da, unerik txarrenetan be bai, euskaldunen alde.

GILSON (1884-1978).

Erdiaroko filosofia aztertu eban eta orrek bere ikuspegia asko zabaldu  
eban Akino´ko Tomas ondo ulertzeko.

...

NOTIN-ZALEAK.

XX gizaldian,30n. urte-inguruan, guda bien bitartean sortu zan filosofi-bide  
au:1948n. urtean agertu ziran giza-eskubideak eta Batikano´ko II Batzar  
Nagusiak eragin aundia dauke eurengan eta eurak be lan aundia egin eben  
orretara giroa aldatzen.

MOUNIER (1905-1950).

Katoliku baserritarren artean jaioa dogu eta gatx egin jakon uriko girora  
sartzea

MARCEL(1889-1947).

Ez da erreza filosofo ospetsu au ekintza batera sartzea,batzuk izate-zalea  
edo eksistentzialista dala diñoe, baiña guk norti-zaleen arlo onetara sartzen  
dogu.

KAROL WOITTLA, gaurko Aita Santua.

Onek be eragin asko izan dauz beronen bizitzan bai neotomisten aldetik,  
bai Husserl´en jarraitzaileen aldetik eta bai agiriko gauzen edo fenomenoloji-  
zaleen aldetik eta norki-zale edo personalisten aldetik, batez Max Sche-  
ller´en bidea jakon atsegin, baiña beste zeregin batzuk filosofia iztera eta egi-  
teera biurtzera beartu dabe.

MARTIN BUBER (1878-1965).

Judatarra ta Biena´n jaioa da.Norkia gizartean agertzen dau onen filoso-  
fiak.

LEVINAS (1906-1995).

Norki-zaleen edo personalisten filosofi-barruan ona da.

## **AGIRIKOZALEAK ETA IZATEZALEAK (Fenomenalistak eta eksistentzialistak)**

Husserl´ek ipiñi eutson oiñarria fenomenoloji edo agirikozaletasunari eta filo-  
sofi au laster zabaldu zan Europa osoan eta emendik Ameriketara. eta  
Asia´ra..

Filosofo´rik aundienak Max Scheller eta Heidegger dira. Azkenengo au  
lenago aztertu dogu.

Iturri beratatik sortuko dira gero izatezaleak edo eksistentzialistak. Bide au  
Heidegger´en bidez eldu zan Sartre´gana eta Camus´egana.



Fenomenologiaren bide onetan daukagu Edith Stein andrea. A judatarra zan kristiñau egin eta lekaiame karmeldarren artera sartu zan. Naziak arrapau eta judatarrentzat euken laban erre eben. Gaur santa eta Europa´ren zaindარი dogu.

HUSSERL 1859-1938).

Judatarra da baiña kristiñau egin zan. Asko idatzi eban eta beti fenomenologiaren alde. Artxibo aundi baten dagoz bere esku idazki asko. Agirikoa edo fenomenoa artzen dogunean, gauzea bera geuganatzen dogu..

MAX SCHELLER (1874-1928)

Ama judatarra eban eta aita be ezkontzeko judatar egin zan. Bera batxiller ikasten egoala egin zan katoliku.

Diltey´ren ikasle izan zan Berlin´en. 1901n. urtean Husserl ezagutu eban eta beroneri jarraitzen asi zan. Irakasteko baimena kendu eutsoen ezkontzarloan oker jokutzen ebalako

1913n. urtean asi zan balioen filosofia irakasten eta orretan da gaur eza-guna. Azkenean dana-jainko edo panteista agertzen da.

Gizonak ondo daki zertasuna (esentzia) eta izatasuna (eksistentzia) banatzen.

Balioak dira bere gai berezia:!) Zentzunen balioak, esaterako atsegijñā, poza... 2) Bizia balioak, esaterako egoera ona, zintzotasuna, adorea... 3) Gogoaren balioak: Egia, ederra, zuzena... eta gorengo dagozan 4) Erlejiñā-balioak. Beti gagoz goragoko balioetara deituta, baiña orretarako bergokoak ez dabe izan bear oztopo.

Gizona izatez erlejiñoduna da..

MARTIN HEIDEGGER (1889-1961)

Bide orretara sartu lei au be, baiña beste leku baten agertu dogu. Batzuk izate-zalea edo eksistentzialista dala diñoe.

...

IZATE-ZALEAK (Eksistentzialistak).

Oneixek dira XX gizaldian entzuterik geien lortu daben filosofoak. Guda bien artean zabaldu zan filosofi-bide au eta 50n. urterako zabal egoan Europa guztian eta Ameriketean. Sartre, Camus eta Marcel dira zabaltzailleak. Guda-giroan bizi diran filosofo itunak dira. Kierkegaard´en larria ez dauke aiztuta eta Nietsztxe be buruan darabille, baiña idazle onak dira eta atsegijñā zabaldu eben. Ez dauke guztiak jokabide bardiña.

JASPERS (1883-1969)

Nazien aurka jokatu eban eta kalteak etorri jakozan, batez be irakatsieziña..

Oiñarria: Zientziak eta filosofia zelan alkartu eguneroko bizitzagaz. Jainkoagana ezetzaren bidetik eltzen gara.

SARTRE (1905-1969)

Sendia protestantea zan. Ezkondu barik alkartuta bizi izan zan bizitza osoan.

Bere lanik onenak "Izatea eta ezereza" (1943) eta "Nausea" edo asperkuntza dira.

Idazle oso ona da, elebarriak eta antzerkiak idazten be bai, baiña beti izate-zaleen bidean.

Naziak atxillotu eben baiña aske geratu zan.

Bere filosofia agertzeko “Denpora barriak” eritxon aldizkaria argitaratzen eban bere lagunakaz batera.

Marx´en bidea onartzen eban, baiña era berezian..

Jainko-bakoen artekoa da, bere ustez Jainkoa izateak gizonaren askatasuna kentzen daualako.

Gaur jarraitzaille gitxi geratzen jakoz.

## **AZKENENGO 50 URTEAK**

### **AZTERTZAILLEAK**

Adorno ta Markuse marx-zaleak sortu eban Frankfurt´eko eskolea. Egoera txarra egoan aldi aretan naziak lenengo eta II guda gero. Gure filosofiak ameriketara iges egin bear izan eban.

Onein elburua gizartea aztertzea da, Marx´en dialektikaz baiña ez sobiet´tarrakaz.

**ADORNO (1903-1979)**

Gizarte aberatsak eta goseak illik bizi diranak gogoratzen dauz. Fazismu guztiai dautse gorrotoa, Errusia´koari be bai.

**MARKUSE 1898-1979)**

“Neurri bakarreko gizona”,1964n. urtean argitaratua,da bere libururik onena. Au be gizarte-aztetzaillea da baiña Freud´en aurrean dagoala. Freud´ek onartzen dauan zapalkuntzaren bidea ez da onartzen, beste kultura bat eskatzen dau.1968n. urteko iraultzaren aurrean.

...

**ERMENEUTIKAREN BIDEA.**

Argi berba egitea eta itzulpenak ondo egitea eskatzen dabe eta idazkiak azaltzeko bidea da euren ermeneutika.

Besteai lagundu bear jake, esanak eta idatzia ulertzen..

Norberak norberaren burua be ulertu egin bear dau eta mundua ulertzen alegindu.

**GADAMER (1900-2002)**

Heidegger´eri jarraitzen dautso, baiña Platon eta Aristoteles aitzu barik eta Hegel bere erara artuta..

Beti aurrean daukagun mundua eta inguruko gizakien ulermena kontuan artzea,ori da ermeneutika..

Izkuntza da orretarako bidea, batez be alkar-izketea.

...

**ERAKUNDE-BIDEA (Estrukturalismoa).**

Izkuntzalariak asi eban bide au eta gero filosofoak jarraitu.

SAUSSURE izan zan asi ebana (1915).”Barri-aldiaren ostea” edo “post-modernidad” esaten jako bide oneri.

1979n. urtean Lyotard´ek sortu eban “Barri-aldiaren ostea” ori eta “post-modernidad” berbea be berak asmatua da. Eta or dago pop artea,rock eresiak, eta hippiak.

68n. urteko iraultzak il ebazan Buru-Argien gizabidea eta Angland'eko garbikeria (puritanismo). Ortik sortu zan "pentsarea makala" Battino'k deritxan lez, "pentsaera nekatua" dala diño Bataille'k eta "deskonstrucción" Derrida'k, "izkuntza-jokoak" ostera Lyotard'ek. Or sortu zan 68n. urteko oiua: "Iru-dimena agintaritzara". Eta ortik datoz aspaldian albotik dabiltzan ekinzta: "Feministak", "ekolojistak", "omoseksualak"...

Filosofo on bi begiratuko doguz Lyotard eta Derrida.

LYOTAR(1924-1998)

Lengo filosofi-erakundeak berba ta berba baiño ez dabe egin,"metanarratiba" k dira. Esaldiak izan bear dabe nagusi.

DERRIDA (1930)

Judatarra zan eta orregaitik alboratua. Sorbona'n izan zan irakasle eta gero beste leku askotan.

Lengoa "logozentrismo" zan eta "metanarratiba" artzeco aldatu bear gara eta ortik etorriko da "deconstrucción"

Pentsaera orretan gizona ezerezean geratzen da.

...

AMAITZEN:

Filosofia III mile-urtera nekatuta eldu jaku eta azken-azkenean gizakiaren eriotzea iragarri dau, lenago beste batzuk Jainkoaren eriotzea iragarri eben antzera.

Or amaitzen da Buru-argitudunak arro agertu eben gure aldiko filosofia. Oarrantza bultzatu eban gure mundua Nietzsche'k.

XX gizaldiko guda bien bitartean sortu da negar-aldi ori eta, arro egoan Marx-bidea be Berlin'go ormeagaz batera jausi zan.

Erreta dagon mundu orren ke-artean agiri dira itxaropenaren argi motel batzuk: Izzate-zaletasuna edo eksistentzialismoa, izkuntza-bideak,... baiña laster amaituko dira.

Eta ori orrelan dala, trebe-bideko arloak aurrera doaz bildur barik eta sendo, baiña Jainkoa il dabenak eurak geratu dira ilda.

Ez daigun aiztu gizakiaren duintasuna eta billatu daigun egia, orixe izango da filosofia gitea.

*("Palabra" agialetxearen "Historia de la Filosofía" tik)*

## GEIGARRIA: GURE ALDIKO FILOSOFIA ESPAÑA

XIX-XX gizaldiak onak izan dira filosofi-arloan. Iru gai daukaz: Gogo-bizitza Balmes'ek, dana-bardintasuna edo "errelatibismoa" Ortega y Gasset'ek eta mugako metafisika Leonardo Polo'k.

XIX GIZALDIA.

JAIME BALMES(1810-1848) da onena. Bere aldian poztasuna ta sena falta dirala diño.

Sena filosofiaren iturria da: Aurreko gauzak diran lez artu bear dira eta or Buru-Argi-zaleen eta Idei-zaleen aurka doa. Izpilluagaz jazoten dana dala diño filosofian jaso dana: Izpillua ondo ba-dago irudiak ondo agertzen dauz baiña apurtzen edo okertzen ba'da, irudiak be oker agertzen dira. Orrelan adimenak be.

JULIAN SAENZ DEL RIO(1814-1869)

Krause alemana eta paenteista edo "gauza guztiak Jainkoagan" diñoana da gidari.

Kristiñaua da, baiña ez dogmatikua, esantziala baiño. Barruko kristiñautza nai dau, ez liturjiakoa.

Gizartean bitarteko erakundeak indartu bear dirala diño esaterako sendia, lanbideak, eskolak, alkarteak.Orren gaiñetik gizadia maitatu eta gorago Jainkoa.

GINER DE LOS RIOS (1839-1915)

Au be krausista da eta Saenz del Rio´ren jarraitzaile

Bere filosofian eskubide-arloa da nagusi.

"Institución de libre eneseñanza" sortu eban 1876n. urtean:ikasleak azterketarik ez egitekotan eta erlejiñoa aske ikasi dagiela.1936n. urtean kendu eben.

Lagun asko ta onak izan ebazan, arerioak be bai.

...

XX GIZALDIAREN LENENGO ERDIA.

98' ko taldearen inguruan larritasuna nabarmentzen da. Iru jakitun aitatu koguz Unamuno,D´Ors eta Ortega.

UNAMUNO(1864-1936).

Kierkegaard aurkitu eban, orduan oraindiño oso gitxi ezagutua eta onen ikuntza,danes, ikasi eban berau irakurteko ta ulertzeko:Biak ziran barruko erlejiñoaz arduratuak, biak kristinautza eratuan edo laterri-zalearen arerioak eta biak eben elburu erria itzartzea. Buru-bidea edo lojika eta biotz-bidea edo kardiaka bereizten dabez ondo."Ni betiko biziko naz, ori biotzak diñostalako, naizta buruak argi ikusi ez."Biak bizi dira "agonia"n, burrukan, sartuta.

Unamuno´ren euskaltasuna batzuk zalantzan jarten dabe, baiña berak argi esan eban Salamanka´n, Milan Astray eta Franco´ren andrearen aurrean, bera euskalduna zala, baiña Bilbao´n Aldundiak iragarri eban Institutoko euskerearen katedra´ra aurkeztu zan Azkue´gaz eta beste batzukaz batera eta galdu egin eban. Orrek itzi eban suminduta eta arrezkero euske-rea maite dau, idatzi be bai zerbait, baiña etxe-bizitzarako izkuntza dala diño eta illeta ospetsu bat egin bear jakola.

EUGENIO D´ORS(1882-1954).

Pentsalari askea da, ez Unamuno´ren eta Ortega´ren bidekoa.

Eragin katalandarra ezarri eutson filosofiari:Noucentrismo.

Gai asko eta batu-eziñak aztertu ebazan

Seny edo euskeraz "sena" esango geunkena goratzen dau,zentzuna.

ORTEGA Y GASSET (1883-1955)

Europa´ko filosofiak ondo ikasi ebazan eta Marburgo´ko eskolan egoan Kant-zale barrien bidea artu eban.

Idei-zaleen aurka agertzen da: "Ni eta nire ingurua" artu bear dira kontuan.

Gauzak artzeko bakoitxak bere ikuspegia daukala diño,"perspectivismo" da ori.

Gizaki gertatuak eta erritarren moltzoa edo masa bereizten dauz, eta auketuen alde dago "Revelión de las masas" (1929) aiztu barik. Idei barriak daukezenak gitxi dira, baiña gaur "masak" datoz eta or ez dago baliorik-eza baiño.

...

## XX GIZALDIAREN II ERDIA.

Ortega´k sortu eban Madrid´eko Eskolea eta emen daukaguz Garcia Morente, Zubiri, Gaos, Maria Zambrano, Ferrater Mora, Cruz Hernandez, Lopez Aranguren...

Akinotarraren jarraitzaille barriak be or dagoz.

XABIER ZUBIRI (1898-1983)

Aurreko gauzak bear diran lez artzen ez dau jakin filosofiak eta zertasuna, esenzia, ondo ulertu bear da.

Adimenak zomau egiten dau eta zentzunak be ulertu. Biak ulertzen dabe.

MARIA ZAMBRANO (1904-1991)

Gauzak olerkaria ren antzera ulertu bear dira, sinpatiaz.

JULIAN MARIAS (1914)

Bakoitxak dauko bere ingurua eta "circunstancia".

Bizitza bizi izatea da eta giro baten bizi gara, etorkizunari begira.

Gai asko ta sakonak aztertzen dauz.

LEONARDO POLO (1926)

Balmes dau asierea ta oiñarria.

Gauzak pentsabidea baiño arago dagoz.

Giza-arloan gauza bi dagoz argi:Askatasuna ta doia.

Personalisten giroan dago.

## GEIGARRIA: FILOSOFO EUSKALDUNAK

Ez da erreza izaten sarritan nor dan filosofo jakitea, batez be filosofia ta teologia batera joiazan aldian, baiña filosofia´ren edestia ikusi ondoren, ezin dot itzi agertu barik gure filosofoak zeintzuk izan diran.

Erromatarren aldian jakitun aundi bi izan genduzan Euskalerrria´n, lenengo gizaldian Kintiliano eta laugarrenean Prudentzio.Zalantza barik ba-euken euren filosofia eta euskaldunak be ba-ziran, erromatar jantzita egon arren.

Bisigoten aldian ez daukagu barri aundirik, baiña bai Kordoba´ko Eulojio´k gure lekaide-etxeetara egin eban ikustaldia eta emen jakitun asko aurkitu ebala diñon eskutitza.Liburutegi onak aurkitu ebazan, batez be Leire´n, eta liburuen artean filosofikoak be bai.

Arabiarren aldian Muskaria´n aurkitzen doguz Banu Kasi´tarrak euskaldunakaz artu-emonetan eta emendik zabaldu zan filosofia,legetza,elertia ta medikuntza, dana nastean.

Ikastetxe nagusietan be agertzen dira euskaldunak filosofia ikasten, esaterako Lerida´n, Jone Albrit lagun ebela eta ikasle naparrak aurkitzen doguz Alemania´n, Paris´en, Tolosa´n Montpellier´en, Erroma´n,Bolonia´n, Oxford´en eta Kanbridge´n.

XV gizaldian Getaria´ko Martin Kontantza´ko Batzar Nagusian agertzen da, Biana´ko Martin IV Alejandro aita Santuaren teologo zan, Arrasate´ko Meltxor Alkala´ko erretore.

XVI gizaldia urrezko gizaldia da euskal filosofo ta teologoentzat.Iratxe ta Oñate´ko ikastetxe nagusietan ugari daukaguz olako jakitunak.

Ez dogu aitzu bear Bitoria´ko Frantzisko, Salamanka´ko irakaslea.Onen filosofia geien agertu da eskubide-arloan eta ospetsuak dira bere "Relecciones de Indis", laterri-arteko eskubide-arloaren sortzaille diranak. Onen denporakoa da Arrasate´tik urtena da Domingo Bañez

Doctor Nabarrus esaten jakon Azpilikuetakoko Martin Filosofoari. Baztan´en jaioa eta Xabier´en osabea zan. Eta berak esana da: "Pozik nago naparra ta euskalduna nazelako". Eta euskerea asko goratzen eban.

Bartolome Karrantza teologo ta filosofo ospetsua Miranda de Arga´koa zan.

Aldi orretakoak dira josulagunen arteko filosofoak, esaterako Martin Olabe gasteiztarra eta Trento´ko izlaria.

Descartes´en inguruan agertzen jaku Donibane Garazi´ko Juan de Huarte. Onak argitu eban Monteskieu eta enpirismoari bideak zabaldu eutsozan.

Nominalismoaren sortzailleen artean daukagu Paris´ko Ikastetxe Nagusian Zelaia´tar Juan.

Eskoto´ren jarraitzailleak ziran Berantebilla´tar Padro, Tolosa´tar Frantzisko, Iribarne´tar Juan, Luis Pueyo eta beste lagun batzuk.

Akino´ko Tomas deunaren jarraitzailleak asko eta asko izan ziran euskaldunak

Filosofo ospetsua dogu Urraburu´tar Juan Jose Zeanuritarra, Gregoriana´n filosofi-irakasle izan zana eta liburu lodiak ta irakurgarriak idatzi ebazana

Unamuno bera, iñoz euskerea gorotatzen agertzen dana, euskalduna eta filosofo ona da. Irakurri Salvatore Mitxelenaren Unamuno ta Abendatz liburua. Unamuno´k Alemania´ko filosoforik ospetsuenakana urreratzen gaitu euskaldunak. Kierkegaard irakurteko ta ulertzeko, onen izkuntza ikasi eban. Beragaz batera daukagu Garagorri Paulino bere agertzaillea..

Juan Zaragueta izan gendun beste filosofo ospetsu bat, irakasten eta liburua idazten ona eta onen inguruan Xabier Zubiri.

Europa´ko alde guztietan eta aldi guztietan antxe egon gara euskaldunok filosofia ikasten eta irakasten eta batzutan, Frantzisko de Bitoria´ren antzera, zarata aundia atera dogu munduan.

Amaitzeko irakasle izan dodazan filosofo on bi aitatu bear dodaz, esker onez: Oraindiño bizi da Urbako Gil irakasle sakona eta Rordiguez de Yurre Gregorio, etika eta gizarte arloetan irakasle guztiz ona.

**Olazar´tar Martin´ek**

## (DIARIO “DEIA”:2004-10-10)

Idaz-lan au idazten giarduela irakurri gendun DEIA´n albiste au.Ez dogu besterik egiten euskeratu baiño.

”Des-eraikuntza”ren filosofoa dan Jacques Derrida il da.

Des-eraikuntzaren burubideak egin eban ospetsu mundu guztian,batez be USA´n.

Jacques Derrida 74 urteko filosofoa, “des-eraikuntza” deritxon burubideak bultzatu ebana il zan atzo goizaldian Paris´eko gaiso-etxe baten,bare-sare´ko min-biziak eraginda.

1930n. urteko uztaillaren 15n. egunean jaioa zan El Bihar (Arjelia`n), 1962n. urtean bere gurasoak ordain-kitatu eben etxean., Magrebi lurralde onen askatasuna lortu zan urte beratan.

Derrida izan dogu munduan ospirik aundiena izan dauan filosofo frantzesen arteko bat. Berak edestiari egin dautson ekarpenik aundiena “des-eraikuntza”ren burubidea da. Berba orrek auxe esan gura dau:Filosofo klasikuen idazkietan asita berbeak dauzan adierazpenak azertu bear dirala. Des-eraikuntzaren burubide au ospetsu egin zan munduan, batez be Usa´n eta an Derrida benetako filosofi-izarra zan.

Derrida´k asko idatzi dau eta goi-maillako irakasle izan zan ikastetxe askotan, esaterako Harvard´en. Yale´n eta John Hopkins´en., baita Paris´eko Sorbona´n be..Filosofiaren munduan egin dan azterketa sakon baten aurrelaria da eta gai au irakasteko bideak zabaldu dauz eta orregaitik sortu eban 1985n. urterarte zuzendu eban Filosofia´ren laterri-arteko ikastetxea 1983n. urtean.

Beste arlo askoren artean, politikan be sartua zan Derrida .Oneik dira bere ekintzak: jakitun txekiatarrak lagundu eutsen,Afrika´ko Apartheid´en aurka jokatu eban eta ardura aundiaz begiratzen eban palestindarren egoerea”.

Gure aldiko filosofiak arranoak egazkadarik egin bari jarraitzen dau

**Olazar´tar Martin´ek**

**DEIALDIA, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen atal, bulego eta unitate parekatuetarako 104 buru merezimendu lehiaketa bidez izendatzeko**

# **EUSKARA SUSTATZEKO UNITATEAREN BURUTZA**

Ekainaren 28ko 244/2004 Foru Dekretuaren bidez aldatu zen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plan-tilla organikoa. Foru Dekretu horren xedea da zenbait atalburutza eta bulego-burutza merezimendu lehiaketa bidez betetzea.

Lan memoria honen xedea bikoitza da: batetik, burutzaren eginkizunak eta horiek oro gauzatzeko betebeharrak, baldintzak eta baliabideak aztertzea eta, bigarrenik, Euskara Sustatzeko Bulegoa teknikoki eta administratiboki nola antolatu behar den azaltzea.

## **1. EUSKARAREN SUSTAPENAREN AURREKARIAK**

Honako hauexek dira Euskararen Sustapenari begira egin diren jardueren aurrekaririk interesgarrienak, betiere Euskarari buruzko Foru Legea 1986. urtean aldarrikatu arte gertatutakoak.

Urteak joan, urteak etorri euskara Nafarroan sustatzeko eta berreskuratzeko ekimenak anitz izan dira. Hona hemen garrantzitsuenak:

### **a) 1877. urtea**

1877an euskarak Nafarroan bultzada handia izan zuen. Iturralde y Suit buru zutelarik, "Asociación Euskara de Navarra", elkargoa bildu zen eta bere helbururik behinena hizkuntza zaintzea eta sustatzea izan zen.

Literaturarekin, historiarekin eta foru edo lege zaharrekin batera, euskara ikertu eta ezagutzera eman nahi izan zen. Garai hartan hartutako erabaki hura oso garrantzitsua izan zen, baserriko hizkuntzari prestigio gaitza eman baitzizaion. "Euskara" aldizkaria sortu zen bazkideen arteko loturak sendotzeko.

Nafar aitzindari haiek gonbit egin zieten Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian euskara maite zuten pertsoneri. Xedea, bakarra: Nafarroako esperientzia lurralde haietan ere sortu eta gauzatzea.

### **b) 1925. urtea**

Berrogeita hamar urteren buruan, 1925ean, hurrengo belaunaldiak aitzindari haien lekukoa hartu eta "Amigos del Euskera" elkarteak eratu zuen.

Bi erakunde horiek ez ziren bat eta bera: lehenak, 1877koak, hiria zuen jomuga. Euskara hirian sendotzea zuten helburu. Bigarrenak, 1925ekoak, herri eta baserriarren kontzientzia iratzartzea zuten xede. Horretarako egiten zuten lan. Bertsolaritza jaiak, dantzaldiak, erromeriak eta abar antolatzen hasi ziren.



Haurrak eta gazteak ez zituzten aldean utzi. Euskaraz mintzatzen ziren haurrei sariak ematen zizkieten. Mezuak etxeetara bidaltzeko mezulari izan ziren haurrak. Gaur egun ere badira oraindik jarduera hura nostalgiaz gogoratzen duten adinekoak.

c) 1930. urtea

Elkarteak lanean segitu zuen. 1930ean Iruñeko lehen ikastola sortu zen Eskolapioen eskolan. Hiru urteren buruan hiru ikasgela izatera heldu zen. Elizondon ere ikasgela bat ireki zen garai berean. Honako honetan ere haurrak eta gazteak izan ziren helburu, jakina euskaraz mintzatzen zirenak saritzeko.

Hori hala izanik ere, begien bistakoa zen euskara atzeraka ari zela Nafarroan. Halaxe aditzera eman zuten Urquijok 1910ean, 1935ean Irigarayk eta 1941ean Caro Barojak.

d) 1958. urtea

Hiru hamarkada luzeren ondoren ezagutzen hasi zen lan eskerga hura. 1958an euskara sustatzeko jarduerak egiten hasi ziren. Paregabeko lana izan zen hura. Gizarteak berak hartu zuen bere gain lan haren zatirik handiena. Dena dela, erakunde ofizialetan eta elizan lan egiten zuten pertsona batzuen laguntza ere aipatu beharrekoa da hemen.

e) 1966. urtea

Nafarroako Diputazioak Euskara Sustatzeko Atala 1966an sortu zuen. Batzordekideen artean zegoen Pedro Diez de Ulzurrun. Lan bikaina egin zuen euskal eremuko ikastetxeetako ikasleen artean: euskara sustatzeko jarduerak antolatzeaz gainera, haur euskaldunen artean diplomak eta opariak ere banatu zituen.

f) 1970. urtea

1970ean Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak Hezkuntzaren Lege Orokorra argitaratu zuen. Lege horren 15. eta 17. artikuluetan esaten da tokian tokiko hizkuntzak Eskolaurreko eta OHoko programetan irakatsi behar direla.

g) 1972. urtea

## EUSKARA IRAKASTEKO ETA SUSTATZEKO OINARRIAK

1972an argitara eman ziren "Euskara Nafarroan irakasteko eta sustatzeko Oinarriak".

Oso garrantzitsutzat dugu agiri hori, 1972ko abenduaren 15ean Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman baitziren "Euskara Nafarroan irakasteko eta sustatzeko oinarriak".

Foru Diputazioaren Hezkuntza Zerbitzuaren barnean sortu ziren Euskaren Irakaskuntzarako Batzordea eta Euskara Sustatzeko Patronatua.

h) 1973. urtea

Irakasleendako lehen euskara ikastaroa 1973ko abuztuan antolatu zen. Ikastaro horretan aurkeztu zen Jon Oñatibiaren Euskara jolas bidez metodoa (metodoaren egilea irakasle ere izan zen). Abestien, erritmoaren eta dantzaren bidez euskara umeei irakastea zen helburu..Aditza, gramatika gaiak berriz On Jose Maria San Sebastian "Latxaga" irakaslea izan zen.

i) 1974. urtea

1974-1975 ikasturtean Eskolaurreko zenbait ikastetxe publikotan euskara irakasten hasi zen estreinakoz. Era berean, Iruñeko Irakasleen Eskolan eskolaz kanpoko lehen ikastaroak antolatu ziren eta, horiekin batera, irakasleendako udako ikastaroak.

j) 1975. urtea

Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emana, tokian tokiko hizkuntzak irakaskuntzan txertatzeari buruzkoa.

1975-76 ikasturtean euskarazko ikasgelak ireki ziren Goizuetako, Leitza-ko, Lekunberriko eta Doneztebeko ikastetxe publikoetan.

k) 1976. urtea

1976ko urriaren 10ean (1976-77 ikasturtean) sortu zen Euskal Hizkuntza eta Literaturako katedra Iruñeko Irakasleen Eskolan. Jose Mari Larrarte irakasleak hartu zuen bere gain katedra haren lan akademikoa.

l) 1978 eta 1979. urteak

1978-79 ikasturtean sortu zen Iruñeko Hizkuntza Eskola. Iruñean euskarazko ikastaroak hartzen zituzten ikasleek Bilboko Hizkuntza Eskolako irakasleekin egiten zituzten azterketak. Eskola Iruñean sortzearekin batera, Europako beste hizkuntza batzuek irakasteko ikastaroak antolatzen hasi ziren.

Aldi berean, baziren euskara sustatzen zuten beste entitate eta partikular batzuk. Esate baterako, ikastolak eta gau-eskolak.

m) 1980. urtea

Euskara Nafarroako irakaskuntzan sartzeko Oinarriak argitaratu ziren. Hamabi ziren.

n) 1981. urtea

Hezkuntza Zuzendaritzari baimena eman zitzaion Hezkuntza Ministerioren Ordezkaritza Probintzialeko ordezkariekin eta euskal eremuko udal eta kontzejuekin (unitate bakarreko eskolak zituzten haiekin), gurasoekin eta irakasleekin harremanetan jartzeko, betiere eskola horietan irakasle elebidunak sartzeko.

Akordioa egin zen Iruñeko Udalarekin Udal Ikastola arautzeko.

o) 1982. urtea

Espaniako hizkuntzen eta elebitasunaren gaineko txostena. Euskarazko ikastaro trinkoa Baztanen. Euskararen didaktikaren ikastaroa. Zenbait udali irakasle elebidunak kontratatzeke zenbatekoen esleipena.

Nafarroako euskararen ikerketa soziolinguistikoa.

p) 1983. urtea

OHoko irakasleendako birziklapen ikastaro trinkoa (lehen kurtsoa Leitza-ko barnetegian egin zen).

Euskal kulturaren ikastaroak OHoko Irakasleen Eskolan eta Larraona kolegioan.

Irakasleak kontratatu ziren unitate elebidunetarako. 30 ikaspostu irakasle ordezkioendako. Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko Nafarroako irakasleen euskara maila hobetzeko eta espezializatzeko Plan Orokorra.

"Mintzapraktika" ikastaroa Beran.

## IRAKASLEENDAKO BIRZIKLAPEN IKASTAROAK

1983tik aitzina egin ziren OHoko irakasleak birziklatzeko ikastaroak, barnetegian. 1985etik aitzina Bigarren Hezkuntzako, BBBko eta LHko irakasleen txanda izan zen.

q) 1984. urtea

OHoko 39 irakasle kontratatu ziren euskal eremuan aritzeko irakasleendako ikastaro trinkoa egin zen Irurtzunen eta Donezteben.

r) 1985. urtea  
Euskararen Bulegoa sortu zen.

## NAFARROAKO IKASTOLAK

Gurasoen ekimenari esker, 1964tik aitzina honako ikastola hauek ireki zituzten beren ateak Nafarroan.

1) Zizur Txikia – San Fermin, 2) Iruñea – Francisco de Jaso, 3) Iruñea - Herri Ikastola, 4) Iruñea - Udal Ikastola, 5) Barañain – Patronatua, 6) Berriozar –Berriozarko ikastola, 7) Atarrabia – Paz de Ziganda, 8) Atarrabia –Hiruerri ikastola 9) Uhartea (Iruñerria), 10) Larrasoaña, 11) Zubiri, 12) Eugi, 13) Auritz, 14) Aurizberri, 15) Garralda, 16) Otsagabia, 17) Jaurrieta, 18) Olague, 19) Ultzama -(Larraintzar), 20) Elizondo – Baztan ikastola, 21) Elizondo – Ikastetxe publikoko Gurasoen Elkarte 22) Doneztebe, 23) Sunbilla, 24) Igantzi, 25) Arantza, 26) Lesaka, 27) Bera 28) Irurtzun, 29) Arbizu, 30) Bakai-ku, 29) Lakuntza, 30) Etxarri-Aranatz 31) Olazagutia, 32) Urdiain, 33) Altsasu, 34) Olazagutia, 35) Leitza, 36) Goizueta, 37) Lekunberri, 38) Lizarra, 39) Deikaztelu 40) Tafalla – Garcés de los Fayos, 41) Tuter- Argia, 42) Sartaguda 43) Viana Erentzun ikastola.

Ikastola horiek guztiek diru-laguntzak jasotzen zituzten Nafarroako Gobernutik. Lehen aldikoz, unitate bakoitzeko 6.000 pezeta hartu zuten. 1974tik aitzina unibateko 8.000 pezetako laguntza izan zuten hilabetean.

## 2. LEGERIA

Lan-memoria hau egiteko memoria itxi aurrean indarra zuten xedapen legalak hartu dira kontuan. Era berean, argitaratutako datuez baliatu gara. Orobat, argitaratutako datuen berri eman da.

### 2.1. Egitura organikoa - Euskararen ofizialtasuna

1980. urtea. Nafarroako Parlamentuak euskararen ofizialtasuna aldarrikatu zuen.

1982. urtea. 13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzkoa. Halaxe esaten da 9.1 artikuluan:

"Gaztelania Nafarroako hizkuntza ofiziala da".

"Euskara ere ofiziala izanen da Nafarroako euskal eremuetan".

Foru lege batek finkatuko ditu eremu horiek, euskaren erabilera ofiziala arautuko du eta, Estatuko legeria orokorraren esparruan, hizkuntza hori irakats dadin aginduko du.

### 2.2. 23/1983 Foru Legea

Lege horretan Departamentuko oinarritzko egitura ezarri zen. Geroago garatu eta osatu zen honako xedapen hauen bidez: 41/1984 Foru Dekretua, maiatzaren 16koa. 134/1984 Foru Dekretua, ekainaren 13koa; 207/1984 Foru Dekretua, irailaren 19koa; 254/1984 Foru Dekretua, abenduaren 19koa; 116/1986 Foru Dekretua, maiatzaren 2koa.

### 2.3. EGA

1535/1985 FORU AGINDUA, urriaren 30ekoa, Euskararen Gaitasun Agiria sortzen duena. 1986tik aitzina.

Nafarroako Gobernuaren Euskararen Gaitasun Agiria sortu eta Azterketen Batzorde Ofiziala eratu zen.

### 2.4. EGAREN baliokideak

Nafarroako Gobernuaren Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) baliokidea da Zaragozako Hizkuntza Eskola Ofizialak Nafarroako Hizkuntza Eskolaren bidez emandako ziurtagiriekin. Ofizialki balio bera dute.

### 2.5. 18/1986 Foru Legea

Lege honen helburua da euskarak gizartean eta irakaskuntzan izan beharreko erabilera ofiziala arautzea.

Legearen berariazko helburuak dira:

Herritarrek euskara ezagutu eta erabiltzeko eskubidea babestea eta hori aurrera eramateko tresnak zehaztea.

Euskararen berreskurapena eta garapena babestea Nafarroan eta euskararen erabilera sustatzeko neurriak adieraztea.

Euskararen erabilera eta irakaskuntza bermatzea, borondatezkotasun, mailaz mailakotasun eta errespetu printzipioen arabera eta Nafarroako errealitate soziolinguistikoa kontuan hartuz.

5. artikulua.

Foru Lege horren ondorioetarako, Nafarroan hiru eremu daude:

Euskal eremua (60 udalerrri)

Eremu mistoa (48 udalerrri, Iruñea barne)

Eremu ez-euskalduna (gainerako udalerrriak)

II. TITULUA: IRAKASKUNTZA

19. artikulua. Herritar guztiek eskubidea dute irakaskuntza euskaraz eta gaztelaniaz hartzeko hezkuntza maila guztietan eta ezarritako terminoetan.

### 2.6. 255/1987 FORU DEKRETUA, ABENDUAREN 10EKOA, HEZKUNTZA DEPARTAMENTUAREN EGITURA ORGANIKOA EZARTZEN DUENA.

Foru Dekretu horrek aldatu zuen Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren egitura organikoa ezarri zuen maiatzaren 16ko 41/1984 Foru Dekretuaren 1. artikulua. Departamentuak zerbitzu hauek izanen ditu:

Plangintza eta Inbertsio Zerbitzua

Kirol eta Gazteriaren Zerbitzua

"Vianako Printzea Erakundea" Kultura Zerbitzua

Unibertsitateko Ikasketen eta Ikerketaren Zerbitzua

Ikasketa Ez-unibertsitarioen Zerbitzua

Euskara Zerbitzua

Departamentuko Idazkaritza Teknikoa

## **2.7. 159/1988 FORU DEKRETUA, MAIATZAREN 19KOA. EUSKARA MAILA EZ-UNIBERTSITARIOETAN**

159/1988 Foru Dekretuak, maiatzaren 19koak, euskara Nafarroako maila ez-unibertsitarioan nola sartu eta erabili arautzen du, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearek aplikatuz.

## **2.8. 394/1996 FORU DEKRETUA, IRAILAREN 26KOA. HEZKUNTZA DEPARTAMENTUAREN EGITURA ORGANIKOA**

Irailaren 26ko 394/1996 Foru Dekretuaren bidez Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren egitura organikoa ezarri zen, zerbitzuen eginkizunak finkatu ziren eta zerbitzu horien atalak zein izanen ziren adierazi zen.

Foru Dekretu hori garatuz, egoki da Hezkuntza, Kultura eta Hizkuntza Politikarako zuzendaritza nagusien zerbitzuetako bulegoen eta unitate teknikoaren atxikipena eta eginkizunak arautzea. Horretarako, Foru Agindu batean bilduko da Departamentu osoko bulegoen eta unitate teknikoaren egitura.

Departamentuko bulegoen eta unitate teknikoaren atxikipena eta eginkizunak.

Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren abenduaren 12ko 507/1996 Foru Aginduaren bidez Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren bulego eta unitate teknikoaren atxikipena eta eginkizunak arautu ziren (NAO, 7.a, 1997ko urtarrilaren 15ekoa).

## **3. EUSKARA SUSTATZEKO UNITATEAREN SORRERA**

Euskara Sustatzeko Unitatea Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren abenduaren 12ko 507/1996 Foru Aginduaren bidez sortu zen (NAO, 7.a, 1997ko urtarrilaren 15ekoa).

Atxikipena eta eginkizunak. 383/1999 Foru Agindua, azaroaren 10ekoa

Azaroaren 10eko 383/1999 Foru Aginduaren bidez Hezkuntza Departamentuaren bulego eta unitate teknikoaren atxikipena arautu eta eginkizunak finkatu ziren. Hauexek dira egitura eta eginkizunak:

16. artikulua. Euskara Zerbitzuak honako bulego eta unitateak izanen ditu:

- Administrazio Unitatea
- Euskara Sustatzeko Unitatea
- Glotodidaktika Bulegoa
- Helduak Euskalduntzeko Bulegoa
- Itzulpen Unitatea

### **3.1. Euskara Zerbitzuaren egitura. Departamentuko bulegoen eta unitate teknikoaren atxikipena eta eginkizunak**

Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren azaroaren 10eko 383/1999 Foru Dekretuaren bidez bulegoen eta unitate teknikoaren eginkizunak garatzen dira. 16. artikuluan, 8. puntuan, esaten da Euskara Zerbitzuak bulego eta unitate tekniko hauek dituela:

- Administrazio Unitatea
- Euskara Sustatzeko Unitatea
- Glotodidaktika Bulegoa

Helduak Euskalduntzeko Bulegoa  
Itzulpen Unitatea

11. puntuaren ezartzen da Euskara Zerbitzuko bulego eta unitate guztiak zerbitzuari berari atxikitzen zaizkiola.

### *3.2. Euskara Sustatzeko Unitatearen eginkizunak*

12.2 puntuaren zehatz-mehatz ageri dira Euskara Sustatzeko Unitatearen eginkizunak:

Hizkuntza maila laguntzeko eskola jarduerak programatzea eta egitea, bereziki kultur mailakoak.

Eskolan euskara sustatzeko jarduerak egiten dituzten erakundeei ordaindutako diru-laguntzak kontrolatzea.

Euskarazko Antzerki eta Literaturako lehiaketak programatzea.

Atxikitako Atalean agintzen zaizkion gainerako eginkizunak.

### *3.3. Burutzaren izendapena*

Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren abenduaren 12ko 517/1996 Foru Aginduaren bidez aldi baterako izendatu zen Maria Soledad Erviti Arbilla Euskara Sustatzeko Unitateko buru.

## **4. HEZKUNTZA DEPARTAMENTUAREN GAUR EGUNGO EGITURA ORGANIKOA - (233/2003 FORU DEKRETUA, UZTAILAREN 15EKOA)**

Au, Auñamendi Bilduma'n, 1960'an, argitaratutako "Geografía histórica de la Lengua Vasca" (Siglos XVI al XIX), idaztitk jasoa da. Lengo edestia beraz. Bertatik, Naparroa'ri dagozkionak, azalduko ditut, batez ere.

Euskeraren zabalera orduan, Erronkari'tik Zuberoa'ra dijoan Auñamendi zatitik Bilbao inguru artekoa zan. Ustaroz eta Izaba'n (Erronkari) eta Santa Gracia (Zuberoa) egoaldean, oraindik euskaldunak ba-ziran Bayona inguruetan ere azaltzen zan euskera eta Gipuzkoa eta Araba'ko mugan galtzen zan.

Irigaray jaunak, Naparroa'ko Errialdean euskerak atzerapen aundiena izan denez, bertako ikerketa egin zun. 1935'an oñarrituta:

1) Aurrak euskeraz egiten zuten erriak:

Jaurrieta, Esparza, (Salazar arana); Iriberrri, Abaurrea biak, Orbara eta Aria (Aezkoa) Mazkiriz, Linsoain (Erro); Eugi, Iragi, Usetxi, Leranoz (Esteribar); Etulain, Leazkue,, Egozkue, Arizu (Anue); Latasa (Odieta); Elso, Iraizoz (Ulzama); Berasain, Ziganda (Atez); Muzkitz (Imoz); Irañeta (Arakil).

2) 30 urtetik gorakoak erabiltzen zuten:

Oronotz (Salazar), Garralda (Aezkoa), Olondriz eta Loizu, Urniza, Ainzioa, Aradaiz, eta Larraingoa (Erro), Urtasun, Saigos, Akerreta, Inbuluzketa, Setuain, Eskiroz, Ilarraz, Osteriz, Sarasibar, Ilurdoz (Esteribar), Lanz, (Anue), Arraiz, (Ulzama), Amalain (Atez) Beorburu (Juslapeña), Yaben, Latasa (Basaburua)

3) 30 urtekoak ba-zekiten baña ez zuten erabiltzen:

Ustaroz (Erronkari), Gorraiz, Azparren (Arze); Urrizelki, Espinal (Erro); Zilbeti (Esteribar); Ripa (Odieta), Zia, Aguinaga (Gulina), Urrizola (Arakil).

4) 50 urtetik gorakoak erabiltzen zuten, 30 urtekoak ez:

Orbaizeta, Garayoa, (Aezkoa); Auritz, Orreaga, Villanueva, Arrieta, Saragueta, Uriz, (Arze); Oroz, Betelu; Esnoz (Erro), Urdaniz, Zubiri, Zuriain, (Esteribar), Burutain, Esain, Olague (Anue), Anozibar, (Odieta), Lizaso, Larrainzar, (Ulzama), Erize (Atez), Satrustegi, Yabar, (Arakil).

5) 50 eta 30 urtekoak ba-zekiten baña ez zuten erabiltzen:

Itzalzu, Otxagabia, Eskaroz (Salazar), Nabaz, Belzunze (Juslapeña).

(Au len esan dedanez, 35'gn. urte artekoa da).

Aintziñako euzkaldun Naparroa. Erromatar Agintearen denboran, jakiña denez, euzkera orain baño askoz zabalduagoa zan. Ipar-aldetik, antziñako Akitania'n arkitu diran idazkunak adierazten dutenez (Mitxelena, 1964 a eta b) euzkera mota bat erabiltzen zuten oraingo Euzkal-Erri'ko mugatik urrun. Sortalderuntz, toki-izenak argi erakusten digute, Euzkera

Andorra'raño zabaltzen zala. Baña, zoritxarrez, gure izkuntzaren atzerapena aspaldi asia zan, Akitania'ko egoaldera eta sortalderuntz, oraingo Catalu-

nia'n. Egoaldean egoera nastuagoa zan eta izkuntzaren mugak ez ziran ain argiak; erromatartzea sartalderunz aurreratzeak Auñamendi'ko aran batzuetan euzkera, zenbait mendeetan, baztertuta, iraunerazi zun.

Erdi Aroan, Hueska'ko aranetan euzkera itz egiten zan (Iri-garay,1974) eta baita Burgos'ko iparraldean eta errioxa'n ere(Merino, Urrutia 1978). Naparroan berriz, Caro Baroja'k dionez, (1945) Ebro aldean, erromatartzeak eragiñez, euzkera galdua zan. Egille onen iritziz, Erdi- Aroko euzkeraren mugak, gutxi gora-bera, XVI'gn. mendekoak ziran; ala ere, gure iritziz, 1587'gnean. Euzkera utsezko kanpoan ziran erri-aldeak (Carcastillo, Murillo, Santacara...) Erdi-Aroa'n, euzkera izan zuten beren izkuntza, toki-izenak adierazten dutenez (Munita Loinaz 1984). Carcastillo'n adibidez urrengo toki-izenak arkitzen dira: Salud-Zaharra, Artzizuloa eta Oilarzaldia, eta 1319'an, toki berean: Larrate, Arrateburua eta Suduzandia.

## **EUZKERA XVI'gn. MENDEAN**

Lekuona'tar Manuel jaunari zor diogu Naparroa'n, XVI'gn.mendeko euzkeraren egoera azaltzen digun agiria arkitzea. Agiri ontan Naparroa'ko erriak bi taldetan azaltzen dira. Lenengo erdaldun erriak eta gero euzkaldunak.Euzkeraren atzerapenaz aritu diran elerti-zale edo idazle geienak, XVI'gn. mendeko muga jartzeko, zerrenda ontan oiñarritu dira. A. Irigaray'k dionez, zerrenda ontan erderazko taldean ageri diran erri batzuek, ordea, garai artan eta baita beranduago ere euzkaldunak ziran: Artaxona, Lizarra, Oteiza, Ayegi, Morentin, Arroniz, Villamayor, Azaketa, Legaria, Antzin, Azedo, eta Tafalla. Gure iritziz,leku-izenak kontuan artuta, Tafalla beintzat, euzkaldun errietatik kanpoan utzi bear litzake. 1587'gnerako Tafalla aldeko legu-izenak erabat erromanzeak bait-ziran. Ala ere, euzkaldun taldeak izan zitezken, XVI'gren mendean, Valdorba eta inguruko beste erri batzuek erabat euzkaldunak bait-ziran.

Bestalde, bigarren taldeko errietan (euzkaldun errietan alegia), batzuek, 1587' gnerako. erromanzetutzat jo bear dira: S. Martín de Unx, Aibar, Caseda, Zangotza eta baita Rocaforte ere. Erri auetako leku-izenak, geienak erromanzeak dira naiz ta batzuetan, len euzkaldunak zirala azaltzen duten agertzen diran. Ortaz, gai au erabiltzen duten idaz-lan geienak jarritako mugak aldatu egin bear lirake, ez bait datoz bat izanarekin. Gure iritziz, 1.587'an euzkeraren muga ondorengo erri auen egoaldean izango litzake: Acedo-Antzin-Ayegi-Zufia-Lizarra-Oteiza-Artaxona-Pueyo-Sansoain-Uxue-Sada-Irunberri-Gallipienzo- eta Liédena (?) ere ba-diteke. Gure ziurtasuna, ala ere, Naparroa'ko sortaldean degu, guk ikertu degun aldea bait-da. Izkuntza muga onen be-aldean, ba'ziran zalantzik gabe, euzkaldunak, baña gutxiengoan izango zan, bertako leku-izenak, XVI'gn. mendean, len aitatu degunez, geienak erromanzeraz arkitzen baitira.

Muga berak zituzten errietan onelako ezberdintasuna arkitzea arritzekoa da. Adibidez, Tafalla erromanzeratua izan arren, Pueyo eta Artaxona erabat euzkaldunak ziran. San Martín de Unx, Kaseda eta Aibar'ekin ere berdin gertatzen da. Iru erri auek erromanzeratuak ziran, Uxue, Gallipienzo eta Sada erriak, euzkaldunak, bertan izanik.

XVI'gn. mende ondoren, zabaldua dauden agirien bidez, erri batzuetan itz egiten zala jakin degu: Lizarra'n 1607 (Irigaray'k), Uxue, 1611 (Idoate'k),

Urtega 1620 aldera (Irigaray'k) Lezaun, Munárriz, Iturgoyen, Argiñano, Urdanotz, Salinas de Oro, 1643'an (VVAA, 1966) Galdeano, 1703'an, (Ibidem), Artaxona, 1704 (Irigaray'k), Gallipienzo, 1730'ean (Irigaray'k) Gesalaz, 1735'ean. (Irigaray'k) Monreal, 1751 (Idoate'k) Iruña'n, 1791, (Idoate'k) eta Amillano'n, 1806'an (Irigaray'k)

Euzkeraren urrengo muga; gai au erabiltzen duten idazti edo idaz-lanetan ageri danez, 1778'koa da. Muga berri aukeratzeko egille edo idazleak, Eliza'ko agiri batzuetan oinarritzen dira. Agiri oietan, erdaldun eta euzkaldun erriak azaltzen dira. 1778'an Irigarai'k dionez, euzkera ondorengo errien egoaldean zan: Eulate, Amillano, Bearin, Egiarte, Artaxona eta Tafalla. Emendik izkuntz-muga gorantz dijoa, Val de Aibar zeartu eta Irunberri, Arbonies eta Orradre'raño. Ez da argi ikusten ordea, egillea, Eslaba erri erromnzeratua zala esateko, zertan oinarritzen dan eta Ayesa berriz, oraindik euzkalduna bezela, ba-dirudi zioa argibidezkoa baiño lutelesti aldetik begiratua dala. Irunberri ere, euzkalduna ala asaben izkuntza galduta zun ez da argi ikusten.

## **XIX'gn. MENDEA**

Urrengo mugarritzea XIX'gn. mende asieran, Aita Luis Villasante'k, Antonio Añibarro Aita'ren idaz-lanetan arkitu zun zerrendan oinarritua da (VVAA.1966). Baiña zerrenda onetan Bonaparte Printzea'ren zerrendan, urte batzuek geroago, euzkaldu bezela azaltzen diran erri batzuek ez dira ageri. Biguria, Izurzu, Salinas de Oro, 1863'an, euzkera sendo zeuden errien artean. Valdorba'koak, garai artan euzkera galtzen ari ziranetakoak; orregatik, zerrenda au oso zeatza ez dala uste degu.

L.Luciano Bonaparte'k, 1863'n egindako lurtamuan garrantzizko muga jaritzen du, euzkeraren atzerapenari dagokion ikerketan. Bertan, margo ezberdiñez azaltzen dira euzkeraren izkelgiak eta margo argiz, euzkera galtzen ari zan lur-zerrenda, oraindik itz egiten zan arren.

Izkuntzaren muga Ziordia'tik (Burunda), Iturgoyen eta Estenez (Gesalaz), Artazu (Val de Mañeru), Gares (Ilzarbe), Garinoain eta Orisoain (Orba), Izko eta Besolla (Ibargoiti), Indurain, Artaxo eta Mugeta (Urraul Bekoa), Ongoz eta Adoain (Urraul Goikoa), Racas Alto, Nabaskues'ko Amiradio eta Uskarrres (Salazar) Burgi'raño (Erronkari). Ala ere, erri auetako batzuetan euzkera galtzen ari zan; egoaldean geien euzkera itz egiten zan erriak, Bonaparte'ren lurtamua dionez, aukeratzeko ziran: Ziordia (Burunda), Iturgoyen, Biguri, Salinas de Oro eta Izurzu (Gesalaz), Ibero eta Ororbia (Oltza), Garues eta Ezkaba (Ezkarbarte), Zabaldika (Esteribar), Beortegi (Lizoain), Arizkuren (Artze), Gallues eta Iziz (Salazar eta Bidangoz (Erronkari). Bonaparte'ren lurtamua-ekin bukatzeko, Val de Aibar'en euzkaldunak arkitzeko alegiña egin zula esan bear, baña alperrik izan omen zan.

### **XX'gn. MENDEA**

Naparroa'ko euzkeraren beste mugarra, 1904'ngo. Elizaren er-akuslean arkitzen da. Bertan, mendearan asieran, erri euzkaldun eta erdeldunak zeintzuk ziran agertzen da. Baiña ba-dirudi, erri bakoitzeko erretorearen irizpide ezberdiñengatik, utsegite batzuek ba'dirala (Irigaray'k). Euzkeraren mugak, Bonaparte'ren lurtamuetan azaltzen diranarekin alderatuta, atzeratu egin dira. Egoaldeko erri euzkaldunak urrengo aukeratzeko dira: Ziordia (Burunda), goñi

(Val de Goñi), Mandoz (Larraun), Ollakarizketa (Julaspeña), Garrues (Ezka-barte), Olloki (Esteribar), Elkano (Egues), Aguinaga (Arriasgoiti), Ulozi eta Gurpegi (Arze), Uskarres (Salazar) eta Isaba (Erronkari).

1935'ean, Irigarai'k orduko euzkeraren egoera aztertu zun. Onek, euzkaldun erriak, euzkeraren "osasuna"ren arabera, zazpi taldetan sailkatu zitun (VVAA.1966). Oraindik euzkera eusten zuten egoaldeko erriak urrengo auek dira:

3

Ziordia (Burunda), Lizarraga (Ergoien), Erroz (Arakil) Aristregi, Markalain eta Nabaz (Juslapeña), Iroz (Esteribar), Elia (Egues), Aguinaga eta Iloz (Arriasgoiti), Gurpegi eta Artozki (Arze), Elkoaz (Urraul goikoa), Guesa eta Igal (Salazar), Bidangoz eta Erronkari (Erronkari).

Lan au burutu eta bereala gure auldutako izkuntzak 11936'ngo. guda jasan bear izan zun eta ondorengo ertsaldia gañera, argi zan bezela, zorigaiztoko ondorioa izan zun euzkerarentzat. Franco oraindik bizirik zego-la, J.M. Sánchez Carrión "Txepetx" ek ikerketa bikaiña egin zun (1970); urte onetan, erriz erri gure izkuntzaren egoera nolakoa zan, argi jarriaz. Euzkerak, Irigarai'k egin zun ikerketa ezker, izugarritzko atzerapena egin zula azalduaz. Egoera, Egoaldeko aranai buruz, batez ere au zan: Ziordia eta Olazagutian, izkuntza ia galdua zan; Alsasu'ko berri zeatzik ez zan; Urdiain zeoro euzkalduna zan eta Bakaiku eta Iturmendi'n, 40-45 urtekoetatik gorakoak bakarrik itz egiten zuten. Ergoien erabat euzkalduna zan, Arantza'n, egoera ain ona ez ba-zan ere, erri batzuek oraindik euzkera eusten zuten: Lizarragabengoa eta Arbizu'k; Etxarri, Lakuntza eta Arruazu'n berriz, euzkera erderarekin borrokan zebillen. Arakil'en egoera larriagoa zan, eta erri batzuetan euzkera zeoro galdua zan eta beste batzuetan kondarrak besterik ez ziran gelditzen. Erri euzkaldunena, zalantzarik gabe Iruñeta zan. Imoz'en, Ulzama eta Basaburua baño egoalderago izan arren, toki batzuetan, aurrean aitatutako aranetan baño sendoago zan.

Bi lurralde bereizi zitezken; erdalduna eta euzkalduna. Lenengoan, Urri-za, Latasa eta Eraso sartzen ziran; auetan euzkerak atzerapen aundia izan zun. Bigarreanean, euzkera oraindik indartsua zan. Basaburua'n iru zati bere-zi bear dira: iparraldeko erriak (Beruete, Arrarats eta Igoa) erri auetan euzke- ra da geiena erabiltzen zana; beste taldean, neskak eta aurrak erdeldunak ziranak (Itxaso, Garzaron) eta irugarreanean gelditzen ziran erriak sartuko lira- ke. Irugarren ontan, Udabe Beramendi eta Erbiti, Yaben eta Jaunsar- ras'engandik bereizi bear lirake.

Lenengo iruretan erderatzea, 20-30'koa urte izan zan gutxi gora-bera, eta beste bietan ba'ziran 40-45 urte. Ulzama'n egoera ezberdiñak ziran.

Txepetx'ek sei talde ezberdin egin zitun. Lenengoan aurrak ere euzkera erabiltzen zuten: Elzaburu eta Auza. Bigarreanean Alkoz arkitzen da, emen euzkaldun geienak 30 urtetik aurrerakoak ziran. Ala ere, aurrak ere euzkeraz itz egiten zuten lau sendi ba'ziran. Irugarren talde onetan, Illarregi, Juarbe, Zenozi, Urrizola-Galain arkitzen ziran, auetan 35 urtetik aurrerakoak dira euz- kaldunak. Laugarren taldean Gerendiain eta Iraizoz daude; emen zerrenda 40 urteraño igo bear da. Boskarren taldean, Elso Arraiz eta Orkin arkitzen dira, auetan 45 urteik aurrerakoa egiten zuten euzkera. Eta azkenik Lizaso eta Larrainzar ditugu emen 50-60 urte baiño geiago zituztenak bakarrik ziran euzkaldunak, baiña, 40 urte baiño gutxiago izan arren, Lizaso'ko bere etxean euzkera ikasi zun lagun bat ezagutzen degu. Odieta'n euzkeraren egoera, Ulzama'n baiño askoz ere okerragoa zan. Anoz'en, 1984'ean euzkaldun bat

besterik etzan(Elgoibar, Zubizarreta, Gaminde, 1987); Anzibar, Ziaurritz eta Ripa'n adintsu batzuek besterik ez; Latasa eta Gaskue'n egoera pixka bat ohea zan, 30 urtetik gorakoak euzkaldunak zirala. Gelbentzun'n euzkaldun bat besterik ez zan, Atez aranean, Txepetx'ek dionez, bi lur-zerrenda berezi bear dira: sortaldean euzkera atzeratzen ari zan; Iparraldean, (Beasain, Beuntza) 5-10 urte lenago euzkera garaillea zan, baiña erdalduntzea azkar xamar zebillen; Beuntza'n batez ere. Gulina aranean, 1970'gnerako. euzkeraren egoera oso txarra zan; euzkaldunak, 55-60 urtetik gorakoen artean billatu bear ziran. Anue'n ere egoera txarra zan. Lantz'en adintsuak bakarrik itz egiten zuten, Arizu'n euzkaldun gazteenak 40-45 urte zituzten eta Etulain'en 7 edo 8 euzkaldun besterik ez ziran gelditzen. Esteribar'en 2.160 biztanleetatik 175 euzkaldun gelditzen ziran; Ortaz, naiz ta erri batzuetan egoera ain txarra ez izan arren ( Iragi, Usetxi, Lenarotz eta Eugi'n) 35 urtetik aurrerakoak erabiltzen zuten euzkera; beste errietan oso euzkaldun gutxi gelditzen ziran (egoaldekoenak ziran errietan, euzkaldunak Setuain eta Errea' ziran)

Txepetx'en lanean, Erro aranari buruz ez da berririk, Espinal izan ezik, bertan zazpiren bat euzkaldun ba omen ziran. Lizoain eta Mezkiriz (Ureta baita ere), izango ziran noski euzkaldunenak, gaur euzkaldun gein diran erriak dira ta. Auritz eta Orreaga'n euzkeraren galera aundia zan. Aezkoa'n, adintsuak besterik ez zuten euzkera egiten. Aria (ba'dirudi emen aurrak ere euzkeraz itz egiten zutela, baiña ez da oso ziurra), eta Abaurrea Goikoa'n egoera ohea zan.

Salazar'en euzkera il-zorian zan, Erronkari'n berriz, adintsu batzuek besterik etziran gelditzen; Ustarrotz'en beste bat Isaba'n eta beste bat Urzainki'n. Euzkaldun Naparroa'ko "Kantabriko" aldean, euzkera oraindik indartsu ageri zan 1970'ean, naiz ta erdelduntzen ari ziran zatiak izan: Atallo, Santesteban, Bera, Oieregi, Narbarte, Irurita, Elizondo...

Azkenik, E. Elgoibar, B. Zubizarreta eta I. Gaminde'ren lanak aitatu bear dira.(1987'an) bertan, Irizar'en argibideak jasoak dira (1981'ean). Lan onek, zenbakiak, batez ere, erabiltzen ditu: Biztanle eta euzkaldun kopurua, eta euneko zenbatekoa adieraziz. Ikerketa onen arabera, Euzkera, 1970 ezkerora, ia leku guzientan atzeratu zan.; baita zearo euzkaldun ziran errietan ere (geienetan), erdera sartu zan. Aran batzuetan, egoera geiegi aldatu ez ba-da ere (Burunda, Ergoiena, Arainaz), besteetan euzkeraren galerak bere joera jarraitu du eta geienetan, 20 urteko atzerapena izan da Txepetx'en lana eze-kerotik. Au da, oraindik euzkeraren aztarnak ziran, Iruña inguruko aranetan ia galdua da. (Arakil, Gulina, Olaibar, Anue, Odieta...)

---

*(Orain artekoa, Auñamendi Bilduma'n jaso da. Emendik aurrerakoa, berriz, "Estudio Osociolingüístico sobre el Vascuence en Navarra" izen-buruz argitaratutako idaztian, 2003'ngo. Orrilla'n egindako ikerketatik).*

---

Lengo garaian bezela, oraingoan ere Nafarroa iru lurraldetan zatitua dago. Euzkaldun lurraldea, Ele bitakoa eta Erdelduna. Ikerketa onek, 15 urteetan gutxienez, Nafarroa'n bizi diran gizakiak azterkatu ditu. Au da ikerketa onen emaitza:

## **NAPARROA'ko BIZTANLEAK**

BIZTANLEAK .....	569.628
UDALERRIAK .....	282

### ERDELDUN ERRIALDEAK

BIZTANLEAK .....	206.504
UDALERRIAK .....	157

### ELEBIDUTENAK

BIZTANLEAK .....	307.240
UDALERRIAK .....	62

### EUZKALDUN ERRIALDEAK

BIZTANLEAK .....	55.884
UDALERRIAK .....	63

NAPARROA OROKORREAN .....	479.587
15 urtetatik gorako gizonak .....	237.421
15 urtetatik gorako emakumeak .....	242.166

( 2001'ngean. Giza-zenbaketa Bilguak egindako erroldan oiñarritua.)

## IZKUNTZAREN GAITASUNA

Izkuntzaren gaitasuna, ulertu, itz-egin, irakurri eta idazteko trebetasunean datza. Lau alderdi auek osatzen dute gizaki bakoitzak, izkuntzari buruz dun ezagutzea edo jakintza.

Euzkerari buruz, jakintza ontan oiñarrituta, %12'k,euzkera ulertu, mintzatu, irakurri eta idazten dute oparo. Bestalde, %10'ek gutxiago dakite.

EUKERARI BURUZ IZKETATUTAKO %	
EUKERA ULERTU, ITZ EGIN, IRAKURRI ETA ULERTZEN DUTENAK	11,8
ZAILTASUNEZ,ULERTU,ITZ EGIN, IRAKURRI EDO DAZTEN DUTENAK	10,1
EUKERA MENDERATZEN EZ DUTENAK	78,1

Ulertu, itz-egin, irakurri eta idazten dutela adierazten duten geiengoak 15'etik 24 urte artekoak(%24) dirala ikusten degu, eta atzetik 25 eta 34 artekoak (%16) Euzkaldun gizaterian dira geienak (%50) eta gutxiago Naparroako elebidunetan (%10), eta 2.000 biztanle baiño gutxiago diran errietan (%19). Geienean beren amaren izkuntza izan da euzkera (%69) edo euzkera eta gaztelera (%48).

Ulertzen dutenak .....	11,8
Itz egiten dakitenak.....	10,5
Irakurtzen dakitenak .....	10,5
Idazten dakitenak .....	8,7

Laburbilduta, erritarren %98'k gaztelera egiteko erreztasun osoa dute eta %12'k euzkeraz egitekoa. Ba'dira gañera, %10, euzkera zerbait ezagutzen dutenak.

## ELE-BITASUNA

Ele-biko bezela ezagutu degun errialdekoak, talde batzuek izkuntza erabiltzeko araberan ikertu ditugu:

- Euzkaldunak bikain edo ondo erabiltzen dute euzkera, baiña ainbestean edo zailtasunez gaztelera.
- Elebidutenak bai euzkera eta baita gaztelera ere zuzen edo bikain erabiltzen dituzte.
- Euzkera ere dakiten erdeldunak, gaztelera oso ondo egiten dute eta zerbait euzkera.

	ELE-BITAN	
GAZTELERAZ EUZKERAZ BAÑO OBETO ITZ EGITEN DUTENAK	53,8	37,8
EUZKERAZ ERDERAZ BAÑO OBETO ITZ-EGITEN DUTENAK	14,0	17,8
BI IZKUNTZETAN ERREZTASUN BERA DUTENAK	32'2	44,6

Elebidun diran errialdekoak, %'45'ek bi izkuntzetan erreztasun bera aitortzen dute. Nafarroa'ko biztanleen guzietako, talde onek %4'a adierazten du.

## AZKENEKO LABURPENA

Ikerketa onen ondorio garrantzitsuenak urrengo zati auetan oroar ditezke.

1. Euzkera eta gaztelararen gaitasuna jotzeko eta beren arteko ar-emanan adierazteko, izkuntza mailla azaltzen dun argibiea egin degu. Au egiteko, izketaldia izan degunen artean, euzkeraz eta erderazko gaitasunean oiñarritu gera.

2. Euzkaldunak oso ondo edo ondo egiten du euzkera baiña gaztelera, ainbestean edo zailtasunakin: biztanleen %8k

Elebidutenak bai euzkera eta baita gaztelera ere zuzen edo oso ondo erabiltzen dituzte: biztanleen % 9,7'k

Euzkera zerbait dakiten erdeldunak gaztelera bikain egiten dute baiña euzkera gutxi: biztanleen % 9,7'k

Erdeldunak, gaztelera oso ondo egiten dute baiña ez dakite euzkera: biztanleen %78'k

2. Nafarroa'ko errialde bakoitzean, izkuntzen gaitasuna erabat ez-berdiña da. Euzkaldun errialdean ia %75'ek, gutxi ba-da ere euzkera zerbait ezagutzen dute. Euzkalduna ez dan errialdean berriz %8 besterik ez dira. Adiak



zer-ikusi aundia du, ikustaldia egindakoak, zenbat eta gazteago izan euzkera menpeago dute.

Euzkaldun eta elebidun errialdetan, sendi inguruko giroa da era- biltzeko lekurik egokiena. Euzkera zerbait dakiten erdeldunetan berriz, eziketa bidez euzkera ikasi dutenez, erabiltzeko giroa urriagoa da.

4. Izkelgiak, euzkaldun, elebidun eta euzkaldun errialdetan bizi diranen artean asko erabiltzen dira. Erdeldun eta nastutako errialdeetan berriz, "batua" erabiltzen dute geienbat.

5. Gizaki bakoitzari zein izkuntz zatia dagokion, bizi dan gizarte maillari dagokiona izango da. Lenengo, sendi inguruko giroa eta gero irakaskintza dira azalpen ontan garrantzi aundiena dutenak. Izkuntza ikasi duten lekuan datza elebidun eta euzkera zerbait dun erdeldunen arteko ezberdintasuna. Lenengoak, sendian jaso dute izkuntza, eta bigarren lekuan, naiz ta onek ere bere garrantzia izan, ikasketan. Euzkera pixka bat dakiten erdeldunak berriz, beartutako irakaskintza dute oiñarri, sendiaren eragiña bigarren maillan gelditzen dalarik.

10. Euzkerari buruz Naparroa'ko "Gobernua"ren "polítika", napar zati aundi xamar batengandik urruti dabil, onela gai ontan axolik eza adierazi diteke. Gai ontan ba, "Gobernua"ren "polítika", euzkal giroan bizi diranengandik urrutiraten ari da, berri-emateko bideetan, (medios de comunicación) eta jakintzari eta gizarteari dagozkion ekintzetan batez ere.

19. Labur bilduta, euzkerak, gizartean diran erri alde, jarrera eta itxaropena bereizteko indar berezia du. Naiz eta izkuntzaren maillan gaitasuna dutenak ez diran %20'ra irixten, napar erritar geienak, euzkerak gizartean dun garrantzia aitortzen dute, lan arloan batez ere.

Ala ta guztiz ere, euzkeraren irakaskintza eta obekuntzarekin lotura duten "polítika" ekintzak, izkuntzarekin zuzenean lotuta diranentzat bakarrik dira.

*(Oneraño "Estudio sociolingüístico sobre el Vazcuence en Navarra" idaztitik jaso, euzkeratu eta laburtutako idaz-lana.)*

---

Naparroa'n' zoritxarrez, ikusi aal izan dezutenez, euzkera asko atzeratu da azkeneko mendeetan; baña ez da Naparroa'n bakarrik, Euzkal Erri guztian ere gutxi aurreratu da.

Orain, ikastolak eta beste ekintzekin, euzkera aurrera eramango degun itxaropena izan bear. Baña au guztia ez da ezer, euzkaldun guziak, EUZKERA, GURE IZKUNTZA izan dedin alegiña egiten ez ba-degu. Guztion, euzkaldun guzion erantzunkizuna da beraz euzkera gaizkatzea, len esan dedanez, ez Naparroa'n bakarrik, Euzkal Erri osoan baizik.

**Artzeluz'tar Amale'k**

# BERTSOLARITZAREN ASTAPENAK

Itzaldia Bilbao'ko  
"Euskerazaleak Alkartean"  
2004ko Azaroaren 22an.  
"Euskal Astea"

Bizkaian pozik nago  
Euskal itzalean,  
**Euskerazaleak'en**  
Elkarte etxean.  
Euskera erabilliz  
Ta bertso bidean,  
Solas eder bat degu  
Euskaldun artean.

\*

Bertsolaritza det nik  
itzaldian gaia,  
orixe bai niretzat  
pozgarri ta alaia.  
Saiatuko naiz ongi  
Orain det garaia,  
Zuen gogoko izanik,  
Ori nire naia.

## BERTSOLARIA ETA BERTSOJARTZAILLEA

Bertsotan agurtze onek eman dit leenengo irakasbidea. Bi bertso kantatu dizkizuet.

Bertso izatetik ez daukate bestelakoekin alderik. Onagoak eta txarragoak izaten dira. Ori aztertzea ordea, ez det oraingoz gaia. Alde bat dute nabarrena nire bi bertso oriek, oizko saioetan entzuten ditugunekin, plazan, antzokian edo Euskal Telebistan.

Bertso jarriak dira, au da, kantatu baiño alde zuretik pentsatu aala, paperean jarriak. Beraz, ez dira bapatekoak izan. Plazakoak bapatekoak izaten dira. Eta bereizketa onek bi bertso mota azaltzen dizkigu eta orrekin, bi motatako bertsolariak:

Bapatekoari, bertsolaria deitzen zaio.

Aurrez paperean jartzen dituenari, bertso-jartzaillea. Eta ortik bertso paperen izena. Naiz eta bertsolaritzaren barruan izan mi motak oriek, oso desberdiñak dira. Orregatik, ez digu erkatzeko aukerarik ematen. Zaillagoa, noski, bapateko bertsolaritza. Bi bertsolari ari direla, besteak nola bukatuko duen jakin gabe, ezin du aurretik pentsatu zer erantzun, txandaren zain dagoenak. Eta lagunak bukatuta ez dauka astirik pentsaten jarduteko. Ekin

egin bear dio jarraiean. Gaiari eldu eta zentzuzko erantzuna eman. Ontan datza bertsolariaren etorria.

Bertso jartzailleak, ordea, nai den denbora guztia izan dezake bertsoa moldatzeko eta ez du iñor aurrean, ez du aurkaririk. Papera eta idazgaillua, lagun.

Alde ori ain nabarmena izanik, ezin liteke emaitza bera eskatu. Nire ustez, bertsojartzailleak, nolabait esateko literatura mailla bat ere eskatu bear dio bere lanari. Lirika edo barne-oiua lantzeko aukera geiago dauka. Eta bertso-jartzaille ona baldin bada, bere bertsoak irakurtzeko egokiagoak izango dira, bapatekoarenak baiño, obeak alegia. Orrek ez du esan nai bapatekotan ez dituztela bertso on-onak botatzen. Gaur egun batez ere, eskolatuak direlako. Amurritza bat, esate baterako, bapatean, idatzita bezain bertso ona botatzeko gai da.

Ori bai, naiz batak naiz besteak, alegia, bertsolariak eta bertsojartzailleak arau berdiñak dituzte bertsoa moldatzeko.

Eta orain, bertsoen arauekin jarraituko degu.

Lirikarena bertsoan. Bertsolari ospe aundienetakoetan bi erataro egiten zutenak eta egiten dutenak ba-dira. Antziñakoetan: Felipe Arresebeitia, Bilintx, Pello Mari Otaño, Kepa Enbeita eta Txirrita bera, bertsolariak,aldi berean lirikoak ere ba -ziren, alegia barne eragin aundia zutela aien bertsoak. Erri olerkariak ziren. Gerorago azalduko ditut auen bertso batzuk, esan dedana egiaztatzeko.

Bertso jarrian aipamen berezia Juan Kruz Zapiain-en lana ( 1867-1934). Genobeba de Bravante-ren bizitza bertsoan jarri zuen. Ez zekien idazten, ez irakurtzen. Neguko gauetan su-bazterrean, Genobeba de Bravante-ren bizitza emazteak irakurtzen zion. Gero oian zegoela, entzundakoa ausnartu egiten zuen, buruz artu, eta goizean emazteak paperera aldatzen zizkion bertsoak kantatu aala. 163 bertso edo aapaldi, 1304 lerro, zortziko aundian, osatu zituen. Olerki ori osatu eta andik 30 urtera ere, gai omen zen buruz esateko !!!

## **BERTSO MOTAK, eta adibide batzuk**

Bertsolaritza antziña-antziñakoa da. 4 eratan biltzen du On Manuel Lekuanak: Artzantza garaikoa. Gero Nekazaria. Lirikoa eta Dialektikoa.

Nire lantxo au ez da izango azterketa, ez eta ere bertsolarien erkaketa. Alegia zein ohea.

“Bertsolaritzaren Astapenak” izenburuarekin, adierazi nai dedana: teknika aldetik azalpen batzuk egingo ditudala, ordu beteko itzaldiari dagokion neurrian.

Geien erabiltzen diren bertso neurriak aipatuko ditut. Eta asteko azalpen txiki bat, gazteleraz “verso o estrofa” guk puntua deitzen diogunari esaten diote. Guk ordea, puntuen bitartez osatutakoari bertsoa. 4 puntoko bertsoa, 5 puntukoa, e.a.

Bertsoak neurtitzak dira. Puntua deitzen zaionaren bidez osatzen dira. Puntu bakoitzak 2 lerro. Eta or bigarren lerroak errima dauka azken itzean. Eta azken itz orri oiña deitzen zaio. Bertsoak bere osotasunean erritmoa dauka, etenaren eta azentuaren bitartez, batez ere.

Euskal diptongoak: ai, ei, oi ui, au,eu, ou. Silabak zeazteko kontuan izan dezagun berezitasun au euskeraz. Ez bait da gazteleran bezalakoa. Diptongo autsiak: e-a, i-a, o-a,u-a, a-e,i-e, o-e, u-e, a-o, e-o, i-o, u-o, i-u. Beraz autsiak bi silaba sortzen dituzte: be-**gi-a**, esate baterako. Erderaz, ordea: he-ren-**cia**.

Zeatz ditzagun ondoren:

- **Zortziko txikia**. 4 puntukoa degu. Puntu bakoitzak 2 lerro. 7-6 silabetan banaturik.

Bi lerrok puntu bat osatzen dute. Guztira 8 lerro, orregatik da zortzikoa. Eta puntu bakoitzeko azken silaban, oiñan, errima edo oskidetasuna.

Beraz: puntuak neurria zeazten du. Eta azken itza, errimatua bear du izan.

### **Felipe Arrese Beitia'k** **(1841-1909)**

Euskaldun jaio nintzan,  
Euskalduna **azi**,  
Euskara utsik amak  
Eustan **irakatsi**;  
Euskara maite-maite  
Zabiltz neugaz **beti**,  
Euskara il ezkero  
Ez dot gura **bizi**.

(Donostian,1881ekoUrriaren29an)

### **BalendinEnbeita'k** **(1906-1986)**

Bakea nai badogu  
Ez iñor **zapaldu**,  
Menpean daganari  
Jasotzen **lagundu**;  
Baiña gizona ez da  
Malla ortara **eldu**,  
Naiago dau munduan  
Indarrez **agindu**.

- **Zortziko aundia**.Au ere 4 puntukoa da. Puntu bakoitzak 2 lerro. 10-8 silabetan banaturik. Eta zortziko txikian bezala 2 lerrok puntu bat osatzen dute.Guztira 8 lerro. Eta puntu bakoitzeko azken silaba oskidetasuna edo errima. Beraz 4 puntu guztira, eta oriek errima bear dute elkarren artean.

**Felipe Arrese Beitia'k**  
**(1841-1909)**

Arbola bat zan/ Paradi-soan  
Jaunak apropos **jarria**,  
Mundu guztiak /artu egion  
Lotsa ta itzal **aundia**.  
Bere azpian /bizitea zan  
Aita Adanen **gloria**,  
Andik kanpora /zer topau eban,  
ezpata **negargarria?**

\*

Arbola bat zan /Bizkayan bere,  
Neure anaya **laztanak**,  
Zeñen azpian /pozez beterik  
Egoten ziran **asabak**;  
Kerizpe zabal/ artan jarri-rik  
Eginda euren/ **batzarrak**  
Buztarri baga,/ nasai ta libre,  
Bizi ziran **bizkaitarrak**

Zortziko nagusiaren puntu bakoitzeko leenengo lerroan **etena** izenekoa sortzen da, geldialdi unea erdi-erdian. 10 silaba dauzkala esan degu, puntu bakoitzeko leenengo lerroak. Eta amar silaba oriek bi zatitan banatzen dira 5/5. Beraz erdi-erdian geldi unea. Jokaera ori erritmoari dagokio.

- **Amarreko txikia.** 5 puntu ditu. Eta beraz 5 oin. Puntu bakoitzak 2 lerro. 7-6 silaba. Guztira amar lerro. Orregatik da amarrekoa. Puntu bakoitzeko azken itzak, leen esan degunez, oskidetasuna edo errima bear du, oiñean, bertsoa egiteko. Aurrekoetan bezala, bertsoen adibidez teoria obeto ulertuko degu-naren ustetan, orra berriz ere bertsolari aundi-aundi baten bertsoak. Asko dakitenek, gai oni buruz esan izan dute, bat aukeratzekotan bertsolaririk onena izan dela “Basarri, bertsolaritzaren istorian.” Orra bada, azalpen txiki bat:

**Iñaki Eizmendi-“Basarrik”**  
**(1913-1999)**

**Laguna gogoratuz ( Xalbador-i**

Bere omen egunez  
Azkena etorri,  
Ori gertatu zaio  
Lagun Xalbadorri;  
Pozikan komeni ez  
Biotz aundi ari,  
Begiondoak malkoz,  
Biotzak ler-zori,  
Luto beltzez jantzi da  
Gure Euskal-erri.

\*

Urepel-eko argi  
Dizdiratzaillea,  
Bertsolari-poeta  
bikain ta trebea,  
Sentipenak agertzen  
Berdiñik gabea,  
Gure euskera zaarraren  
Egizko abea,  
Zeiñek bete bear du  
Zure utsunea

Gero Xalbador Iparraldeko bertsolari ta olerkaria nor izan zen ikusiko degu, bere bertsoaren bat agertuz.

- **Amarreko aundia.** 5 puntu ditu. Puntu bakoitzak 2 lerro. Guztira 10 lerro. Silabak 10-8. Eta 5 puntu orien bakoitzaren azkeneko itzak, oiñak, oskidetasuna edo errima.

### **Xabier Amurriza'k**

**(1941)**

("Menditik Mundura"liburutik)

#### **Xalbador**

Begiak hertsiz arnasa irentsiz

Hortz artean heriotza

Sentimenaren mailarik maila

Hondoratu dut biotza.

Badut zoko bat pultsu gabea

Odolaren mintzo hutsa

Han dago zutik lore horitan

Tristuraren ereinotza

Han ehortzirik zauzkat Xalbador

Han datza zure abotsa).(bis)

\*

Zu hilez gero, zu galduz gero

Hau zait Xalbador saminen,

Nola han maite zintudalarik

Jakin gabe joan zinen.

Baina berbiztu bazintez ere

Eta bidean ediren,

Odolak diost ez nizukela

Aitormendu hau eginen,

Maitasun handi gehienak bertan

Hiltzeko jaio baiziren).(bis)

Uste det merezi zutela bertso auek azaltzea, egilleak kanporatzen duen sentipenagatik, eta Amurriza goi-goi maillako bertsolari izanik gaiñera. Eta gaia Xalbador !!! Leen esan bezala, gero jakingo degu, zergatik sortu zuen Urepel-eko bertsolari-olerkari ark ainbeste mirespena.

- **Bederatzi puntukoak.** Orain arte aipatu ditudanen antzik ez dute bederatziukoak. Ikus: 9 puntu eta 14 lerro.

**Xenpelar'ek**

**(1835-1869)**

**Betroiarenak**

Ostegun joan danian  
Amabost Ernanin,  
Betroi baten tratua  
Genduen egin.  
Saltalle Inazio  
Erostuna Premin,  
Emeretzi ezkutu  
Genion eragin.  
Sabelian du min;  
Iñork ase ezin;  
Artuari muzin;  
Ez du nai edozin.  
Atzetik bear dittu)  
Zazpi medezin). (bis)

Metroz bertsoa "puntu motxekoa" da. Xenpelarrek kanta onetan, errima, bigarreanean, laugarreanean, seigarreanean, zortzigarreanean. Eta gero errenkadan, bederatzi, amar amaika, amabigarreanean; eta azkenik, amalaugarreanean.

Eta beraz, laburbilduz, aipatutakoak: Zortziko txikia. Zortziko aundia. Amarreko txikia. Amarreko Aundia. Eta Bederatzi puntukoa. Bertso mota oriek dira plazan geien erabiltzen direnak. Eta lantxo apal onen elburua uste det betetzen dutela beroien aipamenak.

Ala ere, amaika puntukoa azaltzea nai nuke, ain zuzen 1960ko Abenduaren 18an. "Basarri" maixuak Donostiako "Victoria Eugenia" antzokian bota zuena, txapelketa irabazi eta gero. Beraz bapatekoa da.

**Iñaki Eizmendi- Basarri-k**

**(1913-1999)**

**Pozak txoratzen ( agurra)**

Pozak txoratzen ementxe dago  
Une ontan bertsolaria,  
Etzaio noski asko damutu  
Gaur onuntza etortzia:  
Neu ez naiz ezer, Jaunaren graziz,  
Leendabiziko saria.  
Eskerrik asko entzuten egon  
Dan jende ongi azia,  
Jaialdi auek ematen dute  
Txertua eta bizia,  
Era ontako billeratxo bat,  
Noiz ote dan ikusia?  
Izan e' txoko berezi onek  
Ba-du grazi berezia:

Lur zati bat esan diteke  
Zerutatik ixuria,  
Gozotasunan gozotasuna  
Ezti guziyen eztiya,  
Zeure eskutan daukazun beti  
Nai dan aukera guztia,  
Iñuntxo ere eztezu berdiñik  
Biotzeko DONOSTIA.

Eta beraz: Puntu luzekoa, 10/8 silaba puntu bakoitzak. 22 lerro. Antxe nintzen egun zoragarri artan, nire aita zenarekin. Eta gu ere gure aldetik, orrelaxe jarri giñen, pozak txoratzen, Basarri aundiak jai aldiari eman zion bukaerakin. Ainbeste lan egin eta gero norgeiagokan, bota egin bear da orrelako 11 puntuko bertso mamitsua, bapatean !!!

### **Bertsoak nola epaitu.**

Orain artekoan bertsoa nola osatzen den azaldu det, au da:

Neurria, errima, eta erritmoa. Erritmoa igikera da, etenak, oguzkerak, eta azentuak kantuaeren bidez, edo irakurketa bereziaz, sortzen dutena.

Orain Epai maikoek norgeiagokan erabiltzen dituzten beste arau batzuk azalduko ditut.

Orra zer dioen Aita Santi Onaindiak “ Gure Bertsolariak” bere liburu ederrian. “ Maikoak erabagia emoteko gai oneik euki bear leukiez:

- Euskera: Zelakoa erabili dauan bertsolariak. Joskera, iztegia, e.a.
- Irudimena: Nork argiago eta apaiñago.
- Adimena eta zorroztasuna: Erantzun egokiak eta bizkorak emoteko. Gai onetan Uztapide nagusi nire ustez.
- Biotza edo sentimentua: Bertsolariak erriaren biotz sakoneraiño sartu bear dau. Euskaldunak kanpotik legorak izan arren, barrutik umeak bezain negartiak gara. Bertso biozkor edo erromantikoak atsegiñez abesten doguz.
- Eta oroar laburbilduz: Epai maikoek beren iritzia agertzeko, kontuan eguki bear dituzte, bertsolarien: Sorpena, irudipena, bertsolarako erraztasuna, neurketa, puntuak eta oiñen oskidetasuna eta gaiñera aberastasuna. Baita ere emondako gaiak ondo erabili dituzten ala ez. Gaiari eutsi esaten zaio orri, bestela emen, eziñean, betelana sortzen bait da.

Eta ortik bertso onak, ez ain onak, edo bear bada bapateko lege estuetan kaxkarrak ere bai noski. Eta potoren bat ere bai, tarteka.

### **Zer da potoa?**

Bertso batean bi puntu berdin, bi itz berdin puntu bukaeran, beraz, bi oin berdin erabilliz gero, pota esaten zaio orri. Ba-dira ordea esanai ezberdiñeko itzak. Alegia itz batekin bi, iru edo geieago esanai. Eta orduan ez da poterik sortzen. Adibide batzuk: Pello Mari Otaño-ri artuak:

Nola esan nik zenbat/maite dedan **bera**,

Ikusten dedanean/ dijoala **bera**,

Negarrez urtutzen da/ nere biotz- **bera**.

Potoa aztertzen, adiera berezi bat, Bilintx'en bertso batekin:

Loriak udan intza bezela

Baite det dama **gazte** bat



Ari ainbeste nai diyotanikl  
Ez da munduban **beste** bat;  
Iñoiz edo bein pasatzen badet  
Ikusi gabe **aste** bat,

Biyotz guztira banatutzen zait  
Alako gauza **triste** bat.

Leenengo begiradan esan liteke, lau aldiz, "bat" itza, bukarean ikusita, pota aundi bat dagoela. Ez da pototzat artzen ordea. Aurreko itzak dira ointzat artzen direnak: *gazte*, *beste*, *aste*, *triste*. Beraz, ez dago potorik.

**Gaiak.** Orain artekoa teknikarena izan da. Ondoren gaiak kontuan arturik kanta ditzagun bertsolari famatuenen bertso batzuk. Beraiek esaten dutenarekin, ez daukagu azalpen geiagoren bearrik. Erne eta entzun: Bilintx, Pello Mari Otaño, Xalbador, Txirrita eta Orixe-ren bertso-olerkiak..

### Bilintx

#### Indalezio Bizkarrondo (1831-1876) Ja-jai !

Bein batian Loiola-n  
Erromeriya zan,  
Antxen ilusi nuben  
Neskatxa bat plazan;  
Txoriya bañan ere  
Ariñago dantzan,  
Uraxen bai pollita,  
An pollitik bazan !  
\*

Esan nion desiyo  
Senti nuben gisan,  
Arekiñ izketa bat  
Nai nubela izan;  
Erantzun ziran ezik  
Atsegiñ ar nezan,  
Adituko zirala  
Zer nai niyon esan.  
\*

Arkitu giñanian  
Iñor gabe jiran,  
Koloriak gorritu  
Arazi zizkiran;  
Kontatuko dizutet  
Guztiya segiran  
Zer esan nion eta  
Nola erantzun ziran.  
\*

“- Dama polita zera,  
polita guztiz, ai !  
Bañan alare zaude  
Oraindik ezkongai.  
Ezkon gaitezen biyok !  
Esan zaidazu bai ! “  
-“ Ni zurekiñ ezkondu?  
Ni zurekiñ? Ja-jai !!!”

**“Odolaren Mintzoa” liburutik  
Xalbador-ek  
(1920-1976)**

**Ortzirale Saindu Bateko Gogoetak eta Otoitza**

Jesus, kurutzeaz kargaturik /zamatzen egun huntan,  
Gogoz izan naiz Zure ondotik/ Galbarioaren puntan;  
Han ene buruari behatuz/ hara zer ikusi dutan:  
Zu itzatzeko burdin zorrotzak/ naramatzala eskutan.(bis)

\*

Aitortzen dut nor zaitudan bainan/ aitormen xoila bakarrik,  
Zure aski maitatzeko ez du /ene bihotzak ondarrik;  
Bekatuari estekatua /naukate hainbat lotgarrik,  
Deus egin gabe Zu beiratzeko/ kurutze dorpe hortarik.(bis)

\*

Sortzetikako jaidura txarra /da ene hutsen iturri;  
Jainko Semea zarenaz geroz /baitakizu denen berri,  
Gizoner gorde izan dut bainan /nola gordeko dut Zuri  
Ardurenik zer izaiten duen /ene gogoak hazkurri?(bis)

\*

Zure Aitaren eskuetatik/ badut kargu bat ukana:  
Bertutearen predikatzea / gizonen artean barna;  
Alegiazko kartsutasunez/ egiten dut ene lana,  
Bainan Zu eta ene burua /ezin dezazket engana.(bis)

\*

Bake hitza ene ezpainetan/ nork ez ote du entzuna?  
Bainan barnetik etzaut ixiltzen /hisiaren oihartzuna.  
Nekeak utzi bertzerendako/ enetzat errextasuna,  
Horra hor ene karitatea/ horra ene maitasuna.(bis)

\*

Norbait ikusten badut ni baino/ dohatsuago bi mailez,  
Gizarteari oihuz ari naiz/ zuzentasunaren galdez;  
Aldiz ene biotzak funtzezko/ urrikalmendurikan ez,  
Nik jakinean pairamenetan/ bizi diren dohakabez.(bis)

(Omenaldia eskaiñi zioten egunean bertan, eta toki berean, Urepel-en  
bere jaioterrian il zen biotzekoak jota, gure Xalbador,  
1976ko Azaroaren 10ean)  
Pello Mari Otaño-k  
(1857-1910)  
Zazpiak bat

Zazpi aizparen gai dan oyala  
Ebakirikan erditik,  
Alde batera iru soiñeko  
Utzirikan, lau bestetik.  
Guraiziekin berezi arren  
Bakoitza bere aldetik,  
Ezagutzen da jantzi dirala  
Zazpiak oyal batetik

\*

Oyaltzat ar dezagun euskera  
Guraizitzat Bidasoa..  
Ibai koxkor bat besterik ez da;  
Utsa balitz itsasoa.  
Elkarren urbil daude **zazpiak**,  
Muga deitzen da "Pausoa".  
Zergatik izan bear ez degu  
Familia bakar osoa?

**Txirrita-k**  
(1860-1936)  
"Il da Canovas"

1897an Santa Agedan, "Angelillo" izeneko anarkistak erail egin zuen Canovas Espaiñiako politikoko ezaguna. Bein batez Txirrita-ri esan omen zioten "orixe dezu Canovas-en emaztea". Eta bapatean bertso auek bota omen zizkion:

Il da Canovas, fuera Canovas/ pikaro gaizki **eziya**,  
Galdu zituen gari-zelayak/gaillendu zaio **sasiya**;  
Galdu zituen ipar garbiyak/ gaillendu trumoi **nasiya**,  
Galdu zituen fueruak eta/ Jaungoikuaren **graziya**,  
Galdu zituen bizi-lekuak/ galdu du bere **biziya**.

\*

Iru reloju, iruna kate/ iru maillaki **bakoitza**,  
Buruan iru korona eta /petxuan iru **orratza**;  
Amoriyua iru dobletan/tximista bezain **zorrotza**;  
Iru tirokin utzi zizuten/ zuri senarra **illotza**,  
Iru ezpatak zulatzen dute/ señora zure **biotza**.

(Au lirika da bete-betea, poesia, olerkia. Nork? Eta, Txirrita eskolagabeak egiña. Txirrita aundiak !!!!)

**Orixe-k  
(1888-1961)  
Lizardi-ri il eta gero  
Beti Lagun**

Non nago? Non aut? Ez ote da auxe  
Neretzat lengo Tolosa?  
Ez al dezaket entzun berriro  
Mintzo goxo orren otsa?  
Bego negarra, lurrindu bedi  
Begien malko mingotsa,  
Ala ere ez uke nik iregatik  
Negar egitea lotsa.

\*

Ire erraiñua ikusten diat  
Nere begi on txingarra,  
Argi biurtu dela niokek  
Ire ezpaiñen irri-parra.  
Dante-ren itzal isillak beude,  
Betorkit neri ire garra,  
Bete dezadan azken aginduz  
Eman idaken bearra.

\*

Biotz bertsoak egin nai eta  
Jainko billa nauk oldartu,  
Ik esan idan bein ta berriro  
Onetan nendilla leiatu.  
Lagun egidak argi orrekin,  
Nere bigarren aingeru,  
Igan ikusten diat garbien  
Jaungoikoaren erraiñu.

\*

Jainkorik ezin, ez ta aingerurik  
Gorputz antzean iduri,  
Siñeztez iñoiz konturatzen nauk  
Itzalpean nautela ni.  
Illun ortatik bizi ontara  
I aut bitartean argi,  
Errainu onen dirdaia lagun  
Aurrean zeuzkeat beti.

\*

Beretarbiden, iturri askan  
Agertu didak begia,  
Osto tartetik iragazirik  
Eguzkiaren izpia.  
Neure aurretik, ibilli gabe,  
Igaro uan mendia,  
Ikusi genin basora antzean  
Loretan den sagastia.

Len lagun zintzo gorputz bizitan,  
Orain are, lagunago,  
Tokiz aldatzen nekerik ez duk  
Ez egal eta ez zango.  
Begi-orde ok aurreko ormara  
Eguzkiak jota baiño,  
Zintzoago abil nere aurrean,  
Abil ni bizi naizeño.

\*

Oroitu ta aztu, burruka diat  
Tartez bakar eguzkia,  
Erraiñu onek irauten balu,  
Auxe, bai, nere zoria.  
Goilbeltzen ba-zait gainbero bedi  
Bego barren au gorria,  
Gorputz ustel au gandu nasi au  
Daiteken arte eroria.

\*

Biga atera duk, begiak lauso,  
Ikullu-zoko beltzetik,  
Begiak urrez igurtzi eta  
Lauso orrek aldegiten dik.  
Egun otako negar-malkoak  
Txuka ditudanean nik,  
Ni il arte ez beza, Jainkoak nai  
Ire erraiñua galtzerik.

\*

Nere bigarren albo aingeru,  
Nere Jainko-erakusle,  
Il arte lagun, ortik onera  
Ezegok len ainbat bide.  
Bakar-bakarrrik nakustenean  
Jendeak esan bezate:  
Bekokian dik aren itzala  
lagun dik oraindik ere.

\*

Leen esan degu On Manuel Lekuonak, iru bertso mota bereizten dituela: Artzaia. Nekazaria. Lirika eta Dialektika. Nik emen, nire lantxoan, LIRIKARI eman diot leentasuna.

Bukatu det eta onekin agurra:

**Nire Barne oiua**

Bertsolaritza nik gai artuta,  
Zuekin ni Joxemari,  
Euskera degu biotzarentzat  
Poz-bide eta janari.  
Nire Bizkaiko anai-arrebok,  
Ontasuna det nabari,  
Nire agurrik biozkorrena,  
Orixe nire gurari,  
Eskerrik asko ta bereziki  
Gure Olazar jaunari.(bis)

***J.M. Murua-k***

# EUSKALERRIA TA INGURUKO ERRIAK

## AURKEZPENA:

Arrastion, itzaldi onetara etorri zareen guztioi, eta on-egin daigula danoi beren mamitik ulertzen dogunak.

Azkenean, zuek galderak egitea gura neuke, danok batzar onetatik, al dogun ulermen ederrenean urten daigun.

ZERGAIK "EUSKAL LURRAREN" GAIA?:

a).- Leenengo Gizarteak zelangoak izan ziran, eta zelango lurraldeetan ibili ta

kokatu ziran jakiteko. Munduan eta Euskalerrian jakin aundiko ikerlariak euki eta dagoz. Zeaztasun asko asi dira argitzen berezko erriaren alde.

Eta aurka, erdira-zale edo menperatzaileak, joko-bidetik dana naspiltzen edo zamartzen dabizela.

b).- Gaur-arte edesti guztian berezko-erriak batzangotzeko eten barik beartzen ibilli diralako eta XVIII`n gizaldian ulert-ezinezko batzangotasunaren asmakuntz orren erabagia on artuta, Laterri menperatzaile oneik lurra eurak nai dauan aldera mugatuta eta espatak gure buru gaiñetan ipinita etenbako keiñuan dagozenak, daukaguzelako.

Eta gizartearen eskubideko gora-beran, GAI-NORKERIAREN MORROIPEKO edo SERBITZURA dagozanak, egiaren izpirik iñoiz ez dabelako esango.

Esaten badabez, euren guzurrezko arrazoi orreik argitasun guztiagaz agirian geratzen diralako.

Eta erri guztietan gizakia gaur, buru-belarri borroka orreitan sartuta dagoelako gizartearen Nortasunezko eskubideak zuriketako bidean babestuz batera zaintzeko.

d).- Euskaldunak, gaurko argibideakaz konturatu gaitezaz zeintzuk ziran gure Arbasoen ibilbideko ekanduak Europa onetatik eta zergaitik berezko erriak gaur Euskalerria lez agertzen dira euren eskubidea izan da, berez euki bear daben Nortasunezko Jabetasunetik kanpo geratu barik.

e).- Eta Olazar`tar Martin`ek, gai onen azalpena nik egin bear nebala esan ebalako.

Asi gaitezaz ba, Euskaldunen ibil-bideak ikusten eta zeintzuk ziran euren lurra eta non kokatuta gozan gaur konturatzen.

## SARRERA:

Sinistu eziñekoa da, Mundu onetako gizartea jakintzan ain-mailla aundi-koa izan eta konturatu ez, guretzat asierako denborak eta gaurkoak bardiñak dirala.

JAUNGOIKOA`k ipinita, Ludi onek guretzat ez dauka asiera eta amairerarik eta gitxiago gure eskuetan bera ezereztuteko almenik.

Gure eginkizun guztia, gizartearen alkarkizun edo arremanetarako, egitarauen (proyecto) azpiegiturezko (infraestructura) antolakizunetan erabili bear dogun oitura edo ekanduzko iritzi inguruan mugatzen da.

Gizarte artean ekanduzko arremanetan gaur ikusten doguna, gorrotogarrria eta ikusiaz batera naska emoten dauana da.

Saiatuko naz naste-borraste au argitzen, Martin`ek ardurapean ipini-eustan gaurko itzaldiaren sail bidetik.

Oso polita dalako leenengo, eta Euskaldunen ardurazko begiak zabaltzeko oso argigarria dalako bigarren.

## I.- BESTE ERRI BATZUEN ERASOA EUSKALERRIARI:

GAURKO IKERKETAREN BIDEZ LORTUTAKO ZEAZTASUNEZKO ARGIBARRIAK:

(1) – ZER DIÑO E JAKITUNAK GAUR EUSKALERRIARI ETA EUROPA`ri BURUZ?:

Len, Barandiaran`tar Joxemiel`ek txantxetan esaten eban lez, Euskalduna bertoko perretxikoen antzera, beti bizi dala emen.

Gaur, Wennemann`tar Theo, germaniar ele-jakintzaren maixua (catedrati-ko); Foster`tar Peter, Cambridges`ko ikastetxe nagusian genetika`ren irakaslea: eta Hamel`tar Elisabeth berrien idazleak, egin dabean azteraldi sakonaren bitartez, eta "Spectrun Wisenschf" Aleman aldizkari jakintsuan argitaratu, eta bai Ingalterra`ko iztegi nagusian esaten dauana: "EUROPA ZAAR ONEN ERPEETAN, ZER ESAN GURA DAUAN EUSKAL ENDAK ETA EUSKEREAK".

Iurak bat egiten dabe, eta baieztuten dabena auxe da: "Europa`ren oiñarrizko gizartean edo jendearen geenetan %`tik 75 Euskaldunak dirala, eta euren oiñarrizko izkuntza Euskerea dala".

Onen esan gurean: "Europa oiñarrituta izateko, Euskaldunak Euskal geneak eta izkuntza emon dautsozela" da.

Altuna`tar Jesus`ek, bere azterkuntzazko maixu-lan bidetik argitutako liburuan "Euskal Edesti-Aurreko 150.000 urteak" esaten dau: "Kromañoñ gizakia, gaur daukagun itxuragaz "WURM" deritxon askeneko izotz-aldiren ostetik "Magdalenien se eta Aziliense"en arteko denboratan, orain 15.000 urte K. a. inguruan, agertu zala.

Eta Aleman jakintsu oneik gaur esaten dabena: "Orduko Europa`ren izotz-ur-tzean, eiztariak gezaltze orren ondorioz izotz-oreiñak eta Mamutzar`en iges-aldian edo atzerakada egitean euren atsekiñezko giroan egoteko, Euskal eiztariak Europa`tik zabaldu zirala, eta orregaitik aurkitzen dirala Europa guztiko baztarretatik Euskera`ren oiñarrizko itzak: "Aran, Ibar, Ur" eta abar asko.

Or banandu ziran, eta bakardadeko denboraren igaro-bidean leiñu barriak sortu ziran, bakartasun orretan eta tronkaletik urrun, gai-gauzai bakotxak beren ulermeneko sinismenean ulertzen eben itzakaz izena emonda, eta banazeko berezitasuna gura nai-ez artuta.

Banandu bai, danak baiña ekanduaeren oiñarrizko erpe-biribil batetik zabaldua.

Bizi orren azkera oraiñarte etorri bazan, gaur ez gintzazan berez batzangotuko, bizitzaren arazoai etorkizunean aurre egiteko?.



Baiña Erromatarrak norkerien asmoz jaio ziranetik, gaur arte dana ankazgora dago: “Gizarte-Politikari; Merkatarari edo Sal-Erosle-Politikari; Erljiioaren-Politikari” eta gaurko bizitzaren ekanduzko lojikan, NORKERI`aren lojikazko leize-zulo sakon baten sartuta gagoz, “DIRUA-ELBURUTUTA” irten-biderik aurkitu ezinda.

Ikusten joan gaitezaz ba, zer gertatu dan erromatar-denboratik ona, berezko bizitzaren Nortasunak eta lurraldeak bear diran eskuetan egon ez daitezaz.

## **KROMAÑON edo EUSKAL-GIZARTEA:**

### **2.– EGIA DA KROMAÑON GIZONA DALA EUSKALDUNEN JATORRIA?:**

Gaur ikerlari jakintsuengandik dakigu, Europa`ko azken izotz-aldia urtzen asi zanetik Kromañoen endea, gaur daukagun itxuragaz agertu zala, eta bertan egon ziran Neardental`ak, eurongan beretuta geratu zirala.

Kromañoien izkuntza Euskera`ren len-izkuntza zan, eta Europa`tik zear zabaldu ziranetik izotzaldia urtzen asi zalako izotz-oreñiak eta Mamutzar`en eizan, Euskera`ren ainbeste izen geratzen dira oraindiño gauzen izenetan, mendi, ibai ta ibarretan.

Bai, 1.868`tik aurrera ikerlariak, Frantzia`ko ego-mendebalean leenengo eta gero Frantzi zabalean, Txekoslovakian, Espaiña, Alemania, Suezia, Italia eta Polonia`n, aurkitutako Kromañoi-giza`ren azur-ondarrak.

Gaur, Wennemann`tar Theo ele-jakintzaren ospe aundiko maixuak eta Foster`tar Peter Kanbridges`eko ikastetxe nagusian genetika`ren irakaslea danak: “Europa`ren oiñarrizko edo Europa`ko gizartearen geneetan %`tik 75 Euskaldunak dirala esaten dabe.

Eta Arrinda`tar Anes`ek esaten eban: “Jakin aundiko gizon bi onein esanetan, ez dagola adimen edo ezagumenen gabetasunik” edesti-aurrea, odola ta geneak, gaur gai onen inguruan ikerketaren bidez ekarri dauskuezanak, alan emoten dabelako ezagutzera.

Or !! Europa osoa Euskal-lur lez oiñarrituta non agertzen dan.

Eizan zabaldu ziranetik baiña, leiñu barriak sortu ziran, eta danak, nai-ta asikeran Kromañoen oiturazko ekandutik sendotu, izkuntzan ezberdindu egin ziran bata bestigandik urrun egon ziralako.

Euskereak or galdu eban leenengoz izkuntzaren arlo aundiena beintzat eta beragaz lurra, izkuntzan ezberdindu egin ziralako.

### **3.– KELTIARRAK NORTZUK ZIRAN?: EZ ZIRAN KROMAÑOIAK?:**

Orreik ziran Indoeuropear deritxenak? Alan deitzen dautsee Europa`ko ia izkuntz guztiari; Asia`ren Ego-Mendebalekoak; eta India`ren Ipar-Ekialdeko izkuntzen artean arreman edo ikuskizun aundia daukielako.

Keltiarrak K.a. 2.000 urtean Alemania`ren erditik Europa guztira zabaltzen asi ziranean (Goidelos, K.a. VI-I`n gizaldietan Britaniko Keltiarrakaz kanporatuta geratu ziranak), K.a. XVIII-XVI`garrengo gizaldietan Frantzia`ren Mendebaleko Iparraldera (Britania) eta Ingalterra`ko ugarteetara eldu ziran. Espaiña`ra edo erdi-ugarte onetara K.a. XII-VIII gizaldietan etorri ziran Mendebaleko Iparraldera Asturias eta Galizia?, (gure artean be Biasterin “LA OYA”,

Mungia`ko Berriaga mendian eta abar`eko kastroetan, bizi ziran), eta erdi-ugarte onen erdi ingurutik Eki-Egoalderuntz, keltiberia tarraconense deritxonari, Soria ta Zaragoza`tik asi-ta beruntz: Guadalajara, Toledo, Kuenka, Teruel eta Balentzian. Ego-Mendebalean Lusitania edo Portugaleko egoalde-tik asi-ta Betika`ren Iparraldean Badajoz, Sebilla eta Kordoba`ko Lur zabal aundi batzuetan kokatu ziran.

Euskaldunak nungo lurraldeetan geratu ziran?:

Euskaldunak bigarren aldiz galdu genduzan euskaldunduta egon ziran lurrak, bitarte orreitan geratuta, Loira ibaitik Soria ta Zaragoza`ren ego-alde-raiño, Auñamendi ta Kantauriko saiatsetik zear mendi kateen bizkarreko babesean.

Keltiarrak sasoi aundiena K.a. 4`n gizaldian (La Tène) lortu eben, baiña erromatarren bultzakadan ezereztuta geratu ziran, nai-ta Ingalterra`n luzaro, Frantzia`ko Iparraldean eta Espaiña`ko Sartaldean geratu

Euskerazko lurralde oneik galtzea esaera bat da, danak ordezkartizan edo “demokrazian” aurrera joan giñelako.

#### **4.– ZE GARRANTZI DAUKE GREZIARRAK EDESTIAN?:**

Grezian asi ziran jakiturizko demokrazian aldi argienak K.a 1.000 urte dirala. Kreta`tik asi-ta, Munduko jakintzaren arloan zilborra edo erdi-gunea izatea lortu eben, eta Lurrarteko itsasotik ta Erdi-alde edo aurreko-ekialde guztitik jakituria zabaldu eben: “Eder-lanean, Filosofi edo Jakin-Zaletasunean ta Ele-Ederretan”. Euren jakintzaren goi-maillako gunea K.a. V`n gizaldian lortu eben.

Euren artean baiña, jakituriaren eta gudalarien alderdikideak sortu ziran, eta nai-ta gudalariak jakintza-zaleak menperatuta geratu, agertu ziran bai, gudalarien eredia edo ikas-bidea artu ebenak, gudak bakarrik ekarri leiken asmakizuna beteteko.

#### **5.– ZER EKARRI EBEN ERROMATARRAK?:**

Erromatarrak ziran Esparta`ko gudaren eredu bidetik Mundu guzizko edo al-osokerizko batzangotasuna lortu gura ebanak: “Jaurkintzaren zuzentasunean, Erlijiñoan, Oituran, Lurrez eta Izkuntzan”.

Arlo guztietan ez eben lortu, dana birrintzea baiño beste gauzarik, aurre-rantzean ikusiko dogun lez, eta argiago Euskalerriko adirazitan sartzen ganean, gure Euskera eta Lurrak zelako egoeran dagozan jakiteko. Gaur egun be, zabaldu eben ain sakonezko leize-zulo orretatik, urten ezinean gabizelako.

**ERROMATARRAK:**

Erroma`k sorraraldia K.a. 753`tik 510`era lortu eban, Sabino`ak, Iszeres`ak eta Etrusko`ak (onen izkuntza ez zan indoeuropeoa izan) alkartuta.

Etruskoa`k jakitunak ziran, Grezia`gaz artu-emon aundia euki ebelako, eta Ego-aldeko griego`rekin Latiña sortu eben. Erromatarrak Mundu guztian ezartzen ibiliko ebena.

Erromatarren batzangotasunezko asmakuntzak, Etruskoa`ren antolamenduzko jaurkintza Grezia`ren antzera “Uri-Laterrizkoarena zana” (ANFICTIO-

NIA: "Confederación de las antiguas ciudades griegas"- "Asamblea de los anficiones"), ez eban menperatzea lortzen, areik eta K.a. 295`an gudaren indarragaz menperatu arte.

Ortik eta K.a. 240`an ingurutik batez-be, asi ziran Erromatarren oituran arazoko bide larriak, erriaren be-maillako sendi oso aberats batzuk, erri-guraso`en (patricios) sendiakaz alkartu ziranean beste erritarrak jaurkintzatik bastartzeko.

Jaurkintza guztia euren eskuetan eukita eta andi-mandikeriak bultzatuta: Batzangotasunaren asmakuntza, apainkeriak eta kirkilleriak goraldtu ziran ezin besterarte, euren arbasoen osotasunezko oiturak eta ekanduak lortuta euken goi-mailako neurri aundia galduta.

Erromatarrek ortik aurrera asi ziran Europa`ko erriak eta lurraldeak menperatzen, eta euren naikerira lurraldeak zatituten: K.a. 222`an Galia-Cisalpinna; K.a. 146`an Grezia; eta K.a. 51`n Galia trasalpina. K.a. 27`an Zezar Augusto`k iru zatitan banandu ebana: Akitania, lionense eta La Elbezia. Frantzia`ko mendi-lerro erdi orrean (sistema central montañoso) banatzeagaz Euskaldunak Euskeraren beste lur-arlo aundi bat galduta.

Erromatarrek, Iberia`ko erdi-ugarte onetara leenengo aldiz K.a. 229-22`an etorri ziran Galia zisalpina`gaz batera Espaiña-Kartaginense menperatu naian eta K.a. 218-2`an bigarren aldiz etorri ziran Kartagotarrak botateko Anibal`egaz euki eben borrokan.

K.a. 133`an Numanzia menpetu eben orduan, Espaiña azpiratzearen sendotasuna lortuta geratu zan.

Zezar K.a. 45`an agintzale nagusia egin zanean, eta Mundu guztian erregetza bakarra sortuteko asmo naian ibili zanean il eben. Baiña, gauza bi itzi ebazan eredu lez, Erromatarren eskuetan batzangotu baiña, zatitu egingo ebana, bata: "Mundu guztiaren jaurkintzarako Erregetza, Erljioa eta Izkuntza bakarra"; Eta bestea: leenengo asmakizuna beteteko, maltzurkerizko itz auek "VENI, VIDI, VICI".

Euskaldunak K.a. 133`an Beroitarrai Numanzian zer gertatu jakon ikusita (zer ziran oneik Keltak ala Euskaldunak? toki-izen guztiak Euskaldunak izatez ba-dira: "GARRAI menditxoia eta Arlaban (Arlanza) ibaia"?) erromatarra-kin alkartu giñan eta ainbat euntzako guda batalloi talde osotu genduzan euren agindutara.

Euskaldunak ekintza orregaz, lurralde eta Euskera`ren babesa lortu gendun. Beste aldetik baiña, antziñako kantabriatik (Kastilla`ko goi-zabalditik itsasoraiño zana eta Bizkaia-Santander osoan, eta Obiedo, Burgos, Palenzia ta Leon`en zati zabal batzukaz osotzen zana) izkuntzazko Latin-kumeak asi ziran jaiotzen. Aurrerago argiago ikusiko dogun lez

## **6.- ZELAKO ARTUEMONA EUKI EBEN ERROMATARRAK ETA KRISTIÑAUAK ARLO ONETAN?:**

Dana dala, Erromatarren berakadan beste gauza oso kaltegarri bat K.denboratik onantza laugarren gizaldian sortuko zan, Konstantino`k Kristau eleiza alkartu ebala "Erromatarren asmakizunezko KAISERGO SAKRATURA" eta Latiña erabiliko ebana izkuntz nagusi lez oraintsurarte, sasi-kaizergo sakratu orregaz batera.

## **7.– GODOAK ZEIN BIDE ARTU EBEN?:**

Erromatarren blaustadan edo uts egin ebenean bostgarren gizaldian Godo`ak agertu ziran asmo bardiñakin. Oneik baiña, ez eben euki denborarik ekarri eben asmakuntza beteteko, zortzigarren gizaldiko asieran Mauritarak Tarifa`tik agertu ziralako.

Godok a-ta guzti, Konstantino`ren ereduari begituta, Arianikeria baster-tuz katolikotasuna on-artu eben, 589`an Toledo`ko Eleiz-Batzar Nagusian, kaizargo sakratuaren asmo orreri indarra emon naian.

## **8.– MAURITARRAK ZELAN JOKATU EBEN?:**

Mauritarrak etorri ziranean, Godo`ak ezereztu egin ziran eta asmo guzti orreik geratu ziran, naikoa izan zalako euren babesa lortzeagaz.

Danon artean Mauritarrak geratzea lortu eben, eta berezko erri, izkuntza ta lurrak, gaur baiño berezitasunezko lurralde zabalagoetan geratu ziran, berezkotasunezko erriak pare-gabeko aukera eukinda, euren senitasunak babese- an ezartzeko eta antolakuntz barriak eraikitako.

Berezko erri ta erritarrak, euki eben oiturazko demokraziaren legeetan jabetu ta sendotu ziran. Batera baiña, Latin-kumeak (Euskera, Latin, Godo ta Mauritarren izkuntz-bidetik sortutakoak) sendotzen joan ziran Eleizaren katolikotasunak babestu egiten ebazalako berezkotasunaren aurka, Erromatarren kaizar-sakratuzko asmakuntzaren jabetasuna oraindiño berak daukalako.

Orain ikusiko doguna, batzangotasunezko asmakuntz bide orreatatik, gero ta geiagoko indarrarekin aurrera eginda, zelan birrintzen diran lortutako demokrazia- ren moral-oiturak, lurralde eta izkuntzak.

Eta berezko errien erritarrak izendatuko jauntza, siñezkintzazko sare-arte orreitan konturatu barik zelan jausten dan, eta ortik, gero ikusiko dan lez, Euskalerrriaren zatiketa, eta Eleizak gaztelarrezko Latin-kumea indartuta Gaztela`ko erregetza goraldu ta sendotuaz, okerreko bide orreatatik aukera barriak emon Kaizar-sakratuaren norkeriai ta Mundu osorako norkerizko katoliko- tasun garailletasunari.

EUSKALERRIA`ren DEMOKRAZIA IZKUNTZA ta LURRA`k:

## **9.– EUSKEREA ta DEMOKRAZIA EUROPA OSORA:**

Kromañoi-giza Europa`ri, bere Euskal-izkuntza ta berezitasunak emonda demokrazizko oitura baten leen zabaltasunetik, lojika barruan gauza bi ikusten doguz:

Lenengoa: “Europa guztia, berezko demokrazi eta oitura baten oiñarritu zala”. Beste aukerarik ez eben euki, bizitzan irauteko Mundu onen legeak aurrera egin baiño.

Milla urte askotan iraungo ebana, Indoeuropearrak, Grekotarrak eta Euskaldunak bezala “ANFICTIONIA”`n, eraiki ebazan antolakuntzak oiturazko oiñarri orreitan goratu ebazalako.

Eurak esaten dabe: “Gu, sekula ez garala laterrituta egon”. Zelako arrazoiak daukiez eurak baiña..... indarragaz ipini eben laterri oneik eskubidekoak dirala esateko?.

## 10.– GODOAK eta MAURITARRAK INGURUAN EBEZALA:

Berezko Euskalerrri ta erritarrai aukera aundiak agertu jakiezan, jaurkintzan bear ziran antolakuntz-barriak eraikitzeko, eta alan egin eben. A-ta guzti baiña, izkuntzan zatitzen asi giñan, kantabria zaarretik asi-ta Gaztelerazko erromantzea indartzen asi zalako; Galizia ta Portugalen Gallego`aren erromantzea; Asturias eta Leon`en Bable erromantzea; Nafarroa eta Aragoi`en Aragoi erro-mantzea; Kataluñan Katalana. Eta ugarte erdi onen Egoalde guztian Mozarabe.

Frantzi aldeko Euskal lurraldeetan bardiñ antzera sortu zan: Erromatarrak Akitania deitu eutsoen lenengoetan eta gero Nobenpopulania. V`n gizaldian Bisigodo`ak menperatu eben, eta VI`n gizaldian Franko`ak. 601`eko urtean Gazkuña ta Bazkonian`ko Dukat-erria sortu zan, eta 1.058`an lurralde geiena Akitania`ko duke`aren eskuetan geratu zan. XV`n gizaldian 1.453`an IV`n Enrike`k Frantzia`ko koroiaz alkartu ebana.

## 11.– AKITANIA: LAU ZATITATIK BAT GALIAN:

Erromatarrak euren politikaren antolamendurako, Galia lau zati politikotan banadu eben. Akitania orren zati bat da.

Uno`ak, Erulo`ak, Eszita`k, Samata`k, Ostrogodo`ak, Gepido`ak, Boyo`ak, Turingio`ak, Franko`ak, Alano`ak eta Borgoñes laguntzarerekin, Europa`ren erdira eta Galia`rantza joan ziran.

Aezio Erromatar guda-buru nagusiak, 451`n Irailla`ren 20`an Kanpos Katalaunikos`era (Tخالons-sur-Marne inguruan, Marne-ibai ondoan) urten eta ezereztu ebazan Un`darrak.

Bizigodo`ak a-ta guzti 457`an Nobenpopulania (Akitania`ko 9 erriren lurraldea eta Erromatarrak 17 probintzietan banandu eben lurralde`etatik bat izan zana) eta Akitania Sekunda`ko (Loira-ibaia, Zebenes mendi-kateak, Auñamendi-kateak eta Gaskuña`ko ur-kolko`ren arteko lurraldeen zati bat izan zana. Prima beste zatia zan) lurraldeak menperatu ebezan. 462`an, Narbonense (Erromatarrak emon eutsoen izen au eta Robine ibaiaren alde bie-tako ur-basterren lurraldeak dira) prima`ko lurralde guztia. 466`an Akitania Prima`ko lurraldea. 470`an Biennense (Poitou-Txarenta`ko lurraldeak, Txarenta, itsastar-Txarenta, Deux-Sèbres ta Bienne`ko lurraldeak osotzen dabena, eta uri-nagusi-lez Poitiers dauna) ta Narbonense Sekunda`ko lurraldeak. Eta 475`ean lurralde orrein jabetzaren onespena artu eben.

Bisigodoak, Nobenpopulania ta Akitania sekunda`n 418`tik egon ziran kokatuta alkar-zaletasun (foederati) antzeko baten.

Erromatarren Kaizar sakratuaren agindu-naiaren amaiera 476`an sortu zan, nai-ta Nepote`tar julio`gaz Dalmazian (Yugoslabian) 480`erarte iraun. 476-7`an Espaina`ko erdi ugarte au menperatzen etorriko ziran.

486`an Franko`ak Klodobeo`en (481-511, katolikoa biurtua zan) agindutara, Siagrio`ren jabetasunean egon ziran Galia`ren Iparraldean Loira ibaitik gorako lurraldeak kendu eutsozan, eta Siagrio Tolosara (Frantzikoa) joan zanean beren burua gorde naian, Il Alariko`k (eta au Arriantarra) arrapatuta Klodobeo`ri eskuratu eutson eta onek il. Frantzia`ko lurralde guztian Bisi-godo`ak eta Franko`ak auzo-lez geratuta.

507`an Klodobeo, Gundebaldo (au-be Ariotarra zan) borgoñoiagaz alkar-tuta Boille Poitiers`en ondoan Il`n Alariko`ri borroka nagusia irabazi eutson

eta Alariko il. Teodoriko ostrogodoak Gundebaldo`ri 508`an Narbona`ko borrokan irabazita, Frankoak eta ostrogodoak geratu ziran garaille.

Euskaldunak borroka orren bitartez Akitania (kontuan euki bear da Akitania`ko duke-erria Ebroraiño zala) eta Nobenpopulania`ren Euskal-lur guztia Auñamendietaraño galdu eben, Franko`ak leenengo, Bisigodoak eta gero ostrogodoak menperatuta geratu zanean.

Erromatarren antzera, euren norkerizko borroketan ara ta ona ibili ziran, erri ta erritarren demokraziaren ardurazko legeak kontuan euki gabe. Erritarrak, euren asmakerizko borroketan peoi-lez ibilteko eta zergak ordaintzeko bakarrik gura ebezan.

574`tik asi-ta, Nafarroa, Aragoi eta Kataluña`ko Euskaldunak leenengo eta Bizkaitarrak, Gipuztarrak eta Arabarrak gero, zirikitu ta oztu egiten eutseen Godo`ai, Auñamendi kateetatik zabaldua eta gorde lekura ostera be joanda.

Eta 582`an Bisigodoak erdi-ugarte onen Euskal lur batzuk menperatzen asi ziranean, Iparralde eta Egoalde`ko Euskaldunai Nafar-nekazari asko alkartu jakiezan..

Astrobaldo dukea ibili zan Euskaldunak menperatu naian, eta eziñean, 587`ren ostetik erabagi batera eldu ziran Euskal bizitza aurrera bakez eroateko: "Euskaldunak zergak ordainduko ebezala, batera baiña, bizi ziran lurraldeetan, Euskal-legeekaz zuzendu edo jaurrituko zirala".

602`an Austrasia`ko II Teodoberto eta Borgoña`ko II Teodoriko Euskaldunen aurka joan ziran eta beartu ebezan eurak agindutako kondea gure buru artzeko.

## 12.– BASKONIA`ko DUKAT-ERRIA:

Or agertuko zan leenengoz Euskal-askatasunaren Bazkonian`ko-Dukerria, bere gorte ta guzti Merobinjio`ren erregetzatik adierazita (designada). Genial Galo-Erromatarra izan zan leenengo dukea 602-626`ko urtetan, eta aukera barri bat agertu jakun, Nortasunaren izaera, izkuntza ta oiturak zaintzeko.

Genial kondea 626`an il zanean, Euskaldunak matxinatu egin ziran bere ondorengo Aighina zanaren aurka.

629`an baiña, I Dagoberto agertu zanean Franko`en agintza sendotu egin zan lurralde guztian.

635`an Franko`en agintaritzari Euskaldunak aurka egin eutsoen denboraldi baten, eta I Dagoberto 638`an il zanean, ondorengo ziran errege fardelakaz, Franko`ai, ezereztu egin jaken euki eben Augusto`ren mugatara itzulzea, Euriko`ren erreñua ostera be osotzeko.

Baskonia`ko Dukerria indartzen joan zan Erritarren feudotasunean eta geien Gotzaitegian finkatu edo ebatu ziralako. Denbora gutxian Euskal-Dukerri`ko agintaritzaren eginkizunak, Franko`en errege-alfer orrein kanpotik eginda.

Eginkizun oneik, Akitania`ko andi-mandien eta Euskal erritarren artean ezin ohea zan ulermenean ezarrita egon ziran, eta Euskaldunentzat laster emango ebazan emaitza onak.

Ebrino`k, Franko erregetzaren etxe-zaiñak (mayordomo), denbora onen gorteko larritasunean, Felix`eri, Euskal-erri ta uri guztien nausitasuna (principatun) Auñamendirarte emon eutson.

Felix onek baiña, Franko`en alde jokatu barik, Akitania`ko Baskoi-Dukerria`ren alde jokatu eban, politika`n indartsu izateko.

Felix`en ondorengo Lupus (Otsoa) izan zan aurreratu egingo ebana egin-kizun au, gero ikusiko dan lez, Franko`en aurka artez borrokatuta eta Wanba bisigodo erregearen aurka Septimania`ko (Erromatarrak 7`n lejiñoagaz izena emon eutsoen Lurrarteko-itsas bazterreko (costa del mar Mediterraneo) lurraldeari, Rodano-ibai Auñamendia eta itsas-bazterragaz osotzen dana) iraultzari lagunduta.

Gauzak alan zirala, 660 eta 670`n urte artean Toulouse`ko erreinũ zarra bizkortzen asi zan, eta Akitani`ko Felix dukearen ondorengoa I Otsoa edo Lupus (670-710) izan da (Lobo. Otso oneik laka`koak "Jaka Aragonesa" ziran) jaurkintzaren buru ipini eben. Onen ostean Eudes (Eudon Aundia 710-735) izan zan buru.

711`garrengo denbora oneitan, Muza`ren Mauritarrak Tarik`en agindutara erdi-ugarte onetan Kadiz`tik sartuta, Rodrigo Bisigodoaren gudaloztea eze-reztu eben, eta 714`n urtea orduko Salduba`ra (Zaragoza) eldu eta menpe-ratu eben.

Ebro-ibai`en ibar inguru baten-batetik Kasio kondeak agintzen eban, eta konturatuta guda-egoera ez zala ona bere lurraren jabetasuna aurrera eroa-teko, 714`an Kalifa`ren zerbitzura aldatu zan. Banu-Kasi`ren mozarabe sen-dia ortik sortuta. Garrantzi aundikoa izango zana Nafartarren erregetza sor-tzeko.

718`an Eudon Aundiarekin (710-735), Euskal eragipena ta Akitania`ren jabetasuna Iparraldetik Loira ibai`raiño laterrituta geratu zan (dentro del esta-do franco el estado Basco). Ego-aldetik Ebro-ibai`raiño, eta Mendebaleko Kantabria`tik Auñamendi`ren Eki-aldeko Jirona- Lleida`ko Aran Ibarraiño.

Orduko denboratan Eudon`en Printze-erri au, Galia guztiko eredu-lez geratu zan, Austrasia (Klodobeo`k eraiki eban ekialde`ko erregetza, eta Fran-tzia`ren Eki-aldean, Alemania`ko Mendebal eta Olanda`ko lurraldeakaz oso-tzen zana) ta Neustria`ren (Merobinjio`aren denboran sortutako erregetza, eta Ipar-Mendebaleko Loira-ibai, Mosa-ibai ta Bretainia`ko lurraldeakaz oso-tzen zana) arteko borrokan antolatzaillie edo artekariaren (arbitro) lanak al-egiteko bakarra izan zalako.

Ekintza orrek, bere askatasunaren eragipenari ezkerron ta onespina balio eutson, eta bai erregearen (regnun-reino) izena.

671`tik-781`era Baskonia`ko Dukerria Franko`en agintzatik aske bizi zan eta bera izan zan leenengoz Euskaldun guztiak politikaren jabetasunean alkartu ebazana.

Euskaltasuna eta Euskerea sendotu ziran. Batera baiña, beste zoritxarre-ko gauza sortu jakon Euskal-Izkuntza`ri.

Euskerea sendotu bazan gitxi erromatartuta egon ziran Euskaldunen artean, Euskal erromatartuta geien egon ziranen artean "Gaskon" Latin-kumaren izkuntza sortu zan, ortik aurrera Gaskoien erritarrak agertuz. Gero, gizaldiak aurrera doiazela Gaskoi izkuntza zabaltzen joan zan, Euskerea neurri bardiñean gitxituz. Eta XII-XIII`n gizalditik aurrera Aran`eko Ibarretarai-ño.

Dana dala, Frantzitik Baskonia`ko Dukerria zabaltzen joan zan, eta bere lurraldea, gaur Gaskuña-lez ezagutzen dan lurraldea osotzen eben.

Akitania`rentzat keiñadura gogorra egon zan urte oneitan, Espaiña`ko ia lurralde guztia mauritarrak artuta egon zalako.

### 13.– KARLOMAGNO MAURITARRAK ETA EUSKALDUNAK:

720`an Mauritarrak Auñamendiak igonda Toulouse`ri eraso eutsoen. Eudes`ek, bere ardurazko lurraldea babestearren, Espaiña`ren Iparraldeko Mauritarraren emirra izan zan Abinessa`ren alabagaz ezkondu zan, baiña Abdel-Raman`ek Abinessa baztartuta eta Auñamenditik aldatuta, Autx eta Eauze menperatzera joan ziran.

Mauritarrak, Autx ta Eauze`n ikaragarrizko zarraskia egin ta gero Tours`era joan ziran, erregetzaren zilborra zalako.

732`an Karlos Martel Eudes`en laguntzara joan zan eta Abd-al Raman Poitiers`en geratuta, Martel`ek bultzatuta beartu eban Auñamendiak ostera be betiko aldatzen.

Eudon`ek, Franko`en aldetik ez eban iñolako nagusitasunik on-artzen, eta 735`an Karlos Martel`ek Euskalerrian sartu eta Eudon il eban. Eudon`en urrengoa bere seme Unaldo izango zan.

735`ean Eudon`en il ostean, Unald`ek Frankoa`ri zintzotasunezko ziñ-itza (juramento de fidelidad) emon bear izan eutson.

Karlos Martel 741`ean il zanean, Euskaldunak alperrik asi ziran Franko`en agintaritzaren aurka, Waifre (Wafarius), III`n Pipino Martel`en semeak 768`an il eban arte, aurre egin eutsoelako.

III`n Pipino Laburak (715-768) Martel`en semea, Karlo Magno`ren aita eta orain Franko`ren errege II`n Otsoa`ri, Akitania`ren jabetasunezko askatasun trukez, esku-aundiko Euskaldunen artean berak aukeratzen ebazanak, beragaz baituran (rehen) eroatera beartu eban. Eta ori izan zan II`n Otsoa`k edo Lupo`k Eudes`en edo Eudon`en azkeneko semeak, Franko`ai ordaindu bear eutsona Akitania`ren askatasunagaitik.

Errege-jatorrizko (dinastias reales) bi auek. Akitania`koa: Eudon, I Unaldo, Waifre eta II Unaldo. Eta Karolinjioa`rena: Karlos Martel, Pipino Laburra eta Karlo Magno`ren arteko leian, politikan nor`geiago izateagaitik, Pipino Laburak erabagiko eban, 9 urte luzeetan araubideko (sistemática) gudaldia eroan ebanagaz (760-768) garaille urten ebalako.

Franko`ak eta Euskaldunak geienetan kidesunean jokutzen eban, baiña beti asarratzen ziran, erabagiak Euskaldunen aurka joaten ziranean.

Franko`ak, Baskonia Dukerriaren bitartez Mauritarrakin artu-emon aundia euki eban, Karlo Magnok ardura aundia euki ebalako Mauritarrak bere erreiñutik kanpo eukiteko.

Eta orretarako Espaiña`ren Iparraldeko Emir`ekin lankidetu egiten zan, oneik Kordoba`ko Kalifa`ren aurka matxinatzen ziranean.

Bide batez, Baskonia`n bizi zan, sarri izaten ziran Euskaldunen matxindak geratzeko.

778`an Karlo Magno`ren gudaloztea, bere zaldun bioztoi Roland aipagarrien agindutara Salduba (Zaragoza) Mauritarrangandik askatzera joan zan, eta eziñean Iruñatik etxerantza aldatu zanean Iruña erraustu egin eban.

Eta 778`an Dagonilla`ren 15`an, Karlo Magno`ren gudaloztea Auñamendiak aldatzen egon ziranean, Euskaldunak Orreaga`n kokatuta itxaroten, ikaragarrizko zarraskintza egin eutsoen, eta Roland ospatsua bera be il.

Gero, 1.090`an Roland`en abestiagaz ("La Chanson de Roland") betikotu egin zan. Eta Frantzia`ko elerti-lanen artean aundienetarikoa da.

Karlo Magno (742-814) arduratuta, Euskaldunak askotan matxinatu egiten ziralako Asturias`eko II`n Alfonso nasgabeko (el casto) erregeagaz alkartu



zan, baiña onek beste premitasun batzuk euki ebazan Ego aldean kokatuta egon ziran Mauritarraz eta ez eutson laguntzarik emon.

Eleizak, nai-ta alegin asko egin Frantzia`ko erregetzan alkartasuna lortu daiten, Baskonian matxinadak ugari ziran.

Eleiz`tarrak, eleiz-katolikoaren aldeko jokuan, errege en artean onena aukeratzeko almenekuak izan ziran, bata edo besteari indarra emonda, kaizar sakratuaren kaizarra izendatzeko. Danak baiña, azken gaiztoa euki dabe, lenengoetatik okerreko bidean sartzen ziralako, bereztasunezko erri ta erritarrak kontuan ez eukitearren.

800`eko gabonetan, Karlo Magno, Erroma`ko Pedro Santuaren Eleizan, III`n Leon Aita santuak Erromatarren Kaizar-Sakratuaren Augusto-kaizarra izendatuta etorri zanean, Iparraldeko Euskaldunak matxinatuta egon ziran.

Karlo Magno 814`an il zanean, Akitania`ko errege I Pipino`k 803-838 (Luis Errukitsuaren "el Piadoso" bigarren semea, Akitania`ko errege izendatu eben, eta beren anai Lotario`ren menpekoa zan, au kaizar izenaren ondorengo zalako) bialduta, non agertzen dan III`n Pipino`gaitik 30 urte ariñago baitua (rehen) izan zana, Santxo Otsoa, II Otsoa`ren semea.

Nobenpopulania zaarrean, Euskaldunak Santxo Otsoa`k zuzenduta egon ziran. Gero, beren seme nagusiagaitik Aznar Santxo, eta au I Pipino`k il eban orduan, 836`an bere anaia Santxo Mitarra`k artu eban jaurkintzaren ardura.

Santxo Mitarra, beren aitagaz ibili zan Nafarroan eta Aragoi`ko goi aldean, guda eta politikarako trebetasun aundiak artuta.

I Pipino`k, Santxo Mitarra gudara beartu eban, eta onek Pipino`ren gudaloztea Garona ibaiaren eskuma aldera indarrez eroanda, 838`an irabazi eutson.

68 urte Karlo Magno`ren nagusikeritik geroago, Euskaldunak osterabe antxiñako berezko mugakaz jabetu ziran.

I Luis errukitsuak (el piadoso edo Ludoviko Pio 778-840) Franko`en erregeak, Santxo Mitarra`ren jaurkintza baieztu eban, 840`an bera il zanean baiña, Frantzia`ko kaizartza beren iru semeen artean banandu eben, eta Frantzia`ko Mendebal aldea eta Akitania Karlos buru-soil`en (el calvo-823-877) arduran geratu zan.

#### **14.- NORMANDOAK EUSKALERRIAN:**

840`tik aurrera, Normandoa`k Atlant-itxaso`ko itsas-bazterretara asi ziran agertzen eta euren itsas-untziekaz ibaitik gora egiten ebezan urietan lapurketak egiteko.

844`an Toulouse`n lapurketan egin ta gero erre eben. Kondon, Eauze eta Lektoure`ko erriak izan ziran kalterik aundiena artu ebenak, gaiñera zergak ordaintzea eskatzen eutselako, eta Eleizatan ta Lekaide-etxeetan lapurketa aundiak egiten ebezalako, 854`an beren Elusa`ko bizi-lekutik, Nobenpopulania`ko Uri-Nagusi zaarrean egon zana, Autx`era joan ziran arresidun (fortificada) zalako.

II`n Pipino, beren Akitania`ko erregetzatik kenduta, bir. eskuratzen asi zan, eta lortu be bai, Karlos Buru-soil`ak euki ebazan arazoari esker.

852`an II Pipino Euskal lurraldeetan sartzeko apaindu zan, Santxo Mitarra`k baiña, arrapau eban eta Karlos Buru-soil`ari eskuratu eutson.

852`ko aldi oneitan, Baskonia`ko Dukerrian asi ziran agintezko agiriak agertzen, Santso Mitarra leenengo dukea zala. Agiri oreik baiña, Latiñez edo latin-kumeetan idatzita agertzen ziran.

864`an Santxo Mitarra il zanean, Baskonia askatasun osoan bizi zan, baita Espaiña`ko Mauritarren aurka igaro-ezinezko muga.

Eta bere semea gaztea izan zalako, Arnaud dukea Santxo Mitarra`ren loba izan zanak, artu eban agintaritza.

Arnaud`ekin Baskonia`ko Iparraldea naspiltasun aundi baten sartu zan, Gotzaintegi eta Lekaide-etxe geienak utsik geratu ziralako eta erritarrak ibarreko bazterretatik igeska.

Aldi orreitan agertu ziran feudal-jauntza`ren araudiak, gaztelu arresidun eta guzti.

871`n oiturazkoa zan lez, Santxo Mitarra semearen arduratan itzuli zan konderria`ren agintaritza, nagusi egin zan orduan, Mitarra Santxo izena artuta.

Au, bere aitaren antzera gudarako bular edo ausar aundikoa zan lez, Normandoak itsas-bazter edo Adur-ibaiaren agoan euki ebezan, bere erregetza-ren denbora guztian 871`tik-886`ra.

Berak erregetza itzi eban eta Beren semea, Garzia Santxo makurrak (el encorvado), 886`tik-920`ko bitartean agindu eban.

## 15.- EUSKALERRIA ZATITUTA:

Mitarra Santxo il zanean, Iparraldeko Baskonia aundiagotu egin zan, bere seme Garzia Santxo Agen`eko kondearen alabagaz eskondu zalako eta Karlos gatz-gabekoa edo motela (el simple) Frantzia`ko erregeak, Itsas-Aundien mugaren gaiñetik Konde eta Markes bezela ontzat artu eban.

Santxo makur onek zori txarrez, euki ebazan iru semeen artean banandu eban Baskonia`ko erregetza edo dukerria, Euskal legearen aurka. (menperatzaileen artean oitura zan antza, Franko`ak be egiten ebelako).

Santxo Garzia nagusienari zati aundiena emon eutson: Bèar mendebaleko lur guztia Lomagne`raiño. Baskonia Nagusi edo Baskonia-Aundian biurtuko zana.

Gillermo Garzia bigarrenari: Erdiko lurraldea, Fezensak`az batera, Eauze eta Autx`en bitartean.

Eta Arnaud Garzia irugarrenari: Astarak`eko lurraldea, Fezensak eta Bigorre`n artean dagoena.

Zori-txarreko banaketa onegaz, Akitania`ko Baskonia aundia zatituta geratu zan.

Santxo Garzia`k lau seme euki ebazan: Garzia Santxo, Santxo Santxo, Guillermo Santxo eta Gonbaud.

Garzia Santxo oiñordeko geratu zan, baiña seme-alaba barik il zan, eta Guillermo Santxo izan zan-lez ondorengoa, printzerria bere arduran geratu zan.

Gillermo onek, Nafarroa`ra joan zan borrokan eta Gonbaud`en eskuetan itzi eban agintaritza, eta Normandoak keiñuka asi ziranean osterita itzuli zan baskonia`ra.

982`an Tailer`en borrokatu zan eurokaz eta garaille urten zan. Normando`ak euren kanpaldiko tresnak artuta, Baskonia`ra ez ziran geiago etorri.

## **16.– EUSKALDUNAK GURUTZA-GUDETARA:**

1.000`n urte inguruan, 400 eleiza baiño geiago eraiki ziran, eta gurutzadarako Euskaldun asko joan ziran borroka egiten Palestina`ra. Geienak Toulouse`ko kondearen irugarren gudaiztean.

Guda orreitan asko egin ziran ospetsuak, baiña Baskonia`ren Iparraldeko edo Gazkuña`ko konderriak eta Bizkondetzak apurka apurka Akitania`ko dukerrian ezereztu egin ziran.

XII`n gizaldi osoa Ingalterra`ko arduratara aldatu zan, Akitania`ko Leonor Ingalterra`ko Plantagenet`tar Enrike`gaz eskondu zanean.

Eta 1.453`an Frantzia`gaz bat eginda geratu zan.

## **17.– LABURPENA: ALEGIN AUNDIAK EGINDA, EUSKALDUNAK SARRITAN GALTZEN:**

Emen ikusi dogu, leenengoetan eta denbora luzean, Akitania`ko Euskal gizarteak zelako indarragaz aurka egin eutson etsaiari, Izkuntza, Nortasuna eta Euskal Oiturak babesteko.

Bigarren: Erromatarrak ekarri eben batzangotasunaren asmakuntzak eta latiñak, oraiñarte eleizan ibili dana, zelako kalteak egin eutsoezan Euskara`ri, azken baten latin-kume Gazkoi izkuntza sortuazoteko.

Eta emen galdera aundi bat egin bear da: Erromatarrak ezeretzuta, Eleiza ez da izan sinismenaren bidez.... asmakuntzako katoliko-erdikotasun ori.... gero Europa guztiko eta gure erregetzan sartu dauana?

Santxo Makurrak, beren (Euskal-legearen aurka) zatiketaz zelako kalteak egin eutsozan Euskal Nortasunari.

Gurutzadaren bitartez, Euskal arduradun nagusiak Frantzia`ko gorte edo errege-etxeetan ibiliaz eta eleiz-kide`en erdira zaletasunezko aolkuakaz, nagusien artean, erdikotasunezko joko orreitan jausi ziralako, Euskal ardurea zelan joan zan galtzen.

Euskereak gizaldi geiagoan iraun eban Iparraldeko Euskalerrian Euskaldunak baiña, Lurralde aundi bateko Izkuntza, Oitura eta Nortasunak galdugenduzan. Adur ibaitik beraiño bakarrik, Benafarroa, lapurdi eta Zuberua`ko lurraldeetan geratuta.

Euskalerraren kalterako aurrerabide au, Aragoi, Errioxa, Sobrarbe-Ribagorza eta Nafarroan ikusiko dogu argitasun guztiagaz.

Baiña guztiz arrigarria dana, Erromatarrengandik ona eta gaur-be, eskumatar derotxenak, 20 gizalditan erabili daben indarra berezkotasuna makurtzeko edo menperatzeko.

Zertarako aletin guzti ori?

Zergaitik eten barik espataren indarrak erabili norkerizko arrokeri orreitan.. ain denbora laburrean bizitzeko?

Zer egin ta Nora joan gura dabe?

Siñetsi bear dogu Mundu eta Ludi onetatik kanpora ezin dogula urten, urten-biderik ez dagoalako, eta gaiñera berak daukozan legeetan antolatuz batera egokitu egin bear.

## II ZATIA.- NAFARROA`KO ERREGETZA

### 18.— EUSKEREAK NAPARROAREN LURRALDE-ZATIA GALDU EBAN:

Erromatar ta Godo`en denporan Akitaniaren edestia eta Nafarroarena bar-diñak ziran, gure erria beti alkartzen zalako Auñamendi`ren mendi-kateko babesean, Euskal lurraldeko gizarte guztia oitura bateko ekintzan alkartuta egon zalako.

A-ta guzti baiña, Ebro ibaia`ren lurraldeetan Nafar-Aragoi latinkumean berba egiten dabe, kristautasuna sendo sartuta egon zalako.

Iruña`ko erregetza, Orreaga`n Karlomagno`ren aurka 778-824`an euki genduzan borrokak bien artean, Banu-Kasi sendiaren laguntzagaz sortu zan.

NAFARROA EDO AUÑAMENDIKO 17 ERREGEEN ZERRENDA:

1<sup>a</sup>- Jimenez eta Aritza`tar Iñigo 824-852. 2<sup>a</sup>- I Garzia Jimenez 852-860. 3<sup>a</sup>- II Garzia Iñigez 860-882. 4<sup>a</sup>- Fortuño Lekaidea 882-905. 5<sup>a</sup>- I Santxo Garzez 905-926. 6<sup>a</sup>- III Garzia Santxez 926-970. 7<sup>a</sup>- II Santxo Garzez Abarka 970-994. 8<sup>a</sup>- IV Garzia Santxez "Ikaratia" (el Temblosa) 994-999. 9<sup>a</sup>- III Santxo Garzez Aundia 999-1.035. 10<sup>a</sup>- V Garzia Santxez Najera`koa 1.036-1.054. 11<sup>a</sup>- IV Santxo Garzez Peñalen`goa 1.054-1.076. 12<sup>a</sup>- V Santxo Ramirez Iruña ta Aragoi`ko erregea 1.076-1.094. 13<sup>a</sup>- Santxez`tar Pedro Iruña ta Aragoi`ko erregea 1.094-1.104. 14<sup>a</sup>- I Santxez`tar Alfonso Gudaria, Iruña ta Aragoi`ko erregea 1.104-1.134. 15<sup>a</sup>- VI Garzia Ramirez Berritzaillea 1.134-1.150. 16<sup>a</sup>- VI Santxo Garzez Jakintsua 1.150-1.194. 17<sup>a</sup>- VII Santxo Santxez Indartsua 1.194-1.234.

Euskaldunak, Akitania`ko agerbidean ikusi dogu, Erromatar, Godo ta Franko`en aurka, gure Izkuntza ta Lurraldeak ainbeste borrokaren bitartez eta denbora luzean, zelan gutxitzen joan ziran.

Eta emen, Nafar-Erregeari buruz esango dotena ez kontu aundian euki, naikoa egin ebelako eten-bako borroka baten, gure Euskal izaera eta Askatasunaren argibideak gaur arte iraun dagien lortzea.

JAINKOA`ren berezitasunezko Legeak, arrokerizko norkeriaren bitartez etsai aundiak daukaz eta neurri orreien bardiñean berezitasunezko erri ta erritarrak

Gaur, Gure txanda da, eta ikusiko dogu, gure aalmenean ta JAINKOA`gan daukaguzan sinismenaren indarrak noraiño eltzen diran.

Jimenez eta Aritza`tar Iñigo`gaz (824-852) erregetza sortu gendunean, antolamentu orregaz indartu genduzan gure almenak etsaiari eraso egiteko gure lurraldeetara etorten ziranean, Euskal-jabetasuna ezereztuteko, bai gure elburuaren naia, Euskal Sinismena, izaera Nortasuna ta Izkuntza babesteko.

Beranduago baiña, erregetzaren arrokerizko menperetzaille eragipenean jausi ziran, naaste aundiko denborak ziralako, eta ikusiko dogu zelan eragipen (influencia) orreik, gutxituko dauzan gure zintzotasunen osotasunak.

Jimenez ta Aritza`tar Iñigo`gaz azten da gorakada, 400 urte iraungo ebana.

Iñigo, Euskal zaletasunean, egiune edo elkargo-ekoizlearen (pacto-productivo) zalea zan, Ekanduan naztetasunezko denbora oneitan.

Bere alabak, Musa mauritarrai eta Garzia Txarra`ri ezkontzan emon eban. Bata zin-ukatzaille senitartetik etorri zana, eta bestea, bere leenengo emaztea itzi eta bere anai Asnarez`tar Zentol il ebana.

Oneik baiña, beragaz alkartzen ebazan guda-indarrak Franko`ak Iruña`tik botateko eta Aragoi`koakaz euki ebezan eragipenak (influencia) ezereztuteko.

Iñigo`k, beren ondorengoai erakutsi eutsen, Mauritarraikin egon ziran eztaibadetan trebetasunagaz sartzen, euretatik irabaziakaz urteteko.

I Garzia Jimenez (852-860), Normandoa`k 858-859`an arrapau egin eben eta askatzeko 70.000 diru emon bear izan ziran.

II Garzia Iñigez`en (860-882) denborak be, zorigaiztoko denborak ziran. 860`an Mauritarak Nafarroa`ko zelaietatik ibili ziran triskantzian, negargarrizko odolkeriak egiten. Ori izan zalako mairu-errege zan Moammed`ek Euskaldunai emon eutson ordea, beren aurka Aragoi`ko muladia`ri laguntzearren.

Zarraski orreitan, Fortuño eta Iñiga erregearen seme-alaba Kordobara eroan ebezan. Neskatoa, Mojammed`en seme Abd Alla erregearekin ezkondu zan, eta III Abd-ar-Rajman aundiaren amama izan zan.

II Garzia Iñigez au, Mauritarren aurkako gudan il zan.

Fortuño Garzez bere semea (882-905), Mauritarak Kordobara eroan ebana, igon zan erregetzara. Onek baiña ikusten ebanagaitik oso minduta, ukatu eban koroia, eta ekintza orren ondorioz, denborak eskatzen eban, Santxo Garzez zaldun bioztuna agertu zan.

I Santxo Garzez (905-926) izan zan au, eta leenengo egin ebana, zelaie-tara beratu ta Mauritarak Lizarra eta lerritik (Yerri) bota ebazan. Ebro ibaia- ren ezker aldea be garbitu eban, eta eskomaldetik erri asko bereganatu: Rioja, Soria eta Tarazona.

Albelda`ko lekaidetxea eraiki eban Albaida`n, Beni-Muza`ren Laterria zan uri-nagusiko ondamenen gaiñean.

921`an Baldejunkera`n Mauritarak irabazi eutsoen, eta Mauritarak (924) egin eben erasoan, ia Iruña`ko ateetara eldu ziran.

925`ean il zan eta Monjardin`en illobiratu eben, berak ibili eban Kurutze- ren azpian, ainbat bider garaille agertzen zanean, mendi muturrean ipinten ebana. (Kurutze ori Monjardiñ`eko baselizan dago, ikusi gura dabenentzat).

III Garzia Santxez (926-970) au Baldejunkera`ko gudaldian Nafartar Kapi- tan bezela ibili zan, eta berak geratu ebezan Mauritarak.

Albaida`ko arresidun gaztelua bereganatu eta Albelda`ko San Martin iras- penaren eskutitza egiztatu eban.

Bere amak lagunduta (Toda Aznarez), Mauritarrai, Salamanka ta Aljande- ga`ko (Alhandega) gudak irabazi eutsezan.

Baiña atzerritarren gauzetan be larregi sartu zan, Leonesak eta Gaztela- tarrakaz, bere loba Santxo Lodiari laguntzearren Ordoño txar errege-naiaren aurka, Gaztela`ko Fernan Gonzalez lagunduta egon zana, eta Zirueña`ko guda irabazita, Ordoño bera ta beren semeak atxilotu ebazan.

III Garzia Santzez onek, Aragoi`ko Euskal konderrria bere erregetzaz, oste- ra alkartu eban, Andregoto Galindez`egaz ezkondu zanean, Jimenez eta Ari- tza`tar Iñigo`ren aberriko-ametsak osotuta.

II Santxo Garzez "Abarka" (970-994) onek, 985`an Gazkuña`ko kondea Gillermo Santxez, bere koiñatuari laguntzen joan zanean, Normando itsas- lapurrak gogor joten asi ziralako, Mauritarak ezifnezko aukera oberik ikusi eben, Iruña`n, euren mendekuak egiteko, Auñamendiak edurrez beterik egon ziralako eta II Santxo beste aldean.

Santxo baiña, jakiñean jarrita, abarka`k ipini ta beren gudalozteari ipinia-zota, Auñamendiak aldatu ta Mauritarrak bero-berotan arrapau eta zapuztu ebazan.

987`an San Juan de la Peña`ri egineko emaitzan, Erregea bere gaitz-ize-nagaz izendatzen da: "NEU SANTXO eta JAINKOA`ri ESKER ERREGE eta ABARKA IZEN-GAI".

Eta EL-Mansur`ek egite ebazan gudaldikaitik, mugak sendotu ta Tude-la`ren Bardenaz`eko Gaztelua eraiki. Gaur-be gaztelu orren ondarrak orain-diño bere izena daroa.

IV Garzia Santzez Dardaritsua`k (994-999), denbora gitxian iraun eban, eta dana guda-lanetan.

III Santxo Garzez Aundia (999-1.035), benetan aundiena izan zala erdi-ugarte oneitan. Berak esaten eban "Iruña`n ta Najera`n errege naz", Gazte-la`n eta Astorga`n, Araba`n, Aragoi`an, Sobrarbe, Gazkuña`n, Leon eta Asturias`en, Ribagorza`n, Pallares`en eta Espaiña`n (diploma del año 1.030), naita Espaiña`ren ametsik euki ez, Godo`ak gaitz-eritzian euki ebazalako, eta gaurko zentzuan gitxiago, gure Nafar-erregeak bealdera begitu barik, Euro-pa`ra, Iparraldera begitzen ebelako.

Obeto ulertzen da, semeak, bere il-obiko illarrian, idazteko agindutakoan: "AUÑAMENDI`ko MENDI-KATE eta TOLOSA`ko ERREGE".

1.022`an Urrilla`ren 21`ean agiri sendo ta luze baten, bir-eskuratu egiten dau Iruña`ko Eleiza, beragaz batera, bere Kristautasun zintzoa erakutsiaz Nafarroa`ko Katolikotasunari, euki bear eban dirdira barriztu gura eutsolako.

Kanpion`tar Arturo`k (zeaztasun oneik beren liburutik: "Nabarra en su vida històrica" artuta dagoz) auxe diño: erdira zaleak III Santxo`ri ez eutsola on artzen erreiñuaren banaketa, iru erreiñu barri sortuta. Kontuan euki barik erregetza aundi ori, laterrien multzo bat bakarrik zala, eta gaur sortzen dan lez, bere bizitza egoera orreitan ezin ebala iraun, erdira zaleak ez ebelako kontuan eukiten Laterri orreik euki eben abertsaletasunezko sendimendu bizi-biziak, ez-ta ortik kanporatzeko euki eban indar kemena, ez-ta egon ziran gorrotoak eta argitubako kalteak.

Orregaitik esaten dau: "Erregeak, beste seme biak poztasunean euki gura ebazala", eta banaketa ori ez dala gaitzestekoa, Euskal lurak batera itzi eba-zalako. Gaitzestekoa baiña zala, laka, Aragoi`ko erregetzaren muin argitsue-na zana Euskal lurraldetik kanpoan iztea.

Aragoi`ko erregetza, bere seme Ramiro (sasiko semea) nagusiarentzat eraiki eban; Gaztelakoa Fernandori; Sobrarbe ta Ribagorza, txikerra bezela utsala edo suntsikorra (efimera) izan zana Gonzalo`rentzat; Garzia`ri, legez-ko semeen artean nagusiena izan zana, Iruña`ko erregetza, Araba (bere izen barruan Bizkaia eta Gipuzkoa`ko jabetasunak egon ziral), Najera (Errioxa), Tarazona eta Soria`ko lurraldeak, Garrai (lenagoko Numantzia), Gaztela leena eta Laredo`ko Asturias`ak.

Banaketa oneik ez ziralako ondo egin, anaien artean bekaizkeriaren bidez sortu ebezan, iñorentzat onak izan ez ziran lizkarrak.

1.036`an V Garzia santxez Najera`koa (1.036-1.054) onek, koroia artuta denbora gitxian, Fernando bere anaiari (Gaztela`ko errege) lagundu eutson III Bermudo`ren aurka (Leon`eko errege zana). Eta borroka orreitan au il zan lez, Leon`go koroia, bere arreba Santxaren (Fernando`ren emaztea zana) eskuetan geratu zan. Gaztela ta Leon`eko erregetzak bat egin da.

1.044`an, V Garzia Santxez Najera`koak: (erdi-ugarte onetan lenengoa izango zan alango iraspenak sortzen) "Zapaldako Zaldunen Legedia" (orden de Caballeria de la Terraza) eraiki eban.

1.045`ean, Kalaorra mauritarren eskutik bereganatu eban,

Fernando`k, bere anai Garzia`ri ondamu edo bekaizkeria euki eutson. Bere anaia Ebro ibaiaren eskuin aldeko jabe izatea ez ebalako ondo eroaten. Anaia ikustera etorri dagian gaixoarenak eginda eta Garzia ikustera joanda, Fernando`k zitalki edo doillorkiro (villanamente) Zea`ko gazteluan atxilotu eban. Garzia`k iges egitea lortu eban, guztiz minduta mendekuak eskatzen. Eta guda apurtuta, Nafarroa`ko erregea Atapuerka`n 1.054`an Irailla`ren 1`ean il zan.

Fernando bera izan zan, Gaztelarrak burugogorkerizko politikan eroaten daberen iritzia: "EBRO MUGA LEZ" (EL EBRO POR FRONTERA), eraiki ebana.

1.054`an, IV Santxo Garzez Peñalen`goa (1.054-1.076) Atapuerka`ren kanpaldiko oialpe bertan izendatu eban errege.

Au be, euren arteko eta Mauritarren aurka, borroka askotan ibili zan. 1.076`an baiña, bere anai Ramon eta Ermesenda arrebak, anaia eiz-aldi bate-ra deitu eta Peñalen`eko trokarte`tik bota eban. Erritarren asarrea ikusita, mutilla Zalduba`ko Mauritarren etxean ostondutu zan, eta neskatilla Gaztelako gortean.

1.076`an IV Santxo Garzez il zanean, Aragoi`ko errege Santxo Ramirez eta buru-zoildun Gaztela`ko errege Alfonso`k, Nafarroatik zear sartu siran al eban guztia ostuten. Bitartean, Nafartarrak zalantza askotan ibili ziran errege bat aukeratzeko, eta azken baten, erregearen lengusu Santxo Ramirez Aragoi`ko erregea izendatu eban.

V Santxo Ramirez (1.076-1.094) Iruña ta Aragoi`ko errege au, euren arteko eta mauritarrekin, etenbako borrokan ibili zan, eta Oska (Ueska) inguratu euki ebanean gezi-ukaldi (saetazo) bategaz il zan.

1.094`an bere seme I Santxez`tar Pedro (1.094-1.104) Sobrarbe ta Ribagorza`ko errege zana, izendatu eban Iruña ta Aragoi`ko errege, eta itz-emon eban Oska inguratzen irauten egingo ebala.

Urte bi igarota, Salduba`ko Mauritarrek Gaztela`ko Alfonso`ren laguntzagaz, al eban indar guztia egin eban inguratze ori apurtzeko. Nafartar, Aragoi`tar eta Gaskoi`tarrak alkartuta baiña, Alkoraz`en ikaragarritzko triskantza egin eutsoen.

1.104`an I Santzez`tar Alfonso gudari edo gerlaria (1.104-1.134), Nafarroa`ko ta Aragoi`ko errege izendatu eban.

Onek, erregetzan egin eban guztia, etenbako ospagarri-bat izan zan, bere etorkizunaren ondorengoak, belaun-aldiz belaun-aldiko gudu-eresietan abestuteko modukoak.

Kristau ta Mauritarrek etenbako borrokan ibili zan, bere izaeran nagusi zana ala-ere, Gurutzearen gualaria zan.

VI Alfonso`ren alaba Urraka`gaz ezkondu zanean, len onek indarkerian artu ebazan laterriak oster berreskuratu eban.

1.110`an Baltierra berreskuratu eban; 1.114`an Rotron bere kapitaiña`k Pertxe`ko kondea izan zana, Tudela artu eban; 1.118`an Salduba eraso gogor baten artu eban; 1.130`ean Baiona irabazi eban. Ekintza onegaz, Akitania`ko dukearen asmoak geratu ebazan, onek Auñamendi osteko lurralde guztiak berentzat gura ebazalako.

Bere azken naian, erregetza Tenple`ko Zaldunai itxi eutsen.

Jazarraldi aundiak egon ziran, eta Iruña`ko Batzarrak VI Garzia Ramirez, Monzon ta Logroño`ko jauna, berritzaillaren izenagaz ezagun izango zana, errege izendatuko eben.

VI Garzia Ramirez berritzailla (1.134-1.150), Ramiro Ramirez eta Bibar`tar Elbira`ren semea zan (Bibar`tar Elbira, Zid`en alaba zan), eta Kalaorra`ko Jaun Ramiro Garzez`en biloba. Nafartarrak Juan Ramiro Garzez au, Santxo Peñalen`goa il zanean errege izendatu gura eben.

Au be, etenbako borrokan ibili zan. Esan leike, batax etxetik kanpora urtetan ebanean, bestea prest egoala etxe ortara sartzeko.

1.134`an Oliba`ko lekaidetxea eraiki eban.

Gaztela`ko VII Alfonso`k, truke egin gura eutson, Salduba eta bere inguru, Logroño eta bere inguruagaitik. Gaztelar saltzailleak baiña, Errioxa bere eskuetan geratu eban, eta Aragoi`ko lurraldea Ramiro lekaideari emon eutson. Gaztela`r eta Aragoi`tarrak, Nafarroa, euren artean erdi-banatu gura eben.

VI Santxo Garzez Jakintsuak (1.150-1.194), gazte igon eban erregetzara. Laster ikasi eban baiña, Gaztela`tar eta Aragoi`tarren artean ibili ebezan maltzur guzurak, Nafarroa`ko erregetza euren artean banatzeko, ezerezean izten, Blanka bere arreba, VII Alfonso erregearen Santxo semeagaz ezkondu.

A-ta guzti, eurakaz borrokatu egin bear eban, beti-lez ibili ziralako.

VII Alfonso Gaztelarra il zanean, ostera be berreskuratu ebazan galduta-ko lurraldeak, barriz galduta 10 urterako baitegian (depòsito) itxi bear ebazanak. Eta Gaztelar ta Aragoi`tarrak ostera gudatan asi ziranean, berak Araba`r eta Gipuz`tarrakin alkartuta aurre egin eutsen.

1.180`ko urte inguruan, Donostia jendezkatu edo bir-erritu eban, laka`ko fueroak emonda eta ongarriko lege-arauan erantsita.

1.181`ean Gazteiz deritson inguruan Bitoria`ko uria eraiki eban, Logroño`ren eratorriko (derivado) fuero ekartsuak emonda.

VII Santxo Santzez indartsuagaz (1.194-1.234), Auñamendia`ren berezko Nafartarren erregetza amaitzen da.

Gertakizun onek, amaitzen diran gauzen edertasuna dauka.

Albijensen aurkako gurutzadaren abeslariak ospatzen eban: "Tudela`k daukan erregea, iñoiz zaldi gaiñean eseri dan zaldunik onena" abestuz. Eta, Alfonso gaztelar ta Portuges`ai aipatuz, euren arpian gogor emoteko: "Zentzun-gabeko alfer-aundiak, berak botoi baten balioan be ez dabezala onartzen" esan eban.

Azken baten Nafarroa`ko erregetzak ta berak txarto amaitu eben. Gurutzadetan ibili zanean VIII Alfonso`k Araba kendu eutselako, Gipuztarrak aldendu jakozan fueroak ez ebazalako zaintzen, Nafarroan bertan Fueroak zaintzeko alkarteak sortuta, eta nai-ta bere koñatuak Ingalterra`ko Rikardo`k Be-Nafarroa ostera itzuli, Zuberoa gaur Nafarroa`gaz, biar Frantzia`gaz eta etsi Ingaltera`gaz ibili zan. Lapurdi 1.193`ko urtetik aurrera Ingalterra`ko errege zan Akitania`ko Dukea`gaz alkartuta egon zan.

Len esan doten lez, Nafartarren etsaiari (Gaztela`tar eta Aragoi`tarrak batez-be) denbora falta jakien etxeko jabea etxetik urtetan zanean eurak sartzeko. Eta umekeri ta zikiñezko gauza orreitan ibili ziran edesti guztian III Santxo Garzez Aundia`ren ostetik ona.

Nafarroa`ko erregeak, Euskaldun on-bezela berba aundikoak ziran, euren izatasunezko ekanduan beste gauzarik ez ebalako ulertzen. Eta Kristautasun-



na babestearren, ez eben euki lotsarik Gaztelar ta Aragoi`tar etsaiari laguntzeko.

Joko orreitan, baldintza ezberdiñekaz ibili ziran jokatzeko, errezagoa dala-ko maltzurkerian jolastea, eginda dauan on-guztia norberaganatzeko, norberan gogameneko alegiñagaz sort-araztea baiño.

Joko orreitan, Otsoa Aundia izan arren, etsai askoren artean etzun eben.

Nafatar erregetzan egin eben beste okerkeri galanta, Nai-ta "Nabarra Baskonun" aldarrikatu, gorte`ko agiri guztiak erdira zaleen eragipenak bultzatuta Latiñez edo Nafar-Aragoi`ko latin-kumeetan idatzi.

Gaur be leku ber-beran gagoz, bereztasunaren aurkako ori, etsaitasun bardiñak daukazelako.

Esan leike, dan guztia suntsituarte edo lokatztuarte ez dirala geratuko. Eta gero zer ! Beste borroka nagusi bat, bereztasunaren..... ekandubako egoera bardiñetan ezartzeko?.

Argi ikusten da, zelako sasi-jainkoagaz dabizen.

Europa ta Mundu guztian, Euskalerrria izar bakarra da oraindik, burua guztiz makurtu barik dauana.

Lortuko dabe?.

Lenago "MORO" esaten gendun.

Euskalerrriak, bere gazteen artean arduradun asko bear dauz, eta ori jakintzagaz lortzen da.

Jakintz orreitan alegindu bear gara, gure izarraren dirdaira Mundu guztira zabaldu daiten gura ba-dogu.

Orretarako baiña: "Euskerea, Euskal Nortasuna, Euskal Ekandua eta EUSKAL LURRAK" berrezkuratu bear doguz.

## **ASTURIAS-LEON eta EUREN ONDORENGO GAZTELA'R ERREGETZA:**

### **19.- SARTALDEKO LURRALDEAK:**

Asturias`eri izena zekula-be ez jako aldatu, eta izen ori beren erreka nagusitik "Asturias" ibai`tik ("Aitz`etik urtetan dauan ura" esan gura dauana) artuta dauka (gaur Esla ibaia esaten dautsoe).

718`an Pelayo`k eraiki eban Asturias`eko erregetza, Godo`en kaizartzagaz osterabe bir-jabetzeko eta Leon`eko ingurua (Leon`en izena bertan kokatuta egon ziran Erromatarren VII`n lejiñoaren izenetik artuta dagoena, Sil ibaitik ataraten eben urre gorria zaintzen egon zirala) Asturias`eko errege III`n Alfonso`k 882`an Mauritarren eskuetatik askatuta gero, eta beren semeak II`n Ordoño`k X`n gizaldian erregetzaren uri nagusia Leon`era eroanda (garrantzi aundia emon eutsona), lurralde biak erreñu baten alkar-tu ebazan, gero eta Nafar-erreñuaren menpetik alde eginda, 1.230`an biak Gaztelako erreñuagaz bat eginda geratu ziran.

Gero, 1388`an II`n Juan`ek (Bizkaiko jauna izan zana), bere seme Enrike Lankaster`eko Katalina`gaz ezkondu zanean Asturias printze-erri sortu eben, eta andik ona Espaiña`ko erregearen leenengo semeak errege izatearen aurretik Asturias`eko Printzea izena izaten dau.

Euren burutakizuna errelijiozkoa bete-betean izan barik, guztiz politikoa izan zan: Bisigodo`en erregetza berriz eraikitzea. Bide orretatik, bardin eraso eutsoen ego-aldeko Mauritarrai edo Eki-aldeko Kristau Euskal-erregetzai bezela.

Euskaldunak, Bisigodo`en Kaizargotzazko naikeriaren etsai sutsuak ziran euren askatasunak babesteko.

Eta emen gauza bi ikusten doguz. Bata: Bir-artzearen izpiritua (espiritu de reconquista), ez zala bardin ugarte onen Ekialdeko erreñuetan eta sartaldeko edo mendebaleko erreñuetan. Asturias-Leon`eko erregeak beti, edo Pelayo`tik beintzat, Bizigodo`ak izan eta senditzen ziralako.

Gero apurka apurka Gaztelako erregetzan, Bisigodo`en asmakuntzazko Toledo`ko Eleiz-Batzar Nagusitik bultz eginda eta Asturias`eko printze-katoliko`en aritik sartuko zana, nai-ta Katolikoen erreñuan Fernando`ren adostasunik euki ez, bera Napar-Aragoi`ko erregetzaren senekoa izan zalako. Bere maltzurkerian baiña, ("nai-ta gura ez") asko lagundu eutsoen Erromatar eta Bisigodo`en izpirituzko asmakuntzari Euskaldunen aurka.

Bestea: Euskal Napar-Aragoi`ko erregetzan, kaizartzaren asmakizun ori ez zala egon, euren lurak eskuratzeko bakarrik borrokatzen ziralako. Euskal-Baskoi, Oszitano eta Ilerjete`en lurak babestuaz batera, gurea izan zana bir-eskuratu baiño besterik ez.

Mauritarrai, Euskaldunak ez eutseen gorrotorik euki, geiago begitzen ebelako Europa`ko Iparraldeari Ego-aldeko Mauritarrai baiño. Ego-alde guztia orregaitik geratu zan Astur-Leones Bisigodo`en eta euren ondorengo Gaztelatarren naierara.

Euskaldunak or galdu genduzan lurralde geienak, gaur gagozan Adur ibai eta Ebro ibai bitartean geratuta.

Euskalerrriak ortik aurrera, bere lurra, izkuntza eta Nortasunaren jabetza beti euki dauz bere ardurazko zainpean, nai-ta V`n Felipe borboiakaz mugak, Ebro ibaitik itsasora ainbeste bider aldatuz, gure arduraren jabetza ez ebalako on-artzen, areik eta 1.789`an Frantzia`ren "Libertè, Legalitè eta Fraternitè"aren guzur aundiko iraultza egin-zan arte. Godo`tarren eredia Espaiña`tarrek on-artuta, erdi-ugarte oneitan bizi ziran erri ta erritar guztien Nortasunak galtzeko alegiñetan ibili ziran, Espaiñol nortasunezkoak biurtu gaitzean.

Laster agertu jakien aukera ori euren arazozko (Ley Sàlica) eztaibadaren bidetik, 1.832`an Karlos Borboi`ari gure fueroak babesteko leguntzaren eskaintza egin geuntsonean.

Karlista guda ori 1.833`an asi eta 1.836`an guzur ta saldukeri aundi baten bidez amaitu zana, Bergara`n Maroto eta Espartero`en arteko bezarkadan.

Bigarren karlistada 1.872`an asi zan, Espaiña`ko errege Italia`ko II`n Bitor Manuel`en semea Amadeo de Saboya izendatu ebenean, eta Lizarra artuta 1.876`an amaitu zana.

Martinez Kanpos izan zan gudal-nagusi irabazlea. Borboi erregetza birreskuratuta eta XII`n Alfonso errege izenduta. Onak gure foruak ezereztu eban.

Euskaldunak or menperatu ginduezan, azkenean geratu jakuzan lurralde guztiak Adur ibaitik Ebro ibai`raño, Frantzia`ko errege ta Espaiña`ko erregetzaren artean bananduta.

Guda orreik, Euskalerrian egiteak..... ustegabekoak izan ziran?.

Euskaldunak ez gendun aukerarik borroka bi oneik irabazteko Espaiña`ko erregetzak Europa`ko erregetzaren laguntza siñatuta euki ebalako, eta euren asmakuntzan, olan geratu gurean ibili ziralako.

Euskalerrriak aurrera egin eban bere askatsunezko jabetza bir-eskuratze-ko, eta Errepublikak denbora laburrean 1.936`ko fazista`ren guda asi-ta Ger-nika`ko-Estatutua lortu gendun.

Eta nai-ta balio aundiko gizon/emakumeak euki, orduko denboran-be, ez eban balio gauza aundirik, Europa`ko laterriak, Alemania`ren aurrean billur-tuta egon ziralako, eta emengo fazistak Alemania ta Italia`ko fazistaren laguntzarekin babestuta egon ziralako.

Azkeneko guda au guretzat 1.937`an amaitu zan, Euskalerrria Frantzia ta Espaiña`ren artean bananduko menpekotasunean geratu giñalako.

Mundu`ko Il`n guda nagusiaren ostetik eta fazistak menpetuta, erabagi-bi gogorak artu ziran, aurrerantzean egin bear ziran giza-bideko antolakuntze-tan kontuan eukiteko. Bata: "Alako odolkeriaren gudarik, ez zala egongo geia-go". Eta bestea: "Gizartearen esku-bidera bideratuko zirala aurrerantzean apurka apurka egiten diran antolakuntzak".

Eta demokraziaren bide oneitan sartuta, Mundu`ko erri ta Euskalerrriaren-tzat non agertzen diran pare-gabeko aukera barriak, lurak, Europa`ko izkuntz zaarrena, Nortasuna eta Askatasuna, azken baten bir-eskuratze-ko.

Demokraziaren Lege-Nagusiena "bakotzari berea emotea da". Eta orren esan ta eginezko ardurak gaurko jakintzaren aurrerakuntzan, berezkotasuna-ren aurka doiazan erdira-zale`en guzurrezko indarrak, begi-aurrean, diran-lez argi-argi geratzen dira.

Gaur, sartuta gagozan demokrazian, eta erdira-zaleen indarkerizko auke-rak agortuta, daukaguzan Laterriak espataren keiñuakaz dariola ez daukie zentzurik, menperatzailezko asmakuntzatik sortuta dagozelako.

Eta egia dalako, gizartearen Nortasunezko ardurak kentzen diranean edo esku batzuetan batu ezker, gizartea arduragabekeria agertzen dala, iñork ez daukalako nor beren ardurak aurrera erotaten, arduraduna ezinkizunean egon ezik.

Gaur, sozialistak esaten dabena barregarria da, bildur diralako alde-bate-tik edo demokraziaren zentzua oraindiño ez dabelako ulertu. Zapatero`k: Euskaldun, Katalan eta Gallegoai begira, Europa`ren uritargoak (ciudadanos) gariela esaten dau. Espaiño`l tasunaren norberia ostonduteko?.

Nortasuna eta Eskubidearen Ardurak Berezkoak dira, JAINKOA`ren LEGEAK Mundu onetara alan bialtzen gaitulako.

Nor da Nor lege ori aldatzeko?.

Edesti guztian ikusi dogu, nagusi asko norberien bidetik jokatu gurean, Mundu onen gizarte eta gauza guztiak ankaraz gora ipinita ikaragarritzko naas-te baten.

Kontuan euki bear dogu, demokrazian sartzen asiko garela, Mundu one-tako gai guztitik (gure gorputzak kontuan eukinda) gurea ez dala ezer (pro-pio) ulertzen asten garanean, "ARDURADUNAK BAKARRIK GARALAKO". Erri ta erritarrentzat, ardurak era orreitan mukullu (molecula) txikerrenetik asita egin ezker, demokrazizko emaitz-onak berez agertzen dirala.

Ardurazko Jabetasuna (propiedad de ejerccer-responsable) daukagu bai, eta gure ulermenean era orreitan ontzat-artu bear doguz. Gure "ARBASOAK" ikasi ta egin eben bezela

Gure eginkizun guztiak, ulermen orreitan bete ezker, berez agertzen diralako edo emoten dauskuzalako emaitz edo ondorio guztiz demokratikoak diranak.

# ONDORIOA:

## 20.- LABURPENA:

Edestiaren leenengoetatik asi-ta ikusi dogu, Kromañon-gizak edo Euskal gizak bere ikas-bidean zelan lortu eben demokrazi on batera eltzea. Eta esaten dotena ontzat emoteko, besterik ez da bear gure "LEGE-ZARRAK" begitutea baiño.

Batez be baiña ikusi dogu, zelan Erromatarrak K.aurreko 240`tik onantza, erritarren ardurak esku batzuetan bakarrik artuta NORKERIAN asi zirala.

K. o`tik ona, 4`garren gizaldian sendotu, eta gizartea ta lurak, euren naieratara banandu dira.

Denbora naspil orreitan, erritarren artean indarkerizko naaspiltasun orreik beartuta, izkuntz barriak sortu eta Euskal oiturazko lurrarteetan Nortasun barriari asiera emon, len Europa`tik Indoeuropeotarrak sortu ziranaren antzera. Oraingoan baiña, norkezikko indarragaz beartuta.

Godoa`k, Erromatar-ari ori artuta sendotzeko asmoan, zelan iraun eben borroka utzean eurak ezereztuarte.

8-9`n gizaldietan asi-ta, errege-jauntzaren antolakuntza barriak egin zira-netik, zelan gaztelarren erregetzan sartu zan "nacional-catolicismo"aren asmakuntz ori.

Gure errege-jauntzak, zelako eragipena (influencia) euki eban eta gaur be daukan, menpekotasun ori lortzeko.

Eta audiena izan zana: "Erromatarrak eta Godo`ak, Europa ta Mundua, euren agindutara dana batzangotu gurean, izkuntza eta erlijio bategaz", eta euren "VENI, VIDII, VICI"gaz dana nazte aundi baten barruan sartu zalako, geroago erdi-mendeetan egin eben eztandagaz, dana birrinduta, ainbat izkuntza, erri ta erlijio barri sortu ziran, iñork ez ebalako aitzen ezer, aibeste ziñeskintzaren ostean.

Azkenean, maltzurrezko guzurraikin ezin eta 19`garrengo gizaldian espataren indarkeriagaz, menperatu ebezan azken geratzen ziran Adur`etik Ebrora Euskal-lurak, eta Europa guztian indarkeriz, Laterrituta geratu giñan.

Pozik ez ziran geratu, erdi-ugarte onetan berezko erriak ta erritarrak Euskal gizartea lez, berezko ulermenaren askatasunak aleginduta zutitu egiten giñelako demokraziaren arrazoizko bakearen billa, eta arrazoi orreik makurtzeko, 20`garren gizaldian beste odolkeri utsezko guda oso gogorra egin eben.

Europa guztia..... menperatuarte geratu ezinik, Mundu`ko eta Mundu guztiaerentzat negargarri izan zan guda nagusia sortu eben.

Danok dakigu zelango emaitzak emon ebazan, eta esan leike orduko itzemonakaitk, azkeneko guda izango zala, nai-ta erdira-zale orreik gaurko egunetan, dirua eta mozkin guztiak euren eskuetan eukiteko, osterabe naspilketan asi.

Dana dala, edesti onen zeazkuntzan argitasun guztiaz ikusten doguna, erdira-zale orreik berezkotasunezko legeen gaiñetik, euren norkezikko sasi-jainkoaren legeak ipini gure dabezela, eta ez daukiela ezeren ardurarik, nai izkuntzak, erri ta ekanduzko oiturak zapalduarren.

Euskalerrian baiña, ikusi dogun aundienetariko ta arrigarrizko gauza: "Keltiar, Erroma`tar, Godo`tar ta Fazizta guztien ostean, beti alkartu garala, Izkuntzan, Nortasunean eta Oituran egindako kalteak konpontzeko, arduran lortu genduzan demokrazizko Askatasunetan bakez bizitzeko. Izan da.

JAINKOAK, berezitasun (originalidad) baten kokatu gaitu, berezitasunezko legeak dagozan lekuan. Eta Norberkerien arduragabeko zikintasunik ez egiteko lekuan esan-gura dau orrek. Orregaitik, Euskaldun guztiak batera jokatu bear dogu gure arbasoen antzera, bakoitza ta danon arduragaz demokrazizko berezitasun ori osterabe lortzeko.

Euskalerrria, Europa`ko izar nagusia da, bera bakarrik geratzen dalako guztiz zapaldu, zikindu edo desagertu barik.

Danon ardureagaz alegindu gaitezana ba, guztiz zikindu orduko.

**Atutxa`tar PAUL  
Zornotza'n 2.005'an azaroa'ren 17'an**

# KARDABERAZ JAKINTZA BAZKUNA-REN BIDETIK (\*1924+2005)

Aurkibidea:

- 0. Itzaurrea
- 1. Kardaberaz Jakintza Bazkuna
  - 1.1 Aita Agustin Kardaberaz (1703-1770)
  - 1.2 On Manuel Lekuona Etxabeguren (1894-1987)
  - 1.3 Kardaberaz J.B. Araudiaren aipamena
- 2. Euskerazaintza- Euskeraren Erri-Akademia
  - 2.1 Araudiaren atal esanguratsuenak
  - 2.2 Euskerazaintza-ren zergatia
  - 2.3 Euskerazaintza-ren sortzailleak
  - 2.4 Azken urteetako Euskerazaintza-ko idazleak
  - 2.5 Akatsak eta erderakadak
  - 2.6 Okerrak zuzentzen
  - 2.7 Atal orien ondorio gisa
- 3. Bizkaieraren iraupena
  - 3.1 Bizkaiera eta ikastetxeak
- 4. Euskerazaleak eta Euskerazaintza.
  - 4.1 Euskerazaintza Bizkaira
- 5. Ondorio gisa  
Pedagogia, Sikologia, Sikiatria eta Ama Izkuntza
- 6. Amaiera

## ITZAURREA

On Martin-ek deitu zidanean, ea itzaldia emango nuen, Euskerazaleak-en “Euskal Astearen” ekitaldiaren barruan, nire zalantzarik aundiena izan zen, entzuleen aldetik. Zuek bizkaiera menderatzen bait duzue, eta ni gipuzkeraz jarduten naiz, giputxa naillelako. Ez dut betarik izan aditza beintzat bietara emateko. Eta koxka ori gainditzeko aal dudan neurrian, ari naizela, tarteka geldiuone bat egitea gogoko izango nuke, eta ondo ulertu ez dena, berriz adierazteko. Beraz, zuen eskuetan dago ori egitea.

Gaiari dagokionez, aurtan, ain zuzen, egokia dela uste dut Kardaberaz Jakintza Bazkuna, On Manuel Lekuona-ren zuzendaritzapean 1924ean Gas-teiz-ko Seminarioan sortua, aurtan azkendu bait dugu. Or 3/1988 Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen legeak agintzen du. Eta agindutako betekizunak aurrera eman ditugu eta azken batean ontzat artu du Jaurlaritzak. Kardabe-raz-en azkentze orretan egindakoak zuzen, argi eta garbi gelditu direlako.

Oriek gabe ez bait zuen Euskerazaintza-k ondarea jasoko. Egoitzaren lokala saldu da eta artutakoa Euskerazaintza-ren eskuetan dago. Eta ortik datorkio Euskerazaintza-ri aurrera jarraitzeko itzaropena.

Eta aldi berean Euskerazaintza egoitzarik gabe gelditu da Gizpuzkoa-n, era orain Urte Berritik aurrera bizkaitar egingo da, zuen onespenarekin, emen Bilbao-n izango bait du egoitza.

Batuaren arazoak sortu zirenean, Kardaberaz eta Euskerazaleak-o bazkideak sortu zuten Euskerazaintza- Euskeraren Erri Akademia. Batuak sortzen zuen etenenari aurre egiñez. Eta ondorioz Euskerazaintza-ren jarduna, euskalkiak leengo eran lantzea izan da. Eta –H- rik gabe. Eta orrela ikus dezakezuenez Euskerazaintza orregatik izan da Kardaberaz-en oinordeko. Kardaberaz-en ume eta orregatik ondarearen artzaille eta bidearen jarraitzaile.

Bilbao-n Euskerazaintza kokatuta, Euskerazaleak-o bazkideak ez duzue aukera txarra Akademia orretako bazkide izateko. Batzarrak ere Bilbao-ko Kolon de Larreategi, 14 -2en onetan osatzen bait ditugu.

Orain bertotan azaldu nai dut  
Euskerazaintza-ren deia,  
Erri-euskera, or bizkaiera,  
Ori dugu gure gaia.  
Bide ortatik Euskerazaintza-k,  
Euskerazalea-k, saia,  
Bion artean egingo dugu  
Elburu orretan leia

Gaur egun badakigu Informatikak duen eragiñarekin, eta ikusirik batuak agintzen duela, ez daukagu aurrez galdutako apustua jokatzeko asmorik. Gauzak itzuli eziñak dira.

Eta beraz, zer dela eta Euskerazaintza-ren aurrera jarraitu nai ori. Bada, nire uste apalez, filosofia bati eutsi naiean. Gure arbaosengandik artu genuen Euskal Erriaren eredia gaur egun erdi apurturik dago. Austura garaiean, “Euskaldun fededun” eduki orri aurre egin ziotenak, auxe ere esan zuten: “Euskaldunen jaungoikoa il egin bear da”. Nik emen jaungoikoaren –J- izkia, minuskula delakoa ipiñi dut. Leenengoz batuaren eredia lapurtera zaarra izan bear zuela esan zuten. Orrek porrot egin da, gaur egun gipuzkera nagusitu dute. Eta bizkaiera zer???

Azken batean esan dezadan, gaur egun, Euskerazaintza-ren joera ez dela soil soilik, euskera lantzearena, zabalagoa dela esango nuke bere jarduera. Sustraia, jatorria, oitura zaarrak, nortasuna, Lege Zaarra; ori guztia zaindu, aztertu, ausnartu. Eta bide orretatik euskerarekin egiten dugu topo; baliabiderik egokiena. Zazpi milla urtetik ona datorkiguna, eta gure nortasun agiri-rik bereiziena. Beraz, oroar esateko, eta leengoa aipatuz, filosofia bat dela esango nuke, gure arbasoengan sustraiturik, Euskerazaintza-ren jarduera. Gutxi al gera??, eta zer? Arrazoia ez bait da beti geiengoarena izaten. Kristautasuna ere auldu egin da. Eta etikarik gabeko joerak nagusitu dira.

Guk Euskerazaintza-n otoiz batez asten ditugu gure illeroko batzarrak, eta itzaurre oni amaiera emateko eta itzaldiaren gaiari eltzeko, zillegi bekit, otoiz ori esatea:

## EUSKERAZAINTZA ERRI-AKADEMIA-N BATZARRA ASI AURRETIKO OTOITZA

Jaungoiko gure Aita, munduaren eta gizartearen sortzaillea:  
Gure erriaganako maitasunak alkartu gaitu  
eta erri onetan izkuntza dogu gure lanen elburu.  
Emoiguzu zure laguntza ta argitasuna,  
egin bear dogun lan aundi ta onuragarri au  
zeatz, sendo edo egokiro egin daigun.  
Orrelan, zuk sortutako Euskalerrria  
zurea dan gizarte osoaren onerako bizi daiten,  
Jesuskristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.  
Orain ekin dezaiodan zuzenean gaiari, eta itzaurreaz oartuko ziñaten,  
nondik nora naraman gai orrek.

### 1. Kardaberaz Jakintza Bazkuna.

Kardaberaz Jakintza Bazkuna, 1924 gn. urtean sortua izan zen, euskal idazle berriak prestatzeko. Gasteiz-ko Seminarioan, on Manuel Lekuona-ren zuzendaritzapean. Aurten 2005eko Maiatzaren 4ean. bere azkena eman du. Orregatik itzaldi onen izenburuan, bi zenbaki jarri ditut, illarrietan azaltzen den eran. Beraz 81 urte zituelarik.

#### 1.1. Aita Agustin Kardaberaz (1703-1770)

Elkarte onen izena dela eta, nor izen zen AITA AGUSTIN KARDABERAZ. Ona zer dioen Aita Santi Onaindiak, "Euskal Elertia" liburu bikaiñean.

Jesuita mistiku gorengo, euskal sermolari bikaiña, idazle ona eta sutua. Larramendik erderaz egin ebana, berak euskeratuko eban.

Bizitza.

Loiolan bizi izan zan, ia bizitza guztian. Ortik iragari zituan, Euskalerrri osoan Kristoren fedea eta erreñua. Erbesteratuta, Karlos IIIgarren Espaiña-ko erregeraren aginduz, Bolonian il zan.

Euskal idazle.

Amasei liburu idatzi zituan euskeraz, 1774tik 1767 ra bitartean. Ona batzuk:

1) Kristauaren bizitza.2) Euskeraren Berri Onak.3) Aita San Iñazio Loiola-koaren Ejerzizioak. 4) Ondo iltzen ikasteko...5) Jesús, Maria eta Joseren Debozioa.6) Senar-emazte santuak. 7) Mezatako sakrifizio ta Komunio gañeko dotriña. 8) Esku liburua.

Kardaberazen liburuetatik jakingarriena euskeraren aldetik, "Euskeraren Berri Onak" deritzana da, dudarik gabe, gramatikaz eta erretorikaz egina. Beste guztiak Jainkozkoak ditugu. Eleiz gizonai zuzenduak. Ta onek ikasi dagien gogo dau, euren itzaldietan euskera egunetik egunera ederragoa erabiliaz.

Iritziak:

P. Lafittek au diño: " Hil zen saindu bat bezala, goxo-goxoa eta geriztik Dohatsuen lerroan ezarri du Eliza Ama Sainduak".

Manuel Lekuona-k: "Gauza bat aitortu bear degu, Aita Kardaberaz-en liburuai, ez zaiela orain arte, gure artean, bear bezelako ixtimaziorik ekarri. Aita



Hernaniarraren prosa oparoari, mami ta ixuri ederra aitortu bearra daukagu; mami, bioztun, eta ixuri leun. Ez bait luke gaizki emango gure Aita Agustinen edozein liburuak, euskerazko beste libururik ederrenen artean”

Kardaberaz Jakintza Bazkuna, On Manuel Lekuona-ren zuzendaritzapean, sortu zela esan dut. Zuzendari baiño geiago ere izan zela esan daiteke, sortzaille. Aipa dezagun labur zurrean, itzaldiak ez bait du geiagorako ematen, nor izan zen Lekuona Zaarra. Berak azken urteetan orrelaze izenpezen zuen.

## 1.2. On Manuel Lekuona Etxabeguren ( 1894-1987)

Gipuzkoan Oiartzuen jaioa.

Kardaberaz Jakintza Bazkuna Gaztei-ko Seminarioan sorreraren eragilerik sutuena. Eta elkarte orren bitartez euskal idazle berrien sustatzaille.

Bizitza eta lanak:

Apaiz ikasketak Gasteiz-ko Seminarioan egin zituen. An bertan 1917tik 1936ra arte irakasle. Eusko Ikaskuntzako bazkide eta or literatura sailleko buru. Euskaltzaindia-n 1919az geroztik bazkide eta 1967-70artean buru. Urte orretan ” Batua” inguruan sortutakoak zirela eta, ardura ori utzi bearrean aurkitu zen, denok ondo dakigun bezala. Luze joko luke ori emen jorratzea. Ori dela eta ordea, “Euskerazaintza- Euskeraren Erri Akademia” sortu zuten Kardaberaz Jakintza Bazkunakoak.

Liburuen aipamena.

Bere lan adierazgarrienak 12 liburuetan jasota daude. Bakoitza 400 orrialde ingurukoa. Auexek ditugu izenburuak eta aldi berean gaiak: 1)Aozko Literatura. 2) Eusko Etnografia. 3) Arte Izti. 4) Kondaira I. 5) Kondaira II. 6) Kondaira III. 7) Kondaira IV. 8) Euskerologia. 9) Literatura sorkari. 10) Gabon eta Eliz Kantak. 11) Azken urratsak. 12) Idatz Lan Guztiak.

Gazteleeraz ere badu pilla bat: Metrica Vasca. La poesia popular Vasca. Literatura oral euskerika. Del Oiartzun Antigüo. Arte Vasco. E.A.

Liturgi lanetan itzultzaille.

Lankide izan zen aldizkari auetan: RIEV, Revista Internacional de Estudios Vascos. Euskalerriaren Alde. Eusko Folklore. Euskera. Egan. Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del Pais. Euzko Gogo. El Bidasoa. Rioja. Oiarso. Príncipe de Viana. Berceo. Anuario del Seminario de Filología Vasca “ Julio Urkijo”. Munibe. Kardaberaz Bazkuna. Jaunaren Deia. Arantzazu. Estudios de Deusto. Gure Herria. Fontes Linguae Vasconum. Cuadernos de Etnología. Etnografía de Navarra. Eusko Ikaskuntza.

On Joxe Migel Barandiaran-ekin lankide ainbat euskal jardunetan.

Eta ainbat itzaldi eta ikastaro eman zituen. Oso luze joko luke bere bizitza osoaren aipamena itzaldi oni dagokion tartean ematea.

Gerra zela eta bereak eta bost ikuti zituen. Anai bat erail zioten. Euskal Erritik kanpora bota zuten, eta 14 urte pasa zituen, bere jaiolurra ikusi gabe. Lekaidetxe batean ere gordeta eguki zuten Gerra garaian. Bere erru bakarra bere Erriko izkuntza eta kultura lantzea. Orrelakoak izan ziren ordea une madarikatu aiek !!!

Eta azken batean “H” izkia euskeraren batasun bidean ez onartzeak, eta lapurtera zaarraren teoriak, Euskaltzaindiati-k kanpo uzti zuen. Amaika ikusteko jaiok gera !!!.

Eta ain zuzen, Euskerazaintza- Euskeraren Erri Akademia, orregatik sortu zuten Kardaberaz Jakintza Bazkunakoak, On Manuel Lekuonaren iritziei jarraitzeko. Eta gaur egun arrazoi eman diote gertakariak. Lapurtera zaarren teoriak porrot egin eta gero, gipuzkera aukeratu bait dute, "euskerabatua" deiturik. Gero aurrerago oni buruz esango dut zerbai geiago, Euskerazaintza- ren atalean.

### *1.3 Kardaberaz Jakintza Bazkunaren Araudiaren aipamen labur bat, gaur itzaldi oni dagokion neurrian*

Leenengo atalburua

\*IZENA

1'ngo. ARAUA.

KARDABERAZ JAKINTZA BAZKUNA, Eusko Jaurlaritza-ren Elkarte Erroldan zerrendaturik agertzen da, ASRPG-01633 zebakiaz. Bazkunaren Araudi onek aurrekoa aldatzen du, Otsaillaren 12ko 3/1988 Legeak agindutakoaren arabera.

\*ELKARTEAREN ELBURUAK

2gn. ARAUA.

Elkarte onen eginkizuna ez da irabazpidetan izango.

Auek dira bazkunaren xedek:

a) Euskal jakintzako goigaien ikaskuntza, ikerkuntza, idaz lanen zabalkuntza, argitalkuntza eta aldezkuntza, eta batez ere euskerarena eta euskera osatzen duten izkelki guztiena.

b) Euskal jakintza eta izkuntzaren zabalkundea, edakuntza eta berriemanketa.

d) Euskal ikaskuntzako eta zabalkuntzako elburu orietara iristeko bearrezko diran eskuarteen eta gizalaguntzen eraketak eta lorbideak zuzentzea.

e) Bazkuna irasi zaneke agiriak agertzen dituen asmoen arabera, euskal jakintzako xede ori, kristau gizatasunezko oiñegi zuzengarrien argira eta euskal asaben jakintza bideari jarraituz izango da burutua.

- Eta Legearen eta Araudiaren arabera, dagozkion gaiñerako ekintzak.

Ondoren Kardaberaz Jakintza Bazkunak eta Euskerazaleak-o bazkideak sortutako Euskerazaintza-ren berri.

## **2. Euskerazaintza- Euskeraren Erri Akademia.**

### *2. 1 Araudiaren atal esanguratsuenak:*

Leenengo atalburua

\*IZENA

1'ngo. ARAUA.

EUSKERAZAINTZA/EUSKERAREN ERRI-AKADEMIA, Eusko Jaurlaritza-ren Elkarte Erroldan zerrendaturik agertzen da, ASRPG-1136 zenbakiaz, 1985eko Urrillaren 9an. Akademiaren Araudi onek aurrekoa aldatzen du, Otsaillaren 12ko 3/1988 Legeak agindutakoaren arabera.

EUSKERAZAINTZA EUSKERAREN ERRI-AKADEMIA-ri, Estaduko Elkarte Erroldan 32921 zenbakiaz azaltzen zalarik-1980eko abenduaren 10ean Ministeritza Batzordearen erabakiz (1981eko BOE'ren 45gn. alean)

Erri-Zuduzkotasunaren aldarrikapena onartzea eman zitzaion, dagozkion eskubide guztiekin 1440/1965 Dekretoak 3gn. atalean, dioenaren arabera. Eta orren indarrez "ERRI-ZUDUZKO ELKARTE" izena erabiltzeko eskubidea du. Eta orrekin Legeak ematen dizkion zergarik ezak eta gaiñontzeko onurak. Ori bera onartua agertzen da, 1984ko ekaiñaren 7an, Euskalerrri-ko Aldizkariaren, 96 zenbakian (BOPV), Eusko Jaurlaritzaren Kultura saillak, 1984ko maitzaren 21eko Aginduz.

\*ELKARTEAREN ELBURUAK

2gn. ARAUA.

Akademia onen eginkizuna ez da irabazpidetan izango.

Eta elburu nagusia auxe du:

EUSKERA, kondairatik dituen oiñarrizko euskalki nagusienetan, zaintzea, bizi-eraztea, indartzea eta ikerketaz aberastea euskera batuago lortzearen billa Erria-rekin elkar-lanean.

Elburu ori lortzeko onako ekintza auek eramango ditu aurrera, legezko baldintzapean:

A) Euskadi-n bizi dan guztiak euskeraz jakiteko eta itzegiteko duen gizabidezko bete-bearra adierazten, Euskalerrri osoaren aurrean argiro azaltzen jarriko ditu bere ekintzak.

B) Erki eta eskualde bakoitzean bertako euskera jakitea bultzatuko du, beste eskualdeetako euskera ere ikastera eragiñez, au bait da biderik egokiena Euskeraren egiazko bateratzea lortzeko.

D) Euskerazko irakurketa-idazketak ikasten lagunduko dio Erri euskaldunari, eta aldi berean gure izkuntza ikasteko erraztasunak eskeiñiko dizkie Euskadi-ko biztanle guztiei.

E) Euskaldun Erria da bere izkuntzaren egiazko irakasle ta zaintzaille. Ziurtasun orretaz jabeturik, Erri euskaldun orri laguntza eskatuko dio, euskeraren muiña adierazten duten esaera zaar eta esaldi egokiak jasotzeko lanean.

F) Itz arrotzak bearrik gabe eta era ez egokian barra-barra sartzearen aurka jokatu du, eta aldi berean izkuntzaren joskera eta jatortasuna zainduko ditu indar guztiz.

G) Euskera irakasteko ikastaldiak antolatzen eta burutzen, eta Euskal-irakasle titulodunak gertutzen, egiñaalak egingo ditu. Eta azterketak gaintitzen dituztenei, dagozkien gaitasun-agiriak eta tituloak emango dizkie. Gaitasuna lantzeko alor onetan, oizko irakasbideez gaiñera, oraingo aurrerapen eta gizarteko komunikabideez baliatuko da.

H) Mailla guztietako irakaskintza-liburuak eta ikasketakoak idazten eta argitaratzen lan egingo duenez, gai bakoitzean ikasiak diranekin arremen estuak izango ditu.

- Eta Legearen eta Araudiaren arabera, dagozkion gaiñerako ekintzak.

Gero -H- izkia eta lapurtera zaarraren teoriak, zirela eta, asmo geienak utsean gelditu ziren, goi aginduz.

## 2. 2 Euskerazaintza nola sortu zen.

Ia berrogei urte aundi bete dira Arantzazu-ko batzarra euskeraren batasunari buruzkoa ospatu zenetik

An artu zen bideari, Tolosa-ko Kardaberaz Jakintza Bazkunako eta Bilbako Euskerazaleak elkartekoek- batzuk aldi berean Euskaltzaindikoak izanik-

uko egin zioten. Beste arrazoi batzuren artean, bat auxe: Lapurtera zaarra izango zela oiñarri edo, artzen zen bide berrian aurkeztu zuten batzuk, ordun artekoa zapuztuz, "euskera batua" izenekoia lortzeko. Eta orretaz bizkaiera eta gipuzkera orduan %80 erriaren aotan erabiltzen zirenak, bigarren maillako edo, ez dakigu non gelditzen ziren aurrerantzean asmo berri orietan.

Arrazoi "biologiko" bat edo beste ere entzuteko aukera eman ziguten. Donostia-ko areto batean auxe zioen ogeitabi urteko gazte batek, euskeraz, erderak gurutzatzen zuen euskera mailla batean: "Euskera kultur munduan sartu bear bada, bere joskera berezia, eta bere adizkera ( nor-nori-nork) uztea obe". Gaur gizaki berari entzun berria diogu beste auxe:" Azkarregi egin dira gauzak".

Geroztik "euskera batuaren" esparrua deitzen zaion orretan, batasunik eza ain zuzen gero eta nabarmenagoa izan zen. Aditzari buruzko erabakia artu zenean, lapurtera zaarra ere ez zen kontuan artu, Eta azken batean, bestea- ren eziñean, gipuzkera nagusitu dute- Errian sustraitutako euskalkia, komu- nikabideetan eta ikastoletan.

Ondorioz %40k, gutxi gora beera, Arantzazu-ko batzarraren garaian, itz egiten zen bizkaiera baztertuta dago, jakinarazbideetatik eta ikastoletatik. ETBk euskerazko meza Bizkai-tik ematen duenean, an agertzen den apaiza- ri esker, bizkaiera- literario maillako bizkaiera- entzuteko aukera izaten dugu. Jarrai bide ederra elizak erakusten diguna izkuntzarekiko erriarengan, ain lotuak bait daude euskal arima eta umetan amaren altzoan ikasitako euske- ra!

Batasunik eza aipatu dugu, batuaren esparruan, noski, agiri agirian bait dago. Batetik euskaldun zarrak dabilta, eta or, artu den joeraz, bada gipuz- koarrak nagusi. Goierri-ko euskera, adibidez, sakonekoa eta on- ona baita. Entzungarria benetan. Baiña orri euskera batua deitzea Euskaltzaindia-ren arau batzuk kontuan artzen direla ta, ez dugu uste bidezkoa denik, aldi berean bizkaiera, Mogel eta Lauaxeta-ren bizkaiera, baztertuta gelditzen den bitartean.

Bestetik, "batua" deitzen dioten esparru orretan, beste mailla batzuk sortu dira, euskeraren zuzentasunari bagagozkio? Nolabait esateko, gaztekeraren menpeko motak. Erderakadak jo ta ke nagusi; joskera, iztegia, azentua eta oguzkera arrapatzen dituztelarik. Arrotz kutsua dario batzuetan euskera mota orri.

Ori bai, idazterakoan aozkatzen ez den -H- zuzen-zuzen erabillita. Eta oguzkeran berriz - Z-S-X/ TZ-TS-TX- izkien artean ikaragarrizko naasketa entzuten dugularik. Zuk -H- es baduzu jartzen berriz, bereak, zureak eta bost ere entzun aal izango dituzu. Azken batean zillegi gertatzen ari bait da oguz- kera duten izkiek nolanai esatea eta otsik gabeko -H- jartzen ez baduzu, bazoazke aal duzun lekura, bazterren batean baldin bada. Eta Iparralde-koei ez zitzaizkien gauzak erosoagoak jarri. Adibidez: "Hartu" idazten dute, -H-ak beren oguzkeran otsa duelarik. Baiña euskera batuan, "Onartu", -H- gabe alegia, idazteko erabakia artu zuten, kontsonante ondokoa delako, -H- izkia bi itz orien arteko loturan kenduz. Bidasoaz andikoek itz orretan, "onartu" ale- gia, idazten ez den izki bat aozkatuko dizue. Beraz, aozkatzen dituzten H-ak batzuk idatzi egin bear dituzte eta beste batzuk ez.

Eta 1968an, esaten zen: Nola H-a kendu? Angoek erabilli eta aozkatu egi- ten bait dute. Eta Bizkai-ko aditza, zer.....? Aurreko arrazoi orren arabera.

Eta leen esan dudan bezala, Arantzazu-ko erabakien ondoren, On Manuel Lekuona-ren iritzikoak zirenak, batez ere Tolosa-ko Kardaberaz Bazkuna eta Bilbao-ko Euskerazaleak, Erri-Akademia bat sortzeko asmoa artu zuten; batasunaren bidean jarraitzekotan aal zen neurrian, baiñan euskeraren zati aundi bat kanpoan utzi gabe. Azken batean bestela nola etsi, ebakuntza bati batasuna deitzen asi zirenean?

Gerorako trena abiatu eta, Bernat D' Etxepare-ren behenafarrera, Axular-en lapurtera, Pierre Topet "Etxahun"en zuberera eta Mogel-en bizkaiera geltokian gelditzen direlarik, zer-nolako batasuna sortuko ote digute? Batasuna, gaiña, eziñezkoa da. Gramatika bidez urbiltasun batzuk lor daitezke.

Oriek denak orrela direla ta, gu geure eginkizunari eusteko asmotan gera, aal dugun neurrian noski. Eta zer-nolakoa den gure asmo ori adierazteko, ona emen gure ikurra:

EUSKERAZAINTZA

ERRIZ-ERRI.....

EUSKALKIZ EUSKALKI

ERRI-EUSKERA LANTZEN.

Eta orain, ogeitamar urteren buruan, zillegi bekigu, apal-apal bada ere geure burutxoa azaltzea, bizirik dugu Euskerazaintza eta, euskaltzaleok jakin ezazuen gure berri, batez ere 1968an jaio gabe edo jaioberri ziñaten gazteok. Orretarako eskubidea badugu. Erri agintariengandik ( BOE 45/1981, eta EE.AA. 42 zenb. 84-6-7) ERRI-ZUDUZKOTASUNAREN ALDARRIKAPENA/ (DECLARACION DE UTILIDAD PUBLICA) jaso bait zuen EUSKERAZAINTZA. EUSKERAREN ERRI-AKADEMIAK.

Eta 3/1988 legeak 22 arauan, Erri Zuduzkotasunaren Aldarrikapena jaso-tzen duten Elkarteei buruz auxe dio:

Eta zer eskubide ematen ditu aldarrikapen orrek? Bada, oroar auexek:

Dirulaguntzak, zergetan onurak. Eta jardueri dagokionez, Erri Zuduzkotasun Aldarrikapen orrek eskubidea ematen dio elkarteari, Erri Erakundeak Legeak egiterakoan, bere jardueri dagokionetan iritziak emateko.

Aldi berean Erri Zuduzkotasun Aldarrikapen orri eusteko, betekizunak: Legeztatutako kontularitza eta Eusko Jaurlaritzaren Elkarte Erroldan, Jarduera Ekonomikoen eta Akademikoen txostenak urteoro.

### *2. 3 Euskerazaintza-ren sortzailleak*

Euskerazaintza-ren sustraia, ez da nolanaikoa. Ondoren dijoan izen zerrenda Euskerazaintza-ren sortzailleek osatzen dute. Erri euskera izan bear zuela batasunaren oiñarri aurkeztu zuten.

Agirre M<sup>a</sup> Dolores

Akesolo Lino

Arostegi Luis

Anes Arrinda

Arzelus Amale

Azurza Joxe Joakin

Barandiaran Joxe Migel

Eizmendi Iñaki "Basarri"

Elosegi Jesús

Gaztañaga Jesús

Jakakortajarena Txomin

Kerejeta Jaime  
Latiegi Bixente  
Olazar Martin  
Onaindia Alberto  
Onaindia Santi  
Oñatibia Dionisio “Dunixi”  
Oñatibia Jon  
Oñatibia Manu  
Orbegozo Joxe Agustin  
Puxana Pedro  
Solozabal Paulin  
Sukia Angel  
Urrestarazu Andoni “Umandi”  
Urruzola Estanis “Uxola”  
Yurramendi Felipe  
Zararain Anborsi  
Zubikarai Augustin  
Zubiri Iñaki

#### 2.4. Azken urteetako Euskerazaintza-ko idazleak

Batzuren biografiak, liburu bat mereziko luke. Emen tokiari men egiñez aipamen labur bat besterik ezin dezakegu egin.

##### MARTIN OLAZAR (1927)

Mungia-ko erretorea, urte askotan; eta inguruko beste erri txikietako parrokiaren arduradun. Orain dela gutxi jubilatua zen eginbear orretan, baiña Gotzai jaunak eskatuta lanean jarraitzekotan. Filosofia eta Letretan lizenziatua eta ildo orretatik irakaskintzan jarduna. Euskal abostegiari buruz arterketa sakonak egiñak ditu. Euskerazaintza-ko leendakari; eta “ZER” aldizkariaren zuzendari eta idazle bikain eta oparotsuena. Argitaratuak 20 liburu. Aldizkari eta egunkarietan 2.000’ tik gora idazki. Bizkaieraz.

##### BIXENTE LATIEGI (1919-2005)

Euskerazaintza-ko sortzaille jakintsu eta langille porrokatu onek, bederatzirentzako liburu argitaratu zituen. Gaia: Elizaren historia. “San Inazioren denborako eliza/ Apostoluen eta martiriaren denborako eliza/ Gure denbora auetako eliza/ Demokraziaren denborako eliza/ Elizak eta estadiak bat egin zuten denborako eliza/ Denbora berrietako eliza/ Euskal kristautasunaren sorkuntza/ Euskal kristautasunaren zabalkuntza eta Euskal kristautasunaren sendokuntza. Lau mila orrialde guztira, gutxi gora-beera. Azterlan sakona eta zabala. Aldizkari eta egunkarietan, 4.000 idazki gutxi gora-beera. Gipuzkeraz. Apai-za. Eta Gasteiz-ko “Instituto Politécnico Diocesano” izeneko ikastetxearen kondairan: Eragille, zuzendari eta irakasle ainbat urtetan. Gipuzkera eta naparrera erabiltzen zituen.

### IÑAKI ZUBIRI (1913-2003)

Landu zituenak: Edesti laburrak; olerkia, ipuiña, eta eleberria. Izenburu batzuk: "Oroitzak/ Izadiko pitxiak/ Bidetik ametsetan/ Bideko ipuiñak/ Morroia/ Mendekua/ Basamortuko semea/ Txomin. Amaseigarren liburua idazten ari zen. Aldizkari eta egunkarietan 800 idazki inguru. Benetan emankorra, eta goi mailako elertia berea. Bizkaieraz.

Ogibidez, ingeniari.

### AUGUSTIN ZUBIKARAI (1914- 2004)

Euskerazaintza-ko bazkide eta sortzaille zen ondarrutar idazle ospetsu onek, " 1998ko Andres de Mañarikua" sari garrantzitsua jaso zuen, Bizkaiko Foru Aldundiak eskaiñita. Argitaratuak 50 liburu: Antzerkia, elertia, saiakerak, istoria, olerkia, ipuigintza eta eleberria. Eta egunkari eta aldizkarietan 5.000 idazkitik gora. Bizkaieraz. Bere bizitza eta lanak luze, zabal eta sakon jakin nai dituenak, jo beza aldizkari onetara." Revista de cultura e investigación vasca-Sancho el Sabio 1997.Un siglo de literatura vasca" atalera. Gorka Aulestia-k idatzia. Benetan arrigarria eta miresgarria gure Augustin-en jarduna. Ogibidez kontularitzan jardun zen.Bizkaieraz.

### PAULIN SOLOZABAL (1912)

Itz gozoen sorburu. Amabi olerki liburu argitaratu ondoren, itz lauzkoa ari da idazten, au bigarrena du. Izenburu batzuk, olerkiak: "Uskeriak/ Urre bitsa/ Gizonetan/ Gizadian/ Deika/ Erri arnasa/ Eder miñetan/ Aldatz gora/ Malkarretan/ Urrats. Itz lauz: "Itza".Egunkari eta aldizkarietan, 900 idazki inguru. Bizkaieraz. Apaiz edo abade Mungian. Bizkaieraz.

### ANES ARRINDA (1912-2004)

Gure idazle emankor eta oparo onek, ainbat liburu argitaratu zituen. Batzuk aipatzeko: "Euskal Aztarnak, Cromagnon-etik Erromara". Ori, beste bi liburu auen laborpen gisa: Los vascos de la magia al animismo; eta Los vascos del animismo a la romanización. 1000 orrialdeetik gora. "Euskalerrria eta Arrantza"Euskalerrria eta eriotza"Euskal Erri Zaarreko Jainko Txikiak. Euskalerrria Zaarra. Anaien arteko gorroto. 13 liburu guztira. Aldizkari eta egunkarietan 1.000 idazki inguru. Gipuzkeraz eta bizkaieraz. Deba-n 1950 gn. urteaz gero apaiz, erretore izana, zaarsaritu zen arte. Etnologoa, eta Teologian doktorea. Bizkaiera eta gipuzkera.

### JOXEMARI SAN SEBASTIAN " LATXAGA: (1932)

Atsedendia zer den ez dakien gizona. Bere amets ona: Naparroa gero eta euskaldunagoa izatea; eta eginkizun orretan diardu buru-belarri lanean. Bere liburuen artean, argitaratutako batzuk: Naparroa euskal arrobia. Jaka-ra oñez Naparroa-n zear. Aralar-ko San Migel. Errioxa-ko San Millan euskal iturri. Eta gaztelaniaz: La Representación del tiempo en el verbo vasco. Guztira, 17 liburu. Eta egunkari eta aldizkarietan 1.000tik gora idazki. El Diario de Navarra-ko- " Nafar-Izkuntza" orriaren arduradun eta idazle izan zen aldi

batean. Napar-gipuzkeraz. Amazazpi urte New York-en eman zituen, apaiz lanetan eta irakaskuntzan. Teologian, Antropologian eta Izkuntzalaritzan, Doktoregoa dauka. Gipuzkera eta naparrera.

PAUL ATUTXA. (1940)

Santi Onaindia aundiaren ikasle eta laguntzaile. Egin berri du lan eder aundi bat. "Euskalerrriaren kondaira: Askatasuna. Estuasunak. Irtenbideak". Soziologia ere lantzen du. Itzaldiak ematen ditu gai aueri buruz. Gai sakonak eta sarkorrek bereak. Barne-barne muiñetik bere aberriaganako maitetasuna dario. Euskerazaintza-ko eta Bizkai-ko Euskerazaleak elkarteko idazkari nagusia. Zornotza-koa izanik bizkaiera erabiltzen du

AMALE ARZELUS

Ander Arzelus "Luzear", euskaltzale ospetsuaren alaba. Eta beraz zuretik ezpala.

Euskera etheen epel goxoko babesean irakasten zen garaiko andereñoa. Orain saritu berria du beste batzuren artean Eusko Jaurlaritzak. Euskaltzale-tasunean oiñarrituriko abertzalea. Aipatu dugun garai zaar aietatik eten gabe jarduna euskeraren alde lanean. Aldizkari bat ere argitaratzen du "Arbasoen Izkuntza Zaleak"

JOXEMARI MURUA GOÑI.(1930)

Amar urtez, bertso jartzen Iñaki Eizmendi- Basarri- maixuaren eskutik, "Diario Vasco-ko egunkarian, "Nere Bordatxotik" saillean. Tarteka baita ere olerkigintzan. Ipuin sariketan ainbat leenengo sari jasoak, Bilbao-ko Euskera-zaleak Alkarteak emanak. Idazle: Diario de Navarra-ko egunkarian,"Nafar-Izkuntza" orrialdean, idazten denboraldi batean. Eta orain Euskerazaintza eta Zer aldizkarietan. Donostiarra da eta gipuzkeraz idazten du.

Berrogei urte luze aien gau illunean, argi. Beren oizko eginkizunaren atse-denaldiei kenduz, eten gabe lan eta lan euskeraren alde iardunak dira orrelaxe, Euskerazaintza-ko idazle jator oriek. Dirutan etekiñik jaso gabeak. Batzuk liburuak argitaratuak dituzte; eta doaiñik banatu.

Eta LIZARDI aundiarena, ikur gisa, beti gogoan:

Baiñan nik, izkuntza larrekoa,

nai aunat ere noranaikoa:

yakite-egoek igoa;

soña zar, berri gogoa;

azal orizta, muin betirakoa.

## 2. 5. Akatsak eta erderakadak.

Jesús Gaztañaga-k jasokoetatik Euskerazaintza-ren Liburu Gorrian ere artuta daude.

Lapurtea zaarraren teoria ordea, ez zen abiatu ere. Ondoren dijoazten adibide batzuk lekuko. Esan bezala, gure bazkide eta idazkari zenaren Jesús Gaztañaga'ri jasokoetatik.

Ona gutxi batzuk adibide gisa:



ETBn. Orain amabost urte inguru  
 “Ni naiz infraktorea”( 1989-XI-26)  
 “Ezkerreko fronte amplioari eman diote baiezkua” ( 1989-XI-27)  
 “Bederatzi komisio lanean daude” (1990-V-17)  
 “Kirolarien palmaresa ez da ona” (1991-III-4)  
 “Ratxa onari eutsi dio Errealak” (1991-IV-24)  
 “Gipuzkoa-n obrak daude ainbat errepidetan” ( 1991-V-27)  
 “Aste Buruetan trafiko handia dago” (1991-VII-13)  
 “ Oraindik laisterketa asko falta da” ( 1991-VIII-11)  
 “Pendiente gelditu ziren ainbat arazo martxa normalean jartzen ari dira”  
 19(91-IX-10)

Eta abar, eta abar.....

( Adibide gutxi auek naikoa direla uste det zer nolako bidea artu zuten “  
 batua” izenarekin abiatu ziren “ berrizaleak).

Eta 1968an, onako auek entzun ere egin ziren:

(...) “Garo-usai “edo “ gorotz usaia” kendu egin bear omen litzaioke euske-  
 rarai kale –izkuntza biur dadin (...) Eta orren arabera beste iritzi au ere asko  
 zabalzu zen. Itzez-itz esango det: “ Euskera urbanoa eta funtzionala bear  
 dugu “ Arrazoi biologikoak ere aipatu ziren. Orren arabera gizaldi bakoitzak  
 bere aldaketak egin bearko lituzke.

Batzuk Mitxelena jakintsua artu zuten ikurtzat beren jardunean. Baiña zori-  
 txarrez askotan gertatzen den bezala, ez zituzten kontuan izan, izkuntzalari  
 ospetsu onek esandakoak. Zilegi bekit bere idaztietatik onoko auek jasotzea:

“ Izkuntza, dan bezelakoa da; ta ez dago iñoren eskutan gogoak diona egi-  
 tea izkuntza batez”

“Izkuntza, bere bidetik dijoa; eta geu gera bere legeei makurtu bear  
 gatzaizkionak; eta ez beraren legeak ankazpiratu guk”

## 2.6 Okerrak zuzentzen

Eta urteak aurrera joan dira eta euskera “ urbanoa eta funtzionalaren”  
 bitartez sortutako “babel” antzeko baten ondorioz, iñoiz baiño geiago batasuna  
 urrutiratzen ari zela oaturik, itzul bidea artua dute batasunaren agintariek.  
 Ala ere gauzak ez dira euskarari dagokionez bear adiña obetu. Ondoren  
 esango ditudan lekuko. Gaur egun ere onelakoak entzuten ditugu:

Dagoeneko..... Ez da “ya”. Dagoeneko uste baiño leen gertatua da  
 Kasu onetan (erderakada utsa da)..... Oraingoan. Onelakoetan  
 Oraingo onetan..... Oraingoan ( Naikoa da)  
 Arrixkutik irteteko modua..... Egokiera. Aalegiña  
 Gaur pronto esnatu gera..... Gaur goiz/goiztar esnatu gera  
 Etsaia..... (Ez da batena izaten: Inpernuko etsaia/Euskal Erriaren  
 etsaia) (Futbola dela eta ere entzuten bait dugu)

20 minutuko aldea besterik ez da egon.... Ez da izan

Itsasoa lasai..... Itsasoa bare

Laguntza bear duen kasuetarako..... Laguntza bear duenerako

Gaurkoa modukoa..... Gaurkoaren antzekoa/Gaur aifñekoa/Gaur  
 bezalakoa

Positiboa dela..... Onuragarria

Akordioriz ez da egon..... Itzarmenik ez da izan

Ez dago jokatzeko moduan..... Ez dago jokatzeko

25 graduren bueltan..... 25 gradu inguru  
 Illunabarraren bueltan..... Illunabarrean ( naikoa da)  
 Azken finean..... Azken batean  
 2gn. postuan..... 2gn. lekuan. Edo bigarren iritxi da ( eta kito). Baiña  
 “ erderaz “ segundo lugar, segundo puesto” esaten dutelarik, guk orren kalko  
 utsa egin bear  
 Bezain pronto..... Bezain azkar/Bezain laister  
 Ez da espero..... Ez da usterik  
 Bero pasa dugu..... Beroaldi galanta artu dugu  
 Itsasoa bare ibiliko da..... Itsasoa bare izango da/ Itsasoa bare  
 dago/Itsasoa laño dago  
 Erreparatu (Leen partizipioa da gaiñera).. Begira/Entzun  
 Posible da..... Litekeena da/  
 (Posible es da euskal aditza, eta batzuk itz orrekin aalkera guztia jan dute)  
 Kriston..... Kristorenak eman zizkioten. Artu zituen (Esan oi izan  
 da)  
 (Azken aldian, ordea, “ Kriston “esaldi pilletan sartzen dabilta batzuk. Eta  
 orrela: Kriston lana/kriston  
 pelikula/kriston partidua. Badugu euskera jatorrean aukera ederrik, esan  
 naiaren arabera: Izugarria, lan betea,lan ugaria, goimaillakoa, gendetza, eta  
 ez “ kriston gende pilla”)  
 Naiko/ Naikoa..... Batzuk diotenez beti “ naikoa” bear omen du. Nik  
 zalantzak jartzen dizkiot, uste orri. Nik berezi egingo nuke: Naiko lan izango  
 dute / Naikoa dute. ( Eta beraz: izenondo eta aditzondo)  
 Osasun arazoak dituela medio..... Osasun arazoak dituela eta  
 Datozen egunetarako..... Urrengo egunean. Datorren astean. Urren-  
 go egunetarako (Datozenak denak bait dira)  
 Estreinaldia..... Asiera/Leenengoz/Leenengo aldiz  
 Emozioz betea..... Unkiturik  
 Urte on BAT izanda..... Urte ona izan da ( Bestea erderakada utsa  
 da “ UN buen año”)  
 Apenas euria botako duen..... Ez dut askoriz botako  
 Larrialdi kasuan..... Larrialdietan  
 (Betikoa, gaztelaniatik abiatu “ En caso de emergencias”.Eta guk txakurra-  
 rena, erbiaren atzetik. Guk ere “ kaso” esan bear.  
 Estefaniaren paperan..... Estefaniaren antzespenean  
 (Erderakada utsa. “ En el papel”. Ildo orretatik, norbaitek auxe ere esan  
 lezake:“ Estefaniaren ingian” Beste ark bezala. “Combinación de trenes: Tren-  
 nen azpiko gona”)  
 Zer kontutaz ari zera?..... Zertaz ari zera/ Zeri buruz ari zera?  
 Kolpe ederra..... Kolpe galanta. ( Kolpeak min ematen bait du eta  
 ezin ederra izan)  
 Lege propioa..... Bere legea  
 Duela 2 urte..... 2 urte direla ( Nik orrela esango nuke) Beste esal-  
 di bat ere sartu zen orain badirudi baztertua dagoela. “ 12 liburu ekarri dut”  
 Euskerak, ordea IT, askorena edo pluralgillea orretarako bait du, ain zuzen. 1  
 ekarri dut. 12 ekarri ditut.  
 Miatu ( miratu)..... Begira ( Latiñetik: vigilatum(vigilare) Bestea  
 baiño, zaarragoa ez ote?)  
 Pilota partida..... Zergatik ez beti esan dugun bezala “ Partidua”

Partidua edo norgeiagoka jolasten..... ( Au ez dut esango ETBn entzuna dudarik. Oso zabaldua dago. Ez da bereizten “jolasa” eta “jokoa”. Partiduak jokatu egiten dira. Erderaz ordea, jugar el partido esaten da, eta berriz ere txakurra eta erbiarena, gaztelaren atzetik alegia)

Eskarmentua..... ( Kurrikulum delakotan “ Experiencia” esan naiean jartzen dute. Eta “Eskarmentua” esperientzi txarra da. Nik Jarduera, ipintzea naiago dut)

Ez dago jokatzeko moduan..... Ez dago jokatzeko ( eta kito)

Moduan..... Eran. Beste batzuetan “ bezala”

Partean ( Arratsalde partean, Ipar partean.. Arratsaldean/ Iparraldean ( eta kito)

(“Albarda sobre albarda” Aldeak eta parteak, bai al dute bereizketarik?? Eta ortik ere entzuten ditugu “Zonalde”. Eta “Industrialdea” ere bai. Eta itz ederra badaukagu ori adierazteko “ Olaeta”. Otxandio inguruan dagoen erri-ka baten izena ere bada)

Propioa..... Berea/Berezkoa

Ze polita !!! ( erdal senaren kalko utsa)... Bai polita !! ( ¡Qué bonito! Berriz ere erbiarena)

Modu onetan..... Onela

Titular moduan aritu zen..... Titular jokatu zuen

Atentzio deitu dit ( Me ha llamado la atención?) Bitxia edo berezia irudi zait/ Begiz jo dut. (Beste esanaia ere izan dezake. “ Amonestar” Euskaldun peto-petoak esaten dute: Kargua artu dit)

Erritmo aundiko partidua..... Joko bizikoa

Prezioak txikitu..... Gutxitu/ Merketu

Konsulta modukoa..... Galdera ( eta kito). (Eta “ modukoa” baldin bada ez da galdera, baizik eta antzekoa. Batzuetan ere entzuten da” Irakasle bezala egon zen” Beraz, ez zen irakasle. Bestela “Irakasle egon zen” naikoa luke)

Estreineko ( Estreno)..... Leenengoz/ Asierako

Momentuz ( De momento?)..... Oraingoz/Orain artekoa.( Gaiñera nire uste apalez, gaztelaniaz ere “ de momento” ori alperrikakoa da.( La Real gana 2-1. Y si no sería: La Real ha ganado 2-1)

Jarrera propia izan nai dute..... Beren jarrerari eutsi nai diote

Gustura..... Nik “ gustora” entzun izan dut beti, gure zaarrendik. (Astua esaten da, baiña ez” astu” beltza. Aozkoan “ etxia” esaten dugun bezala, baiña ez “Etxi polita”)

Aste onetan bertan..... Aste onetan ( Naikoa da, ez du zeastasun geiagoren bearrik). Ez dut esango gaizki dagoenik, azken boladan ordea, “bertan” erabilleraren maiztasuna izugarri ugaritu da. Geiegizkoa ez ote da?

(Lapurtera zaararen bidea utzi, or porrot egin da, eta laisterrean, ito larrian, gipuzkeraren bidera jo den ortan, jatortasunaren billa, asko dabil itzak sartzen zer esaten duen ere ez dakiela. “ Bertan” asko ugaritu da. Eta “ Izan ere” berdin. Luze joko luke lantxo onetan arazo ori zeaztea. Gramatikak ere ortxe dagoz)

Tolosan bertan jokatu dute..... (Bai al dago, bertan ez den beste Tolosarik??) Tolosan jokatu dute ( eta kito). ( Besterik da: Tolosan jokatu eta bertan bazkalduko dute)

Pirineo kontran..... Pirineoaren malkarretan

Ez da bildurtzeko modukoa izango..... Ez da bildurtzekoa izango

Prezio baxua..... Merkea/ Merke-merkea  
Tajonar (Gaztelaniaz) ( Eta "Taxoare" euskeraz al da?, fonetika aldatuta. Itzulpenik bear ote dute izen oriek. Berezko euskal izena dutenetan: Pamplo- na/ Iruñe, Agurain/Salvatierra, ea., esate baterako, azaldu egin bear, noski.)  
(Bada Aralarreko basoan, toki zoragarria" Pago-Mari" izenekoa. Ustez asko zekiten batzuren batzuk, erderazko itzulpena jarri zioten, onela: " El Haya de la Señora María". Barka ezaidazue, aritik irten banaiz; ETBn entzun- dakoekin ari bait naiz. Adierazkorrak diranez, ordea, adibide oriek, eta zen- bateraiño sartuta dagoen nagikeria eta lañeza gure izkuntzaren inguruan ikusteko, zillegi bekit, bide alboratze au).  
Euria beste modukoa egin dezala..... Euria bestelakoa egin dezala  
Martxan jarri..... Asi/ Ekin  
Plana..... Egitasmoa/Egitamua  
Egin kasu..... Erne/ Entzun/Gogoan Bestea: Ori duk ostikoa !!  
"Hagan caso". Itzez-itz itzulpena. Euskal senaren jabe dena, euskeratik abiazen da)  
Larrialdi kasuan..... Larrialdian/ Larrialdietan  
Gogoratu ( Leen partizipioa da)..... Gogoan izan  
Galdetu ( Leen partizipioa da)..... Galde egin  
Esforzua..... Egiñalean/ Leer bizian  
Aproposa..... Egokia/Aukerakoa  
Zailtasunak erasoan aritzeko..... Zailtasunak erasorako  
Konforme..... Ondo da/Batera/Ados  
Ikastaldia martxan jarri..... Ikastaldiari asiera eman  
Eguraldi txarra Bilbo parte onetan..... Eguraldi txarra, emen, Bilbaon  
Arratxa txarra..... Aldi txarra/ Bolada txarra  
Z/S/X eta TZ/TS/TX..... Batzuk ez dituzte bereizten. S-ren orde z.  
Z.Eta Z bear duenean S, oguzkatzen bait dute. Eta

## 2.7. Atal orien ondorio gisa

Gaur egungo joeran, badirudi lizentzia osoa artzen dela, bakoitzak nai duen erara itzak artzeko eta sartzeko. Azkue aundia sarritan entzuten dugu, zeru goienetako euskal izarra, esaten dugu mirespen aundiz. Eta zenbatek erabiltzen ote dugu bere iztegia? Edo berdin esan Plazido Mujika, Kerejeta, Sarasola, Kintana e.a.

Badakigu erriarengan or agertutako itz asko oso sarturik dauzkagula. Komunikabideetan ordea, ez ote luke jasoagoa bear izkera? Emen aozkoa eta idatzizkoa kontuan izan bear.

Orain ogeitamar urte, 1973 urteko zenbakien arabera, euskaldunak % 66 alfabetatu gabeak ziren. Eta orien artean ez da arritzekoa, naiz euskaldun peto-petoak izan, itzak erderatik nolana artzea. Gaur ordea, zorionez ez da orrelakorik gertatzen; ikastetxeak eta gau eskolak lan mardula egin dute azken urteetan. Eta orregatik, iztegi eta gramatikarako zaletasuna aundiagoa bearko litzateke, bakoitzak aal duen neurrian, geroz eta euskera ohea erabiltzeko. Zer esanik ez, euskera erabiltzetik bizi direnak.

Eta ezin aipatu gabe utzi bizkaieraren arazoa. ETBn, Bizkaian kokatutako telebistan, bizkaiera zearo bartertuta dago. 1970an, Luis C-Núñez jaunaren "Opresión y Defensa del Euskera" liburutik onako zenbaki auek artu ditut: 532.011 euskaldun omen giñan. Orietatik 200.040 euskaldunek gipuzkera

erabiltzen genuen, %37,7k. Eta 200.494k bizkaiera, % 37.6k. Lapurtera 22.970, % 4,3k. Eta azken onen antzera gaiñontzekoak.

Arantzazun 1968an, Kardaberaz-koek eman zituzten iritziak, gero Euskerazaintza-k jasoak, indarrean jartzen ari dira. Euskaltzaindia-ko presidente izan zenari, Haritschelhar jaunari, orain gutxi entzuna diogu: “Bakoitzak bere euskalkia erabili bear du, guk orrela erabiltzen dugu. Gero batua..... “  
Eta zer da euskera batua?. Gramatika bateratze lan batzuk egin dira. Funtsen ordea, ezin ukatu, batua izenarekin, azken batean, gipuzkera erabiltzen dela. Eta 1968gn. urteko batzarrean, gipuzkera osotua aukeratzea aurkeztu zutenak, baztertuak izan ziren.

Eta beraz, berriz diot, lapurtera zaarraren teoriak porrot egin du. Entzun berri ere badugu, irakasleek beintzat bi euskalki jakin bearko lituzketeela

Analfabetoak aipatu ditugu. Alarik ere, euskal sena eta itz joskera oso-osorik iritxi dira guregana, ainbeste urteren buruan, eskerrak gure aurrekoei. Aipamen berezia ere egin nai nieke gure apaiz eta fraile baserrikumeei. Etxean ikasitakotik abiatu, eta goi maillako ikasketen eragiñez landu egin dutelako, ama izkuntza. Euskerarik onena eleiz gizonengandik entzuna dugu. Baita ere 40 urte luze beltz-beltz aietan; ez bait zuten alboratu beren zeregiñetan.

Eta ez gera ari garbizalekeriaren inguruan, 2.5 eta 2.6 ataletan azaltzen diren adibideak artuta. Euskerak latiniaren eragin aundiak ditu. Bearrezkoak izan zirelako, bestela izkuntza batek ezingo luke iraun bere esipean. Euskal Errira ere, kanpotik lanbide berriak sartu ziren, oriekin zegozkien itzak. Eta gure aurrekoek, itz berriak ederki asko beregatu zituzten euskal sena eta fonetikara egokituz. Eta zibilizazio aurreratuagoen kultura kontuan izan bear aurrera egingo bada. Zientzi eta teknika iztegian, ezin bestekoa izan dugu latina. Eta zergatik ez ingelesa, informatikak duen eragiñarekin? Garbizalekeriatik zabarkeriara ordea, tarte aundia dago, jakin egin bear tarte egokiak aukeratzeko. Bidezkoa ez dena, jatorriz artu ditugun itz eta esaldi motak, nagikeriaz bartertu, eta asma aala, bakoitzari bururatzen zaiona esan edo idatzi.

### **3. Bizkaieraren iraupena**

#### *3.1 Ikastetxeetan erabiltzen den euskera*

Gaur egun gipuzkera erabiltzen da. Azken batean euskalkietako bat. 1968an Euskerazaintza sortu zutenak, bizi-bizirik zegoen izkeran oiñarriru bear zela euskera batua esan zuten. Eta beraz, denborak, epaikari goren orrek, arrazoi eman die. Baiña, baiña.....

Umeak Bizkaia-ko ikastetxetan, “batua” ikasten dute. Zuzenago esan da, gipuzkera. Eta ETBn, Irratian, Erakunde Ofizialetan, eta egunkari guztietan, batua izenekoa erabiltzen dute. Eta bide orretatik bizkaierak iraun ote lezake?

Ona zer zioen Gotzon Garate-k, Jesuita idazle ospetsuak, 1995ean. Elgoibar-tarra. “Azken ogeita zazpi urtetan Euskalerriko zazpi probintzietako 22 baserrian nabil, itzak, esakearak eta atsotitzak biltzen. Zuberoa-ko Larrinetik asi eta Bizkai-ko Zeanurira-ño. Bai zoragarria eguzki eguzki beti euskeraz egiten daben baserriarren euskera ! Ez dago iñongo euskera guttiesterik”.

Alere, euskal egiturari begira ( alderdi fonikoak eta lexikoak ez dabe orrenbes- teko garrantziarik). Euskerarik onena bizkaieraz egiten dala esan bear da” (...)

## 4. Euskerazaleak eta Euskeraintza

### 4.1 Euskerazaintza Bizkaira

Gaur egun Euskerzaintza-ren eginkizunik garrantzitsuena, bizkaiera zain- ztearena izan daiteke. Gipuzkera “batua” biurtu dutenez gero.

Eta Euskerazaintza, datorren urtetik aurrera Bizkaian kokatuko denez, laguntza ederra jaso dezake, Euskerazaleak-en bazkideengandik, lankide izenik.

## 5. Ondorio gisa

### 5.1 Pedagogia, Sikologia, Sikiatria eta Ama Izkuntza

Euskera garai batean etxean ikasten zen. Askok euskera besterik ez genuen entzuten etxean, gurasoek gaztelera ez zekitelako, eta oriek euskera ama izkuntza biurtzen zuten beren umeengan.

Gaur esaten da euskera sartua dagoela gizarte osoan ikastetxeen bitartez eta geroa gaurko umeek osatzen dute. Beraz badirudi ez lukeela arazorik izan bear euskeraren etorkizunari buruz. Baiña, esaten baita ere eskolan bai baiña kalean eta etxean ez. Auetan erdera dela nagusi.

Sikiatra eta sikologo jakintsuek diotenez, gure burmuñak ez omen du leku berean artzen, nolabait esateko, ama izkuntza eta gaiñontzekoak.

Emen adibide batzuk:

El Diario Vasco egunkarian 1991-1-29. “ Hacia el descubrimiento de la” caja negra “del pensamiento” izenburuaz argitaratutako idazkitik jasotakoak, nik euskeratuak:

- Catherine Vincent “ Le Monde”. Ume jaio berriak laugarren egunetik aurrera ederki bereizten du bere baitan ama izkuntza gaiñontzekoetatik”.

- Eta bide ontatik egunkari berean: Laura Bosch, Sikologia irakasle Barce- lona-ko Unibertsidadean auxe dio” 56 umeren inguruan egindako ikerketaz esan dezakegu umeak leenengo egunetatik bi izkuntza entzunten baditu egunoro, 4 edo 5 illebeteren barruan ederki bereizten omen du bakoitzaren ozentasuna

“Egiaren Billa “ liburuxkatik. JM. Mokoroa eta X. Goirigolzarri elkarrizketan. Auxe agertzen dute.

Argentina-ko eritegi batean gaixo zaintzan egondako batek:

- Irurogei urtetik gorako amona bat. Bost edo sei urteko zela, Frantzia-tik Argentina-ra eraman zuen, bere izeba batek, umezurtz gelditu zelako. Bere frantses-kutsu guziak laister galdu zituen umeak eta ez zuen geiago sekula frantesik egin bere denbora guztian... iltzeko bezpera arte.. Azken ordu orie- tan asi zitzaien bat-batetan frantsesez itz egiten, gaixoa !! ( Nonbait gordeta zeukan bere txikitako izkuntza).

- Bigarren bat. Aiton bat berez euskaldun zenik ez zekien iñork auzoan. Elizatik aldenduta zebillen, gizajoa, beste asko bezala; eta elizakoak artzera

makurtu nai ez. Alako batean, fraile euskaldun bat azaldu omen zen, norbaiterekin euskeraz asi da..... Eta aitonak azkar eziñean ere burua altxa, frailea ere asi zaio berari ere euskeraz..... eta “otsolarruz jantzitako ardizarra” bezain gozaro jartzen da frailearen eskuetan, berak esandako guztira jarriko dela esanez....

- Eritegi batean. Urte pilla bat zituen emakometxo bat, bronkoneumoníak jota omen zegoen ilzorlan. Alako batean iñork ez zekien izkuntza batean asi omen zen izketan. Gero jakin zen Indostania-n jazio zela, baiña ondo zegoe-larik izkuntza orretan tutik ez omen zekien. Ikerketak egin eta gero jakin omen zen emakumetxoa 4 urte izan zituen bitartean Indian bizitu zela. Eta iruroigei urte pasata ziren.

Augustin Zubikarai jaunak, aztutzen ez dugun gure bazkide zenduak Deian argitaratutako idazki batetik. Zuen belarrien goxamenerako bizkaiera entzungo dezue:

- “Jabier- en Biozkada”. (...) Jabier-ek Goan, portugaltarren berbeta geientsu erabiltzen eban. Bizi gordiñeko biozkaden barri ziurrik ez daukagu. Ba dira bere zabalkundeko lan ikaragarrian orretarako aztirik ez eukala diñoenak. Alaz eta azken biozkada euskeraz egin ebanik nok ukatu?

Ango iñok ulertzen ez eban berbetan amaitu zitula bere azken orduak, esaten da. Eta gaztelania, luso izkuntza, inditarrak eta abar ezagutzen zituen. Bere umetan amagandik ikasitako berbeta, ezpai barik, maitasunik zindoe-nean, Jabier-en azken biozkada, ta sortzetik datorren izkuntzaren indarra.

Sikologo eta sikiatrek hiperestesia izenaz adierazten dituzte azaldu ditudan gertaera oriek.

Eta ankerkeria ez al da? izkuntza bizia, euskalkia baztertu eta goitik beera ezartzea batua izenarekin euskera molde bat. Zer eta, illik dagoen lapurtera zaarra. Teori orren aurka izan zen, Euskerazaintza sortu zutenen joera. Eta zapuztu egin zituzten. Gogora berriz, “Garu usai eta gorotz usai”ko deitu zio-tela sustria zaarrean oiñarritutako euskerari. Ama izkuntzari. Euskal kanta zarrak ere neurri aundi batean baztertuak izan ziren. Berriak sortzea ondo da, noski, ori esan bearrik ez dago, baiña aurrekoa gorrotatu gabe. Amaika ikusteko jaiok gera!!!!

## 6. Amaiera

Eta kontuan izanik, emendik aurrera, ikastetxeen bitartez, euskaldun berriak osatuko, dutela euskaldunen geiengoa, gure umeak euskera asignatura gisa ikasten dute, o bigarren izkuntza bezala, aun da: ingelesa o frantse-sa bezala. Eta gaztelera dute ama izkuntza. Eta eskolatik kanpo ez dute euskeraz itz egiten, erri txikietan izan ezik. Eta berdin zenbait euskaldunen umeek ere. Gure Erri zaar onetan izan zen garaia, euskaldun peto-petoak beren umei euskera irakatsi ez ziotenak, eta beraz, ume oriek ama izkuntza gaztelera dute. Ez ote da, bada, izango, eskolatik kanpo ez itz egite ori, pedagogia arazoa baiño sikologiarena aurreko adibide orietan azaltzen dena kontuan izanik???????. Gera bedi ortxe nire galdera, itzalditxo onen amaieran.

**J.M. Murua-k**

# EUSKAL LURRA

Arrasti on, itzaldi onetara etorri zareen guztioi, eta on-egin daigula dano bere mamitik ulertzen dogunak.

Azkenean zuek itaunak egitea nai neuke, guztiok batzar onetatik al dogunik geien ulertuta urten daigun.

ZEGAITIK EUSKAL LURRAREN GAIA?

a) Lenengo Euskalerrria bere aldirik zabalenean noraiño eltzen zan jakiteko.

b) Euskerea eta Euskalerrria gizarteak idazti osoan zelan baztertu gaituan argi ta garbi ikusteko.

d) Etorkizunari begira zeren itxaropena euki geinken aztertzeke.

e) Eta Olazar´tar Martin´ek, gai onen azalpena nik egin bear nebala esan ebalako.

SARRERA

Euskal lurra esaten dogunean, gauza bi ulertu geinkez: Euskeraz berba iñoz egin dan lurra eta euskerarik egin ez arren, biztanle euskaldunak izan dauzan lurra.

Antxiña-antxiña, euskaldun guztiak egiten eben euskeraz berba, baiña toki batzutan arin galdu zan euskerea, esaterako autrigoien lurraldean.

Eta nondik jakingo dogu euskaldunak non bizi izan diran eta zein lurralde-tan euskeraz berba egin dan?

Iturri bi daukaguz orretarako. Edesti edo istoria-arloan jakitunak diranak esan dauskuena eta toki baten aurkitzen doguzan toki-izenak. Esaterako jakitunak diñoskue euskeraz berba egiten zala Bizkaí´ko itxasotik Lurrarte itxasora dagoan bitarte guztian, eta, gaiñera lurralde guzti orretan gaur be tokien izenak euskaldunak dira, esaterako “Aran Ibarra”.

## GURE LURRA SORTALDEAN ETA IPARRALDEAN

### 1.1.– SORTALDEAN

Soria deritxon lurraldetik asiko gara.

Soria´n euskera berba egin zala jakiteko bertako toki.izenak doguz lekuko. Bertan, Numantzia-ondoan daukagu, esterako Garrai izena daroan erri bat. Izen ori, zalantza barik, euskalduna da eta ango biztanleak euskaldunak izan zirala esan gura dausku.

Baiña beste toki-izen asko dagoz Soria´n. Eta Uriaren izena bera, Soria, ez ete da euskalduna? Baiez dirudi. Pikeras mendiaren barrenean bizi ziran euskaldunak, andik mendiaren gaiñetik etorten zirala txoriak ikusten eben. Ortik sortua ei da Soria izena.

Errioxa osoan, Logroño bera be barru dala, euskera egin zala gauza ziu-rra da. Toki batzutan euskaldunak sartu egin ziran eta geroago atzera egin eben, Erramelluri inguruan esaterako, baiña antxe be toki-izenak asko euskaldunak dira.

Merino´k idazti eban liburu bat Errioxa´ko toki-izenak zeintzuk diran eta zebat diran euskadunak agertzeko.



Edestian ikusten dogu Kalagurri edo Kalaorra uri euskalduna izan zala eta izena bera be, kala alde batera itzita, “urri” edo “uri” argi dago euskalduna dala. Kala, ostera toki askotan agertzen da eta izan leiteke arabiarrena. Gogoratu Kalazeite. Kalatayud eta olakoak.

Errioxa n beroiak bizi izan ziran. Oneik erdi kelta erdi euskaldun ei ziran.

Baiña inguru aretan euskeraz berba egiten zala agertzeko lekuko lez, Donemiliane´ko “glosa” edo esaldiak doguz. Geienak gazteleraz dagoz baiña bi dagoz euskeraz. (900n. urte-ingurukoak).

Kukulla´ko Donemiliane lekaide etxean bizi ziran lekaide edo monjeak, batzuk beintzak euskaldunak ziran. Orregaitik, otoitz-liburuak latiñez eukezan lez, lerro artean edo alboan latiñezko berbak zer esan nai daben agertzen daben idazkiak dagoz, orreik dira “glosa”k. Baiña ez bakarrik euskaldunak, gazteleradunak be ez eben ulertzen latiña. Orregaitik dagoz “glosa” asko gazteleraz.

Euskeraz esaldi bi baiña ez dagoz: “Izioki” eta “ayutu ez dugu”. Ez dira esaldiak ulertzeko errezak, baiña argi dago euskaldunak, euskerea, dirala.gaiñera ez Bizkai´ko euskerea “-ki” azken ori giputza edo naparra dalako, ez Bizkai´koa; eta “dugu” ez giputza be, “degu” litzake giputza.Dugu naparra da. Orduan Naparroa´ko euskerea egiten zan Donemiliane-inguruan.

Baiña zer esan nai dabe esaldiak?

“Izioki” “encendidamente” gazteleratu leike eta ez dago argi latiñezko zein itzeri dagokion.

“Ajutu ez dugu” latiñezko “ne precipitemur”eri dagokio eta erderaz “no sea-  
mos arrojados” litzake. Pasiba orren arrazoia korapillotsua da. Errezago itzu-  
liko geunke “no hemos ayudado”.

Orrez gaiñera gure Latxaga´k azterketa sakona ta zeatza egin dau Done-  
miliane-inguruko toki-izenai buruz eta asko aurkitu dauz oso euskaldunak  
diranak.

Ondo dakigu Bertzeo´ko Gontzalo´k Donemiliane´n egin ebazala bere ber-  
tso ederrak, “Mester de Clarecia”ren barruan.

Bertzeo´ren bertsoetan berba euskaldunak agertzen dira, esaterako bel-  
dur ( au be naparreratik artua) eta bere etxean be, diñuenez, euskeraz berba  
egiten eben. Bermeo´ko lebatza be aitatzen dau.

Errioxa alde batera itzita, goazen Salduba edo Zaragoza´ra.

Zaragoza´n bertan ez zan euskeraz berba egiten baiña bai andik ogeta  
amar bat km´ra.

Zaragoza´ko gotzaiña zan Braulio´k Bizintxo edo Bizente Deuna eukan  
bere ordez berba egiteko Oska´n berak berbarik ezin egin ebalako, “propter  
impedimentun linguae”. Batzuk berbaltuduna edo tartamutua zala Braulio  
esan dabe, baiña ori antzik be ez daukan gauzea da, orduan Gotzain batek  
berbarik ezin egin izatea. Ziurragoa da beste argibide au: Braulio´k ez ekian  
euskerarik eta Oska´n berba egiteko ori zan “impedimentun”. Bizintxo diako-  
noa, ostera euskalduna zan.

Jaka ta Oska-aldean ibilli geranok, arrituta ikusi dogu zenbat toki-izen eus-  
kaldun dagozan lurralde aretan

Eta pizka bat arago joanda, “Valle de Aran” daukagu: “Valle” da erderaz eta  
“aran”euskeraz, orduan esaldi ori “Valle del Valle” edo “Araneko Aran” dogu.  
Olako esaldi asko dagoz, esaterako “Puente de Alcantara”, “puente del puen-  
te “da eta “Desierto de Sahara” be, “desierto del desierto”. Baiña esan gura  
doguna da, Aran´en euskera berba egiten zala.

Len be esan dogun lez, Lurrarte Itxasora arte egiten zan berba euskeraz. Eluza da Auñamendi barrenean dagoan erri bat eta ortxe sortu zan gure lenengo gotzaindegia eta geroago Goi-Gotzaindegia eta ortxe dago lurpean eleiza oso zar bat. Bordele´n euskera egiten zala jakiteko beste jakingarri batzuk daukaguz: Ausonio eta Nola´ko Paulino´ren artean izan ziran artu emonak eta gutunak.

Bordele-ondoan eukan bere bizilekua Nola´ko Paulino eta Ausonio bere lagunak karta baten auxe diñotso:Erromatarren arteko giro ona eta oitura onak alde batera itzita, lapurrak eta gaiztoak bizi diran tokira joan zara, Bordelera.

Paulino´ren erantzuna au izan zan: Emen gugaz dagozan euskaldunak lapurrak eta gaizton ba´lira be, ez dago txarto euren artean bizi izatea biurtu dagiguzan. Luzea da gutuna.

Paulino, auñamendi guztia igarota Bartzelona´ra joan zan eta an ezkondu egin zan. Gero bere emazteagaz Bordelera biurtu zan eta joan-etorriak bakez egin ebazan, euskaldunen artean ezelako arriskurik gabe. Ez ziran ain txarrak Auñamendi guztian bizi ziran euskaldunak

Or argi agertzen da Paulino´ren hbizi-leku zan Bordele euskalduna zala.

Gero Paulino ori Italia´ko Nola´ra joan zan bizi izaten eta bertako Gotzain izatera eldu zaz. Gaur Eleizan santu bat dogu.

Gaskuñña izena Baskonia bera da eta lurralde ori Bearne´gaz batera, euskalduna izan zala adierazten dausku.

Tarbes´ko Gotzaindegia Lapurdenensis izena ipiñi eutsoen Erroama´tik, Lapurdigaz zer-ikusia ba-eukala adierazteko.

Lourdes´ko Ama ikusi eban Bernardette´k abizena Subirous eukan, eta abizen ori “Zubiburu”tik etorria da. Orduan Bernardette´ren aurrekoak be euskaldunak ziran

Eta amaitzeko “Baiona” “Ibaiona”tik etorria da eta ibaia dagon lekua esan gura dau.

Ba-dago beste Baiona bat Galitzia´n be. Arrigarria da euskaldunak eta galiziarak izkuntzan daukagun antza. Esaterako, toki bietan esaten da “bota” “echar”, eta bietan galtzen da izenaren barruan doan “n” eta orregaitik toki bietan “arena” esateko “area” esaten da.

Gaurko ekiñaldiari azkena emoteko, eldu da zuen itaunai erantzuteko sasoia. Asi ba zuen itaunak egiten.

## **GURE LURRA SARTALDEAN ETA EGOALDEAN**

Atzoko berbaldian aztertu gendun gure lurra, euskal lurra, noraiño zabal-tzen zan sortaldean eta iparraldean.

Gaur goazen sartaldera eta si gaitezcan Asturias´etik.

Asturias izena bera jatorriz euskalduna dala dirudi. Uria ba-dakigu zer dan eta asko erabilten dogu gure toki-izenetan: Urizar, Uribarri, Goikouria, Bengouria... Batzuk “Uria” orrek erderazko “villa” esan gura dauala diñoe, eta ori egia da, baiña “uria” toki-izenetan erderazko “cuenca”ren antzeko zerbait da, bere urak ibai batera bialtzen dauzan lurra. Orrelan Bilbao´n “Uribitarte” dago, erre kara doazen uri edo “cuenca” biren artean.

Argi daukagu ba, Asturias berbearen zati bat, baiña xer da zati orrek aurrean dauka “ast-” ori? Ori ez da besterik “atxeta” laburtuta baiño. Zeanu-

ri'n, esaterako, Asterri izeneko auzo bat dago eta guztiak dakie ez dala "astoen erri", "atxetako erri" baiño. Antzera Asturias'en, "atzetako uri" esan gura dau.

Eta bertan aurkitzen diran izen zarrak be ba-dauke euskerearen ikutua. "Naranko" esaterako, ez ete "aranko" eta aranean dagon tokia?

Alfontso lenengoa izan zan errege Asturias'eko erreñuan eta errege orren edestia edo kronika idatzi eb an III Alfonso'k. Kronika onetan agertzen da lenengoz "Bizkaia" izena idatzita eta Bizkaia bere erreñuaren zatia dala diño. Itxi daigun arazo ori, zatia izan ala ez, eta zatia izateak zer esan gura dauan. Ba-dakigu euskaldunak eta Asturias'tarrak lagun izan zirala eta errege asturiastarrak emakume euskaldunakaz ezkondu zirala. Bear ba'da Balpuesta izango zan alkartze orrein tokia.

Andik onantza gatozela, Palentzia deritxon lurraldea dogu. Izan ete zan iñoz Palentzia euskal lurra?

Baietz dirudi, eta antxe daukagu lekuko Amaia izena dauan mendi ederra.

Palentzia'ko lurrai Aratoi edo Aradui esaten jake. Eta "Araudi" ori izen jatorra ba'da, ez da besterik aran asko dagon lekua baiño, ortik etorria izan leiteke Tierra de Campos gaztelera izena.

Or dago baita Orbigo izena daukan errekea eta izen ori artzen dau erreka bi bat egiten diran tokian. Orbigo ori antxiña, zalantza barik, "Urbiko" izan zan. Orrelan esan eustan gure Gotzain izan genduan eta Leon'n Gotzain izana zan Luis M.<sup>a</sup> Larrea jaunak.

Eta, apur bat geiago gure artera etorrita, Kantabria daukagu, Kantabria'n euskerazko toki izenak eta abizenak asko dagoz, gaiñera aldi baten, erromatarren aldian be bai, kantabriarrak eta euskaldunak alkartuta agertzen dira.

Valle de Mena daukagu or urrean eta aran onek be euskal usain aundia dauka.

Goazen orain Burgos'en iparraldera. Ementxe jaió zen gaztelerea eta izkuntza barri au, erromantze barri au, ez da besterik euskaldunak erabilten eben latinkumea baiño.

Gaztelereak asko artu eban euskeratik. Ori argi diño Menendez Pidal izkuntzari ospetsuak bere liburuetan.

Lenengo, gaztelerea da erromantze bakarra bost bokalak eta bostak bakarrik, argi ta garbi agozkatzen dituana. Eta ori euskeratik artu dauan jokabidea da.

Gaztelera zarrak euskerearen joskerea be artu eban, parasintaktikua, esaldi laburrak eta bardiñak. Esaterako "Mio zid salio de San Pedro de Cardeña y atravesó Castilla a Valencia y ganó la batalla a los moros". Ori da euskerearen eta gaztelera zarraren joskera jatorra.

Gero, ber-jaiotza aldian, agertu zan joskera nastatua. Olan izango litzake: "Mio Cid habiendo salido de San Pedro de Cardeña y después de atravesar toda Castilla, llegó a Valencia donde ganó la batalla a los moros".

Burgos'en iparraldean gaztelera sortu ba'zan eta euskaldunen artean gaiñera, argi dago Burgos'ko iparralde guztian euskera egiten zala. Noz? Lenengo milla urteetan. Autrogoiak ziran an bizi ziran euskaldunak eta autrigoi guztiak arin galdu eben euskerea, millagarren urtea igarota laster.

Fernan Gonzalez izan zan Gaztelako lenengo kondea eta onek olerki bat idatzi eban gaztelera zarrean eta or itz asko agertzen dira euskeraz dagozenak.

Mio Zid izan zan erderazko lenengo olerkia eta Bibar onen erria euskal-eritrik urrean dago. Apur bat geroago idatzi ziran Berzeo'ren olerkiak, Merter de Cleracia'ren barruan.

Liburu guzti oneitan ugari agertzen dira euskerazko berbak, apur bat aldatuta: Miatxa Ordonio" ez da besterik Mi aita Ordonio baiño, eta minaia agertzen danean ez da besterik "mi anaia" baiño.

Ba-dakigu, gaiñera, Fernan Gonzalez sarritan joaten zala Okoista'ko lekai-deak euskaldunak ziran.

Gogoratu daiguzan Mena'ren ondoren, Villarcayo, Medina de Campo ta Miranda, Burgos'ko iparralde orretan. Guztiak euskaldun izandako erriak.

Baiña begirada bereizi bat zor dautsagu Valpuesta erriari. Erri orretan gotzaiña egon zan millagarren urte inguruan, gizaldi batzuk lenago asita, eta Gotzain orren ardurapean egozan Bizkaitar autrigoiak, Ibaizabal eta Nerbion ibaien ezker-aldian bizi ziran euskaldunak, gaur Enkarterri esaten dautsagun lurralde osoa. Eta beste erri asko.

Balpuesta'n, gaiñera agiritegi aundia dago eta agirien artean agertzen dira euskal izenak eta esaldia, Donemiliane'koak baiñoa zarragoak.

Balpuesta'ren inguruan daukagu Balderejo eta or urrean pasiotarren lekai-de-etxe dan Angosto. Eta ez urrin Añana'ko Gatzaga edo Salinas. Au be erri euskalduna izana.

Beste lurralde aundi ta zabal bat daukagu inguru orretan, Bureba deritxon lurraldea, ori be euskalduna izana.

Ikusi dogu ba zelako zabalerea izan eban euskaldunen lurrak, baiña lurralde guzti orreik galtzen joan jakuz eta askoz txikiago dan Euskalerra bat daukagu gaur: Auñamendi'ren iparraldean Zuberoa, Be-Naparroa, eta Laburdi, eta iru lurralde orreitan 30.000 euskaldun inguru baiño ez. Eta Auñamendi'ren egoaldean Naparroa, Araba, Gipuzkoa ta Bizkaia eta onein barruan, euskera dakienak 600.000 inguru.

Ameriketako inditarrak jazoten jakena jazoten jaku euskaldunai be: Alboetan sakatu egiten dausku eta euskerea mendietan bizi da, inditarrak euren "erreserbetan" bizi diran antzera.

Gaur alegiñak egiten dira euskerea urietara sartzeko eta batua be orretarako egiña dala esaten dabe batzuk. Baiña lortuko da euskerea urietara sartzea? Ez dot uste. Ia berrogei daroaguz Euskerazaleak Alkartean Bilbao euskalduntzea lortzeko. Batzuk ikasi dozu euskerea eta Zorionak!, baiña Bilbao ez da euskaldundu, ez eta euskalduko be. Amabostgarren gizaldian euskalduna zan.

Egia da euskerea ikastoletara, eskoletara, batxiller'era eta Ikastetxe Nagusi'ra sartu dala. Eta geroago ta geiago sartuko, baiña ez ete dau izango or toki eder bat eriotzea artzeko Latiñak izan eban lez?

Dana dala, guk alegiña egin dogu eta egiten dogu, eta ori da balio dauana.

**Olazar'tar Martin'ek**

# ELERTIA

## I ALDIA: IDAZKI ZARRAK

### 1.– IDAZKI ZARRAK

Gure irakurleen jakintzarako eta irakurgai onuragarriak izan dagiezan, gure elerti edo literaturaren edestia, labur-labur, gaurtik aurrera zenbaki batzutan idaztea otu jaku. Geienetan Aita Santi Onaindiaren liburuetatik artuko doguz jakingarriak. Bati ipiñiko dogu idatz-zatitxu bat irakurleak aztertu dagien.

Gaurko lan onetan idazle zarrai begiratuko dautsegu. Eta idazle zarrak diñogunean, 1545n. urtean lenengo liburu irarria agertu baiño lenago idatziak esan gura dogu.

Gure idazle zarrak aberastasun aundia dira elertiaren edestian.

139 olako olerki dakaz Aita Santi'k Milla Olerki Eder bare liburu gogoan-garrian

Sei arlotan moltzotuta datoz olerki guzti oneik:1.-Gerta-olerki zarrak.

2.-Maite leloak.3.-Irri ta negar.4.-Ardo-kantak.5.-Jainkotiak. 6.-Pastoralak. Or sartzen dira baita, Bertsolarien lanak eta eskaleen kantak be.

Gogoratu daiguzan batzuk.

Lelo´ren kanta, Bizkaitar batek 1529n. urtean idatzia. Beotibar´ko gudua, giputzen eta naparren arteko arazoa (1321);Milia Lastur´en kantua, benetan irakurgarria. Perutxo´rena, Menendez Pelaio´k 3n. Zelestina liburuan aurkitua (1536)Alos Torrea...

Baiña idazle zar onein artean aberastasunik aundiena Pastoralak dira. Oneik ez dira besterik Ipar-Euskalerrian erdi-arotik datozen antzerkiak baiño Asko dagoz eta antzerki-arlo orretan Europa´ko abertastasunik aundiena dira. Misterio de Elche´ren tankerakoak dirala esango dogu, baiña arlo zabal baten.

Ona emen Beotibar´ko Gudua´ren zatitxu bat:

- Beotibar´ko zelaiak  
Len illunak gaur alaiak!  
Beotibar´ko arkaitzetan  
Frantzesak gure oiñetan  
Arro asko sartu ziran,  
Umil asko irten ziran,  
Oñaz agintari aundia,  
Zuretzat gure bizia.  
Nora zuaz, Oñaz jauna,  
Frantsez jendearengana?  
Edur maluta ugaria,  
Ugariago etsaia  
Larrean emaztetxuak,  
Begian negar-malkuak,  
Atoz len bai len etxera,  
Bestela oso galdu zera.

Aurrera mutil maiteak,  
Etxera doillorkumeak;  
Il emen edo garaitu.  
-Oñaz jaunak esaten du-  
Zein gelditzen da atzian  
Oñaz ikusita aurrian?  
Zu zera nere nagusi,  
Zurekin il edo bizi.  
Jun dira emendik betiko,  
Ez dira iñoiz etorriko,  
Beti euskaldun mendiak

## II. ALDIA: IPARRALDEKO IDAZLE ZARRAK

### 2.– LENENGO LIBURUA: ETXEPARE

Euskalerrria eta euskerea beti izan dira baztertuak, aldi baten Naparroa izan ezik. Etxepare izan zan lenengoz liburu bat idatzi ebalako arro agertzen jakuna. 1545n. urtea zan eta Linguae Vasconum Primitiae latíñezko izena erorian liburua, ilerki liburua zan, arlo batzutan gaztelera-zko Libro del Buen amor eritxon eta Ita'ko Artzipresteak idatzia zan liburuaren antzekoa gauza batzutan.

Amabost-amasei koplá dira: Erlejiño olerkiak 595 bertso, maitemiñezkoak 403, giltzapean egiñak 102. Kontrapasa ta Sautrela euskerea bera goratzeko egiñak dira eta 59 bertso dira orretarako. Guztiz 1.159 bertso-lerro. Geienak 15 silabakoak dira zortzigarreanean etena daukela.

Zer esan lenengo liburu onen balioari buruz?

Orixe'ren ustez, "Etxepare ez da biotzaldi aundiekiko poeta, baiño bai leguna, itz utsik eztuna, jasoá,"

Mitxelena k' beste au diño: "Naiz erlejiño barrutian naiz bestelakoetan, beti adierazi oi du txit jatorki barruan daraman biotz-eragiña... Errealista duzu».

### SAUTRELA

Heuskara, lauda ezak Garazi'ko erria,  
Zeren handik uken baituk behar duian tornua;  
Lehenago hi baitintzan lengoajeetan azkena,  
Orai aldiz izanen iz orotako lehena.  
Heuskaldunak mundu orotan preziatu ziraden,  
Bana aien lengoajiaz bertze oro burlatzen,  
Zeren ezein skripturan erideiten ezpaizen.  
Orai dute ikasiren nola gauza ona zen.  
Heuskaldun den gizon orok altxa beza buruia,  
ezi huien lengoajia izanen da floria,  
Printze eta jaun andiek, orok haren galdia,  
skribatuz al balute ikasteko desira.  
Desir ura konplitu du Garazi'ko naturak,

Eta haren adiskide orai Bordel´en denak;  
Lehen inprimatzaillea heuskeraren hura da;  
Basko oro obligatu jagoitkoz hargana.  
Etai lelori, bai lelo leloa zarai leloa.  
Heuskara da kanpora eta goazen oro dantzara.  
Ezein iaunek eztu nahi mutil gaixtoa eduki,  
Ez pagatu soldatarik zerbitzatu gaberik.  
langoikoa ari duzu hala hala gureki:  
Gloriarik ez emanen hongi egin gaberik.

Poz aundia agertzen dau Etxepare´k lenengo liburu irarkolaz agertzen dauanean eta poz ori euskaldun guztien biotzetara zabaldu- bearrekoa da, beste elerti batzuren maillara eltzen garalako. Ez dau iñor kikildu bear liburu orren idazlea abadea izateak eta geienez erlejiño-gaia azaltzeak. Orrelantxe jazoten da beste elerti batzutan be. Gogoratu "Mester de Clerecía" gaztele- ran.

Gaiñera gizabideko maitasuna be bere gardentasun eta gordintasun osoan agertzen da.

Euskeraz gitxi idatzi dala esaten da, baiña ori ez oso-osoan egia, bai liburuak baiño lenago erri-elertiak eta bai liburuak agertzen asi ziranetik, ez da ain urria gure elertia

### 3.- BIBLIA EUSKERATZEN:JOANES LEIZARRAGA

Benaparroa´ko Beraskoitz erritxuan jaio zan baiña ez dakigu zein izan zan jaiotzaren eta eriotzearen urtea

Eleiz-gizona izan zan, lenengo katolikuen artean eta gero protestante.

Ez jakon berari otu Biblia euskeratzea, Benaparroan eta Bearne´n erregi- ña zan Juana Albret´ek egin eutson eskari ori. Iru liburu idatzi ebazan: Testa- mentu Barria, Kristiñauen intruktionea eta Kalendrea edo egutegia.

Juana Albret´ek bear-bear ebazan euskerazko liburuak, bere eritxiak gure Euskalerrian zabaltzeko eta, beste alde batetik, ba-eukan euntzutea Leiza- rraga euskalzale ona zala eta Bearne´ra dei egin eutson. Leizarraga´k ondo erantzun eutson eta Juana´k laguntzaille on bat aurkitu eban. Liburu-zalea eta euskerea barru-barrutik ezagutzen ebana.

Ikusi dagigun zelako eritxiak agertzen dabezan elerti-zaleak Leizarraga´ri buruz.

Leizarraga´k nasai darabil euskeraz bere lumea eta atsegiñez irakurten dira bere iru liburuak. Kezka bat agertzen dau berak idazteko jesarten danean: Euskerearen batasuna nai eban eta orretarako alegin aundia egin eta lortu be bai Lapurdiko euskerea eta Naparroa´ko alkartzea. Baiña ez eban izan ezelako ondoren onik beste euskakiai bagira. Ara zer diñon Lino Akesolo´k: "Lizarraga´ren euskerea ez zan, bere aldian bertan, euskaldun guztien batasuna egitekoa eta guztiak ulertzekoa. Berak be ba-zekian ori. Nolabaiteko batasuna egin leikean lapur eta nafartarren artean. Andik kanpo- ra ez ain errez"

Erraldoi bakarra da Leizarraga euskal literaturan, ez dauka ez aurrekorik eta ez ostekorik, Aita Villasante´k diñoskunez.

L.Mitxelena´k be zer bait ba-diñosku berari begira: "Lizarraga´k ederki gaindu zitun, gauzak erabat artzerakoan, aurrean agertu zitzizkion eragoz-

pen ugariak.Ura irakurriaz uste izango genuke, ainbat argibide ezpa-  
genuzka bestera, luzaroko idatzi-lanez legepetua dan izkuntzan idazten  
duela”.

1571n. urtean argitaratu eban Leizarraga´k bere Testamentu Barria.

Bere bizitzako gorabeerak aitatzekotan, ona emen batzuk ia guztiak Biblia  
euskeratuta gerokoak. Aurretik ez daukagu bere barri askorik Braskoitz´en  
jaio zan, baiña ez dakigu zein urtetan eta ez nortzuk izan ziran bere gura-  
soak. Abade katolikua izan zan baiña ez dakigu noiz abade egin zan eta non  
artzain-lana bete eban, euskeratze-lana egiteko Pabe´ra deitu eutsonean,  
Lapurdi´n egoala bai.

Juana Albrit´ek bere katolikutasuna itzi eta kalbindar biurtu zanean, aur-  
kalari asko izan ebazan euskaldunen artean. Makiña bat eriotza, kartzela,  
zigortze eta naigabe izan ziran urte negargarri areitan.

Gure Leizarraga be kalbindar biurtu zan, 1550´tik 1560´ra bitar-  
tean.1964n. urtean egin zan Pabe´n kalbindarren batzarra eta antxe erabagi  
eben Leizarraga´ri dei egitea eta bertaratu zanean Biblia´ren Testamentu  
Barria eta otoitz batzuk euskeratzeko eskaria egin eutsoen.

1565n. urtean maiatzerako amaituta eukan itzulpena eta Oloron´go sino-  
doan lau artzain euskaldun artu ebezan Leizarraga´ren lana zuzentzeko eta  
oneik itzulpena onartu eben, baiña darabilen euskerea ez dala Euskalerra  
guztirako egokia esan eben. Azkenean onartua izan itzulpena eta Leizarraga  
Labastida´ko artzain izendatu eben

1571n. urtean Rotxela´n dago Testamentu Barria irarkolan argitaratzen

1593 eta 1596n. urteetako sinodoetan ez da agertzen Leizarraga Pabe´n,  
ordezkoa bialtzean dau. Or inguruan il zan antza. 1601n. urtean bere orde-  
zkoa izendatu eben.

Naiz eta kalbindarra izan, euskaldunak esker ona agertu bear dautsagu  
gure Leizarraga´ri, Barri Ona gure artean zabaltzeko egin eban lanagaitik eta  
euskerearen alde egin eban ekiñagaitik.

#### 4.– JOANES ETXEBARRI (XVII gizaldia)

Joanes Etxeberri idazlearen eskutik sartzen gara XVII gizaldira eta gizaldi  
onetan euskereak iparraldean izan eban lora-aldia.

Abade zan, Ziburu´n jaioa eta bertan artzain izana 1637n. urtera arte,  
baiña ez dakigu zein urtetan jaio eta zeñetan il zan.

Gizon jakintsua izan zan, maixua edo “doktor”, teologoa.

Iru liburu idatzi ebazan:1) Manual debozinezkoa. Au 1627n. urtean ager-  
tu zan eta Kristo´ren bizitza eta otoitzak dakaz.2) Noelak:1631n. urtean argi-  
taratua da eta lau zati ditu:a)Kristoren aurreko agintzak edo igarleen esa-  
nak.b)19 noel edo gabon-abesti. d)Kristo´ren bizitza amasei kantutan eta

e) Jainkoaren eta santuen omenezko kantak. Loiola´ko Ignazio´ri eskerrak  
emonez amaitzen dau liburua. 3) 1636, Eleizara erabiltzeko liburua

Irurak dira bertsoz egiñak eta gaia beti da Kristo edo Andra Maria edo kris-  
tiñau-bizitzea.

Ikusten da zarra dala bertsoz idazteko oiturea, bai euskeraz eta bai erde-  
retan.Bertsoz ez dagoana ez eben uste elertia zanik, gaiñera orrelan abes-  
teko erreztasuna sortzen da.

Ona zelan diñon berak zergaitik bertsoz idazten dauan:



“Giristinoa, eman diat eskara bertsoan  
katoliko manuala neure asti-ordutan.  
Ikusirik, nola bainaiz iaioztez eskalduna,  
gure nazioa dela koplamaite duena,  
hartarakotz iakiaraz diat bertsoz ezarri:  
lasterrago ikhas eta maizago aiphagarri”

Era askotara egiten dira bertsoak antxiñatik, baiña geien erabiliak zortzi-ko nagusia (1-3-5-7ª amar silabakoak erdian etenagaz eta 2-4-6-8 zortzi silabakoak) eta zortziko txikia (8/7) izan dira.

Berak dana bertsoz idatzi eban, baiña tokiren baten zerbait itz lauz idatzi-ta aurkitu dautsoenak diño obeto idazten dauala itz lauz.. Bere gizaldiko idazleen artean trebeena ta ugariena da.

Garibai´k eta Etxabe´k euskerea jakiñik erderaz idazten dabelako burla egiten dautse:

“Burlatzen naiz Garibaiez,  
bai alaber Etxabez,  
zeñek mintzatzen baitire  
erderazEskaldunez.  
Ezen zirenaz gerotik,  
Eskaldunak hek biak,  
Eskaraz bear zituzten  
Egin bere historiak”

Olako euskal-zaletasuna bear leukee gaur be idazle askok

## 5.– AXULAR (1556-1644): GERO

Piarres Axular (Piarres Agerre Azpilikueta) Lapurdi eta Nafarroa´ren bitartean dan Urdazubi´n jaio zan eta antxe dago gaur be bere jaiote-etxea.

Toki askotan ikasi eta jakituri aundia eskuratu eban eta Tarbe´n egin zan abade.

Sara´n egin eban bere artzain-lana 1600n. urtea ezkerre. 298 sendi ziran orduan saratarrak.

Ainbat urtetan berbaldiak eta oarrak idatzi ebazan ezer argitaratu barik, baiña askok ekin eta ekin egiten eutsoen eta azkenean lanak batu eta liburu eder bat osotu eta 87 urtekoa zala argitaratu eban. “Gero” ipiñi eutson izena, Jaunagana biurtzea gerorako ez dala itzi bear gogoratzeko.

Euskeraz idatzitako liburu guztien artean aiatuena da Gero.633 orrialde dira eta 60 ataletan banatuta dagoz.

Liburuaren gaia pekatariak Jainkoagana biurtzeko emon bear dauzan urratsak dira, asketika gaia.

Euskera atsegiña ta aberatsa dauka liburu onek eta liburuaren eta idazlearen inguruan idazle-talde aundi eta on bat sortu eban. Or daukaguz Sara´ko eskolea osotzen daben Etxeberri, Argaiñaratz, Harizmendi,, Materre, Haranburu, Gazteluzar...

Axular´ek ba-ditu akats batzuk, esaterako “zeren”, “ezen”, “zeiñek” eta ola-koak, latiñetik artuak eta euskerearen izaerea nagikeriz bazterten dabenak. Batez be bere jiskerea latiñari lotua da eta edozein baserritar euskaldunek zuzenduko leuke. Akats au sarritan agertzen da orduko idazleengan.

Manuel Lekuona´k “GERO” liburu oparoa dala diño, bai gaiz eta bai eraz, bai mamiz eta bai azalez.

Eredu eta maixu dogu Axular, egia da, baiña ez dogu artu bear itsurik, akatsak alboratuta baiño.

Gaiari buruz, ez dala berak asmatua esan bear, sasoi aretako idazleak sarritan erabilten eben gaia da. Batzuk ba-diño Fran Luis de Granada´ren “Oración y meditación” liburuaren antz aundia daukala.

Ipuin batek diñoana da Salamanka´n ikasle zala entzun ebala Axular´ek leiza-zulo baten txerrenak irakastaldiak emoten ebazala eta ara joan zala bere jakituri aundia lortzeko eta Txerrenak beraganatu egin nai izan ei eban eta bera eskuratu ez arren bere itzala, gerizea, eskuratu ebala eta orregaitik izan zala Axular itzal gabeko idazlea bere bizitzan. Berak iges egin eutson txerrenari, baiña ez bere gerizeak.

Sara´ko eleizan gomutaki bat ipiñi eutson Luis Luziano Bonaparte´k Axular´eri eta itz oneik irakurri leikez an gaur be:

“Pedro Axular  
euskaldun izkribatzaillietatik  
iztun ederrenari,  
nik,Luis Luziano Bonaparte  
euskerazaleak  
au ipiñi nion.  
Ez dago atsedetik  
eta odei gabe egunik  
zeruetan baizik.1865.

## 6.– AILLANDE OIHENART (1592-1667)

Zubero´tarra dogu idazle au, Maule´n jaioa. Zubero´ko euskerea gatx egiten jaku, Euskalerriaren beste ertzean dagoalako eta, gaiñera, frantzetarren “ü” beti erabilten dabelako.

Bordele´n ikasi ebazan legeak eta tituloa lortu, eta gero ardura aundiak artu ebazan Zuberoa´n.

1627´an ezkondu zan eta Juana Erdoi bere emazteari zuzenduak dira bere maitemiñezko olerkiak.

Donapalau´ra joan bizi izaten ezkondu ta gero, eta erri onetan be ardura aundiak artu ebazan, esaterako Naparroa´ko korteetan eta erriko ziñegotzi lez. Beti erritarren alde jokatu eban.

Liburu eder bi idatzi ebazan. Bata ain aitatua dan “Notitiae utriusque Basconiae” eta “Les proverbes basques” bestea.

Lenengo liburuak latiñez idatzi eban eta Euskalerriaren edesti edo historia osoa da, iru zatitan:a) Antxiñako euskaldunak.b) Naparroa´ko erreiñua.d) Akitania´ko euskaldunak. Gauza jakingarri asko geratu dira galdu barik berrari eskerrak.

Bigarren liburuak izena frantzeraz dauka baiña zati aundi bi daukaz euskeraz a)Atsotitzak edo errefrauak:892 dira eta b)idazlearen gaztaroko bizitza neurtitzetan. Oneik 21 olerki dira

Zelako olerkaria dan? Orixe´k asko goratzen dau eta Etxepare baiño obea dala diño, landuagoa. Geienetan bertso laburrak idazten dauz eta euskera garbian. Joskerea be ona dauka, orduan gitxik lakoa.

Ona emen irakurgai bat, Zubero´ko euskerara urreratuko zaituana:  
 Gauik, egunik, (5)  
 Eztiñat hunik,(5)  
 Hireki ezpaniz Argia: (8)  
 Hireki ezpaniz,(5)  
 Itsu utsa niz, (5)  
 Zeren baithiz en´argia. (8)  
 Hirekil´aldiz  
 Bederat aldiz  
 Bazter lekutan baturik  
 Nonbai banago,  
 Nun botzenago,  
 Ezi Errege gertaturik.  
 Lagun artean  
 Hel nedinean,  
 Elhaketan erhogoan, ez nun dostatzen,  
 Ez nun mintzatzen,  
 Hi beti, beti, aut gogoan.  
 Nik dudan lana,  
 Ezin errana,  
 Zer koeinta dudan higati;  
 En´ixil eta  
 Maiz pentsaketa  
 Egonak, ziotsan nigati.  
 Kadran orratzak  
 Burdin-aitz latzak  
 hunki-eta buztan mehea  
 xuxen, han hara,  
 eguerditara  
 duadukan punta xehea;  
 ni hala hala,  
 tiraz bezela,  
 hik joz geroz bihotzean,  
 hiri gorpitzez,  
 beti,ed´orhitzez  
 narrain, bait´are lotzean.  
 Bana herabe,  
 Stakuru gabe,  
 Dinat, Argia, jitera  
 Hir´etx´irira  
 Leku agerira,  
 Jenten mintz´erazitera.  
 Beraz higanik  
 egin, jadanik,  
 noiz nadikina dakidan  
 jin, eta nura  
 gorde-lekura  
 eta hi ha bat akidan.

### III ALDIA: LARRAMENDITARRAK

#### 7.- MANUEL LARRAMENDI (1690-1766)

XVII gizaldiaren azkenerantza agortu-antzean geratu zan iparraldeko idazle zarren idazkerea eta Aita Larramendi'k sortu eban egoaldeko lorategi ederra.

Larramendi euskal elertian erradoi bat dogu.

Egia esan, ez eban berak asko idatzi euskeraz. Baiña bai erderaz lan ederrak euskereari buruz. Berak sortu eban euskerearen apolojisten aldia. Oneik euskerearen alde idazten dabe, baiña erderaz.

Orduko euskerearen arerioak azpiratzeko artu eban erderazko jokabidea. Gogoratu bide orretan antxiña Emerik Pikaud erromeslariak esana, euskerea izkuntza basatia zala eta geroago Mariana edestilariak esana, euskerea gramatikara ezin sartu leikela izkuntza basatia dalako.

Olakoen aurka jokatu eban Larramendi'k Eziña egiña (Orixe'ren euskeran) edo El imposible vencido agertuz.

...

Andoain'go Garagorri baserrian jaio zan Larramendi eta amaren abizena artu eban. Aita Txomin Garagorri zan.

Bilbao'n sartu zan josulagunen artera 1709n. urtean eta andik urte bira Villagarcia de Campos (Palentzia'k) egin ebazan botoak.

Balladolid eta Salamanka izan ziran bere ikastetxe nagusiak eta euretan ikasi eta irakatsi eban. "Irakasle aundia" esaten eutsoen. Izlari ona be ba-zan.

Izaeraz bizia ta alaia zan, urduria be bai.

Sasoi orretan idatzi ebazan euskerearen arerioen aurka liburu bi:"De la antigüedad y universalidad del Bascuence en España" 1728, eta euskerea gramatikara sartu leikela adierazteko El imposible vencido edo eziña egiña deritxon gramátikea.

Iru urtetan izan zan (1730-1733) Maria Ana Erregiñearen autor-entzule Baiona-ondoan. Urte orreitan idatzi eban "Discurso histórico sobre la antigua famosa Catabria".

1734n. urtean asi eta 1766n.´era arte Loiola'n bizi izan zan lan eta lan. Antxe il be egin zan Aita Kardaberaz alboan ebala..

Emen idatzi eban "Diccionario trilingüe" ospetsua, gazteleraz, latinez eta euskeraz.. 220 orrialdeko sarrera bat dauko.

Era bitako itzak daukoz iztegi orretan, batzuk errian eta liburuetan artuak eta beste asko berak asmatuak, baiña ez dau esaten asmatuak zeintzuk diran

Aurpegira botaten dautsoe berak ez esatea zein euskalkitan artua dan berba bakoitza, baiña berak euskerea batzeko egiten dauala ori diño.

"Corografía" (1882) da bere beste liburu bat. Emen gipuzkoa'ko dantzak aztertzen dauz..298 orrialde dira.

Argitaratu barik dagoz ainbat lan: Teoloji-gaiak, kartak, euskera-erdera iztegia (amaitu bakoa), dantzai buruz beste lan bat, Gipuzkoa'ren edesti laburra, Igokundeko Martin Deunaren bizitzea.

Oneik dira berak euskeraz idatzitako lanak:

-Mendiburu aitari eskutitza.

-Sebastian Gandara'ri eskutitza.

-San Agustin´en gorapena

-Astete´ren doktriña.

-Olerkiak.

Larramendi´ren euskerea be txastatu daizun, ona emen zatitxu bi:

I.-Amarduna, usakume gizen bat bai aldu eutsoenean idatzia:

Baldin ba´da zeruan

Jaten usakumerik,

Ezin lizake oberik

Auxe baiño an ere jan,

Ha zer usaia zeruan!

Hil bat lezake piztu

Ezen ez ni sendatu:

Zer? Uste det aingeruak

Ziradela gosetuak

Usakumez zaletu.

Ona emen beste zatitxu bat Korografiatik artuta Gipuzkoa´kon jauntxoan aurka:

“Zer diozute, ero-putzak, buru-ariñak, zer dirauskizozute? Artzen ba´det aitzurra, ta hori geiegi da, artzen ba´det jorrai txiki bat, bigarren zotalean agertuko dizutet, ez tratalari, ezen, ez nekasari ezen, baita argin, arotz, olagizon, dendari, okin, sagardo-satzaille, ikazkin, zuen etxeetan jaiok, aziak eta biziak. Gipuzkoan izkunde oriek? Eta, alegia, Gaztela´n aditzen zaiotela ta emen ez dakigula odol onaren berri. Ler eztagizutela, merezi badezute ere. Utzi, utzi Gaztelako hizkera txoralda orri: Mairu kutsu, judu kirats, beltz eta billau usai geiegi dabil erri orietan. Oar zaitezte, etxean, Gipuzkoa´n dezutela, iñotara joan gabe, erbestean arkituko ez dezuten garbitasuna. Eta au onela dala, obe dezute alaba txukun hori ezkondu emengo tratalari aberats batekin, ezen ez Gaztelako eta ez besteetako aize, zagi, galbardun askorekin. Ez ni salatu, ta orain agur”

Zati au bai apolojista edo aldelarien eredu!

## 8.— SEBASTIAN MENDIBURU (1708-1782)

Oiartzuarra dogu baiña amazapi urtekoa zala sartu zan Jesus´en Lagun-dira eta eleiz-ikasketak amaitu ebazenean Iruña´ra bialdu eben eta antxe emon eban bizitza osoa, gramatika, filosofia ta teolojia irakasten.

Bere barruak errietako misiolari-lana betetzea eskatzen eutson eta Naparroa´ko erri guztietan ibilli zan orretan

Iru liburu mardul osotu ebazan euskeraz: 1) Jesus´en biotzaren deboziñoa: 387 orrialde eta or barruan dator Larramendi´k egin eutson eskutitza. 2) Otoitz-gaiak: 88 gogarte dira eta atsegiñez irakurten da.

3) Euskaldun onaren biziera: Jesus´en biotzaren klofradikoen araudia da baiña ba-ditu olerki batzuk be. Gero dator bat.

Orixe´k diñoanez: “ Euskal idazlerik oberena au uste dute zenbaitek eta Kikero euskalduna izena ipiñi diote. Axular´en ondo-ondoan behintzat tokia merezi du. Euskera garbiagoa du oiartzuar (onek) Urdazubitarrak baiño, ez orde ugariagoa”

Ona emen zatitxu bi aztertu dagizuzan. Lenengoa Euskaldun onaren bizitza liburutik artutako Aita San Ignazio´ri olerkia:

Ba-dakizu, San Inazio,  
Etsai anitz dogula,  
Guztiekin peleara  
Noiz-nai aterako gera,  
Zeu ba zatoz gugana.  
Izan zihan zu Loiola'n  
Ez bein, bitan jaioa:  
Bein soldadu mundurako,  
Urrengoan zerurako;  
Len eta gero Euskalduna.  
Non da gerra, non da etsaia  
Zu izutu zinduen?  
Armak, lantzak, suak, garrak,  
Etsai guztien indarrak  
zure kontra zer dira?

Bigarrena itz lauz dator, au Otoitz-gaiak liburutik artua:

"Ez dator nola-nai, ez, bere aldarera, ta gero, gu komuniatzen garanetan, gure baitara gure Jesus maitagarria; bere irabazi edo merezimendu ta ondasun guzi-guziekin dator batera ta bestera; guzi-guziak dakarski, andik eman-naiez urbiltzen zaizkan guziei, oriek aldian artu ar-ala.

Anitz dira ta andiak, bai segurki, gure Jesus'en irabaziak eta merezimentuan"

## 9.- AGUSTIN KARDABERAZ (1703-1770)

Nortasun aundiko ernaniarra dogu au. Batez be bere berba oneik dira kontuan artu diranak:"Euskerak burua jazotzea Jainkoak nai du".

Orregaitik izan zan Gasteiz'ko Seminarioan, guda-aurrean sortu eben bazkun baten zaindari. Oraintsuago talde orrek jarraitu eban Tolosa'n eta ortik sortu zan Euskerazaintza Erri-Akademia.

Josulaguna eta gorengo mistikua, sermolari bikaiña eta idazle aberatsa izan zan.

Larramendi'k erderaz egin ebana, onek euskeraz egin eban eta aldelari edo apolojisten artekoa dogu.

Jesus'en Biotzari eutson oneraspen aundia eta beronek egin eban Bilbao'ko San Anton'en gai oneri buruz erdi-ugarte onetan egin zan lenengo itzaldia (1733).

Loiola'n bizi izan zan bizitza osoan eta errietan Gipuzkoa osoan egin eban misiolari-lana, baiña III Karlos Erregeak josulagunak erbesteratu ebazenean (1770) Bolonia'ra joan bear izan eban eta il be antxe il zan.

15 liburu idatzi ebazan euskeraz, esaterako "Kristiñauen bizitza" (1744) eta "Euskeraren barri onak" (1761). Azkenengo au da garrantzitsuena eta euskeraz idazteko arauak dira. Emen dator esan dogun esaldi ospetsua.

Eritxiak:P.Lafitte'k auxe diño: "Hil zen saindu bat bezala, goxo goxoa eta geroztik Dohatsuen Ierroan ezarri du Eliza Ama Sainduak

Manuel Lekuona'k beste au: "Gauza bat aitortu bear degu, Aita Kardaberaz'en liburuai etzaiela orain arte, gure artean, bear bezelako ixtimaxiorik ekarri, erabilten duen lexikoan erdal-itz askotxo ditualako nunbait. Baiña egia esan, ori gorabera, Aita ernaniarraren prosa oparoari mami bioztun eta ixuri ederra aitortu bearra daukagu: mami bioztun eta ixuri leun."

Ona emen irakurleak aztertu dagizan idatz-zati bi:

1) "Gure baserrietan jende prestuak dirauten artean, euskerak iraungo du. Esan oi dena: oiei lepoa ebagi eta bizia kendu gabe, euskera ezin utzi edo kendu daiteke"

2) "Noiz eta nondik edo nola gure euskera onontz etorri zan, nork daki? zerutik, edo Jaungoikoagandik, gizozin asmazio gabe, orien gaiñeko gauza bezala etorri zala, euskerak berak bere era eder eta armonia pare gabean, ondo seguru esaten edo adierazten du. Beste izkunde edo lengoajeak, nork daki nastu eta batera ta bestera nola ibilli diran: Euskera, Jainkoak naita, mendiarzte oietan beti nasgabe, beti garbi, beti seguru beregan gorde izandu da..."

## 10.– PEDRO ANTONIO AÑIBARRO (1748-1830)

Arratiarra dogu Añibarro, Areatza-Billaro'n jaioa.

Bilbao'n artu eba San Frantzisko'ren jantzia eta eleiz-ikasketak amaitu ebazanean, ainbat lekaidetxetan izan zan nagusi, baiña 1790n. urtean Zarautz'era joan zan, Misiolari Ikastetxera, eta antxe bizi izan zan 40 urtean.

1794n. urtean eta geroago, Frantzia ta España'ren arteko burrukak zirala ta gorriak ikusi bear izan ebazan.

Zarautz'en egon zan aldian lan eder asko idatzi ebazan bere lumea bizkor eta trebe erabilliaz, euskeraz naiz erderaz, erriz-erri misiolari-lana egin eban; zazpi liburu idatzi ebazan euskeraz eta erderaz eta idatzien artean ezagunena "Gramatika Baskongada" da, ona, batez be aditza aztertzen dau, naiz Bizkai'koa naiz Gipuzkoa'koa naiz naparrerazkoa.

Ona emen idatz-zatitxu bat:

"Sinistu eidazue, neure maiteak, Jesusegan, eze irekaste au gorde ezik, il-otzituak urtengo dabela zuen berotasunik ixetuenak. Zer bada? Jausi zan Salomon, jausi zan Dabib, jausi zan Sanson, jausi zan San Pedro pelligruzko okasiñoan ifinirik; bada gu argalok zelan jausi ta laprast egingo ez dogu bekatuan gatx-bide ta ondamendi deungetatik alde egin ezik?"

Alperrik negar egingo dozue; utsak izango dira oraziño ta libru santuen irakurtzak; igartuak urtengo dabe zuen egitekorik onenak, ta ezтира prestu zuen propositurik sendoenak, okasiño bekatutsuetatik urrinduten etzareen artean; lagun txarretatik iges egiten eztozuen bitartean"

Ainbat urte dirala parroko garizuma-berbaldietan entzuten genduzan itzaldiak dakarskuez gogora olako idatz-zatiak. Eta euskera-arloan irakurri doguz idazle obeak.

## 11.– JUAN ANTONIO MOGEL(1745-1804)

Mogeldarren artean ezagunena dogun Juan Antonio au Eibar'en jaioa dogu. Abadea izan zan eta 1770n. urtean Markiña'n egoan abade eta antxe il zan gaisoa begiratzen ebillala kutsututa. Izan be oso seerbitzaillea zan.

Bost liburu idatzi ebazan euskeraz, baiña Peru Abarka deritxona da ezagunena. Auxe dala esan geinke euskeraz idatzitako lenengo elebarria edo nobelea (1881). 240 orrialde dira. Ez da ba luze-luzea baiña bai irakurteko atsegia.

Ona emen liburu onen gaia:Norki bi agertzen dira alkar-izketan, bakoitxak bere kultura daroala: Maixu Juan osagillea-edo da eta euskeraz txarto egiten dau jakituna izan arren eta Peru baserritarra da, baiña baserriko Ikastetxe Nagusian ondo ikasi dau euskerea.

Elebarriaren barruan liñuaren lana azaltzen da eta jakintza-arlo orretan egoan iztegia ikasteko oso egokia da. Gero olako itz egoki asko galdu egin dira.

Irakurleak ardura apur bat artu bear dau Mogel´en akats bat beragandu ez dagian. Mogel´ek bere aldiko beste askoren antzera, joskera oso txarra dauko: Latiñaren joskereagaz josten dau euskerea.

Ona emen elebarri onen zati bat, naikoa luzea, irakurleak irakurri eta aztertu dagian.

## PERU ABARKA´REN ETXALDEA

Peru´k bere etxaldera daroa Maisu Juan, eta ango zer guztiak erakusten dautsoz.

-Zurturik geratuko dira nire umeak zu zakusezanean, etorri ez oi dalako ona zu baizen gizon apaindurik;igesko dabe zokondoetara kuiak legez.

M.J.-Peru,atea jo baiña lenago esaidazu, arren, zer da kuia?

P.-Zuek konejoa esaten deutzazuna; ta esaten jako kuia kuika edo kukuis-ka legez dabiltzalako, emen urten, an sartu, buruak orain agertu ta gero ezkutetan.

M.J.-Peru, txakur zaunkea da, ta aundiarena. Oratuten badeust?

P.- Ez bildur izan: bakarrik etorri banintz, ezaban zaunka aserre usaiñeko-rik egingo ta bai urten bidera pozkariatz ailleari eragin ta parlantzuan neugaz ibilteko; egingo zituan pozezko intziriak. Etzaitu usigituko neugaz zakusazanean, igarriko deutzulako zatozela bake, ta ez ezer eroatera. Txakurrari dagoka zaunka egitea, ta etxeur ta inguruan ibiltea.

Ogi puzka bategaiti, zelango oniritxi ta asko-gurea artuten ezteutsa bere ugazabari? Makillaka banatuarren ugazabak, intziri illetazkoak egingo ditu, ez baiña jarki eta agiñik erakutsi. To to bat esan orduko entzuten dau ta igarten dau ardi, auntz, idi edo beiren bat dabillega soloan, ta ateraten ditu arin onean. Urtik esaten bajako, alde egingo dau maiaren alboti, goserik andiena badauka bere; alperrik izango da gosesto salobrea.

Ipiñi gura zaitut gauza askoren jakitun, etxean sartu orduko, daukat Jaungoikoak emanda, emazte otzan, baketsu, euli bati bere gatxik egingo eleuskiona. Asten ditu umeak lotsa onean, mankau бага, ondo esanaz ta Jaungoikoaren bildurra irakatsiaz. Zorionez umeak eurak bere esaneakoak dira, jatrorriz legez; eztakie erremuskada, bekoki illun, ta mustur-astinketarik egiten.

Eztozu entzungo nire etxean biraorik, ez baraila, ospe astralaka, ta iskibidurik, bai berba onak Eleizako gauzak ta bake betikoa.

Daukadaz seme bi ta beste ainbeste alaba. Gari ta artoak daukadaz giltz бага ganbara zabalean; bada daukadazan otseñak bere, azi ditugu geure umeak bagenduz legez, alkar maite dogula. Iñoren basori orri bat kenduten etxako, bai zaindu ondo geureak.

Orregaitiño Jaungoikoak emoten dausku gauzea ugari; topiñ ona beti izaten da; ilten dogu lauoiñeko gizena, idi lodi zezin ederra dabena. Euren denporetan izaten da jan al baiña geiango kastaiña ta sagar. Urte guztian, esate-



rako, daukagu eznea ta aurreratuten ditugu diruak lagunduteko gero umeai, aututen dabeen bizieran. (Peru Abarka,irugarren autua).

## **12.– ASTARLOA: Pedro Jose (1751-1821) Paulo Pedro (1752-1806) (ANAIK)**

Ona emen Durango´n jaiotako anai idazle bi, biak Markiña´n aziak. Franziskotarrak biak.

Pedro Jose´k Bilbao´n artu eban fraille-jantzia eta mezea esan ondoren, ordena-barruan filosofia ta teolojia irakatsi ebazan. Il be Bilbao´n il zan.

Paulo Pedro´k Durango´n egin ebazan lenengo ikasketak eta gero Gas-teiz´en. Liburu-zalea izan zan gaztetatik eta Abade egin zan ezkerko Duran-go´ko Tabira´n bizi izan zan Errosario´ko kofradia´ren kapellau lez.

...

Pedro Jose´k domeketako berbaldiak liburua idatzi eban ale bitan eta ondo bideratzen dau kristiñau on baten bizitzea eta ardura aundiagoa artzen dau irakatsi ona emoteko, ederto berba egiteko baiño.

...

Paulo Pedro´k Tabira´n eskuratu ebazan euskerea eta beste izkuntza batzuk, esaterako latiña,grekoa, ebreoa, arabea eta Ameriketako batzuk eta ortik atera eban euskerea dala izkuntzarik ederrena.

Au be aldelari edo apolojisten taldera sartuta daukagu eta bere liburuak euskerea goratzeko idatziak dira, baiña aldelarien oitura zan lez, erderaz ida-tziak. Euskeraz gitxi idatzi eban, baiña itzen jatorria billatzeko bera dogu gaur be maisurik onena.

Ona emen Pedro Jose´ren ataltxu bat aztertzeko:

“Sarri ikusten dira gizon eta emakume guztiz santu dirudijenak. Egunian egunian errosariua errezau eta meza entzuten dabe, sarri konfesadu edo komulgadu, beti errezetan eta al daien guztian elexara; pekatuben geriziak bildurtuten dituz, eta nozbait pekatuan jausten ba´dira, eztauke atsegiñik konfesadu artian, eta uste leiteke artez doazela zerura”.

Eta Sabino Arana´k Paulo Padro´ri egin eutsan

### **“Euzkel-olerkija”**

Kikilduten da zeure aurrian  
Neu-bekokija,  
Dakusalako adi zeurian  
Euzkel-euzkija.  
Artezkarija zu ixaten zintzan  
Zu ipar-ixarra...  
Il izan zara!...Illundu gintzan  
Zu igota gora.  
Euzkelzalerik oindiño ordutik  
Ari dira asko...  
Best-ASTARLOA bat amagandik  
Ezta jayoko.

### 13.– BARTOLOME OLAETXEA(...1763...)

Bartolome Olaetxea Mungia´ko auzoa dan Laukariz´ko parrokoa izan zan eta erriari egiten eutsozan azalpenak eleizarako liburu baten argitaratzea otu jakon eta liburu eder bat, gero sarritan argitaratua, idatzi eban.

Idazle oneri maitetasun bereizia dauzat eta oneixek dira zioak: Neu be Laukarizko parroko izan nazelako, berak idatzi eban liburua nire amak eleizara eroten ebalako eta “olatxea” esaten eutson, eta liburu orretantxe zazpi-bat urtekoa nintzala, lenengo euskerea irakurri nebalako, naiz oso gitxi.

Ara zer diñoan Mikel Zarate´k:”1775n. urtean lenengoz argitaratu zanetik ona, amalau aldiz gitxienez argitaratu dan liburua, gure erriak gizaldiz gizaldi, oraintsura arte irakurri dauan eleiz-liburu entzutetsua”.

Egia diño Mikel´ek:Gure baserrietako andratxuak “olatxea” eroaten eben eleizara, errosarioagaz eta matilleagaz batera. Nire amak gitxi ekian irakurten, baiña olatxea eroaten eban.

Liburu onen idazpurua “Cristiñauben dotriña” da eta 1763n. urtean argitaratu zan lenengoz

Izena “dotriña” daroa baiña beste gauza asko daukaz barruan: Eguneroko otoitzak, meza denporan irakurteko gogarteak irudiz apainduta,garizumea zertarako dan, Kristo´ren nekaldia, gurutz-bidea, errosarioaren ezkutukiak irakurgaiakaz, oneik bertsotan, ondo ilten laguntzeko era luzea, mezea erasoteko erea ta abar.

Begitu zer diñon Lafitte iparraldeko azterlariak bere Loretegian:”Haren eskuara ez da segur hanbatekoa”.

Euskera ona dauka Olaetxea´k, gozoa ta ederra, garbia be bai, orduko erderakadak eta joskerata txarra alboratuta. Azkenengo au ez beti.

Ona emen zelan goresten dauan mezearen balioa:

“Meza emoten dan artean dagoz zeruak zabalik: Dabiltz joan ta etorri geure eskariakaz Aingeruak. Baia zer diñot? Jangoikoa bera jatorku mezara: zerutar guztien laguntzan jasten da Jesukristo, barriro aragitu eta iltera legez, diño San Agustinek. Orregaiti bada, ondo antzunak izan doaz gure eskabi-deak: parkatu joakuz pekatu ariñak: eransten jakuz Jesukristo´ren irabazi andi neurribakoak, eta emon joakez ondo dantzuena gorputzerako ta arimarako ondasun ugari ezin obeak. –Ai bada! Balekije fedeunak, zer dan mezea, eta zenbat irabazten dan meza bakartxu bat entzuteagaz! Eguna bagarik egongo litekez Eleixateetan mez-emollearen begira: aztu egingo lekijoe barausten: eta gox guztia emongo leuke elexan, urten bere bagarik”

Olerkaria be ba-zan Olaetxea. Liburu onetan ainbat olerki datoz, esaterako auxe liburuaren asieran:

Gixian esnatuta  
aurrenengo lana  
biotza jasotia  
zeure Jaunagana.

Eta gurutz-bidea 6/5 ´eko amalau aapaldi dira. Erosarioaren 15 ezkutukiak be zortziko nagusietan egiñak dira, ederto landuta.

Bereak ba´dira bertso guzti oneik, ba-ekian Olaetxea´k bertsotan be.

#### 14.– PRAI BARTOLOME (1768-1836)

Etxebarri´n jaioa da Prai Bartolome (Madariaga).

Lazkao´n, Korella´n eta Iruña´n egin ebazan eleiz-ikasketak.

Gero bere bizitza osoan, Markiña´n bizi zala, erri-misiolaria izan zan.

Napoleon asita politika gorabeerak garrastu eben bere bizitzea. 1808n. urtean Markiña´ko lekaide-etxean nagusi zala, ara ta ona erabili eben eta geroago, Riego´ren nastean, estu artu eben. LAZKAO´N IL ZAN.Ç

Orixe´k “nire idazle zar kutuna” esaten eutson maitasunez.

Lau liburu idatzi ebazan, oso irakurgarriak:1) Errietako olgetak.

2) Lenengo bost aginduak. 3)azkenengo bost aginduak. 4) Eleizako zazpi sakramentuak (36 itzaldi).

Orduko oitura zan lez, Prai Bartolome´k gordin eta garratz salatzen dauz, bere ustez txarrak ziran aldi aretako oiturak, batez be Errietako olgetak eta dantzak izenan daroan liburuan.

Ez da garbizaleegia eta ez mordoillo.

Ona emen aztertzeo idatz.zatitxu bat:

#### GURE ARIMIA

“Egia esateko, arimiaren gainian zorakeria asko erakutsi edo esan ditue gizonak. Zeruko argia bagarik ta Jaungoikoaren laguntzauna bagarik geure arimen gainian berba egin dabenak, jausi dira uts-egite andi ta askotan

Baina Eleiza Ama Santiaren erakutsiari ta Jaungoikuaren deiari gogoz eta gustz jarraitu dautsenak, bide illunetan bere ez dabe utsik egin. Arimiaren ganian bere Eleiza Ama Santiari ta Jaungoikuari berari entzun biar dautsagu bada, neure kristiñauak”

#### 15.– ETXAUN (Pierre Topet) (1786-1862)

Asieran Iparraldean idazlerik ospetsuenak aurkitu doguz: Etxepare, Leiza-rraga, Joanes Etxebarri, Axular, Aillande Oihenart. Gero Larramandi´ren eragiñaz egoaldera etorri jakun elertia.

Baiña aldi onetan be Etxaun Zubero´tarra daukagu, Barkoxe´n jaioa..

Zori txarrekoa izan zan bizitza osoan: Aitak etxetik kanpora bialdu eban bere antzik ez eukalako:

Ene persegitzien hatsarria zer zen,

Egia den bezala deiziet erranen;

Aita batek zian ogen hau bere haurraren

Haren egiterik gabe amak nündila sortü ükhen.

Ezpenintzeon aski jiten zeiztan primajen.

Bere emazteak giltzapetuta euki eban illebeta bitan eta gero sarritan espe-txean lo egin bear izan eban, bere emaztea beste maitale bategaz ebillan artean, baiña Etxaun´ek espetxetik urten ebanean zizpagaz itxaron eutson etxera bidean maitaleari, eta ezjakiñean beste mutil gazte bat il eban.

Hogei eta bi urthik bethe egünin,

Emazte bat artu nin ene zorigaitzin:

Erraiten ahal beitüt zereki zeitan jin,

Ene ürkha büllhürra gorderik altzopin.  
Ez eukan etxera biurtzerik eta erromes asi zan Erroma´ra, Konpostela´r eta Loreto´ra.

Ona zelan diñozan berak erromes-aldiak:  
Izan nüzü Jondane Jaka´n Erruma´n eta Loreta´n,  
Bethi jente hunen medioz, biz´izan niz ene bidajitan.  
Orai ere abiatzen beniz leheneko gisatan,  
Jinko jauna,lagünt nezazü ene behar-ordietan.

Bizitza garratz eta iñoz odoltsu onek biurtu eban Etxaun olerkari trebe eta erromes-bidetatik biurtu zanean, etxean artu eben eta zizailluan, erromesen burusaren barruan sartuta emon eban azken arnasa. Barkoxe´n il zan eta antxe dago illobiratuta.

Bizitzako zori txarretan olerki onak egin ebazan eta azkenengo urteetan jai-aldirik geienetara deitzen eutsoen bertsoak egiteko.

Sentikorra zan eta sentipen orregaz apain jazten eban edozer.

Ez eban libururik argitaratu, baiña il zanean kuadernoetan itzi euskuzan bertso asko. Batzuk bere senideak erre egin ebezan, baiña ba-daukagu koplak aundi bat, berak itzita.

Orixe´k Euskalerriko Verlain dogula diño.

Eta Jon Etxaide´k:"Etxaun olerkari be izan gendun eta ez nolanaikoa".

Ona emen bere zatitxu bat. Zuberoko euskerea irakurle askorentzat uler-gatxa dalako, alboan erderea ipiñiko dogu:

OFIZIALENAK/ cosas de oficiales

Oi laborari gaxua!/Pobre labrador!

Ihauk jaten dük artua;/ Tú comes el pan de maiz.

Ogi eta ardu eraikitzen, auherren asetzekua:/Sacas pan y vino para alimentar al debil.

Halare hañ haie maite, un artzaiñak otsua/te quienen tanto como el pastor al lobo.

Artzaiña ba´da beztitzen, /Cuando el pastor se viste

Josler deia gomendatzen/ Al sastre le encomiendan

Zaragollen gibel aldia oial obez egin dezen /que haga con mejor tela la parte trasera de los calzones.

Halare higatüren dila aitzinia beno lehen /Con todo se gastará antes que la delantera.

Dendarik berant agertzen/aparecen tarde los tenderos

Arratsen goizik ützültzen/ vuelven pronto a la tarde.

Eta mundiaren jorratzen arte hartan abüsutzen/ Entretanto escardando el mundo se entretienen.

Ezpeite jaten diena hüllantzeko irabazten/ No ganan para comer ellos.

Egun ürüliak oro / Todos los días pasados.

Idorrian naiago/ los prefieren en sequía.

Hanix lan agertü beharrez, hari oro txori-lepo;/Al aparecer mucho trabajo todo hilo es desigual.

Hallikatzen balin ba´duzu, zehian lau oropilo./ si le exasperas cuatro nudos en cada hilo.

Ehülia hari galto:/Si al tejedor le preguntas

Ukenik ere han franko,/aun teniendo abundante

Undar harien ebatsi naiz,oihalüzten zerratzeko/ Queriendo coger el resto de los hilos y dejar sin cerrar la tela.

Hariak gaxto zütiala fornisalari erraiteko/Para decir al proveedor que los hilos eran malos

Ez da gauza erreza nekasarien eta liñularien arazo oneik ondo ulertzea.!

## 16.– JUAN BAUTISTA ELIZANBURU (1828-1891)

Sara´ko semea da eta buru argiko ikaslea. Frantze´ko gudarien kapitai izan zan baiña Napoleon azpiratua izan zanean, Sara´n geratu zan bizi izaten eta euskaltzaleakaz artu-emonetan.

Ez zan izan idazle ugaria, baiña berak idatzitako olerkiak ederrak eta oso ezagunak doguz. Piarres Adame elebarria be berea dau.

21 olerki daukaguz bereak eta guztiak ondo landuak.

Etxaide´k auxe diño:”Elizanburu´k itz neurtuetan ez-ezik itz lauz ere landu zun gure euskera eta idazle zarretan –berrialdi atarian ba´da ere- au dogu ezpairik gabe, bai bertso eta bai prosari erri-mintzairaren kutsurik gabe gar-bikeria erantxi diona”.

Ona emen zatituxu bat:

Urrundik ikusten dut, ikusten mendia;

beraren gibelean baitut nik herria;

jadanik dut aditzen, zorion aundia!

Ezkila maitearen hasperen ezta.

## 17.– PEDRO IGNAZIO BARRUTIA (1682-1759)

Aramaio´n jaioa, baiña ezkondu zan ezker bere bizitzea Arrasate´n igaro eban eta antxe egin eban eskribau-lana edo notaritza.

Idazle au ospetsua egin dauana, beronen antzerkia da, euskeraz lenengo antzerkia, egoaldean beintzat. Misterio de Navidad ipiñi eutson berak izena, baiña arrezkero aspaldion esaten jako “Gabon-gabeko ikusikizuna”.

Antzerki txiki bat da, ondo antolatua. Ba-dau gatzta ta giarra..

Azkue´k argitaratu eban lenengoz: Azkue´k ba-zekian naiz euskera-alde-tik naiz antzerki-alde-tik zer zeukan esku-artean:”Erderazko gauza asko eta erderakadak geiago euki-arren, guztia agertu nai izan dogu orain, ia 200 urte egin eban erara” diño Azkue´k.

Pastoralen, Noelen eta Marijesen bidetik doan antzerkia da.

Emeretzi atal aurkitu eutsozan G. Aresti´k, gabonetako jazokizun gutiak azaltzeko.

Ona emen zatitxu bat:

Gaur dala gabon gaua, gaur dala gabon

Gaur egiten jaku Jangoikoa gizon

Os begi danboliñak, lutua ken bidi

Fiesta degiogun infante oni

Zerureanik dator gure artera

Erratuai bidia erakustera.

## 18.– FELIPE ARRESE BEITIA (1841-1909)

Biotz sutsuko olerkaria izan zan eta aren garra oraindiño ez da illundu, diño L.Mitxelena ´k.

Otxandiotarra dogu eta gasteiz´en ikasi eban marrazkilaritza edo “dibujo” eta ortik sortu jakon santugin izateko lerea. Bizkai´ko eleiza askotan dagoz Arrese´k egindako santuak.

Gaiñera auzokoen laguntzaillea zan eta bere etxera joaten ziran asko aolku-billa.

Bere olerkiak apur bat negartiak dira, karlostarren gudetan foruak galdu genduzala gogoratzen daualako.

Ona emen zatitxu bat:

Neure biotzeko amatxu zarra,  
antxiñako ama euskera,  
seme leial bat orain datortsu  
azken-agurra emotera;  
ainbeste gerra goitu ezinda  
danori atsotu zara,  
zaurien zauriz galdu galduta,  
amatxo, zoaz iltera.

Eta beste bat:

Nun dira bada zure semiak (10)  
Foru ta euskera zaliak? (8)  
Nun dira, bada, Tubal, gure aita(10)  
Zure ondorengo garbiak?(8)  
Nun dira bada zure ume zintzo (10)  
eta leialen legiak?(8)  
Nun dira orain, orain negarrak(10)  
Nun dira nire begiak? (8)

## 19.– JOSE MANUEL ETXEITA (1842-1915)

Mundaka´n jaio ta il zan, baiña erbestean asko ibilli-ondoren.

Bilbao´n Nautika ikasi eban.

Manila´n alkate izatera eldu zan eta an bizi izan zan luzaro eta andik biurtuta, azkenengo urteak Mundaka´n igaro ebazan.

Iru liburu dira bereak: 1) Josetxo (elebarria,68 orrialde).2) Jaioterri maitia.

3) Au ori ta bestea, (neurtitzak dira, beste liburuetan agertuak.)

Josetxo da guztiak irakurri-bearrekoa.

Irakurri egizu aztertze

## ARTZAIN ABESTIA

Egunabarraz itzartzen gara,  
mendiratzeko ardiak,  
ikusgarriko artaldiakaz  
beteten doguz mendiak.  
Ortik-emendik joten dituguz  
alboka-soiñu zoliak,  
Olantxe beti izan oi dira  
Artzaiñen zorakeriak

## IV. ALDIA: BARRIKUNTZA: AZKUE TA ARANA

### 20.– RESURRECCION MARIA DE AZKUE (1864-1951)

#### ALDI BARRI BAT

Kontuan artu daiguzan gure elertiaren aldiak, idazle bakoitza non ezarri jakiteko.

Orain artean ikusi doguz 1) Idazki zarren aldia.2) Iparraldeko lenengo liburu idazleak. 3) Larramendi´ren ondorengoak.

Orain gure elertiaren zati bi ikusiko doguz: Euskerearen barrialdia (Azkue ta Arana) eta 5) Batu-Berri eta Erribide´ren aldia.

...

Euskal idazle guztien artean goragarriena dogu Azkue.. Ulertu-eziñeko gauzea da zenbat arlotan eta zelako lan aundia egin eban gure Azkue´k, Euskaltzaindiaren buru izateak emon eutson lana alde batera itzita.

Bere iztegia da naikoa lan, bizitza guztirako gizon batentzat.

Lekeitio´n jaio zan. Gaztetan sumatu eban eleiz-deia eta lenengo Gas-teiz´en, gero Salamanka´n osotu ebazan ikasketak eta 1888n. urtean dogu abade. Andik iru urtera lortu eban teolojian maisu edo dotore-mailla. Gero Kolonia´n ikasi eban musikea.

Beronek atera eban Arana´tar Sabin´egaz batera gure euskerea beronen illobitik.

Azkue´ren idaz-lanak iru arlotan banatuko doguz:1( Euskalari.2) Musikalari. 3) Idazle.

#### 1.– Azkue euskalari:

1.1. Izkindia edo gramatika,401 orrialde. 1.2:El euskera.1.3:Diccionario español- francés (561 orrialde).1.4.Prontuario.1.5.: Diccionario de bolsillo.1.6:Morfologia baska (930 orrialde).1.7:Gipuzkoera osotua (184 orrialde).

## 2.– Azkue musikolari:

2.1. Euskerazko eresiak.2.2:Eleizarako eresiak.2.3:Zarzuetak (Vizkai´tik Bizkai´ra, Sasi-eskola, Aitareen bildur, Gainzaleko eiztaria, Eguzkia nora,eta abar). 2.4:Iru oratorio..2.5.:Ortzuri (opera).2.6:Urlo (opera).2.7:Cancionero vasco popular (12 ale).

## 3.– Azkue idazle:

3.1:Txirristadak (274 orrialde).3.2:Bein beti ( elezarra).3.3:Jesus´en biotzaren illea.3.4:Ardi galdua (elebarria, gipuzkoeraz).3.5:Itzaldiak.3.6: Lamiñak Euskalerrian. 3.7:Euskalerrriaren jakintza (lau liburu aundi). 3.8:Ipuiñak (248 orrialde).3.9:Ortzuri (elebarria argitaratu gabea).3.10:Latsibi (au be elebarri argitaratu bagea).

## 21.– ARANA TA GOIRI´TAR SABIN (1865-1903)

Azkue´gaz batera dogu euskerearen barriztatzaille.Fonetika edo abotsak Azkue´gandik artu doguz (alabea, ez alabia=Sabin), baiña idazkerea edo ortografia Sabin´en da geiago, urrezko arau au onartuta: Abots bakoitxari ikur bat; “erre” gangarduna ta “ele” marraduna ipiñi ebazan berak, baiña idazkin eta irarkoletako arazoakaitik orrein orde “rr” ta “ll” artu dira. Baiña ts,tz,tx onartzen ditu Sabin´ek, ez ostera Azkue´k.

Sabin´ek idazkera edo ortografia Euskaltzaindiak onartu eban 1920n. urtean.

...

Sabin Abando´n jaio zan, gaur Bilbao dan errian. Eta zortzi urtekoa zala Lapurdi´ko Getari´ra eroan eben eta an egin ebazan lenengo ikasketak.

Orduña´n etaartzelona´n ikasi ebazan filosofia, legedia ta elertia.

Etxeokandik ez eban euskerarik ikasi, euskaldun barria dogu, baiña ikasketa aldi orretan ikasi eban Van Eys´en Dctionaire basque français´egaz eta Arturo Kanpion´en “Cuatro dialectos del euskera “ liburutik.

Euskal politika izan zan bere ardura nagusia eta 1887n. urtean, ama il jakonean, ( aita lenago il jakon), Bilbao´ra etorri ziran bizi izaten.

Lan ikaragarria egin eban lumaz eta berbaz, aldizkariak eta egunerokoak sortzen eta zabaltzen, euskeraz eta gasteleraz. Sukarrieta´n il zan.

Borondate sendokoa zan eta adimenez oso argia.

Euskeran itzen jatorriak edo etimolojiak, gramatikea eta eskola-liburuak ebazan maite, baita elederra ta musikea be.

Amabi idaz-lan dira ezagunenak eta oneitan ondoen aztertutako gaiak etimolojiak,gramatikea eta politika-arazo guztiak, gaiñera ortografia, egutegia, eta aldizkariak, Olerkiak be egin ebazan. Bere lan guztiak ale aundi baten argitaratu dira Ekin´en Arjentiña´n.

Sabin´ek Larrazabal Baserrian ( Begoña´n) egin eban itzaldiak gure edesia zati bitan banatzen dau

Batzuk endakeri-zalea (racista) dala diño e baiña ori diñoenak “Santiago matamoros dabe zaindari eta urrillaren 12n. egunean “dia de la raza” ospa-



tzen eben, arik eta Zakarias Bizkarra Gotzain euskaldunak lotsakizun ori kentzeko "día de la Hispanidad" izena emon arte.

## 22.– TXOMIN AGIRRE (1864-1920)

Ondarroa´ko semea. Biotz onekoa ta buru argikoa. Ogei urtekoa zala Gasteiz´ko seminariora joan eta ikasketa laburrean filosofia ta teolojia egin ebazan. Nota onak atera eta odol gorriko Azkue izan eban lagun. Bera odol zuri-koa zan.

Lenengo mezea Urkiola´n emon eban eta laster izendatu eben Zumaia´ko lekaime karmeldarren kapellau eta antxe igaro eban bizitza osoa. Erririk eri be ibiltan zan itzaldiak egiten.

Euskerea ondo ekian umetatik eta gero gorengo euskalzaleen lagun egin zan.

1918n. urtean Euskaltzaindia sortu zanean, an egoan bera be eta euskera-saillearen arduradun egin eben.

Idazle ugaria dogu. Bere lanik urtenenak: 1) Auñamendi´ko lorea: Iparraldeko arazoai buruz, elebarri abertzalea, frankoen aurka, (ez Nabarro Villoslada´ren bidean). 2) Kresala: Bizkaieraz elebarririk onena, irakurri kitolis eta ekaitza, ederra benetan!. 3) Garoa: Oiturazko euskal elebarria gipuzkoeraz, kresala baiño ohea.

Jose M<sup>a</sup> Pereda´k, oituren arloan, elebarri bi idatzi ebazan, Peñas Arriba mendikoa eta Sotileza itxasokoa. Antzera gure Txomin´ek be, Kresala itxasokoa eta Garoa basokoa..

IRITZIAK: Orixek: "Euskera garbia eta ugaria du". P.Lhandek: "Garoa da gure Txomin´ek idatzi duan libururik ederrena". Baiña Kuschwich´ek idazle onen lanai "vuelos gallinaceos" diñotse.

Olerkietara be sartu zan Txomin. Ona emen bat, bere euskerea aztertu al izateko

### GERNIKA´RI

Nire biotzak zuretzako dau  
bere tokitik onena;  
mundu guztiko errietatik,  
Gernika, zaitut maitena  
eta zelan ez, baldin ba´zara  
erririk euskaldunena  
ta aman aotik kantu gozuan  
ikasi neban izena.

Nik ez nekian nun zan Gernika,  
ume nintzala oraindik,  
ta irudimenez ikusten neban  
(ameslari bat izanik)  
andre zabal on baten gisara,  
ibar berdean jarririk  
uri eder ta zuri garbi bat  
Aritzak kerizpeturik.

Gaur ikusten dot Gernika´rentzat  
esperantzaren argia;  
eskol´onetan barriz barriro  
ereingo da birtutia.  
Ta itxaro geinke Jaungoikuagan  
egun obak ikustia.  
Miraritsua fedia da-ta,  
emen ba-dago fedia.

### 23.– TORIBIO ALZAGA (1861-1941)

Goazen antzerkigilleak aztertzer. Ba-daukagu Iparraldeko pastoralen altxor aundiaren, Europa´ko altxor aundiena erdiaroan danaren albistea, baita Pedro Ignazio Barrutia aramaioarrarena be, bere antzerki-lana “Gabo-netako Ikusikizuna” dala. Baiña antzerki-lanak aurrera doaz gure elertian. Ona emen antzerkigille ospetsu batzuren izenak: Soroa, Artola, Azkarate, Uranga, Iraola, Alzaga, Gorostidi, Mokoroa, Zapirain, Barriola ta beste asko.

Toribio Alzaga donostiarra dogu eta karlostarren guda zala-ta Ziburu erritxura erbestera bear izan eban. 13 urtekoa zala antxe asi zan Soroa´ren agin-dupean antzerkiak egiten: Lenengoa “Aterako gara” izan zan (1888), saritua eta sarritan antzeztua, 12 bider argitaratua. Beste 30 antzezlan idatzi ebazan.

Gero Donosti´ra etorri zan eta gazteakaz eleiz-giroan jarraitu eban lan ori. Operak be egin ebazan.

ERITZIAK: Atzerkigillerik onena dala diñoe gaur ago batez.

Orixe´k: “Euskal teatroa Alzaga´k oial-zapietatik atera eban”.

Mitxelena´k “Antzerki jator zerrenda eder galanta” aitatzen dau eta komeri atsegiñak be bai.

### 24.— BUSTINTZA´tar EBAISTA (1866-1929)

Urkiola-barrenean dagoan Mañari´n jaio zan eta Kirikiño artu eban goitize-  
nez.

Lenengo ikasketak errian egin ebazan eta gero Durango´n.

1878n. urtean Almansa´ra joan zan sendi osoa. An amaitu ebaza 1º mai-llako ikasketak eta batxillerra ikas-nota onakaz.

17 urtekoa zala Madrid´era joan zan goi-maillako ikasketak egiteko

1811n. urtean Siguentza´n egoan matematikak irakasten.

1899n. urtean pozik etorri zan Bilbao´ra eta arrezkero emen bizi izan zan.

Azkue´k artu eban lagun, aldizkaria zuzentzeko.

Irakasle lez ona ta bizkorra izan zan, irakasle baiño lagun geiago.

Azkue´ren orde zegoan lau urtean Aldundiaren ikastolan eta gero beste  
ogei urte bere ardurapean. Euskera ez ekien askok ikasi eban.

Izlari lez be ona zan eta jaietan naiz mitiñetan egiten eban berba.

IDAZLE: Idazkera gozoa ta errikoia da Kirikiño´rena

Ona emen bere lanik gurenak:

1) Abarrak (1918). Ogeta bat ipuin dira.

- 2) Bigarrego abarrak (1930) 43 ipuin eta 3 olerki.
  - 3) Abarrak... eta abar (1966)
  - 4) Antzerki-arloan: Anton berakatz, Azeriari azeri, Lelo, Txomin Arraio,, Meza barria.
  - 5) Olerki politak.
- Ona emen ipuin baten zatia, zatika aukeratuta:

### ATXURIKO “MILAGROA”

Bilbo´tar barregarri batzuk iragarri eben bertako izparringi baten, eztaikit nongo erritan il zala atso aberats bat eta milla ogerleko batzuk itzi ebazala Bilbao´tar erren edo kojoei bananduteko.

Eldu zan eguna. Atxuri´ko etxe aretan agiri zan atarian mai bat, beronen ganian tintontzia ta ingiak, iru jarleku, baztarrian zorro batzuk eta iru gizon piperra baiño serioago.

Asi ziran kojuak agertzen kalia. Geienak makulu bigaz eta anka bat dingiliz.

Iragarrita egoan ordurako, kale guztia aurkitzen zan errenez beterik.

Atea zabaldu zanean, tximista baiño ariñago urten zan andik, zer uste dozue? Zezentxu bat!!.

Nok azaldu an izan zan usubillua... Ango ariñeketak, kojuak izan arren! Kalia makillakaz eta burtxoz beterik gelditu zan... Milagrua izan zan.

### 25.– ORIXE ( Nikolas Ormaetxea) (1888-1961)

Gipuzkoa´ko Oresa errian jaiotako eta Añorga´n il Orixerik deritxogun euskalduna eta idazle aundia. Umetan Naparroa´ko Uzi´ra eroan eben eta an azi zan. 17 urtekoa zala josulagunen artera sartu zan eta Loiola´n nobiziadua egin, Burgos´en klasikuak ikasi, Oña´n filosofia iru urtetan. Lagun izan eban Zaitegi eta aurten jaiotatik eungarren urtea ospatzen jakon Lauaxeta. Onak zori txarragoa izan eban.

Comillas´en, Carrion de los Condes´en, Muskaria´n eta Xabier´en irakasle izan zan eta 1923n. urtean urten eban Jesus´en Lagundi´tik.

Azkue´k artu eban lagun zortzi urtetan baiña 1931n. urtean bere etxera joan zan Euskaldunak olerki ederra idaztea amaitzeko.

Gudaldian bereak eta bost ikusi bear izan ebazan eta Frantze´tik Ameriketara joan bear izan eban (Arjentiña, Txile, Peru, Bolibia, Salvador izan ziran bere egon-lekuak

1954n. urtean etorri zan andik eta azkenean Zabalegi´n bizi izan zan.

Komillas´en irakasle zala egin ebazan lenengo olerkiak, itzaldiak egiten eta izparringietan idazten be ugaria ta ona izan zan.

Ona emen bere idazlanik ezagunenak:

- 1.- Elertiaren edestia.
- 2.- Santa Kruz apaiza.
- 3).-Tormes´ ko itsu-mutilla.
- 4.-Mireo.
- 5.-Barne-muiñetan (mistika).
- 6.-.Urte guztiko meza-bezperak.

- 7.-Euskaldunak.
- 8.-Kito´n arrebeagaz (mistika)
- 9.-Augustin deunaren aitorkizunak.
- 10.-Lau ebanjelioak.
- 11.-Salmoak.
- 12.-Jainkoaren billa (mistika)
- 13.-Latiñaren joskerea.
- 14.-Euskal izkera.
- 15.-Euskaldunak poema (699 orrialde)

IRITZIAK:1.- Alzola´k: Orixe aztertzen asi baiño ez gara egin.  
 2.-Ibiñagabeitia´k:Meza-bezperak “iñoz sortu dan eleiz-libururik bikaiñena” euskera errikoa ta aberatsa.  
 3.- Mitxelena´k: “Euskaldunak poema... gure artean ondu dan eder-lanik larriena.”  
 Eta, amaitzeko, ona emen bere olerkitxu bat:

Elurren zuriak  
 atsegin ematen,  
 baiñan arpegi ori  
 atsegiñago den.  
 Ene! Laiño beltza  
 lurrera jetsiten...  
 Elurren zuria  
 bereala jaten.

Zergatik artu den  
 besteren esana?  
 Laiño arnas itzak  
 beztu au, laztana.  
 Ez den etorriko  
 iñor iregana:  
 neretzat ere ez aiz;  
 biontzat, au lana!

## 26.– OTXOLUA (BERNARDO MARIA GARRO) 1891-1960)

Mundaka´n jaioa zan eta umetatik euskerea ondo ikasi eban.  
 Bilbao´n egin eban Komertzio-karrerea eta 18 urtekoa zala Argentina´ra joan zan. Zazpi urte igaro an eta 1917n. urtean barriro Mundaka´ra etorri jakun.

*ZER IDATZI EBAN:*

Lenengo euskal liburu eta aldizkari asko irakurri ebazan eta, beti, esaldirik ederrenek aukeratzen ebazan, baita errian entzuten ebazan esaldirik jatorrenak be.

Orrelan, punterengo idazlea izatera eldu jakun.

Palindromoak dira bare bereizitasunik aundiena. Aurretik atzera naiz atzetik aurrera bardin irakarri leikezan esaldiari emoten jake izen ori eta olakoen moltzo bat, Kirikiño´k eratu eban leiaketa baterako bialdu eban. Orrelan sartu zan idazle Euzkadi aldizkarira, errietako albisteak bialtzeko

Oneik dira bere lanik beiñenak:

- 1.- Bertoldo ta Bertoldin (1932).
- 2.-Biar Donibane´ra (1929).
- 3.-Barbier´en ipuiñak (bizkaieratuta)
- 4.-Abere-ipuiñak (inglesetik)
- 5.-Euskalerriko abere ta piztiak.
- 6.-Lau Ebanjelioak (Argitaratu barik, Goma´renak)
- 7.-Olerki batzuk (inglesetik eta portugaleratik)
- 8.-Toki-izenak (1958) Amaitu barik itzi eban.

IRITZIAK: Orixe´k esan eban:“Euskalerrri guztiko idazleen artean txukune-nateriko bat”

Ona emen zatitxu bat:

### **Bertoldin´en okerrak**

“-Ba-dakit, ene jauna, esan dagitsudanean asarre gorritan jarriko zareana, ta artez be artez egingo dozu. Baiña, ez ete zan obeto izango, edonoren irri-garri izateko gu ona ekarri barik, gure maurtubetan gu bizi izaten iztia, leku-botan ibilteko tentel-ergel batzuk baiño ezkara gu izan be ta?

-Baiña zer da mutil onek egin dautsun erakusmeneko okerreri ori?

Orduan Markolbe´k lotsarren ozta, Bertoldin´ek egiñiko diabrukeri guztiak edestu eutsazan:ugarasijua dukatak urmalera (piscina) jaurti eutsezana;ogiaz be bardin egin ebana, arrañak urunaz itsutu gura izan zituzana, eta azkenez, kumak aterazoteko antzar lokearen otzaren sartu izan zana. Eze-ban bakaldunak barre gitxi egin eurok entzutian! Zati baten ekin eutsan are-tara ta azkenian, jezarrita be ezin egonda, jagi zan aulkitik eta oindiño barre-ka...

## **27.- LIZARDI (JOSE MARIA AGIRRE) 1896-1933**

Zarautz´en jaio ta Tolosa´n bizi. Madrid´en ikasi eban legedia (1917)

1923´an ezkondu zan Frantziska Izagirre´gaz

Umetako euskerea aiztu egin jakon, batxillerragaz batera barriri eskuratu eban.

1916n. urtean asi zan idazten Eusko Deya´n eta 1927n. urtean Arrasate´n egin zan Euskerearen Egunean biurtu zan ospetsu.

1930n. urtean, Errenderi´ko Olerti-egunean iru olerki aurkeztu ebazan. Sariak lortu be bai.

Bere liburuak:

1) Biotz-begietan (1932). 168 orrialde, olerkiak euskera ederrean. Orixe´k egin eutson itzaurrea eta auxe diño: “Gurean orain-arte ez du izan kiderik”

2) Umezurtz-olerkiak: (1934) Bera il eta gero agertuak.

3.-Itz lauz(1934): Itzaldiak eta idaz-lanak.

4.-Iru antzerki.

### Ona emen olerki bat:

Anitz egunez, ez gera alaitu  
lurtarrok. Goien sar egin baitu  
Euri´k Euzki giltzapean;  
yaun orail eder, legorteen aita,  
katez loturik egona baita  
odei guztien sabelean.

Gaur, orra agiri, tarteka urdiña...  
Sor zait barruan larrera-miña;  
ta, aspaldi ez-ta, mendi-aldi,  
bete ditzadan argiz begiok;  
eten zain-giar lotuegiok;  
bularra asetuz noan geldi.

Badut zalantza zein giro izaki;  
otzaren aala danentz obaki;  
ikus ezpaidut Udaberri...  
Baiña, bat-batez, gain-bera, maldan,  
moltso zuri bat... Elur ez al dan,  
loreak ote... aal igerri?

Ari beltz oker naasi sareak  
eundaka atzitu ditu loreak?  
Elur malutak? mitxeletak?  
Itxon: txori bat, zear, egaka  
dabil kabigai-lorrez, esaka:  
-Gaur dira gure maite bestak!

### 28.– LAUAXETA (Esteban Urkiaga) (1905-1937)

Laukiniz´en jaio zan baiña umetatik Mungia´n bizi.

Abade izateko ustez Durango´ko josulagunen artera joan eta an josulagu-  
na izatea erabagi eban.

Loiola´n egin ebazan urte batzuk ikasten, gero Oña´ra joan zan. Ikaskide  
ospetsuak euki ebazan:Zaitegi, P.Mugika, Orixe be inguruan bai. Aita Herran-  
donea´k kendu nai izan eutsoen euskal-zaletasuna baiña alperrik, talde  
osoak asi eta jarraitu eban Ikastetxe Nagusirako idazle greko eta erromata-  
ren libururik ezagunetan euskeratzen, esaterako Zaitegi´k euskeratu eban  
Plato.

Baiña abadetza artu baiño lenago gurasoen ondora biurtu zan eta emen  
jarraitu eban ikasten eta idazten.

Guda sortu zanean, arlo garratz onetara sartu-bearra etorri jakon eta Ger-  
nika´n, erria erre eta gero erbesteko izparlari bateri erakusten ebillala atxillo-  
tu eben eta Gasteiz´ko karmeldarren etxera eroan.

An jarraitu eban idazten: Amar bat olerki, beste amar eskutitz, bere testamentua (erderaz) eta marrazki batzuk egin ebazan. Aita Moreno josulaguna izan eban beti ondoan, ilteko eroan ebenean be bai.

Il baiño iru egun lenago atera eben andik eta Santa Isabel illeriko orma-ondoan il eben, ogeta amabi urtekoa zala. Asko jazan bear izan eban Orixe ´k guda zala-ta, baiña Lauaxeta ´rena txarragoa gertatu zan.

Zori txarreko Garcia Lorke ´gaz artu-emonak izan ebazan.

Aurten beteten dira 100 urte jaiotzetan eta mungiararak aundikiro ospatzen diardue urte guztian.

Olerkigintzan Orixe ´ren eta Lizardi ´ren maillakoa dogu.

IDAZLANAK:1) Bide barriak(1931) 42 olerki.2)Arrats-beran (1935) 40 olerki.3)"Euzkadi"ko euskal atalean asko idatzi eban.4) Mitiñak eta itzaldiak Euskalerri osoan.

IRITZIAK: Aitzol ´ek:"Biotz legunekoa bera,barru barrutik irtendako trebatasun miña eta apaltasun meea"

Mikel Zarate ´k:"Fedearen argitan erakusten dausku giza-bizitzaren misterio arrigarria"

Ona emen olerki bat, parnasianismoaren usaiña dauana.

## ZELAIETAKUA

Zelaira dua neskatxa:  
-axia dabil loretan.  
Zelaira dua neskatxa  
maitasun-kanta kantetan.

Argi daukazuz begiak,  
gorputza dozu liraiña:  
abestu daigun bi-bijok  
Abestu daigun zelaian  
soin orren lili-usaiña,  
millazkaen antzo dantzan.

Zelaira dua neskatxa:  
-erliak mur-mur loretan-.  
Zelaira dua neskatxa  
Maitasun ona topetan.

Dantza-dantzari bedartzan,  
ete gara udabarrian?  
Ara txindor bi zugatzen.

Txirula ta danboliña  
Entzuten dira mendian.  
Zerua dago ostiña!

Zelaira dua neskatxa:  
-ingumak dar-dar loretan-  
Zelaira dua neskatxa  
maitasun deuna gordetan.

Barre dagigun leunkiro,  
barre auxe dan ixilla!  
Tanbolin, abil, astiro!

Mendiko axe biguna,  
ator zelaira lora-billa,  
lorak eta maitasuna.

Zelaira dua neskaxa:  
-axia dabil loretan-  
Zelaira dua neskaxa;  
-urretxindor bi kantetan!-

(Lauaxeta)

## 29.– AITA SANTI ONAINDIA(1909-1996)

Amoroto´n jaio zan eta Larra´n, Markiña´n, Gasteiz´en eta Begoña´n egin ebazan ikasketak. Gero, guda-aurretik eta ostean Hoz de Anero´n (Santander), Gasteiz´en, Logroño´n eta Eibar´en egon zan. Guda ostean eriotzarako epaia emon eutsoen Gudarien kapellau izan zalako, baiña ez zan betetu -eta espetxetik urten ebanean bere nagusiak Hoz de Anero´ko basamortura bialdu eben, "abitua garbitzeko".

Toki orreitan igaro ebazan amabi urteak izan ezik, bizitza osoa Larra´n igaro eban

1926n. urtean asi zan idazten Euskal Esnalea´n, 17 urtekoa zala. Gero Teresatxu deunaren bizitzea idatzi eban, baiña au galdu egin da.

1951n. Urtean atera eban liburu eder bat "Milla olerki eder". Guda-ostean lenengo liburua izango da, baiña baitu egin eutsoen eta neskame garbitzailleak atera ebazan batzuk. Gaiñera erbestetik zorion-eskutitzak artu ebazan: Agintariak erbestera bialdu ebazan libururen batzuk, euskerearen alde jokatzen dabela sinistu-erazoteko.

Urte orretan asi zan gero Karmel birtuko dan Karmengo Amaren egutegia ateraten Hoz de Anero´n nagusi zala.1959n. urtean asi zan Olerti argitaratzen.

65 liburu inguru idatzi ebazan. Eskuartean erabilten dogu 5 ale daukazan Euskal Literatura´ren edestia.Ale bat falta da amaitzeko eta gertu ei dago. Atera-bearrekoa da. Geroago laburpen oso egoki bat argitaratu eban ikastoletarako, baiña au "h"rik ez eukalako, alboratu egin eben ikastoletatik jaurlariak.

Aldizkarietan asko idatzi eban: Euzkadi,Eguna,Ekin,Karmel, Eusko Gogoia, Zeruko Argia, Olerti, Goiz-Argi, El Bidasoa, Jesus´en Biotzaren Deia, Agur, Príncipe de Viana, Zer, Gure almanaka.

Euskerazaintza´ren batzarretara utsik egin barik etorten zan.

Olerki lirikuak egiten be ona zan. Ona emen bat:



## BEERANTZA?

Beera oa, eguzki on,  
ortzi zear beerantz...  
Beera baita, ene erria!  
Norantz ote? Norantz?

Ik azken izpiak aulduz,  
mendi-bestaldetik  
illargia arnas jori,  
or jaikiz jadanik.

Eta ik, ene erri erria,  
berantza jotean,  
ba al duk norbait goraka  
arnasa betean?  
Illunetik jaikiko ote,  
eguzki antzera,  
orren bizi opa dugun  
askatasun txera?

Bi eskuak alkar-tente  
otoitzari nago,  
urretxindorrek goizari  
baiño be miñago.

## V. ALDIA: BATU BERRI TA ERIBIDE

### ETA 30.- GAURKO GIROA TA IDAZLEAK

Gure elertiaren aroak onelan banatu doguz:1).-Idazki zarrak.  
2).-Iparraldeko Liburu-idazle zarrak.-3).-Larramenditarrak.-4)Euskerearen  
barrikuntza:Azkue ta Arana. Eta 5).-Gaurko giroa.

Azkenengo aro onetara sartzen gara orain, baiña idazle asko eta onak  
daukaguzan lez, ez dogu besterik egingo euren izenak aitatu baiño. Ez aitzu  
“ez dagoz danak” eta dagozenak ez dira danak onak izango.

Gure giro au izendatzeko idazpuru au artu dogu ;”Batu berri” eta “Erribide”  
Aldi onetan,1968n. urtean erabagi eban Euskaltzaindiak euskera batua  
("h" ta guzti), ez akademi.batzar baten, ondo afaldu-oste baten eta autarki  
barik batzar zaratatsu baten baiño.

Arrezkaro gure idazleak zati baitan bananduta dagoz. Euskaltzaindiak  
agintarien eta erakundeen babeseta eta dirua lortu dauz eta besteak txirotasu-  
nean bizi gara, baiña 1978n. urtean Batua aztertzeko Bergara'n batzarra

egin zanean an izan giñan. Ez euskuen jaramonik txikienik be egin eta gure geure bidea artu eta Euskerazaintza sortu gendun.

Alde bietan daukaguz idazle asko, baiña sarritan ez da jakiten zein non-goia dan. Nik zerrenda biak agertuko dodaz eta parkatu okerrak eta utsak.

## **BATU BERRIKO IDAZLEAK**

Imanol Berriatua, Luis Villasante, Piarres Txarriton, Martin Ugalde, Xabier Gereño, Amatiño, Txillardegi, Patxi Altuna, Alfontso Irigoien, Jose M<sup>a</sup> Satrustegi, Mikel Zarate, Jose M<sup>a</sup> Aranalde, Imanol Laspiur, Salvador Garmendia, Markos Amundarain, Joseba Intxausti, Juan M<sup>a</sup> Torrealdei, Rikardo Arregi, Xabier Kintana, Jose Luis Lizundia, Angel Zelaieta, Mikel Atxaga, Jabier Amurritza, Telesforo Monzon, Aniceto Zugasti, Krutwicks, Juan San Martin, Juan M<sup>a</sup> Lekuona, Biktoriano Gandiaga, Gabriel Aresti, Mikel Lasa, Luis M<sup>a</sup> Mugika, Jose Azurmendi, Paulo Iztueta, Xabier Lete, Ramon Saizar Bitoria, Ibon Sarasola, Jon Etxaide.

## **ERRIBIDEKO IDAZLEAK**

Julene Azpeitia, Joxemiel Barandiaran, Gabirel Manterola, Norbert Tauer, Alejandro Larrakoetxea, Hipolito Larrakoetxea, Julen Yurre, Anjel Irigarai, Justo Mokoroa, Lino Akesolo, Oskillaso, Etxaburu, Xabier Peña, Manuel Estonba, Jose Antonio Loidi, Iñaki Goikoetxea, Eujenio Agirretxe, Nikolas Alzola, Aita Intza, Anastasio Arrinda, Abeletxe, Antonio Arrue, Maria D. Agirre, Umandi, Balendin Enbeita, Ramon Murua, Plazido Mujika, Txanton Goria, Estanis Urruzola, Jon Beistegi, Luis Egia, Gotzon Garitaonandoa. Jon Oñatibia, Manu Oñatibia, Dunixe Oñatibia, Bixente Latiegi, Jose anjel Irigarai, Josu Arenaza, Felix Bilbao, Karmelo Goikoetxaundia, Juan Anjel Etxebarria, Anastasio Albisu, Nemesio Etxaniz, Errobustene Muxika, Manuel Lekuona, Pierre Lafitte, Iñaki Olabeaga, Txomin Jakakortajarena, Eusebio Erkiaga, Paulin Solozabal, Paulo Atutxa, Sabin Muniategi, Aurraitz, Basarri, Kerexeta, Bordari, Pedro Anasagasti, Jesus Gaztañaga, Jose Agustin Orbegozo, Antonio Bilbao, Labaien, Augustin Zubikarai, Martin Olazar, Martzel Andrinua

## **EUSKERAZAINTZAREN SORTZAILLEAK**

Orain Euskerazaintza, Euskerearen Erri-Akademiaren sortzailleak izendatuko dodaz oore aundi lez: Agirre M<sup>a</sup> Dolores, Akesolo Liño, Arrinda Anes, Arzelus Amale, Azurtza Jose Joakin, Barandiaran Gaizka, Elozegi Jesus, Jakakortajarena Txomin, Kerejeta Jaime, Latiegi Bixente, Olazar Martin, Onaindia Alberto, Onaindia Santi, Oñatibia Dionisio, Oñatibia Jon, Oñatibia Manu, Orbegozo Jose Agustin, Puxana Pedro, Solozabal Paulin, Sukia Anjel, "Uxola" Estanis, Zatarain Anborsi, Zubikarai Augustin, Zubiri Iñaki.

**Olazar'tar Martin'ek**

**BIXENTE LATIEGI-ri (G.B.)**  
**(1919-2005)**

Nola irauli emen  
nire oroimena ?  
Bixente lagun zintzo,  
maixutan leenena.  
Batzarretan ez zaude,  
ta guk, auxe pena !!!  
Euskerazaintza-k ez du  
leen zuen kemena.

Elizaren kondaira  
euskeraz emana,  
zortzi liburu aunditan,  
ortxe dago dana.  
Ainbat urtetan zuk, bai !  
egiñiko lana,  
Zerutik zure atsa  
betor guregana.

Joan zera gure ondotik,  
an zuk Aita ona,  
eliz-gizona izanik,  
fededun pertsona.  
Fede sendo orretan,  
or zeure sakona,  
Euskaltzale jakintsu,  
nolako gizona !!!

Lankideak galdurik  
abe sendoena,  
agur Bixente maixu,  
bertsoz asperena,  
Euskera lantzen, zu bai !  
onetan onena,  
izan bezazu orain,  
betiko atsedena.

**Joxemari Murua-k**